

---

# ETAren armagabetzean eta desegitean Eusko Jaurlaritzak egindakoaren deskribapena eta balorazioa

---

Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta  
Giza Eskubideen Institutuaren artxibo  
historikoan gordetzeko egindako txostena

2019ko urria

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
Giza Eskubide, Bizikidetzaren  
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA  
Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación

---

## Aurkibidea

---

Aurkezpena.

---

Lehen zatia. Deskribapena.

### **ETAren armagabetzean eta desegitean Eusko Jaurlaritzak egindakoa.**

(Epea: 2012ko abenduaren 15etik 2018ko maiatzaren 5era)

---

<b>1.</b>	Aurrekariak.	9
1.1.	M-11.	9
1.2.	Aurretiko gertakariak.	9
1.3.	Nazioarteko eragileak.	12
<b>2.</b>	Lehen urratsak: 2013ko urtarriletik 2014ko otsailera.	13
2.1.	X. Legegintzaldiaren hasiera.	13
2.2.	Bilera garrantzitsu bat.	13
2.3.	ETAren “miniarmagabetzea” 2014ko otsailean.	14
2.4.	Lehendakariaren babesaren Madrilgo Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari.	16
<b>3.</b>	2014ko otsailetik 2016ko udazkenara: bi urte eta erdiko goi-lautada.	17
3.1.	Emaitzarik gabeko bilera ugari.	17
3.2.	Eusko Jaurlaritzaren jardura bakegintza eta bizikidetzaren esparruan goi-lautadako epe honetan.	18
<b>4.</b>	Presoen gaia.	22
4.1.	Espektatiba kontraesankorren testuingurua.	22
4.2.	Hitzen eta ekintzen arteko distantzia.	23
4.3.	Eusko Jaurlaritzak egindakoa.	23
4.4.	Paradoxak.	24
<b>5.</b>	Armagabetzea.	25
5.1.	Eusko Jaurlaritzaren proposamena.	25
5.2.	Gutxietsitako eta deskalifikatutako beste proposamen bat.	27
5.3.	Luhusoko kapitulua.	28

---

5.4. Apirilaren 8koaren prestatze-lanak.	28
5.5. Desadostasunak azaleratzen dira Bakearen Artisauekin	30
5.6. Sei egun zail eta funtsezko bilera Moncloan.	32
5.7. Harremana Frantziako Gobernuarekin.	33
5.8. Eraitzen balantzea.	34
5.9. Armagabetzearen astea.	36
<b>6. Desegitea.</b>	<b>40</b>
6.1. Egoeraren erradiografia.	41
6.2. Eusko Jaurlaritzaren gutuna.	43
6.3. Aldaketa-ameskeriak espetxe-politikan.	43
6.4. Eusko Jaurlaritzaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan berriaren kudeaketa.	45
6.5. Espekulazioek jarraitzen zuten desegitearen datekin eta zehaztapenekin.	48
6.6. ETAren erabaki-prozesua.	49
6.7. ETAren azken-aurreko komunikatua.	50
6.8. Eusko Jaurlaritzaren jarrera hartzea.	52
6.9. Desegitearen eszenografia.	53
6.10. Bertizko Adierazpena.	54

---

## Bigarren zatia. Balorazioa.

### **Azken gogoetak eta ondorioak.**

---

<b>1. Azken gogoetak.</b>	<b>61</b>
1.1. Eusko Jaurlaritzak izandako zereginaren inguruan.	61
<b>2. Ondorioak.</b>	<b>64</b>
2.1. Eusko Jaurlaritzak hartutako jarreraren eraginari buruz.	64
2.2. ETAren amaieraren esanahiari buruz.	64
<b>Eranskinak.</b>	<b>67</b>



# Aurkezpena

---

ETA behin betiko desagertu izana, atzean utzitako sufrimendu guztiagatik, geure herriaren historian garrantzi izugarria duen gertakizuna da. ETAren hazia 1958. eta 1960. urteen artean jaio zen; bere sorreraren aktak 1959ko uztailaren 31ko data dauka. Gehien iraun duen munduko erakunde terrorista izatearen ohore tristea dauka. Bere azken aldia ia 7 urtez luzatu zen, 2011ko urriaren 20tik –indarkeriaren etetea adierazi zueneko data– 2018ko maiatzaren 4ra –bere desegitea gauzatu zuen eguna.

ETAren amaieraz gogoeta egiteak garrantzi pedagogiko handia dauka iraganaren, orainaren eta geroaren gainean. Txosten honen azkeneko ondorioetako bat, hain zuzen, –eta lehen lerro hauetatik aurreratzea komeni dena– bere izaera pedagogikoa da. ETAren amaiera inoiz gertatu behar izan ez zuenaren berrespena da. Indarkeria erabiltzea –beste pertsonen giza eskubideak helburu politikoarekin bortxatzeko ahalmenarekin sentitzea– lehendabizi aldrebeskeria etikoa da, bigarrenik akats politiko izugarria eta hirugarrenik alferrikako eta kalterako asmoa.

ETA amaitu da; baina, arrazoi hauengatik eta utzi dituen zauri humano, sozial eta politiko guztiengatik, bere ondorioen arrastoa oraindik denbora asko luzatuko da: biktima bakoitzaren bihotzean eta oroimean izango du, harreman politiko eta instituzionaletan, memoria- eta hezkuntza-politika publikoetan, eta bizikidetzan eta harreman sozialetan.

Gogoeta-esparru honen barruan, txosten honek ikuspegi bikoitza eskaintzen du. Lehendabizi, ETAren armagabetzearen eta behin betiko desagertzearen helburuari Eusko Jaurlaritzatik garatutako ekarpena jaso eta biltzen du. Bigarrenik, gertakizun hauek interpretatzen dituzten azkeneko ondorio batzuk eskaintzen ditu.

Lan honek jorratzen duen denbora tartea 2012aren abenduaren 15ean eraturako X. Legegintzaldiarekin hasi eta 2018ko maiatzaren 4an amaitzen da, ETAren desagertzearen berrespenarekin. Bi Legegintzaldi hauetan, Eusko Jaurlaritzaren bakegintza- eta bizikidetzajardueraren Plan estrategikoen bidez egon da planifikatuta eta dinamizatuta. X. Legegintzaldian, 2013ko azaroaren 13an, 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Plana<sup>1</sup> onartu zen. XI. Legintzaldian, 2017ko urriaren 10ean, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana<sup>2</sup> onartu zen.

Bi plan estrategikoetan, ETAren desagertzearen xedea bere helburu zehatzen atalean lehendabizikoa da. ETAren armagabetzea eta desagertzea une haietan lehen mailako helburu estrategikoa zela esan nahi du eta, hau lortzea, zuzenean, Eusko Jaurlaritzaren esku egon ez arren, ETAren esku baizik, Eusko Jaurlaritzak erabaki hau bultzatzera, babestera, bizkortzera eta erraztera bideratutako politika hartu zuen beregain, eragin-ahalmenak baimenduko liokeen neurrian.

Lan honek Eusko Jaurlaritzak aipaturako epean gai honetan izandako egitekoa deskribatu eta baloratzen du. Ez du inongo protagonismo berezirik hartu nahi. Zoritxarrez, ETAren amaiera beranduegi iritsi zen inork meriturik hartu nahi izateko.

Bere armagabetzea eta behin betiko desegitea askoren egitekoaren emaitza da, asko eta askotariko ekarpenekin denboran zehar. Askok dira eraginak, batzuk eta besteek aurrera eramanez dituztenak amaiera hori eman zedin. Eusko Jaurlaritzarena horietako bat baino ez zen izan.

Idatzi honen helburua Eusko Jaurlaritzak egindakoa idatziz jasota geratzea da, argitalpen hau Memoria-aren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan uzteko, dokumentua herritarren esku gera dadin eta memoriaren eraikuntzarako balio dezan. 2018ko abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean, amaitu zen idaztea.

---

1 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/bake\\_bizikidetzaren\\_plana.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/bake_bizikidetzaren_plana.pdf)

2 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/1-Plan-de-convivencia.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/1-Plan-de-convivencia.pdf)



---

## **Lehen zatia. Deskribapena**

ETAren armagabetzean eta desegitean  
Eusko Jaurlaritzak egindakoa

(Epea: 2012ko abenduaren 15etik 2018ko maiatzaren 5era)

---





# 1. Aurrekariak

Aurretik adierazi den bezala, txosten honen aldia 2011 eta 2018 urteen artean kokatzen da. Dena den, aldi honetan gertatutakoa modu egokian kokatzeko, denboran urte batzuk atzera egitea komeni da. Data lazgarri ahaztezin bat hartuko dugu abiapuntu bezala: M-11ko atentatua.

## 1.1. M-11

2004ko martxoaren 11n, terrorismo yihadistak lehergailuz betetako motxilak jarri zituen Madrileko lau trenetan. 193 lagun hil eta 2.000 inguru zauritu zituzten. Ebidentzia guztien aurka, Espainiako Gobernuak, Jose María Aznarren agindupean, atentatua ETARI leporatzen tematu zen, nahasmen lehen uneak pasa ondoren ere.

Ekintza hau, beste batzuen artean, ehundaka hautesleen botoen joeran eragin nabarmena izan zuela dirudi. Martxoaren 14an, atentatua gertatu eta handik hiru egunera, Trantsiziotik bederatzigarren hauteskunde orokorrak gertatu ziren. Bere emaitzek José Luis Rodríguez Zapaterori eman zioten Moncloaren giltza.

M-11ko atentatuak ETAren etorkizunaren gain izan zuen giza-, gizarte- eta politika-eragina seguruenik, erabakiorra izan zen. Indarkeriaren erabilerak aurretik erabilitako edozein aitzakia galdu zuen gizartean eta nazioarteko testuinguruan, eta praktika erabat deskalifikatzailea bezala ikusi zen etorkizun posible bakar batekin: bere desagertzea.

Ezker abertzalearen gizarte-oinarrietan eta bere hauteslegoan ere eragin berdina lortu zen. Urtetan ETAren estrategia argi eta garbi babestu zutenen, “konpondu gabeko gatazka politiko baten ondorio ekidiezina” bezala justifikatu edo ulertu zutenen, eta honen aurrean etsipen kritiko edo akritikoan kokatu zirenen artean. Hura akaberan zegoen. Indarkeria terroristaren strategiaren sona galtzea erabatekoa zen.

Seguruenik, ETAn eta bere inguruan eragina zuten pertsonak estrategia terroristari amaiera eman behar zitzaionaren ondoriora iritsi ziren. Hala ere, ETAk 2010eko martxora arte jarraitu zuen eta bere desagertzea ez zen baieztatuko 14 urte beranduagora arte. M-11ko atentatua amaieraren hasiera da.

## 1.2. Aurretiko gertaerak

José Luis Rodríguez Zapateroren lehendabizikoko Legegintzaldian, hurrengoak dira ETAren inguruan gertatutakoak:

### 2004

-2004ko urriaren 3an atxilotu zituzten Mikel Albisu, ETako buruzagi politikoa, Soledad Iparragirre eta euren egitura logistikoko kide guztiak. Kolpe hura eman ostean ere, atxilotu egin zituzten ETAren zuzendaritza beren gain hartu zuten pertsona guztiak: Francisco Javier López Peña, Thierry, 2008ko maiatzean; Garikoitz Aspiazu *Txeroki*, 2008ko azaroan; Aitzol Iriondo, 2008ko abenduan; Jurdan Martitegi eta Aitor Elizaran, 2009an; Ibon Gogeaskoetxea eta Mikel Karrera Sarobe *Ata*, 2010ean; eta Alejandro Zoroban *Xarla*, 2011n. Inoiz baino nabarmenagoa zen ETA ahuldurik zegoela.

### 2005

-José Luis Rodríguez Zapateroren gobernuak, bere aurreko guztiek Adolfo Suarezren gobernuaz geroztik egin zuten bezalaxe, ETArekin harremanetan jarri zen, zuzenean nahiz zeharka, indarkeriari elkarrikeria bidez amaiera emateko aukerak aztertzeko.

-Egoera hartan, maiatzaren 17an Diputatuen Kongresuak ebazpen bat<sup>3</sup> onartu zuen. Ebazpen haren bidez Gobernuari baimena eman zitzaion ETArekin elkarrikerketazeari, baldin eta erakunde terroristak indarkeriari amaiera emateko “borondate garbia” eta hori ziurtatuko lukeen “jarrerak nabariak” erakutsiko balitu.

-Espainiako Gobernuak eta ETAk zenbait hilabetez korrespondentzia trukatu ondoren, ekainaren 21ean egin zen lehenengo topaketa, Genevan, Henry Dunant Elkarrizketa Humanitariorako Zentroaren babespean.

3 Ebazpen-proposamena 80. zba.: [http://www.congreso.es/public\\_oficiales/L8/CONG/BOCG/D/D\\_204.PDF](http://www.congreso.es/public_oficiales/L8/CONG/BOCG/D/D_204.PDF)

---

## 2006

-Harreman eta topaketa horietako batzuk Oslon egin ziren, Norvegiako Gobernuaren babesarekin. Bide horri jarraituz, 2006ko martxoaren 22an ETAk su-eten iraunkorra iragarri zuen<sup>4</sup>.

-2006ko ekainaren 22an eta 23an bi bilera tekniko egin ziren Gobernuko ordezkari batzuen eta ETako kide batzuen artean. Bilera horietako lehenengoa Genevan egin zen, bigarrena Lausanan (Suitza). Emaitzak ez ziren onak izan.

-Hala eta guztiz ere, ekainaren 29an, Zapatero Presidentea Kongresuan agertu zen, eta erakunde armatuarekin elkarrizketak ofizialki iragarri zituen.

-Urte hartako azken lauhilekoan Loiolako Elkarrizketak izenaz ezagutzen direnak gauzatu egin ziren PSOEren, EAJren eta Batasunaren artean. Guztira 12 bilera egin ziren zuhurtasun handiz, 2006ko irailaren 20tik azaroaren 15era arte.

-ETAren eta Espainiako Gobernuaren arteko harremanak porrot egiteko zorian zeudela ziurtzat jotzen zelako aktibatu zen prozesu hori. ETAren indarkeriari elkarrizketa bidez amaiera emateko azken saiakera hilzorian zegoela-eta, PSOEk, EAJk eta Batasunak saiakera hura berpiztea xede hartu zuten.

-Bilera horietan parte hartu zutenen artean akordioa lortu egin zen. Hala ere, azkenean, Ezker abertzalearen ordezkariak jakinarazi zuten, ez zuten akordioa sinatuko, ETAk ez zuelako akordioa on-tzat eman.

-2006ko abenduaren 31n ETAk Barajasko T-4 terminalean atentatua egin zuen, eta atentatu hartan Ekuadorreko bi langile hil ziren, Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacio. Hala, ETAk su-etena hautsi zuen.

## 2007

-Ezker abertzaleak Loiolako akordioa hautsi izanak, eta T4ko atentatuak, ETAren eta Gobernuaren arteko elkarrizketak berpizteko aukera guztiak suntsitu zituzten. Berriro ere, ETAren maximalismoak azken aukera zapuztu zuen. Aldebikotasun formatu baten barruan indarkeriari elkarrizketa bidez amaiera emateko ereduarenak egin zuen. ETAk ez zuen sinetsi nahi, baina etorkizunean indarkeria amaitzeko prozesu oro Poliziak bideratuko zuen, edo alde bakar batek erabakiko zukeen, edo gauza biak aldi berean.

## 2008

-2008ko martxoaren 9an, José Luis Rodríguez Zapaterok berriro irabazi zituen hauteskunde orokor-rrak; hala, 2. legegintzaldiari ekin zion gobernuko presidentea gisa.

-Maiatzean, Javier López Peña *Thierry* ETAren arduradun gorena atxilotu zuten; azaroan, Garikoitz Aspiazu *Txeroki* egitura militarren arduradun gorena; eta, abenduan, Aitzol Iriondo, Garikoitz Aspiazuren ordezkaria.

## 2009

-Handik urtebete eta gutxira, 2009ko maiatzaren 7an, Eusko Jaurlaritzako lehendakaritza lortu zuen beste sozialista batek, Patxi Lópezek, PSEko eta PPko legebiltzarkideen laguntzarekin. EAJk hauteskundeak irabazi zituen boto-kopuruz, baina Legebiltzarrean ez zuen gobernatzeko adina babesik lortu. Hain zuzen ere, Legebiltzar hartara ezin izan zen Ezker abertzalea aurkeztu, bere hautagaitzak legez kanpo zeudelako.

-ETAk Espainiako Estatuan egindako azken atentatu hilgarria urte hartako uztailaren 30ean gertatu zen Balear Uharteetan. Lapa-bomba baten ondorioz Carlos Saez de Tejada eta Diego Salvá guardia zibilak hil ziren Calviá herrian.

-Urriaren 14an Arnaldo Otegi, Rafa Diez Usabiaga, Sonia Jacinto, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Rufi Etxeberría Ezker abertzaleko buruzagiak atxilotu eta espetxeratu zituzten. ETAren aginduei jarraituz artean legez kanpo zegoen Batasuna alderdia berregiten saiatzea leporatu zieten. Hala ere, euren asmoa bestelakoa zen. Ordurako, Ezker abertzalean mugimendu nabarmenak egiten ari ziren

---

4 <https://gara.naiz.eus/idatzia/20060323/art156940.php>

estrategia aldaketa aldebakarra bultzatzeko, eta hala, indarkeria atzean uzteko. Prozesu hari Batera-gune izena eman zitzaion barnean.

## 2010

-2010eko martxoaren 16an, ETAk Jean-Serge Nèrin polizia hil zuen; kasu hartan, Frantziako Estatuan gertatu zen. Hura izan zen ETAren azken hildakoa. Autoen kontzesionario batean lapurtzen saiatzen ari zirela ustekabean hartu zituztenean, ETako hiru kidek tirokatu egin zuten.

-Ezker abertzaleak mahaiatz bestaldean mintzakide guztiak galdu zituen, eta bere buruarekin negoziatzeko fase bati ekin zion. Hala ere, kanpoko laguntza behar zuen. Garai hartan, Ezker abertzaleko buruzagi batzuek, Sinn Fein-eko buruzagi kualifikatu batzuen laguntzarekin, nazioarteko bitartekari batzuei egoera aproposa sortzeko laguntza eskatu zieten, egoera horrek bultzatuta ETAk indarkeriari amaiera eman ziezaion.

-Indarkeriaren amaierarako nazioarteko babesaren zantzuak bultzatuta, bada, ETAk 2010eko irailaren 5ean su-etena iragarri zuen. Su-etena hartan ez zuen “eraso ekintza armaturik” egingo<sup>5</sup>.

-ETAren “ekimen” hari erantzuteko nazioartean egindako gestioen emaitzetako bat Bruselako Adierazpena izan zen<sup>6</sup>. 2010eko irailaren 18an nazioarteko ospe handiko hainbat pertsonak sinatutako adierazpen haren bidez ETARI su-etena iraukorrak eta egiaztagarria emateko eskatu zitzaion.

-Horren haritik, irailaren 25ean Gernikako Adierazpena egin zen<sup>7</sup>. Ezker abertzaleko edo ETAren amaierari laguntzearen aldeko hainbat eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko akordioa. Akordio haren helburua ETARI babes eskaintzea zen, bere amaierarako aldebakarreko erabakia hartzearen ildotik jarrai zezan. Bere helburuetako bat zen nola edo hala babes soziopolitiko eta nazioarteko babes lortzea, aldebiko akordio bat ekarriko lukeen elkarrizketa edo negoziatorako kontrako alderik ez egotearen konpentsazio gisa.

-Ezker abertzaleak prozesu bat bete behar zuen, ETA indarkeriari amaiera ematera bultzatuko lukeen egoera bat sortzeko; prozesu horretarako, bestalde, babes sozialeko azpiegitura sinesgarria behar zen, beste sektore batzuetara heltzeko moduko azpiegitura, Ezker abertzaleak zekarren guztiaz harago. Gauzak horrela, Lokarri gizarte mugimenduak zeregin garrantzitsua hartu zuen. Nazioarteko eragileen eta barneko eragile sozial, politiko eta instituzionalen arteko topaketak eta harremanen engranaje-hortzak koipeztatzen saiatu behar zuen. 2011ko irailean, Aieteko Konferentziaren antolatzailleetako bat izan zen, eta 2013an, Foro Sozialaren dinamizatzaile garrantzitsu bat ere.

-Une hartatik aurrera, nazioarteko eragileekin egindako gestioei esker apurka azpiegitura marraztu zen, bai eta zeregin-banaketa ere, bitartekari ez baina bideratzaile bai izan zitezkeen hiru eragileren artean. Hain zuzen ere, Harremanetarako Nazioarteko Taldearen (GIC), Centre for Humanitarian Dialogue-ren (CHD) eta Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen (CIV) artean.

## 2011

-Ezker abertzalearen barruan gertatzen ari zen estrategia-aldaketaren ildo horren beraren barruan aipatzekoa da 2011eko otsailaren 8an Sorturen Estatutuak<sup>8</sup> aurkeztu izana. Legearen barruan egon ahal izateko, estatutu haietan terrorismoaren berariazko gaitzespena jaso zen, eta terrorismo horren barruan ETA espresuki sartzen zen. Hilabete geroago, Estatuaren Abokatutzak Sortu legez kanpo uzteko eskea aurkeztu zuen Auzitegi Gorenean.

-Nazioarteko eragileek ETArekin egindako gestioen bilakaera, Ezker abertzalearen beraren barruan egindako negoziazioa, eta Lokarrik bultzatutako babes sozial, sindikal eta politikoa lagungarriak izan ziren 2011ko urriaren 17an, Donostian, Aieteko Nazioarteko Konferentzia egiteko. Konferentzia hartan ospe handiko hainbat pertsona bildu zen, besteak beste Nazio Batuetako Idazkari Nagusi Kofi Annan, Jonathan Powel, Bertie Ahern, Pierre Joxe, Gru Harlan eta Gerry Adams. Konferentzia hartan ezaguturazi zen Aieteko Adierazpena, ETAren jardueraren behin betiko etena iragartzeko bidea prestatu zuena.

5 [https://elpais.com/elpais/2010/09/05/actualidad/1283674621\\_850215.html](https://elpais.com/elpais/2010/09/05/actualidad/1283674621_850215.html)

6 [http://cadenaser.com/ser/2010/09/18/espana/1284767417\\_850215.html](http://cadenaser.com/ser/2010/09/18/espana/1284767417_850215.html)

7 [http://gara.naiz.eus/agiriak/20100925\\_gernikacas.pdf](http://gara.naiz.eus/agiriak/20100925_gernikacas.pdf)

8 <http://www.aelpa.org/actualidad/febrero2011/EstatutosSORTU.pdf>

---

-Aurrez ados jarrita erabakitako gertakarien kate baten buruan, handik hiru egunera, 2011ko urriaren 20an, ETAk, idatziz eta bideo baten bidez, "jarduera armatuaren behin betiko amaiera"<sup>9</sup> iragarri zuen.

-Hilabete geroago, azaroaren 20an, hauteskunde orokorrak egin ziren, eta Alderdi Popularrak garai-pen argia lortu zuen; ondorioz, Gobernuak aldatu zen, baita egoera politikoa ere, eta horrek ere eragina izan zuen ETAREN amaieran.

## 2012

-Nazioarteko bitartekariak ETAREN amaiera aldebakarra lortzeko egindako gestioen artean, Rodríguez Zapateroren bitartekariak, Norvegiako Gobernuarekin ados jarrita, ETAko ordezkari batzuek nazioarteko bideratzaileekin Oslon bil zitezela utzi zuen. Harremanetarako irekitako bide horri esker, ETAREN indarkeriaren behin betiko eta aldebakarreko amaieraren ostean, indarkeriaren amaiera ordenatuari buruz argitu gabe zeuden auziei ekiteko etapa bat has zatekeen. Prozesu hartan harremanetan egon zitezkeen Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritza eta Ezker abertzalearen eta ETAREN ordezkariaren bat, alderdi politikoak ere kontuan hartuta. Hala ere, besteak beste gobernu-aldaketarengatik eta Alderdi Popularraren gehiengo osoarengatik, eskema hori apurto egin zen.

-Hala hasi zen 2012. urtea, aurrerapen handirik gabe, Mariano Raxoiren Gobernuaren estrategia-aldaketa hura ezaugarri zela. Aldaketa horren elementurik sinbolikoenetarikoa bat izan zen, hain zuzen ere, hurrengo urtean Norvegiatik kanporatzea nazioarteko bideratzaileekin ETAREN mintzakide aritu zirenak, haien artean Josu Urrutikoetxea.

-2012ko otsailaren 26an Ezker abertzaleak Kurasaaleko adierazpena egin zuen<sup>10</sup>. Iraganari eta ETARI buruzko gogoeta kritikoa egindako jauzi kualitatibo gisa iragarri zen ekitaldi hura. Hala ere, iragarpen haren iguripena zapuztuta geratu zen adierazpenaren edukiaren berri izandakoan. Ezker abertzaleak sentitzen zuen "bere jarrera politikoarekin nahi gabe gehitu duen mina", eta "bere atsekabe zintzoa" adierazi zuen "ETAREN jarduera armatuaren ondorio mingarrien (...) aurrean". Gizarteak eta eragile sozial eta politiko gehienek, hedabide eta erakundeetako eragile gehienek eta biktimek zerbait gehiago espero zuten "sentitzea" baino eta eragindako minarengatik "atsekabea" izatea baino —hori jakintzat jo behar zen, salbu eta gizatasun arrasto bat bera ere ez bazegoen—; aitzitik, ETAREN estrategiak, indarkeria eta giza eskubideen urraketa ezaugarri zituen estrategiak ekarri zuenaren balorazio kritikoa espero zuten. Alderdi horri buruz, Ezker abertzaleak isilik jarraitzen zuen. 2012ko Kurasaaleko adierazpenak ez zuen aurrerabiderik ekarri, eta 2018aren amaiera aldean, txosten hau idazten amaitu den unean, oraindik ere burutu gabeko zeregin bat da, bizikidetzaren normalizaziorantz aurrera egitea eragozten duena.

-2012ko ekainaren 20an, Konstituzio Auzitegiak onartu zuen Sortuk eskubidea zeukala Alderdi politikoaren erregistroan inskribatzeko, alderdi berria Batasunaren jarraipentzat katalogatu ezin zela adierazi ondoren; aitzitik, Ezker abertzaleko alderdi politiko berria zen, indarkeria gaitzesten zuen (baita ETAREN indarkeria ere) eta Konstituzioaren eskakizunen arabera eratu zen. Erabaki hark, bere neurrian, normalkuntza politikan lagundu zuen. Une hartatik aurrera, Ezker abertzaleak legezko alderdi politiko baten ordezkari izan zezakeen.

### 1.3. Nazioarteko eragileak

Aipatu den bezala, 2009tik nazioarteko izaera duten hainbat talde eratzen doaz, ETAREN amaiera-prozesua erraztea saiatzeko ahaleginean. ETAREN, Ezker abertzalearen, eta nazioarteko izen handiko pertsonen artean, batetik; eta zenbait indar politiko, sozial eta instituzional, bestetik, harremanak eta solasaldiak bultzatzen zituzten. Talde horiek ondorengoak dira:

•Harremanetarako Nazioarteko Taldea (GIC): Brian Currin Hegoafrikako abokatuaren burutzagitzapean eta beste pertsona hauek osatua: Pierre Hazan (Suitza), Nuala O'Loan (Ipar Irlanda), Raymond Kendall (Interpol-eko idazkari nagusia 1985 eta 2000 urteen artean), Silvia Casale (London) eta Alberto Spektorowski (Israel).

•Centre for Humanitarian Dialogue (CHD): Jonathan Powell, Britaina Handiko Tony Blair lehen ministro ohiaren kabinete-burua izandakoaren burutzagitzapean. Talde honek Suitzako Henry Dunant Fundazio ospetsuarekin lankidetzan lan egin zuen.

---

9 <https://www.berria.eus/dokumentuak/dokumentua849.pdf>

10 <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20120227/324787/es/CONSTRUYAMOS-LA-PAZ-EN-EL-PROCESO-DEMOCRATICO>

•Nazioarteko Egiatzatze Batzordea (CIV): Ram Manikkaligam, Ronnie Kasrils, Chris Maccabe, Satish Nambiar, Fleur Ravensbergen eta Aracelly Santanak osatutako taldea. Bere hasierako misioa ETAk iragarritako su-etena egiaztatua izateko jaio zen, termino guztietan. Beranduago, misio berria hartuko zuen beregain, armagabetzearen prozesu “aldebakarra” egiaztatzea.

## 2. Lehen urratsak: 2013ko urtarriletik 2014ko otsailera

### 2.1. X. Legegintzaldiaren hasiera

EAJk Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak irabazi zituen 2012ko urriaren 21ean. Eusko Jaurlaritza berria abenduaren 10ean eratu zen. Gauzak horrela, X. Legegintzaldiari hasiera eman zitzaion Iñigo Urkullu Lehendakari zela, hurrengo lau urteak minorian gobernatu behar izanik.

Lehendakariaren lehen ekimenetako bat, Bakegintza eta Bizikidetzareko Idazkaritza Nagusia eratzea izan zen, 2013ko urtarrilaren 29an, Lehendakariaren egituraren barruan eta bere menpe zegoena zuzen zuzenean. Idazkaritza honen helburuak, ETAren amaieraren testuinguruan, ondorengoak ziren: bakea behin betiko sendotzea, indarkeriaren amaiera ordenatua erraztea eta bizikidetzaren adiskidetzaren bultzatzea, memoriarekin eta biktima guztiei errekonozimendua eta erreparazioa eskainiz. Egitasmo hau plan estrategiko bat onartuz eta garatuz artikulatu behar zen.

2013ko ekainaren 11n, 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Plana aurkeztu zen. Bere jardueraren ardatz nagusiak hauek izan ziren: amaiera eraginkorra laguntzea, biktima guztiei eta giza eskubideen urraketa guztiei errekonozimendua eta erreparazio ematea, memoriaren politika publikoa indartzea, espetxe-politika berri baterako akordioak bultzatzea, bizikidetzarako oinarriko adostasunak lortzea eta gizarte elkarretzeko kultura berri batean aurrera egitea.

X. Legegintzaldiaren hasieran, 2012ko abenduan, eta 2013ko lehen seihilekoan, epe motzean, ETAren indarkeria behin betirako etetea bakearen behin betiko sendotzean gauzatzera bideratuta zeuden aurreikuspen, itxaropen eta ilusio guztiak. Testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzak hiru lehentasun nagusi definitu zituen: (1) ETAren armagabetzea eta desegitea, (2) espetxe-politika berria, eta (3) giza eskubideen urraketen gaian, iraganari buruzko gogoeta kritikoa eta partekatua.

Lehentasunen diagnostikoaren oinarri hau hartuta, 2013an zehar, Lehendakariak berak bilera kopuru itzela izan zuen nazioarteko bideratzaileekin zein Ezker abertzaleko ordezkariarekin. Urtarrilaren 28an, Jonathan Powell-ekin bildu zen. Bi egun beranduago, Ram Manikkalingam-ekin. Ekainaren 24an, Bilbon, Sortuko hiru buruzagiekin; bertan, CHDKo bi ordezkariak hartu zuten parte lekuko gisa. Bilera hau garrantzitsua izan zen eta ondorengo hilabeteetan bilera berrietarako bidea eman zien.

Lehendakaria Centre for Humanitarian Dialogue-ko ordezkariarekin bildu zen berriro urriaren 22an eta 23an eta abenduaren 2an, 16an eta 17an. Abenduaren 26an, Rufi Etxeberriaren eta Lehendakariaren artean bilera berri bat egin zen. Bertan, Sortuko buruzagiak preso kolektiboak emango lituzkeen urratsen inguruko informazioa eman zion Lehendakariari, aurretik ezagunak zirenak ere, esate baterako, EPPK kolektiboak egun batzuk beranduago publiko egin zuen komunikatua.

2013ko abenduaren 28an, EPPK kolektiboak komunikatu<sup>11</sup> bat eman zuen aditzera non espetxe-legaltasuna onartzeko prest agertzen zen. Adierazpen horrek berrikuntza zekarren. Dena den, aurrerago ikusiko den bezala, ez zituen aldaketa-ondorio erreala ekarri preso kolektiboaren estrategian 2017ko amaiera arte. Aldez aurretiko jarra berri hura aditzera eman zenetik urrats lotsatiren bat ematen hasi zen arte, lau urte luze baino gehiago pasa ziren.

### 2.2. Bilera garrantzitsu bat

2011ko urrian, ETAk indarkeria behin betiko etengo zuela adierazi zuenetik, X. Legegintzaldiaren hasiera, epe labur batean, ETA behin betiko desgertuko zela berretsiko zuen epe egokia zirudien. Dena den, gertakarien errealtateak aurreikuspen hori zuzentzea ekarriko zuen.

11 <https://www.naiz.eus/eu/mediateca/video/mensaje-integro-de-eppk>

---

Adierazi den bezala, 2013ko ekainaren 24an, eta Centre for Humanitarian Dialogue (CHD) taldeko bi ordezkariak bultzatuta bilera garrantzitsu bat egin zen. Bertan, Ezker abertzaleak, Rufi Etxebarriak, Urko Aiartzak eta Fernando Barrenak hartu zuten parte; eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Iñigo Urkullu Lehendakariak eta Jonan Fernandez Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiak. Bilera horretan, Eusko Jaurlaritzak planteamendu zehatza aurkeztu zuen, ondorengo giltzarrietan oinarritua:

- Indarkeriaren amaiera ordenatuaren aldeko aurrera egitean, PPren Gobernuaren aldetik ezin da urratsik itxaron armagabetze elkarriketatuta baterako ezta espetxe-politika aldatzeko ere. Egin behar dena Euskaditik egin beharko da.

- Epe motzean eta indarkeriaren amaiera ordenatuaren helburuarekin ezinbestekoak dira hiru urrats: (1) ETAREN armagabetzea, (2) ETAK suposatu duenaren iraganari buruzko gogoeta kritikoa (Kursaleko Adierazpenetik haratago): eragindako minaren bidegabekeria aitortzea, eta (3) presoek eta bere inguruaren aurretiko jarrera berria espetxe-eremuan bide legalak erabiltzearen inguruan.

- Hauetariko edozein eremutan aurrera egiteko, pilota eta gauzak mugitzeko ahalmena Ezker abertzalean zegoen batez ere. ETAK armagabetzean eta desegitean aurrera egin ahal izango luke. Ezker abertzaleak iraganari buruzko gogoeta kritikoa egin ahal izango luke eta presoek espetxe- eta gizarteratze-bide legalak onartzearen eremuan urratsak eman ahal izango lituzkete.

- Ezker abertzalea bide hau egiteko prest egongo balitz Eusko Jaurlaritzaren babesa eta laguntza eduki ahal izango zituen prozesu horretan.

(Aldaketa eta ñabardura gutxirekin, 2018ra bitartean analisi berau mantendu du Eusko Jaurlaritzak).

Ezker abertzalearen ordezkariak planteamendua aztertuko zutela esan zuten. Dena den, aipatutako hiru giltzarrien inguruko diagnostikoarekin bat egin zuten eta ETAK zein presoek norabide horretan laister urratsak emateko aukeraren aurrean baikor agertu ziren. Ez zuten baztertzeko ere gogoeta autokritikoren bat une hartan, Kursaleko Adierazpenak ordezkatu zuena baino haratago joan zitekeena.

\*\*\*\*\*

2013aren ekaineko bilera hartan, bileraren edukia eta Eusko Jaurlaritzaren eskaintza ETARI helarazteko baimena eskatu zuten nazioarteko bitartekariak. Bi aldeak bat etorri ziren. Komunikazio horrek ETAK Lehendakariari 2013aren irailean bidaliko zion gutun bat ekarri zuen.

Uda horretan prentsari eginiko “*off the record*” filtrazioak gertatu ziren, Ezker abertzalearen eskutik. Bertan, armagabetzearen gaian eta baita presoek aldetik ere berehala urratsak emango zirela iragartzen zen. Hasiera batean behintzat, uda horretan bertan gertatu zitekeela zirudien; ondoren, irailean edo urrian. Azkenik, urte amaierarako eta 2014ko hasierarako aurreikusten ziren.

Ekainean edukitako bileraren ondorioz, Lehendakariak 2013ko irailean ETAREN gutun bat jaso zuen; bertan, EAJren zein Eusko Jaurlaritzaren eta Lehendakaria beraren aurkako kritika gogorrak eta akusazioak jaurtitzen ziren, eta bere laguntza gutxietsi egiten zen, eragile sozialen, politikoen eta instituzionalen magma baten barruan beste eragile bat gehiago bezala kokatuz (A1 eranskina).

Paraleloan, hilabete haietan, Ezker abertzaleko solaskide baten eta Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiaren artean aldizkako harremanak eman ziren. Ekainaren 24ko bileran jorratutakoari jarraipena eta edukia ematea zen Eusko Jaurlaritzaren helburua. Bilera hauetan argudiatze maximalistekin gutxietsiak izan ziren proposamen kopuru handi bat aurkeztu zituen idatziz Eusko Jaurlaritzako ordezkariak.

Asteak aurrera zihoazen neurrian egiaztatzen joan zen urrats garrantzitsuak emateko Ezker abertzalearen alde aurretiko jarrera –ekaineko bileran antzeman zena– desegiten ari zela. Aurreko posizioetarako atzera egitea antzeman zitekeen. Zoriturrez, une hartan Eusko Jaurlaritzak eskatzen zituen urratsak –eta babes-teko prest zegoena– beranduago ematen joan dira, baldintza okerragoetan ordea eta bost urte igarotzen utzi ondoren.

### 2.3. ETAREN “*miniarmagabetzea*” 2014ko otsailean

2013ko abenduaren erditik, Eusko Jaurlaritzak mezuak jasotzen hasi zen, Centre for Humanitarian Dialogue erakundetik batez ere, 2014ko hasieran, ETAK armagabetzearen esparruan urrats garrantzitsuak eman

zezakeela aurreratuz. Mezuak ohar batekin osatzen ziren: garrantzi erabakiorra izango lukeela Eusko Jaurlaritzak urrats horiek babesteak eta gizarte, politika, ekonomia zein nazioarteko eragileak gonbidatzea aurrerapauso estrategiko gisa ulertzera.

Urtarrilaren 16an eta otsailaren 12an Lehendakariak bilerak eduki zituen CIV erakundearen ordezkariekin, prestatzen ari zena aurreratuz, datarik zehaztu gabe. Otsailaren 18an, Ezker abertzaleko ordezkariekin ere bilera bat izan zuen. Une horretatik aurrera, telefonoz edo posta elektronikoz hartu emanak izan ziren CHD zein CIV erakundeekin otsailaren 21ean gerta zitekeena zehaztugabetasunarekin azalduz. Keinu garrantzitsua izango zela errepikatu zuten, Lehendakariaren eta bere Gobernuaren babesa eskatuz.

Eusko Jaurlaritzak hiru egun baino gutxiagoko aurrerapenarekin mezu bat jaso zuen itxuraz armagabetze-keinu garrantzitsua gertatuko zela adieraziz. Eusko Jaurlaritzari, zehazki, adierazi zitzaiona hauxe izan zen:

- Nazioarteko Egiatzatze Batzordea (CIV) Euskadira etorriko zen ETAK armagabetzearen inguruan emandako urrats “garrantzitsuaren” berri ematera.
- Nazioarteko komunikabide batek, seguru asko, BBC telebistak, emandako urratsaren berri emateko bideo bat botako zukeen.
- ETAK komunikatu bat kaleratuko zukeen urrats hori armagabetze osoaren erabaki atzeraezinaren, baldintzarik gabearen eta behin betikoaren parte zela berretsiz.

Eusko Jaurlaritzak eskatutakoa bete zuen. Gestio zuhur handiak egin zituen benetan armagabetze-keinu garrantzitsua emango zela segurutzat hartzen eta nazioarteko aktoreei estaldura publikoa eman zien. Hala ere, gauzak ez ziren gertatu iragarri zen bezala.

2014ko otsailaren 21ean, Bilboko Carlton Hotelean, Nazioarteko Egiatzatze Batzordearen bilera bat egin zen Ram Manikkalingam buru zuela. Bertan, aditzera eman zen “armen, munizioen eta lehergailuen kopuru zehatz” bat zigilatu eta erabileratik kanpo utzi zuela ETAK. Operazioa filmatu eta ordu batzuk beranduago Britainia Handiko BBC telebista kateak eman zuen.

Prentsaurrekoan, orri bat erakutsi zuen Manikkalingam-ek. Bere hitzetan, “erabileratik kanpo utzitako armen, munizioen eta lehergailuen inbentario zehatza” zekarren orriak. Inbentariatutako materialak ondorengoa zeukan:

#### **Armak eta munizioa**

- G3 fusil luzea.
- Smith&Wesson 22 long rifle pistola.
- Smith&Wesson Lady Smith errebolberra.
- Arminuis HW1G errebolberra.
- 38 bala SP.
- Karga hutseko Hepat 2 granada.

#### **Leherkariak**

- 4,5 kg pentrita.
- 8 kg kloratita: sufrea eta sodio-kloratoa.
- 4 kg sodio kloratu xehatua.
- 10 g nitromanitola.
- 120 m pentritaz osatutako 15 g-ko lokarri detonatzaile industrialak.
- 70 m pentritaz osatutako 12 g-ko lokarri detonatzaile industrialak.

#### **Gailuak**

- AKT atzera kontaketa 2 tenporizadore.
- ET eguneko 3 tenporizadore.
- Dardar lapa-mugimendu sentsore elektronikodun tenporizadorea.
- Merkurio bidezko mugimendu sentsoredun 3 tenporizadore.

---

“*Miniarmagabetze*” –deitu diezaiozun– honetaz grabatutako irudiek, apur bat barregarriak eta, bereziki, bere bolumen eskasak etsipen orokorra eragin zuten. Emandako urratsa bere iragarpenarekin eragindako espektatibetatik urrun geratzen zen.

Dena den, une hartan nazioarteko bideratzaileek jarraitzen zuten esaten ETAk hitz emandako komunikatua, keinua armagabetze osoaren borondatearen parte zela baieztatuz, ondorengo ordu eta egunetan emango zela ezagutzera. Benetan, komunikatu hark zuzenduko zukeen, neurri batean, “keinua” hark eragindako “kalteak”; baina, zoritxarrez, komunikatu hura ez zen publiko egin.

Testuinguru honetan, nazioarteko eragileen gestioei estaldura ematen jarraitu zuen Eusko Jaurlaritzak. Egun horretan bertan, Lehendakariak ondorengo adierazpena egin zuen agerraldi batean:

*“Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak gaur iragarritakoaren harira, Eusko Jaurlaritzak emandako pausoa aintzakotzat hartzen du. Pauso txikia da, ez nahikoa, baina lehena, ezinbesteko armagabetze osoa burutzeko. ETA armagabetze horrekin hasi da, bere aldetik eta baldintzarik gabe.*

*Eusko Jaurlaritzak uste du fidagarria eta ziurra dela ETAREN erabateko eta atzera ezineko armagabetzea lortzeko Egiaztatze Batzordearen bitartekotza. Horrela bada, Batzordearen lanari bere babesa eman nahi dio. Etapa hau etorkizun hurbila eta atzera ezina izango duen ibilbidea da: ETA erabat eta oso-osorik armagabetzea. ETAREN desegitearen ibilbide horretan mugari garrantzitsua bat dago: indarkeriaren ondorioz sortutako kaltea onartzea, eragindako min bidegabea. Eusko Jaurlaritzak lanean jarraituko du oinarri horietan. Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari laguntzen jarraituko du eta hurrengo pausoak kudeatzen lagundu eta babesa emango dio.”*

## 2.4. Lehendakariaren babesa Madrilen Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari

2014ko otsailaren 21ean, ostirala, CIV erakundearen prentsurrekoa egin baldin bazen Bilbon, otsailaren 22an, larunbata, bere sei ordezkariak lokalizatzea agindu zuen Auzitegi Nazionalak, Ismael Moreno epailearen agindua helarazi asmoz, hurrengo egunean, otsailaren 23an, igandea, Madrilen deklaratzera deituz.

CIV erakundeko kideak zitazioarekin harrিতuta agertu ziren. Eusko Jaurlaritzak ere “ulergaitza” ikusi zuen “bake-prozesu batean laguntzera datozen hutsik gabeko ibilbidea zuen pertsona-taldea bat” deklaratzera deitzea. Testuinguru honetan, larunbatetik iganderako gauean, Lehendakariak eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiak Madriler a bidaiatu zuten Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko kideei babes publikoa eta aurrez aurrekoa eskaintzeko.

Epailearen aurrean deklaratu ondoren, ez zen inongo jarduketa judizialik eratorri. CIV erakundeko bozeramaile Ram Manikkalingam-ek komunikabideen aurrean ziurtatu zuen “gardenak izan” eta “justiziarekin kolaboratu” nahi zutela, “bakerako benetako aukera” zegoela uste zutelako.

Lehendakariaren presentziak Madrilen oihartzun politiko eta mediatiko garrantzitsua eduki zuen ustekabekoa izan zelako eta konpromiso maila altua adierazi zuelako. Sen onarekin erantzukizun-ariketa bat izan zen keinu hau. Eusko Jaurlaritzak desadostasunak izan zitzaizkeen Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen jarduera batzuekin, baina ez zuen zalantza arrastorik bere borondate onaz. Bere helburua ETAREN amaieran laguntzea zen. Bere egiteko onak terrorismoarekin bat etortzearen susmo bihurtzeak ez zeukan inongo zentzurik.

\*\*\*\*\*

Egun haietan, Eusko Jaurlaritzaren eta nazioarteko eragileen bilerak biderkatu egin ziren. Otsailaren 21ean eta 22an bi bilera egin ziren CIV erakundeko ordezkariarekin. Otsailaren 26an, Jonathan Powell-ekin izan zen bilera eta, otsailaren 28an, Alberto Spektoroski, GIC erakundeko ordezkariarekin. Gorabehera honen guztiaren gestioan egindako akats guztiak aztertzea eta baloratzea zen kontua.

Akats larriak, benetan gertatuko zenari buruz Eusko Jaurlaritzari informatzerakoan. Akatsak baita armagabetze txiki horrek, Euskadin zein Estatuan, gizartearen, politikaren eta iritzi publikoaren pertzepzioan izan zezakeen eragina baloratzerakoan. Akatsak, azkenik, komunikazio publikoa diseinatzerako orduan neurritasun eskas garbiarekin.



Azken finean, bolumenaren ikuspegitik, armagabetzea oso eskasa izan zen eta kualitatiboki eta kuantitatiboki zerbait desberdinaren itxaropenaren frustrazio bezala bizi izan zen. Bestetik, armagabetzea atzerazina, baldintza gabea, behin betikoa eta osoa izango zela berretsiko zuen ETAren komunikatua ez zen publiko egin. Ez momentu horretan ez hurrengo bi urtetan, aukera horrekin espekulatu zen arren une desberdinetan.

Gertaera hauek nazioarteko bideratzaileek aurrerantzean aurkeztuko lituzketen informazioen, espektatiben edo ikuspegiaren aurrean prebentzio handiagoa eragin zuten Eusko Jaurlaritzan. Hemendik aurrera, fidagarritasun berme handiagoa behar izango zen aurreikuspenetan.

## 3. 2014ko otsailetik 2016ko udazkene-ra: bi urte eta erdiko goi-lautada

### 3.1. Emaitzarik gabeko bilera ugari

“*Ml ni armagabetze*” hark eragin zuen etsipenak goi-lautadako gisa kalifikatu daitekeen epea zabaldu zuen indarkeriaren amaierarako bidean. 2014ko udaberritik 2016ko amaiera artean, ez zen aurrerapen handiegirik eman; baina horrek ez du esan nahi bilera eta gestio ugari garatu ez zenik, desberdintasun batekin izan arren, geografikoki behintzat, bilerak egingo ziren lekuak Euskaditik urrunago egongo ziren.

Auzitegi Nazionalaren zitazioa Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko kideentzat ondorio hau ekarri zuen: CIV erakundeko zein CHD erakundeko kideak Espainiako Estatura etortzeari utzi zioten, ondorio polizialei edo judizialei beldur. Momentu hontatik aurrera, bilerak Europako zenbait hiritan egin ziren. Honek logikoki bileretan Lehendakaria egoteko aukera murriztu zuen erabat, lehendabizi, agendagatik eta, bestetik, bilera mota hauek eskatzen duten diskrezioagatik.

Gauzak horrela, une hartatik aurrera bilera gehienetara Jonan Fernandez Bakegintza eta Bizkidetzarako Idazkari Nagusia joan zen. Bilerak Paris edo Londres bezalako Europako hiri desberdinetan egin ziren CHD erakundeko ordezkariekin, eta Amsterdamen eta Istanbulen ere CIV erakundeko kideekin. 2014ko apiriletik 2015eko ekainera, 8 bilera egin ziren CHD erakundearekin eta 5 CIV erakundearekin. Bilera hauek egin ziren, zehazki.

Data	Lekua eta erakundea
2014ko apirilaren 29a	Paris - CHD (Centre for Humanitarian Dialogue)
2014ko maiatzaren 20a	Paris - CHD
2014ko ekainaren 7a	Londres - CHD
2014ko ekainaren 12a	Paris - CHD
2014ko ekainaren 24a	Paris - CHD
2014ko azaroaren 3a	Amsterdam - CIV (Nazioarteko Egiaztatze Batzordea)
2015ko urtarrilaren 28-29	Paris - CHD
2015eko otsailaren 10a	Paris - CHD
2015ko otsailaren 27a	Istanbul - CIV
2015eko ekainaren 16-17	Paris - CHD
2015 ekainaren 22a	Amsterdam - CIV
2015eko abuztuaren 4a	Gasteiz. CIV-eko delegatu batekin
2016ko azaroaren 25a	Amsterdam - CIV

Bi urte eta erdi hauetan Brian Currin-en Harremanetarako Nazioarteko Taldearekin (GIC) bilerak sarri egin ziren. Kasu honetan, bilerak beti Euskadin egin ziren. Zehazki, 2014 eta 2016 urteen artean, 6 bilera egin ziren data hauetan.

---

<b>GIC-ekin Euskadin egindako bileren datak</b>
---

2014ko ekainaren 23a
----------------------

2014ko urriaren 22a
---------------------

2015eko martxoaren 9a
-----------------------

2015eko irailaren 23a
-----------------------

2016ko urtarrilaren 28a
-------------------------

2016ko urriaren 21a
---------------------

Epe honetan, harreman hauek guztiek gidoi beretsua eduki zuten beti. Nazioarteko bitartekariak mugimendu hurbilen espektatibei arnasa ematen zieten zehaztasunik eskaini gabe eta Eusko Jaurlaritzaren babesa eskatuz. Bilera horietan Eusko Jaurlaritzak babesteko eta laguntzeko alde aurretiko jarrera erakutsi zuen argitasun premisa bat oinarri hartuta. Esperientzia txarren segidak –2014ko otsaileko “*miniarmagabetzea*” azkena baino ez zen izan– ezinezkoa egiten zuen edukia, garrantzia, egutegia eta abar ezagutzen ez ziren ekimen posibleei itsuan babesa eskaintzea.

“*Miniarmagabetzea*”aren otsaileko frustrazioaren ondoren, aste gutxira, CHD erakundeak Eusko Jaurlaritzari proposatu zion Aieteko ekitaldi antzeko bat antolatzea 2014ko ekainean egoeraren geldialdiari bultzada emateko helburuarekin. Itxura denez, ETAk nazioarteko bitartekariari eginiko exigentzia bat izango litzateke otsaileko “keinua”ren ordain gisa.

Eusko Jaurlaritzaren erantzuna argia izan zen: Eusko Jaurlaritzak ez zuen aurreikusten ekitaldi mediatiko eta publizitario berriak babestea ez bazeuden lotuta ETaren amaiera-prozesu argi, behin-betiko eta erabakigarri bati.

Powell buru duen taldea, ideian tematu ondoren eta honek aurrera egin ez zuenean, aldaketak egiten joan zen eta azkenik Jonathan Powell-en eta Martin McGuinness Sinn Féin-eko buruzagiaren 2014ko uztailearen 16an Bilbora egindako bisita bategatik ordezkatu zen. Biak Jonan Fernandezekin egon ziren Bilboko hotel batean.

Aldi berean, bisita honetan, EAJ, PSE-EE, Sortu eta Geroa Bai alderdiekin bilerak eduki zituzten. Bilera hauetan partekatu ahal izan zen iritzi-trukaketaz gain, ez zen begiztatu beste helbururik eszenografikoa baino. Hau da, nazioarteko bitartekaritze-jardueraren irudia indartzea geldialdi argiko eta mahai gainean ezer ez zegoen momentu batean.

2014 eta 2016 epean hauteskunde-prozesu ugari egon ziren: Europako Parlamenturako hauteskundeak 2014ko maiatzaren 25ean, udal- eta foru-hauteskundeak 2015eko maiatzaren 24an, eta hauteskunde orokorrak 2015eko abenduaren 20an eta 2016ko ekainaren 26an. Hauteskunde-hitzordu segida honek ere ez zuen lagundu aldeko baldintzak sortzeko.

### **3.2. Eusko Jaurlaritzaren jarduera bakegintza eta bizikidetzaren esparruan goi-lautadako epe honetan**

Goi-lautadako bi urte eta erdiko epe horretan aurrerapen handirik egon ez bazen ere, Eusko Jaurlaritzak 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Plana garatu zuen. Urte horietan zehar bultzatutako ekintzen artean, garrantzitsuenak aipatzen dira kronologikoki.

#### **2013**

2013-10-01: Gizalegez akordioa<sup>12</sup> aurkeztu zen. Akordio zabala eta anitza, Jaurlaritzak eta hezkuntza-komunitateak sinatua, gizartearen eta hezkuntzaren arloko zeharkako proiektu integral bat sustatzeko konpromisoa hartzen zuena, betiere lau oinarri etikori buruzko adostasuna abiapuntu hartuta. Indarkeriari aurrea hartzeko eta bake- eta bizikidetzaren kultura sustatzeko gutxieneko oinarriak ezartzen zituen akordioa.

---

12 [https://bideoak2.euskadi.eus/2013/10/01/bases\\_educativas\\_convivencia/Acuerdo\\_Gizalegez\\_Akordioa.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2013/10/01/bases_educativas_convivencia/Acuerdo_Gizalegez_Akordioa.pdf)

2013-11-11: Adi-Adian<sup>13</sup> hezkuntza-moduluaren aurkezpena. Modulu horren helburua zen terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen zuzeneko testigantza gerturatzea, zuzen-zuzenean edo familiaren barruan sufrimendu bidegabea eta muturrekoa bizi izan dutenen eta bizikidetzak aldeko deia egiten dutenen testigantza, hain zuzen.

## 2014

2014-01-08: Euskal Autonomia Erkidegoko hiru unibertsitateetako errektoreekin oinarritzko hitzarmena sinatzea<sup>14</sup> bakea eta bizikidetzak sendotzea helburu duten proiektu zehatz batzuk diseinatu, garatu eta burutzeko.

2014-05-30: Gertu Programa<sup>15</sup> abian jarri zen. Programa horrek biktimen familiekin hurbileko komunikazio-metodologia bat ezarri nahi zuen, tratu humano eta pertsonala indartuz, bi helburu hauek lortzeko: batetik, biktimen errealitateak entzun eta errealitate horiei hobeto erantzutea; eta, bestetik, biktimei oroimena eta bizikidetzak eraikitzekeo prozesuetan aktiboki parte hartzeko bideak ematea.

2014-06-17: Elkarrekin Bonuen<sup>16</sup> dirulaguntza-programa abian jarri zen. Programa horrek hiru alor hauetan elkarrekin sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzak-espazioak sustatzen ditu: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzak.

2014-06-26: 1960 eta 2010 bitartean izandako torturei buruzko ikerketa-proiektua abian jarri izanaren aurkezpena egin zen. Kriminologiako Euskal Institutuari eskatu zitzaion proiektu hori, eta Francisco Etxeberria auzitegi-medikuak zuzendu zuen.

2014-01-10: Lehendakariak eta NBEko giza eskubideen goi-komisarioak memoranduma sinatu zuten giza eskubideen arloko lankidetzarako.

2014-10-01: Hitzeman programa, *presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzeko* programa jendaurrean aurkeztu zen. Legediak egoera berriarekin bat datorren espetxe-politika bat sustatzeko zer eskaintzen duen arakatzeko erabakitasun irmoa du Jaurlaritzak, eta erabakitasun horretatik sortu zen programa hori.

2014-10-21etik 24ra: Bakearen eta elkarbizitzaren gaineko lankidetzak europarrek proiektuei buruzko topaketa egin zen Bilbon. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta SEUPBek (EBko programa bereziak kudeatzeko ardura duen erakundeak) antolatutako topaketa horrek helburu zuen PEACE IV izeneko programa europarrean txertatu zitezkeen proiektuak identifikatzea.

2014-10-31: Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta EiTBk esparru-akordioa<sup>17</sup> sinatu zuten gizartearen sentsibilizaziorako eta hedabide publikoen konpromisorako, giza duintasunaren, giza eskubideen, printzipio demokratikoen, biktimiekiko elkartasunaren eta gatazken indarkeriarik ezaren kudeaketaren errespetuan oinarritutako bizikidetzak-kultura sustatzeko.

2014-11-04: memoria historikoaren arloko lehentasunen 2015-2016 epealdiko oinarri-programa<sup>18</sup> aurkeztu zen, politika publikoak sustatzeko, bi norabidetara zuzenduta: (1) biktimen egia-, justizia- eta erreparazio-eskubideak betetzea eta frankismoaren biktimiei eragindako min bidegabea aitortzea; eta (2) diktadura frankista jasatea gizartearentzat bidegabekeria historikoa izan zela aitortuko duen memoria sustatzea eta gizarte-pedagogiako baldintzak sortzen laguntzea, horrelakorik berriz ez gertatzeko berme bihur daitezzen.

2014-11-29: Zuzen Bidean proposamena aurkeztu zen. Agiri horrek hogeit hamar proposamen biltzen ditu, ETA desagertu ostean normaltasuna berrezartzeko zuzenbide penalean eta espetxe-zuzenbidean.

2014-12-02: Bake eta Bizikidetzak Planaren Aholku Batzordea eratu zen, eta erakunde horren osoko bilkuraren lehenengo bilera egin zen. Bilera hartan parte hartu zuten euskal instituzio guztiek, eragile sozialek eta Jaurlaritzako zenbait sailek.

13 [http://www.eskolabakegune.euskadi.eus/c/document\\_library/get\\_file?uuid=103164bd-d4be-48e1-bece-32e00203737f&groupId=2211625](http://www.eskolabakegune.euskadi.eus/c/document_library/get_file?uuid=103164bd-d4be-48e1-bece-32e00203737f&groupId=2211625)

14 [https://bideoak2.euskadi.eus/2014/01/08/lhk\\_acuerdo\\_universidades/Acuerdo\\_Marco\\_-\\_Oinarritzko\\_Hitzarmena.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2014/01/08/lhk_acuerdo_universidades/Acuerdo_Marco_-_Oinarritzko_Hitzarmena.pdf)

15 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/Gertu\\_Programa.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/Gertu_Programa.pdf)

16 <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/06/1402724e.pdf>

17 <https://www.eitb.eus/es/noticias/politica/detalle/2688768/eitb-gobierno-vasco-colaboraran-plan-paz-convivencia/>

18 [http://www.euskadi.eus/contenidos/proyecto/memoria\\_plana04/eu\\_def/adjuntos/Memoria\\_Historikoaren\\_Lehentasunen-Programa.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/proyecto/memoria_plana04/eu_def/adjuntos/Memoria_Historikoaren_Lehentasunen-Programa.pdf)

---

2014-12-05: Talde terroristek burututako atentatueta hildakoren bat izan diren kasuak auzitegietan zein egoeratan dauden aztertzeko Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatutako txostena aurkeztu zen<sup>19</sup>.

## 2015

2015-02-06: 1960 eta 2010 bitarteko torturei buruzko ikerketa-proiektuaren lehen fasearen emaitza aurkeztu zen.

2015-04-01: Zuzendu Programa<sup>20</sup> aurkeztu zen. Giza eskubideen arloan autokritikaren pedagogia egiteko dibulgazio programa horren hipotesia da iragana gainditu, orainaldia berregin eta etorkizuna adostasun minimo batekin bideratzeko gakoa izan daitekeela autokritika. Autokritikak funtsezko zeregina izan dezake gizarteratze prozesuetan ere.

2015-06-05: Donostian "Terrorismoaren Biktimak eta Gizartea" gaiari buruzko parte-hartze eta gogoe-tarako jardunaldia egin zen. Jardunaldi horretara biktimak, biktima-elkarteak eta euskal gizartearen hainbat ordezkari gonbidatuta zeuden. Ekitaldi hartan, Lehendakariak, euskal instituzioen ordezkari gisa, gogoeta autokritikoa egin zuen eta barkamena eskatu zien terrorismoaren biktima guztiei, bai ETaren adar guztien biktimei bai GALen, Batallón Vasco Españolaren edo antzekoen biktimei. Berreziki 70, 80 eta 90eko hamarkadetako biktimei mintzatu zitzaizkien, ez zirelako kontuan izan, eta instituzioek lehenago eta hobeto erreagionatu behar zuketela onartu zuen<sup>21</sup>. Adierazpen horrek eragin handia izan zuen gizartean, politikan eta hedabideetan, eta terrorismoaren biktimen elkarteek oso ondo hartu eta baloratu zuten.

2015-06-23: Gobernu Kontseiluak zenbait dekretu onartu zituen Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua ofizialki abian jartzeko (112/2015 Dekretua<sup>22</sup>, 2015eko aurrekontua onartzekoa; 115/2015 Dekretua<sup>23</sup>, zuzendaria izendatzekoa; eta 16/2015 Dekretua, Lehendakariarena<sup>24</sup>, jarduerari ekiteko xedatzen duena).

2015-09-11: Biktima-talde plural batek Eraikiz dokumentua aurkeztu zuen<sup>25</sup>, hainbat hilabete elkar-rrizketan eta lanean eman ondoren dokumentu hori egiten era diskretuan. Hasieran Eusko Jaurlaritzak ekimena sustatu zuen eta, geroago, bigarren maila batean lagundu zion.

2015-09-22: Gobernu Kontseiluak Batera<sup>26</sup> konpromisoa onartu zuen, etapa berria bultzatzeko bik-timen inguruko politiketan, etorkizunera begira, eta biktimen eta herritarren batasuna bultzatzeko, denak elkarrekin hobeto bizi gaitezkeen.

2015-10-30a eta 31: Zuzendu programaren, iraganean gertatu diren giza-eskubideen urraketen gaineko autokritikaren pedagogia sustatzera bideratuta dagoen programaren lehenengo ekitaldia egin zen.

2015-12-23: Eusko Jaurlaritzak 1978 eta 1999 bitartean izandako lege kontrako kontraterrorismo-ekintzen ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aitortpena eta erreparazioa emateko legearen onarpenerako proposamena egin zuen.

2015-12-30: Hobien kokapena ikertzeko 2015-2020 aldirako EAEko Plana<sup>27</sup> aurkeztu zen, Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko. Hobiak lurpetik ateratzeko asmoz 2002an martxan jarritako prozesuan aurrera egitea da planaren helburua; horretarako, laneko programa egituratu bat ezartzen du, 2020. urtera arte. Plan barruan sartu dute ehorzketa-gune izan litezkeen zenbait tokiren ikerkuntza ere.

---

19 [https://bideoak2.euskadi.eus/2014/12/05/lhk\\_jonan\\_informe/Atentatu\\_terroristen\\_auzibideari\\_buruzko\\_txostena\\_eus.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2014/12/05/lhk_jonan_informe/Atentatu_terroristen_auzibideari_buruzko_txostena_eus.pdf)

20 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/Zuzendu-Programa.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/Zuzendu-Programa.pdf)

21 [https://bideoak2.euskadi.eus/2015/06/05/lhk\\_victimtas\\_terrorismo/Discurso\\_LHK\\_Jornada\\_Victimtas\\_del\\_terrorismo\\_y\\_Sociedad\\_5-0.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2015/06/05/lhk_victimtas_terrorismo/Discurso_LHK_Jornada_Victimtas_del_terrorismo_y_Sociedad_5-0.pdf)

22 <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/dekretua/1122015-dekretua-ekainaren-23koa-memoriaren-bizikidetzaren-eta-giza-eskubideen-institutuaren-2015eko-aurrekontua-onartzeko-dena/>

23 <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/06/1502823e.shtml>

24 <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/06/1502827e.shtml>

25 [https://bideoak2.euskadi.eus/2015/09/11/victimtas\\_eraikiz\\_2/ERAIKIZ\\_EUSK.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2015/09/11/victimtas_eraikiz_2/ERAIKIZ_EUSK.pdf)

26 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/Batera%20eus.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/Batera%20eus.pdf)

27 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/Borrador%20Plan%20de%20Fosas%20Euskera.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/Borrador%20Plan%20de%20Fosas%20Euskera.pdf)

**2016**

2016-02-20: Donostia 2016 kultura hiriburutzaren barruan, 107/2012 Dekretuak aitortutako biktimen, polizia-abusuen biktimak ere deitzen zaien horien omenezko ekitaldi instituzionala egin zen, eta dekretu horren babespean sortutako “Giza Eskubideen Urraketak jasandako Biktimen Balorazio Batzordearen Txostena 1960-1978”<sup>28</sup> aurkeztu zen.

2016-02-29: Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren ibilera hasi zen.

2016-03-11: Donostia 2016 kultura hiriburutzaren barruan, terrorismoaren biktimei begirunea erakusteko ekitaldi instituzionala egin zen Donostiako Pasealeku Berrian, “Utzitako hutsunearekin eraiki nahi dugu etorkizuna” goiburupean<sup>29</sup>.

2016-03-31: Euskadin bizi diren hildakoen familien testigantzak grabatzeko helburua duen Gertu programaren lehen fasearen balantzea egin zen. 92 grabaketa jaso ziren. Pertsona zaurituen testigantzak grabatzeko bigarren fasea aurkeztu zen.

2016-04-26: Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako legez kontrako errepresio-jardueren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko legearen proiektua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta Legebiltzarrari igorri zion.

2016ko maiatza: EITBrekin egindako lankidetzak-akordioak ezartzen zenez, maiatzean “Las huellas perdidas”<sup>30</sup> dokumental-saila emititu zen. Dokumental-sail horrek ordubeteko iraupena duten bost kapituluak azaltzen du Euskadin 1960az geroztik zer gertatu zen terrorismoaz eta indarkeriaz betetako bost hamarkadatan. Sail horretan aholkulariak izan ziren Juan Pablo Fusi, Mari Carmen Garmendia eta Mariano Ferrer.

2016-05-14: Frankismoaren biktimak aitortzeko ekitaldi bat egin zen<sup>31</sup> Donostia 2016 kultura hiriburutzaren barruan.

2016-05-17: Gobernu Kontseiluak Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua arautzen duen dekretu berria<sup>32</sup> onartu zuen. Dekretu horren bidez organo horren egitekoak, izaera eta osaera eraberritu ziren, eta organoa biktimen elkarteekin ados jarrita kudeatu beharko zen.

2016-06-17: Eusko Jaurlaritzak Hitzeman programako esperientzia pilotuaren ondorioak aurkeztu zituen “Justizia leheneratzailea eta terapeutikoa: justizia eredu berritzaileak bilatzen” Europako Kongresuan, “Gizarteratzea eta justizia leheneratzailea Eusko Jaurlaritzaren bizikidetzak-politiketan”<sup>33</sup> izenburuko ponentziarekin. Eusko Jaurlaritzak zera proposatzen du: espetxe-politika eta gizarteratzea bizikidetzak-politika izan dadila gizartearentzat eta elkartzeko-politika biktimentzat.

2016-07-28: Onartu egin zen 12/2016 Legea<sup>34</sup>, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

\*\*\*\*\*

2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzak Plana bultzatzeak lan handia eta integrala ekarri zuen bakeari eta bizikidetzari dagokien eremu guztietan. Eusko Jaurlaritzak bezalako Gobernu batek dituen jarduerak sistematizatu eta egituratu zituen blokeo-jarreraren aurrean. Gehiago eragin zezaketen aktoreen iniziatiba-gabezia ordezkatu zuen.

Bere gestioa bereziki baliagarria izan zen memoria-esparruan. Iraganari buruzko gogoeta kritiko eta auto-kritiko etengabea bultzatu zuen, terrorismoak eta indarkeriak ekarri dutenari buruz gogoetarik egin gabe

28 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/Informe%20Vulneraciones%20eus.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/Informe%20Vulneraciones%20eus.pdf)

29 <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/31397-gobierno-vasco-asiste-reconocimiento-institucional-las-victimas-del-terrorismo-paseo-nuevo-donostia>

30 <https://www.eitb.eus/es/television/programas/las-huellas-perdidas/>

31 [https://bideoak2.euskadi.eus/2016/05/14/lhk\\_franquismo/Discurso\\_LHDK\\_Victimas\\_del\\_franquismo\\_\\_14-05-2016.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2016/05/14/lhk_franquismo/Discurso_LHDK_Victimas_del_franquismo__14-05-2016.pdf)

32 <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eli/es-pv/d/2016/05/17/75/dof/eus/html/>

33 <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/33474-gobierno-vasco-propone-proyecto-decreto-materia-reinsercion-reintegracion-personas-presas-tras-experiencia-piloto-hitzeman>

34 <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eli/es-pv/l/2016/07/28/12/dof/eus/html/>

---

inertziaz etorkizunera aurrera egiteko arriskuaren aurrean. Planaren ekimenek memoria kritikoa eraikitzen lagundu zuten.

Bestetik, bake- eta bizikidetzaren prozesu baten eraikuntza errealean ibilbidea gizartearekin partekatzea ahalbidetu zuen Bake eta Bizikidetzaren Planaren garapenak, ekintza eta proposamen zehatzetan oinarrituta. Eusko Jaurlaritzaren jardueraren ardatz hau euskal gizarteak estimatu eta ondo baloratu zuen. Egindako inkesta bakoitzean islatu zen gizartearen identifikazio altuaren erreferentzia.

## 4. Presoen gaia

---

### 4.1. Espektatiba kontraesankorren testuingurua

2011ko urrian, indarkeriaren behin betiko etetea iragarri zuen ETAk. 2012ko, 2013ko, 2014ko, 2015eko eta 2016ko urtarrean eta hurrengoetan, urtero bezala, presoen eskubideen aldeko manifestazio handi bat egin zen Bilbon. 2014ko urtarrean egin zenak gertakari garrantzitsuak ekarri zituen aurretik:

- 2013ko irailaren 30ean, Herrira ETako presoen babes taldearen aurka sarekada poliziala gertatu zen, 18 atxiloturekin “terrorismoa goratzea”, “talde armatuan integrazioa” eta “finantzatzea” leporatuta. Ondoren, 18 atxilotuak aske utzi zituzten baina Herrira taldearen jarduerak etenda geratu ziren agindu judizialaren bidez.

- 2013ko urriaren 20an, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Parot doktrinaren inguruan Inés del Ríok jarritako helegitea ebatzi zuen. Doktrina hau ezartzeak ordura arte aplikatzen ari ziren espetxe-onurengatik zigorrak murriztearen eredu-aldaketa ekarri zuen, zigor osoaren arabera eta ez legeak ezarritako maximoaren arabera, indargabetutako 1973ko Kode Penalarekin bat. Doktrina honen aplikazio atzeraeraginezkoa da Europako Giza Eskubideen Auzitegiak zuzendu zuena. Auzitegiak Inés del Río-ren kasuaz baino ez bazuen eman epaia, erabilitako argudioak zigorren murrizketa kontatzeko modu hau atzeraeraginez aplikatu zitzaizen beste presoei ere luzatu zitzaizkien. Egun gutxitan ETako 60 preso aske geratu ziren.

- 2014ko urtarrilaren 8an, Arantza Zulueta, Jon Enparantza eta ETako presoak defenditzen zituzten abokatuen taldea osatzen zuten beste sei lagun atxilotu zituzten. Akusazioaren esanetan, Koordinazio Taldea (KT) deiturikoaren parte izatea leporatu zitzaizen, ETaren eta presoen artean solaskide izatea. Kartzeleratuak izan ziren. Epaiketaren zain, espetxetik azkenak ateratzen Jon Enparantza (2016ko martxoan) eta Arantza Zulueta (2017ko otsaila) izan ziren. Azken honen espetxeratze-baldintzak behin eta berriz salatu zituzten instantzia desberdinek gogortasun altuko isolamendua jasan zuelako.

- Ezker abertzaleak berak Eusko Jaurlaritzari adierazi zion bezala, Herrira taldearen eta abokatu talde honen aurkako polizia-operazioek ETako presoen kolektiboarekin komunikazio-bideak oso kaltetuak utzi zituzten. Iturri berdinen arabera, honek azalduko lituzke, neurri batean behintzat, presoen kolektiboaren barruan erabakiak hartzean gertatuko ziren atzerapenak justifikatzeko arrazoiak.

Testuinguru hartan, 2013ko abenduaren bukaeran, –garrantzitsua aurreikusten zen– iragarpena egin zuen EPPK presoen kolektiboak, ordura arte, espetxe-legediaren aurrean, mantendu izan zuen posizioa aldatu ezakeena. Historikoki, ETako presoen kolektiboak zenbait espetxe-eskubide edukitzeko bide legalak onartzeari uko egin zion, legez egokitu ahal izango zitzaizkienak. Bide legalei uko egiten zitzaizen: “irtenbide indibidualak” zirela adieraziz eta “irtenbide kolektiboak” baino ez zirela onartuko esanez.

Irizpide hau betez, ETako presoek hamarkadetan zehar ukatu zuten, esate baterako, gradu aldaketa eskatzea, lanagatik zigorrak kentzeari uko egin zioten, edo hirurogeita hamar urtetik gorako presoei baldintzapeko askatasuna onartzen dien Espetxe-Legediaren 196. artikuluari ez zioten heldu. Testuinguru honetan bertan, “gizarteratze” kontzeptua madarikatutzat hartu izan zen eta EPPK-k aukera legal hau “damuarekin” lotu izan zuen mespretxuz.

2013ko abenduaren 28an kaleratutako EPPK presoen kolektiboaren komunikatuak, hilabete batzuk lehenago, espetxe-politikaren gaian Euskal Herriko Foro Sozialak ezarritako jarraibideak hartzen zituen bere gain. EPPK-k “bide legalak” onartzeko borondatea eta preso bakoitzaren erantzukizunak banan-banan

bere gain hartzea adierazten zuen. Egun gutxi batzuk beranduago, 2014ko urtarrilaren 4an, “Parot doktrina”ren indargabetzearen ondoren aske utzitako preso ohiak eta aurretik aske utzitako preso ohiak bildu ziren Durangon. Beren komunikatuan<sup>35</sup>, egun batzuk lehenago EPPK-k ezarritako irizpideekin bere “ados-tasun osoa” adierazi zuten.

Jarraitutako estrategian aldaketa nabarmena adierazten zuen bi komunikatu hauen edukiak. Hala ere, bi adierazpenak benetan nabarmenak izango ziren, zentzuzko epe batean segidako urrats praktikoak ekarri izan balituzte. Baina hau ez zen horrela gertatu.

## 4.2. Hitzten eta ekintzen arteko distantzia

EPPK-ren komunikazio haiek, 2013ko abenduaren 28an, eta preso ohiena, 2014ko urtarrilaren 4an, pentsa arazten zuten bere edukiak laster mugimenduak ekarriko zituela presoan aldetik banan-banan bide legalak onartzera begira. Hala ere, denbora asko pasako zen oraindik EPPK-k erabakitzeko azkenik espetxeetan bide legalak jorratzera zabaltzen zela benetan.

2017ko uztailaren 1ean, ia lau urte beranduago, EPPK-k barne-prozesuaren<sup>36</sup> amaieraren berri eman zuen. Bertan, espetxe-legediak eskaintzen dituen aukeren arabera preso bakoitzak bere egoera banan banan kudeatzeko aukera edukitzeko erabakia hartzen zen. Honek ere ez zuen ekarri presoan espetxe-eskubidearen defentsa eraginkorra berehala aplikatzea. Urte bete beranduago, orientabide berri horren garapenak oraindik oso mugatua izaten jarraitzen zuen. 2018ko urriaren 10ean, Sare kolektiboak ezagutzera eman zuen une horretan espetxean zeuden ETAko 269 presoetatik, 46 baino ez zutela eskatu gradu-bilakaera<sup>37</sup>.

Egia da, Alderdi Popularraren Gobernuak espetxe-politikan ez zen mugitu. Euskaditik, presoan hurbilpenari eta preso gaixoei edo zaurgarritasun egoeran zeuden presoari neurri humanitarioak aplikatzeko egin zitzaizkion proposamen eta eskaera guztiei ez zien jaramonik egin. Jarrera hau sendoa izan zen eta behin eta berriz salatua Eusko Jaurlaritzaren eta gainontzeko euskal erakundearen eta gizarteko elkarte eta izen handiko pertsona ugariaren aldetik. Espetxe-politika hau mantendu izanaren erantzukizun nagusia urte horietan Alderdi Popularraren Gobernuarena izan zen.

Dena den, adierazi behar da, manifestazioen deialdiez gain, EPPK eta bere inguru politikoa ez zirela gai izan egoera aldatzea lagunduko zuketan mugimendu errealeko minimoak sortzeko. Erabakiak urtetako atzerapenarekin hartu ziren. Egoera hobetzen laguntzetik urruti, are konplikatuagoa egingo zuten atzerapenek.

## 4.3. Eusko Jaurlaritzak egindakoa

Gai honetan Eusko Jaurlaritzak egindakoari dagokionez, hurrengo erreferentziak azpimarratu behar dira:

- 2014ko urriaren 1ean, Eusko Jaurlaritzak Hitzeman Programa (B.1. eranskina) aurkeztu zuen. Terrorismo delituengatik kondenatutako presoak gizarteratzeko bide legalak bultzatzeko lan-plangintza bat, erakundearen eta gizartearen estaldurarekin eta egindako delituaren aurrean presoaren urruntze kritikoarekin, bereziki giza eskubideen urraketa egon baldin bada.

- Urte bereko azaroaren 29an, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Zuzen Bidean Proposamena aurkeztu zuen (B.2. eranskina). Dokumentu honek hogeit hamar proposamen jasotzen ditu, ETAren amaieraren ostean, normaltasuna berregiteko zuzenbide penalean eta espetxe-zuzenbidean. Modu oso berezian, Espainiako Gobernuari eta zigor-, espetxe- eta epai-arloko aktoreen multzoari zuzenduak.

- Raxoi Presidentearekin egindako bilera guztietan, espetxe-politikaren gaia jorratu zuen Lehendakariak eta eguneratzen joan zen proposamenak eraman zitzaizkion idatziz. Raxoi Presidenteak espetxe-politikan aldaketa ematearen beharra ulertzen zuela adierazi izan zuen beti; baina harmen horrek ez zuen inoiz ekarri aldaketa errealek.

35 <https://www.youtube.com/watch?v=6HN4pGQ1Ud8>

36 [https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2017-07-01/hemeroteca\\_articles/eppk-da-el-paso-para-vaciar-carceles-con-87-de-participacion-y-73-de-si](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2017-07-01/hemeroteca_articles/eppk-da-el-paso-para-vaciar-carceles-con-87-de-participacion-y-73-de-si)

37 <http://www.etxerat.eus/index.php/eu/albisteak/1939-gradu-aldaketa-lortzeko-eskaerei-erantzunez-jasotako-ezezeko-ebazpenek-kalte-egiten-digute-senideoi-presoen-etxeratzeari-atzeratzen-duelako>

---

·Preso guztiei ondorengo gutunak bidali zizkien Eusko Jaurlaritzak:

2014/10/10. Presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzeko Hitzeman Programari laguntzen zion gutuna. (B.3. eranskina)

2015/01/21. Zigor- eta espetxe-arloan salbuespena gainditzeko 20 neurri zehatz daramatzan Zuzen Bidean Proposamena aurkezten zuen dokumentuarekin gutuna. (B.4. eranskina)

2015/04/30. Hitzeman Programaren esperientzia pilotua abian jartzeko Eusko Jaurlaritzak emango zituen urratsei buruzko informazio-gutuna. (B.5. eranskina)

2016/04/06. Gradu-bilakaeran eta espetxe-onura legalen gaian terrorismo-delituagatik zigortutako pertsona batek eman ditzakeen urrats legalei buruzko informazio-gutuna. (B.6. eranskina)

2017/06/15. Espetxe-politikan aldaketa emateko beharrezko ekintzei buruzko Eusko Jaurlaritzaren iritzia jasotzen zuen gutuna. (B.7. eranskina)

\*\*\*\*\*

2015eko urtarrilaren 28an eta 29an, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiak hiru bilera eduki zituen Mikel Albisu *Antzarekin* eta Soledad Iparraguirre *Anbotorekin*, Pariseko Sud Francilien espetxearen barruan, EPPKko solaskide ziren neurrian. Bileren aurretik EPPKk espetxetik kanpo Euskadin zituen ordezkariekin zenbait hartu-eman izan ziren. Ordezkariek haiek esan zuten EPPKrekin komunikazio ofiziala edukitzeko bidea Frantziako espetxeetan zeuden ordezkariengana jotzea zela. Beharrezko gestioak egin ondoren, Frantziako agintariek bilera hauek erraztu zituzten, diskrezio handienaren barruan.

EPPKko ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren Hitzeman Programa eta Zuzen Bidean Proposamena aurkeztea izan zen bileren helburua. Bi proposamenek xede berdina zuten: espetxe-bide legalak ahalik eta gehien zabaltzen erraztea, presoek laguntza eskatzen zuena. Bileren garapena ez zen emankorra izan, eta EPPKko ordezkarien jarrera ere ez zen bereziki harkorra izan.

Hilabete batzuk beranduago, Eusko Jaurlaritzak EPPKren gutuna jaso zuen 2015eko urtarrilaren 31ko datarekin (B.8. eranskina), non tonu eraikitzaileagoan, komunikazio bidea zabalduta mantentzeko prest eta "goizago beranduago baino" Hitzeman eta Zuzen Bidean dokumentuei zegokien erantzuna jasoko genuela baieztatzen. Dena dela, erantzuna ez zen iritsi, eta EPPK ez zen jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzarekin.

## 4.4. Paradoxak

Hitzeman Programa oso gogor deskalifikatu zuten Ezker abertzaleko buruzagiek eta bozeramaileek: "harrokeria", "ezerezero bidaia", "distrazioko azpikokoa", edo "salbuespen legezkontasuna legitimatzen eta bermatzen duen ekimena" eta beste batzuk izan ziren erabilitako adierazpenak.

Hala ere, Hitzeman Programa mespretxatu eta handik urte bete eta bi hilabete beranduago, Fiskaltzaren, *Dignidad y Justicia* eta AVT herri akusazioen eta 04/08 sumarioko akusatuen artean adostasun akordio berri bat emango zen, Segurako Mahai Nazionala<sup>38</sup> ren kasua bezala ezagututakoan.

Batasuna, ANV eta EHAK alderdietako 35 buruzagi 10 urteko espetxe-zigorretara arriskatzen ziren. Lortutako adostasunaren bidez espetxean sartzea saihestu zen, trukean erruduntasuna onartuz eta terrorismoa gaitzetsiz. Beranduago, formula berdina erabili zen Ekin 1 eta Ekin 2 bezala ezagutu ziren epaiketetan. Bi prozesu horietan guztira 13 lagunek saihestu zuten espetxea baldintza beretsuak beteaz.

Fiskaltzarekin adostasun-akordio haiek sinatu zituztenak "gertaeretan parte hartu izana" aitortu zuten "beren jokabidea egungo legediaren aurkakoa izan zela onartuz", eta "indarkeriaren erabilerarekin harreman zuten edozein ekintzari uko eginez konpromisoa" adierazi zuten "aitorpen horrek terrorismoaren biktimen erreparazioan –eragin zaien minarengatik eta sufrimenduagatik– lagunduko zielakoan".

Fiskaltzarekin akordioa lortu behar zen momentu berean, Rufi Etxeberria Ezker abertzaleko buruzagiak adierazi zuen "presoen kaleratzea mahai baten akordiotik etorrigo ez zenez", legaltasuna eta banakako neurriak erabili behar zirela. Fernando Barrenak, 2016ko urtarrilaren 14an eskaini zuen prentsaurreko batean, baieztatu zuen fiskaltzaren, terrorismoaren biktimen elkarteek osatutako akusazio partikularren

---

38 <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/2016/01/14/politica/miembros-de-batasuna-avt-y-fiscalia-acuerdan-en-la-audiencia-nacional-por-primera-vez-una-sentencia>



eta 04/08 sumarioan akusatutakoen artean lortutako akordioa euskal presoekin ere aplikatu zitekeen “eredua” zela<sup>39</sup>.

Eusko Jaurlaritzak bat etorri zen balorazio honekin. Izan ere, akordio hauek gauzatzea publikoki aldeko jarrerarekin baloratu zituen. Funtsean, akordio haiek Hitzeman Programak urte bete lehenago adierazten zuen bidea balioestera zetozen, oinarri gisa indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen bidez eragindako minaren bidegabekeria aitortzea zuena. Dena den, gertaera berritzaile haiek epe motzean ez zuten eraginik eduki.

\*\*\*\*\*

Ezker abertzalea espreski aldendu izan da ETAren terrorismotik bi testuingurutan: Sortu legeztatze Estatutueta eta Ezker abertzaleko buruzagien aurkako aipatutako epaiketetan, Segurako Mahai Nazionalaren kasuan eta Ekin kasuan, hain zuzen.

Sortuko Estatutuek azaltzen dute erakunde honek bere jardura garatuko duela “indarkeriaren gaitzespenetik ekintza politiko tresna edo helburu politikoak lortzeko metodo gisa, edozein delarik bere jatorria edo izaera; gaitzespen honek ETA erakundearen barne hartzen du argi eta garbi, pertsonen eskubideak eta oinarrizko askatasunak urratzen dituzten jokabideen subjektu aktibo den neurrian”.

Hau baliozkoa izan bazen ere ustezko hauetan aplikatzeko, ez da aplikatzen edozein presok bere gizarte-ratze-prozesua errazteko formula gisa erabili dezan. Ez hori bakarrik, Eusko Jaurlaritzak kritika gogorrek jaso zituen iraganean giza eskubideen urraketa ekarri duen edozein delituekiko urruntze kritikoa adieraztea beharrezkoa dela planteatu duelako.

## 5. Armagabetzea

### 5.1. Eusko Jaurlaritzaren proposamena

Armagabetzean eta ETAk indarkeriaren amaiera adierazi zuenetik hiru urte baino gehiago igaro ondoren, egoerak geldirik jarraitzen zuen. 2014ko otsailera “*Miniarmagabetzeak*” ondorio kaltegarriak eduki zituen. 2014 eta 2015 urteetan zehar, aurretik adierazi zen bezala, kontaktu antzu ugari gertatu ziren. Aurrerapeanik eza nabarmena eta agerikoa izan zen.

Testuinguru honetan, 2014ko azaroaren 3an, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiaren eta Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko (CIV) ordezkarien arteko bilera bat egin zen Amsterdam-en. CIV-eko ordezkariak Eusko Jaurlaritzari adierazi zioten hurrengo asteetan agian komunikatu bat kaleratuko zutela ETAk armen zigilatzearen berri ematen.

Eusko Jaurlaritzak zigilatzearen neurriaz, bolumenari buruz, armen inbentarioren bat existitzen zen edo ez eta etorkizuneko egutegiari buruz interesatu zen. Galdera hauetako bat berak ere ez zuen erantzunik jaso. Eusko Jaurlaritzako ordezkariak CIVeko ordezkariari adierazi zion geldialdi testuinguru honetan Eusko Jaurlaritzak armagabetzea errazteko proposamen propioa zuela prest. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiak bere edukiaren berri eman zuen bileran Eusko Jaurlaritzak proposamen honen berri emateko momentua bere esku zegoela adieraziz.

2014ko abenduaren 21ean, goiz erdian, CIVeko kideek Eusko Jaurlaritzari telefonoz adierazi zioten egun horretan bertan Amsterdam-eko azaroaren 3ko bileran aipatutako komunikatua emango zutela aditzera eta prentsari banatu baino minutu batzuk lehenago edukia pasa zioten. Komunikatuak ondorengoa zioen:

“Nazioarteko Egiaztatze Batzordea (CIV) 2011ko irailaren 28an eratu zen, 2011ko urtarrilaren 10ean, Euskadi Ta Askatasunak (ETA) adierazitako “su-eten iraunkor, orokor eta egiaztagarria” eta ondoren, 2011ko urriaren 20an, etorriko zen “indarkeriaren behin betiko amaiera”ren adierazpena egiaztatze-ko. Eratu zenetik, Batzordeak egiaztatzen du ETAk erailketa, atentatu, mehatxu eta estorsio mota guztiak eteteko konpromisoa bete duela.

<sup>39</sup> <https://www.youtube.com/watch?v=Swl5rxvclSY>

---

Epe honetan zehar, CIV-ek euskal politikako eta gizarteko aktoreekin estu egin du lan. CIV-ek beren laguntza eta babesa eskertzen ditu su-etena eta indarkeriaren behin betiko amaiera egiaztatzeko lanean.

Batzordeak Euskal Herrira egin dituen bisitetan, CIV-ek Euskal Herrian eman diren urrats positiboak ikusi ditu eta indarkeriaren amaiera sendotzeko ahaleginak areagotzeko desioa adierazten jarraitzen du.

2013ko apirilean, CIV-en agindua zabaldu egin zen ETaren armak, munizioak eta lehergaiak zigilatze eta erabileratik kanpo uzteko aldebakarreko prozesuaren egiaztatzea barne hartuz. 2014ko urtarrilean, Batzordeak egiaztatu zuen armen, munizioen eta lehergaien kopuru zehatz bat zigilatu eta erabileratik kanpo utzi zuela ETAK. Aldi berean, Batzordeak egiaztatu zuen prozesu baten lehendabiziko urrats bat izan zela, Batzordearen ustez, ETaren arma, munizio eta lehergai guztiak erabileratik kanpo uztera eramango duena.

Duela gutxi, CIV-ek ETaren txostenak jaso ditu bere armen, munizioen eta lehergaien zigilatze eta erabileratik kanpo uzteko prozesuarekin jarraitzen duela esanez. 2014ko martxoaren 1ean, armak, munizioak eta lehergaiak zigilatu eta erabileratik kanpo uzteko, eta hauen inbentarioa garatzeko, publiko egindako konpromisoa berretsi dio ETAK CIV-i. Beste prozesuetan dugun esperientziatik, inbentarioa egitea eta armak, munizioak eta lehergaiak erabileratik kanpo uztea aurretiko beharrezko urrats bat da armagabetze osoari begira.

Batzordeak aktore garrantzitsu guztiekin lanean jarraituko du prozesu hau ahalik eta azkarren burutzeko. Euskal Herriko politikako eta gizarteko aktore guztien laguntzarekin lortuko dugunaren konfiantza dugu. Batzordeak determinazioarekin eta inpartzialtasunarekin jarraituko du lanean, bake iraunkor baten alde lan egiteko.”

Komunikatu honen inguruan Eusko Jaurlaritzak CIVi helarazi zion iritzia hauxe izan zen: edukirik ezak mugitzen ari denaren itxaropen faltsuak elikatzen laguntzen zuela, guztiak hiru urtez geldirik jarraitzen zuen bitartean. Iritzi kritiko berdina komunikatu baten bidez, eman zen ezagutzera. Bertan, Eusko Jaurlaritzak, bere jarrera adierazteaz gain, hilabete batzuk lehenagotik prest zeukan armagabetzearen proposamena eman zuen aditzera.

Eusko Jaurlaritzaren komunikatuak lau puntu zituen. Hiru lehenengoen Gobernuaren erantzuna definitzen zuten CIV-en komunikatuaren aurrean:

1. Eusko Jaurlaritza jakitun zen armagabetze prozesua bizitzen ari zen geldialdiaz, Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak jakitera eman duen bezala.
2. Eusko Jaurlaritzak bere errespetua eta babesa adierazten dizkio Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari egiten ari den lan onagatik.
3. Eusko Jaurlaritzak jakinarazi dio Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari armak zigilatze prozesu batek egiaztapenik gabe eta egutegi jakinik gabe ez duela balio eraginkorrik.

Komunikatuaren laugarren puntua ETari zuzentzen zen eta, geldialdiaren egiaztapenaren aurrean, Eusko Jaurlaritzaren armagabetze-proposamena aurkeztu zuen:

4. Eusko Jaurlaritzak ETari armagabetze eraginkor bat exijitzen dio. Armagabetze ezaren kostua euskal gizarteak ordaintzen du eta hori onartezina da. Zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzak gaur publiko egiten du armagabetzerako prozedura azkar, egingarri eta eraginkor bat.

Gauzak horrela, 2014ko abenduaren 21ean, Eusko Jaurlaritzak “Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako prozedura-proposamena, ETaren gizartearen aurreko alde bakarreko keinu batean oinarritua, gizartearen, nazioartearen eta erakundeen babespean” txostena aurkeztu zuen jendaurrean (A.2. eranskina).

Txosten honetan, lehendabizi, ETaren armagabetzearen blokeoak euskal gizartearentzat zeuzkan kostuak zerrendatzen ziren. Paraleloan, armagabetze eraginkor batek euskal gizartean eta euskal politikan zein bake eta bizikidetzatza prozesuan edukiko lituzkeen eragin positiboak adierazten ziren.

ETaren armagabetze aldebakarrak, egiaztatuak, azkarrak eta eraginkorrek euskal gizarte osoari aldi berri bati ekitea lagunduko lioke, bizikidetzatza bezalako gai garrantzitsuetan elkarrizketa politikoa modu berriak erraztuko lituzke, espetxe-politikan eta presoan eta beren familien egoeran aldaketak emateko

aldeko baldintzak sortuko lituzke eta Ezker abertzaleari joko politikoan batzea erraztuko lioke, neurri batean iraganaren pisutik aske utziz.

Hori horrela izan arren, egia da, 2011n ETAK “su eten iraunkorra” aldarrikatu zuenetik, hiru urte luze pasa zirela eta ez zela aurrerapenik eman. Egoera hartan, Eusko Jaurlaritzak Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari helarazi zion planteamendu bat jarri zuen mahai gainean. Proposamenak bost urrats zeuzkan:

- 1. urratsa.** ETAK euskal gizartearen aurrean armagabetzea onartuko du eta armagabetzebatzorde baten lan onaren bitartez bideratzea. Batzorde hori gizarte, nazioarteko eta erakundeetako eragilez osatuta egongo da.
- 2. urratsa.** Jakinaraziko den epe zehatz baten barruan, ETAK bere arma eta lehergailu guztiak aurki daitezkeen eta gizartearentzat seguruak izango diren gordeleku batzuetan –gordeleku kopuru jakin batean– utziko ditu.
- 3. urratsa.** Aldi berean, Armagabetze Batzorde bat eratuko da eta kideak honako hauek izango dira: Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin bildu izan zen Gizarte Foroko ordezkari bat, nazioarteko eragileen ordezkari bat eta Eusko Jaurlaritzako zenbait ordezkari. Eusko Legebiltzarri batzordea babesteko eskatuko zaio.
- 4. urratsa.** ETAK armen eta lehergailuen gordelekuen zerrenda Armagabetze Batzordeko kide den euskal gizarteko ordezkariari entregatuko dio.
- 5. urratsa.** Gizarte-ordezkaritza horrek aipatutako informazioa Armagabetze Batzordeari emango dio eta horrek, era berean, Eusko Jaurlaritzari, legez dagokion moduan jardun dezan.

## 5.2. Gutxietsitako eta deskalifikatutako beste proposamen bat

Eusko Jaurlaritzaren proposamena inoiz ez zen onartu ezta aintzat hartu, ETAren ezta Ezker abertzalearen aldetik ere. Hala ere, indar handia zeukan, ikusiko den bezala, hiru urte beranduago aurrera eraman zen armagabete-eredua kasik bost urrats hauen eskemak iradokitzen zuen bezalaxe garatuko zen.

Ez onartua eta ez aintzat hartua ez ezik, gogor deskalifikatua izan zen Sortuko bozeramaileengatik: “ez da armagabetze-proposamen bat, ETARI armak uzteko eskaera bat baino ez da”. Eusko Jaurlaritza modu “arduragabe eta onartezinean” jokatzeko ari zen “errealitatea desitxuratzen, gezurretan eta euskal gizartea nahastu nahiean ari zelako”<sup>40</sup>.

ETAk bere aldetik, ez zuen adierazpenik egin 2015eko apirilaren 30era arte *Gara* egunkariaren bidez komunikatu bat kaleratu zuen arte Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenari erantzunez. Bertan, proposamenari kritika gogorak egin zizkien, Eusko Jaurlaritzari<sup>41</sup>, Iñigo Urkullu Lehendakariari eta Jonnan Fernandez Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiari. Komunikatuaren laburpen batzuk honakoak dira:

(...) Eusko Jaurlaritzak ETAren armategiak zigilatzeko burutzen ari den prozesuari kalte egin nahi dio, Ezker abertzalearen kontra egiteko duen estrategiaren baitan. (...)

(...) Eusko Jaurlaritzak ez ditu gatazken konponbiderako nazioarteko ereduak jarraitzen, garaile eta garaituen eskema baizik. Nazioarteko ereduaren armagabetzea bake akordioei lotzen zaien osagaie-tako bat den bitartean, Eusko Jaurlaritzak modu isolatuan eta agindu gisa aurkezten du. (...)

(...) Bere burua bai babesten du Eusko Jaurlaritzak, legalitatearen baitan arituko dela argi utzita. Eta legalitatearen baitan aritzeak Espainia eta Frantziako polizia eta epaileen aginduen menpe egotea esan nahi du, dokumentuan nahitara esaten ez den arren. Zer nolako segurtasuna eskain dakioko Eusko Jaurlaritzak ETARI halakoa esan eta gero? (...)

Paradoxikoki, ETA 2017an, justiziarri eta Frantziako Poliziarri armak uzten bukatuko du alde bakartasunetik eta legaltasunetik abiatuta.

40 <https://www.eitb.eus/es/noticias/politica/detalle/2824772/desarme-eta--sortu-critica-propuesta-desarme-gobierno-vasco/>

41 [https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2015-05-08/hemeroteca\\_articles/eta-ren-agiria-euskal-herriari-1](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2015-05-08/hemeroteca_articles/eta-ren-agiria-euskal-herriari-1)

---

### 5.3. Luhusoko kapitulua

Hilabete batzuk beranduago jakin ahal izan zenez, 2016ko udan, Iparraldeko pertsona talde bat “Bakearen Artisauak” izenez ezagunak (hemendik aurrera, *Artisauak*) ETArekin harremanetan jarri zen armagabete-prozesuan bere laguntza eskaintzeko asmoz. Talde honen buruak Mixel Berhocoirigoin eta Jean Noël Etcheverry ziren eta Michel Tubiana giza eskubideen aldeko ekintzaile frantsesaren babesa zeukan.

Lehen kontaktu haiek abenduan ezagutzera eman ziren gutuna<sup>42</sup> gurutzatzea ekarri zuen. Gauzak horrela, jakin ahal izan zen, 2016ko urriaren 3an, Berhocoirigoinek, Etcheverryk eta Tubianak ETArri gutun bat bidali ziotela armagabete-prozesua errazteko beren burua eskainiz, eta armak gauzaez bihurtzeko eta erabileratik kanpo uzteko eta entregatzeko prest agertzen zirela adieraziz.

Urriaren 19an, ETAK idatzi bat igorri zien *Artisauen* aipatutako bidea jorratzeko prest agertuz. Azaroaren 2an, bere igortzaileek armagabete-prozesuaren erantzukizuna onartzen zutela erantzuten zuten. Azaroaren 15eko hurrengo idatzian, armagabetearen erantzukizun politikoa eta teknikoa gizarte zibilaren esku uzteko erabakia adierazten zien ETAK.

*Artisauen* plana, beraien esanetan, ETAREN armen parte bat gauzaez bihurtzeko lehen operazio bat grabatzea zen, ondoren bideoa Frantziako Gobernuari bidali eta erabileratik kanpo utzitako armategia entregatzeko. Frantziako Gobernuak armagabete-prozesuan parte hartzea onartuko ez balu, Parisen prentsaurreko bat eskainiko zuketena bideoa erakutsiz. Aldi berean, pertsona bat Baionako agintariengana joko zukeen eta ETAREN armen %15aren kokapena entregatu.

Plan honen garapenak porrot egin zuen hasi aurretik. 2016ko abenduaren 16an, Frantziako Poliziak Luhusoko baserri batean Jean Noël Etcheverry *Txetx*, Michel Berhocoirigoin, Beatrice Molle-Haran (armak gauzaez bihurtzea antzetzeko zen baserriaren jabea), Michel Bergougnan eta Stéphane Etchegaray (operazioa grabatuko zuen kameraria) atxilotu zituen.

Baserrian, armagabete-operazio hau armen suntsipena eta garbiketa ekarriko luketela adierazten zuten makinak eta garbitasun-produktuak aurkitu ziren. Gauzatu izan balitz, frogen suntsipena bezala interpretatu ahal izango zen eta, ondorioz, delitu larriak leporatu ahal izango zizkieten.

Polizia baserrian sartu zenean, Etcheverryk lau mezu publikatu ahal izan zituen twitter bidez, egiten saiatzen ari zirena azalduz. Mezuetakoa bik armak gauzaez bihurtzeko erabiliko liratekeen makinaren argazki pare batez lagunduta zetozen. Hori guztia ETArekin trukaturako gutunak argitaratzearekin gau hartan bertan.

Baionako komisaldegian atxikian izan ondoren, Parisera eraman zituzten eta epailearen esku geratu ziren. Atxilotuta hau Iparraldeko gizarte zibilaren zati handi batek arbuia zuen. Euskadin ere elkartasun erreakzioak eragin zituen. Iñigo Urkullu Lehendakariak aske uztea eskatu zuen. Azkenik, abenduaren 20n, baldintzapeko askatasuna eman zieten, Frantziako lurraldea uztea eta beren artean biltzea galarazita.

Egun haietan, CIV-eko kideek Eusko Jaularitzari jakinarazi zioten aurrez ez zekitela operazioaren berri eta ohiko bideetatik, beren egonezina eta desadostasuna adierazi ziotela ETArri jokatzeko modu horrengatik.

Ikuspegi operatibotik, armagabete-saiakera honek ez zuen funtzionatu. Dena dela, komunikabideetan isla garrantzitsua eduki zuen eta Iparraldean oihartzun handia gizarte zibil antolatuan. Honek pentsarazi zion ETArri armagabete-modalitate honetan aurrea har zezakeela, armen entregatzea porrot irudierekin lotuta geratzea saihestuz.

Nolabait ere, Luhusoko porrotak apirilaren 8an iritsiko zen behin betiko armagabetearen ideia argitu zuen ETAn. ETAREN eta Iparraldeko talde honen artean akordio bat marraztea zen kontua, armagabetearentzat zein hau eszeneratzeko. Akordio honek eta honen eszeneratzeak bi gertaera objektiboen abstrakzioa egitea ahalbidetuko lioke ETArri: armak baldintzarik gabe utziko lituzkeela eta Frantziako Poliziaren eta justiziaren esku utziko lituzkeela.

### 5.4. Apirilaren 8koaren prestatze-lanak

Luhusoko alferrikako ahaleginaren ondorengo asteotan, *Artisauen* taldeak eredu berberari ekiteko aukera aztertzen jarraitu zuen. ETArekin edo bere inguruarekin harremanetan jarraitu zuten, eta Frantziako Gobernuari mezu desberdinak helarazi zizkieten bide zuzenak eta zeharkakoak erabilia.

---

42 [https://www.naiz.eus/media/asset\\_publics/resources/000/349/303/original/20161217-correspondencia-eta-sociedad-civil.pdf](https://www.naiz.eus/media/asset_publics/resources/000/349/303/original/20161217-correspondencia-eta-sociedad-civil.pdf)

2017ko otsailean, *Artisauek* Eusko Jaurlaritzari ziurtatu zioten bezala, Frantziako Gobernuari zuzendutako mezuak, urtarrilean zehar, ez ziren erantzunik jasotzen ari. Berhocoirigoinek, Etcheverryk eta Tubianak zuzendutako taldeak ETAren armagabetze osoaren aukera erreala konbentzitu nahi zuten Frantziako Gobernuari; baina horretarako Frantziako agintarien lankidetzaren mailaren bat ezinbestekoa zen.

Bestetik eta Eusko Jaurlaritzari ahoz adierazitakoaren arabera *Artisauek* aldetik, ETArekin akordio bat zuten ondorengo baldintzen arabera:

- ETAk Bakearen Artisauek esku uzten zuen armagabetzearen erantzukizun tekniko eta armen suntsitzea.
- Zeregin honen kudeaketak “garaileen eta garaituen” arabera terminoen armagabetzearen interpretazioak egitea saihestu behar zen.
- Ram Manikkalingam-ek buru zuen CIV taldearen inplikazioa behar zen, armagabetze-prozesu honek nazioarteko egiaztatzea izan zezan.

Otsailean eta martxoan Eusko Jaurlaritzarekin eduki zituzten bileretan *Artisauek* aipatu ez zuten arren, litekeena zen aurreakordio hartan apirilaren 8ko data “D egun bezala” eta jardunaldi hartako eta aurreko egunetako jardura-plana garatzeko zenbait irizpide ere finkatuta egon izana.

Ezker abertzaleko iturri fidagarriek eta baimenduek berretsi egin zioten aste haietan Eusko Jaurlaritzari zenbait erabaki hartuta zeudela eta *Artisauek* zeregin erreala ez zela beti bat etortzen beraiek beren buruei egozten zizkietenekin. Armagabetzea Frantziako Presidentea aukeratzeko hauteskunde-kanpaina hasi aurretik gauzatuko zela izan zen alde aurretik hartutako erabakietako bat. Hauteskunde kanpaina apirilaren 9an hasi zen eta armagabetzea apirilaren 8an gauzatu zen.

Jada esan den bezala, ETAren eta Bakearen Artisauek arteko akordioetako bat Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak armagabetze-prozesuan nahastu behar zuela izan zen. Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak eskaera horren berri izan zuen ETAren eta mandatarien aldetik zein *Artisauek* aldetik ere, urtarrilean.

Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak mandatua onartu egin zuen; baina prozesu guztian Eusko Jaurlaritzari aintzat hartu behar zela jarri zuen baldintza bezala. Gauzak horrela, *Artisauek* Eusko Jaurlaritzaren jarri ziren harremanetan. Lehendabiziko bilera otsailaren 6an izan zen eta azkenekoa, armagabetzea baino lehen, martxoaren 30ean. Guztira, 9 bilera zail eta telefono-hizketaldi ugari. Bilera guztiak Baionan egin ziren, hemen aipatzen diren datetan:

Bileren datak
2017/02/06
2017/03/01
2017/03/08
2017/03/12
2017/03/16
2017/03/20
2017/03/22
2017/03/26
2017/03/30

Bilerak konplexuak izan ziren faktore askorengatik. Lehendabizikoa eta garrantzitsua, *Artisauek* Eusko Jaurlaritzaren babes itsua nahi zutela diseinatutako ibilbide-orriari, aldaketak onartzeko batera tarterik gabe eta ibilbide-orriari buruzko informazio dosifikatuarekin.

Otsailaren 6an edukitako lehendabiziko bileran, beren bozeramaileek azaldu zuten gizarte zibilaren inplikazioa ezinbestekoa zela eta armagabetzea modu ordenatuan egin behar zela. Horrekin batera adierazi zuten Frantziako Gobernuarekin kontaktuak existitzen zirela erantzun argirik ez bazuten ere.

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, armak uzteko prozesuan laguntzeko prest agertu zen beti ere modu serioan garatuko balitz eta 2014an egindako proposamenaren iraunaldia gogorarazi zien Bakearen *Artisauei*.

---

*Artisauek* Frantziako Gobernuaren babesa nahi zuten baina babesa lortu ez arren ez litzateke traba izango beren planarekin jarraitzeko. Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin zein Frantziakoarekin solaskide izateko eskaintza egin zien. Hasiera batean eskaintza ondo jaso zen, beranduago –ikusiko den bezala– alde batera utzi bazen ere.

Hurrengo bilera martxoaren 1ean egin zen. Aurrekoaren errepikapena izan zen. Noiz, nola eta norekin galderen inguruan informazio lausoarekin. Frantziako Gobernuarekin harremanek emaitza argirik eman gabe jarraitzen zuten; baina, aldi berean, *Artisauek* armagabetzea gauzatzeko erabakia berresten zuten Frantziako Gobernuaren laguntza eman ala ez.

Dena den, *Artisauek* aurreikusita zeukaten diseinuaren funtsezko datuak Eusko Jaurlaritzarekin partekatu gabe jarraitzen zuten, honen babesa erabakigarria zela esaten tematzen ziren bitartean.

Oso argia ez zen jarrera honen aurrean, ETAREN armagabetze berriaren aukerari buruzko zurrumurruek, iruzkinak eta adierazpenek gora egiten zuten bitartean eta aurreko esperientzia txarren baturagatik, Eusko Jaurlaritzak 2014ko abenduaren 21eko armagabetze-proposamena berrestea eta jarrera hartzearen eguneratzea erabaki zuen 2017ko martxoaren 6ko datarekin, folio bateko txosten batean (A.3. eranskina). Jarrera hartze hau Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin eta *Artisauekin* partekatu zuen Eusko Jaurlaritzak, ETARI edo bere ordezkariel helarazi ziezaiketela adieraziz.

Eusko Jaurlaritzak jokalekua mugatzeaz gain zertan lagun zezakeen eta bere posizioarekin eta konpromiso instituzionalarekin bateragarria ez zena adierazi nahi zuen. Bere jarrera hartzearen eguneratzeak lehen proposamenaren laugarren eta bosgarren urratsetan biltzen zuten eskaintza, momentuaren errealitateari egokituz. Gauzak horrela, armagabetze-prozesuan balizko parte-hartzea ondorengo bi puntuetan oinarrituko litzateke:

- ETAK egoki irudituko litzaiokeen erakunde baten esku utziko luke armen eta lehergaien biltegiatzeen inbentarioa eta kokapena.
- Eusko Jaurlaritzak armen inbentarioa eta kokapena jasoko lukeen erakundeari bere estaldura instituzionala eskainiko lioke, une horretatik aurrera, legalki dagokion bezala, jokatzeko eta Espainiako Gobernuaren eta Frantziako Gobernuaren aurrean solaskide izateko.

Baina lankidetzak hau gauzatzeko, hiru baldintza bete behar ziren:

- Armak ezin ziren suntsitu edo leku ezezagun batean erabileraz kanpo utzi. (Armagabetzeak legala izan behar zuen)
- Armagabetze-prozesuak nahiko berme eduki behar zuen: behin betikoa, epe motzean egiaztatua eta amaitua, eta konprometitua izatea. (Armagabetzeak behin betikoa izan behar zuen)
- Armen entregatzeak izaera unibertsala, boluntarioa eta baldintzarik gabekoa izan behar zuen. (Armagabetzeak baldintzarik gabekoa izan behar zuen)

Proposamenaren eguneratze hau Bakearen *Artisauei* 2017ko martxoaren 8ko bileran eman zitzaizkien, proposamen berri bat ez zela adieraziz, aurrekoaren eguneratzea baizik nazioarteko eragileentzat. Eusko Jaurlaritzak bitartekari gisa parte hartzen ari zirenen artean bere jarrera argitu zuen jarduera-eremua mugatuz. Azken finean armagabetze-prozesuan bere izaera legal, behin betikoa eta baldintzarik gabekoa buruzko argitasun-bermeak emango balira hartuko zukeen parte Eusko Jaurlaritzak.

## 5.5. Desadostasunak azaleratzen dira Bakearen Artisauekin

Bakearen Artisauek aunitz definitutako ibilbide-orria zeukaten eta dosifikatu egin zuten azalpena. Bilera bakoitzean planen xehetasun berriak zehazten joan ziren eta, neurri berean, arazoak sortzen ere bai. Zenbait adostasun egon ziren; baina desadostasunak nabarmenak izan ziren.

Martxoaren 6ko Eusko Jaurlaritzaren proposamenaren eguneratzearen hiru ardatzen edukiarekin dute batez ere zerikusia adostasunek: armagabetzeak legala, behin betikoa eta baldintzarik gabekoa. Txostenari buruzko balorazio ona adieraziz eman zioten hasiera *Artisauek* martxoaren 12ko bilerari. Beren eragozpen nagusia zen ez zitzaizela gustatzen “armak uztea” adierazpena porrot irudia erakutsi zezakeelako. Gainontzekoan ados zeuden armagabetzeak legala, behin betikoa eta baldintzarik gabekoa izan behar zuela.

Bilera hartan onartu zuten beren hasierako asmoa armak suntsitzea zela; baina orain Eusko Jaurlaritzaren planteamendua onartzen zuten: armak ezin ziren suntsitu. Agintarien eskutan utzi behar ziren. Zentzu honetan, armagabetzea legala izatea nahi zuten. Honaino iritsi ziren akordioak.

Bilera hartan bertan, *Artisauek* beren planak erakutsi zituzten neurri handi batean eta horrekin batera desadostasunak agerian jarri ziren. Beren planak bi eszenategi posible zeuzkan:

- A. Frantziako Gobernuak inplikazio-estaldura bermatuko balie armagabetze-planean, hau diskrezioz egingo litzateke eta behin amaituta aditzera eman.
- B. Frantziako Gobernuak inplikazio-estaldura bermatuko ez balie armagabetze-planean, hau modu publikoan egingo litzateke.

Frantziako Gobernuari zuzentzen zitzaizkion inplikazio-exijentziak politikoki posible den errealitatetik kanpo zeuden. Horrenbestez, guztia bigarren eszenategira zuzendu zen. Honela, martxoaren 12 hartan, igande goizez, *Artisauek* Eusko Jaurlaritzari esan zioten, martxoaren 17a, ostirala, baino lehen Frantziako Gobernuak baieztokarekin erantzungo ez balio egindako planteamenduari, ostiral horretan bertan publiko egingo zutela Frantziako komunikabide batean ETAren armagabetzea gertatuko zen eguna eta egun horretan gertatuko zenaren beste zehaztapen batzuk emango zituztela ezagutzera.

Zein egunetan izango zen argitu gabe, *Artisauek* Eusko Jaurlaritzari azaldu zioten nola garatuko zen D egun hori. Lau "sekuentziaz" hitz eginez azaldu zuten:

- Lehendabiziko sekuentzia.** D egunaren lehen orduan, ekitaldi bat antolatuko litzateke Baionako Udaletxean. Bertan, Jean René Etchegaray Baionako Alkateak eta Iparraldeko Elkargoko Presidenteak, Uxue Barkos Nafarroako Presidenteak, eta Iñigo Urkullu Lehendakariak hartuko lukete parte. Ekitaldi hartan, *Artisauek* Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari armen geolokalizazioa emango liokete, eta Batzordeak Frantziako agintariei bidaliko lieke informazioa. Azkeneko hau argazkirik gabe. Gai-nontzekoa komunikabideei zabalik eta adierazpen instituzionalekin.
- Bigarren sekuentzia.** Bakearen Artisauek ehundaka boluntario bidaliko lituzkete zuloen lokalizazio-puntuetara, Frantziako Poliziak egingo lukeenaren "behatzaile" gisa. Behatzaile bezala parte hartzeko deialdia edo gonbidapena publikoa izango litzateke. Komunikabideen eta pertsona ezagunen presentzia ere bultzatuko litzateke D egunean armak zeuden tokira joan zitezten.
- Hirugarren sekuentzia.** Egun horretan bertan, goizeko lehen ordutik, Baionan, ekintzen egitarau zabala garatuko litzateke eta jai-giroko mobilizazio zabalera deituko lirateke herritarrak. Ekitaldian adierazpen bat irakurriko litzateke ETA armarik gabeko erakundea zela berretsiz.
- Laugarren sekuentzia.** ETAk bere armategi guztia entregatu zuela berretsiko luke Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak.

Plan hauek entzun ondoren, Eusko Jaurlaritzaren kezka eta desadostasuna areagotu egin ziren. Desadostasun-puntu nagusiak hiru ziren:

- Eusko Jaurlaritzak ez zuen partekatzen martxoaren 17an armagabetzearen data publiko egitea tentsio mediatiko eta politiko gogorra eragingo zuelako, prozesua arriskuan jarriz eguna iritsi bitartean.
- Eusko Jaurlaritzak ez zuen partekatzen zuloetara ehundaka boluntario bidaltzearen ideia, gauzak erraztu beharrean, larri zailduko lituzkeelako Frantziako agintariekin. Are gutxiago partekatzen zuen oraindik deialdi publiko baten bidez egitea izen-emate deialdia.
- Eusko Jaurlaritzak ez zuen partekatzen jai-giroko mobilizazio bat antolatzearen nahia armagabetzearen egunaren osagarri gisa sentikortasunak irainduko lituzkeelako eta biktimenganako errespetu falta zelako.

Eusko Jaurlaritzak azaldu zuen armagabetzearen eguna neurrian eta diskrezioz egin behar dela, zehar-tasun- eta segurtasun-mekanismo guztiak zorrotz egin behar zirela. Norbaitek manifestazio edo jai bat egin nahiko balu, beste egun batean egin lezake; baina ez armagabetzea gauzatzen zen egunean bertan. Azken finean, Eusko Jaurlaritzak *parafernalia* gehiegi, *exhibizionismo* gehiegi eta *propaganda* gehiegi zeudela ikusten zuen diseinu honetan. Hau guztia armagabetzearen eguna noiz izango zen, ez inbentari-rik bazen ala ez, ez aldi bakar batean egingo zen, ez beste berme batzuk oraindik ezagutzen ez zirenean Eusko Jaurlaritzak parte hartzeko ezinbestekoak zirenak.

Eusko Jaurlaritzak ulertzen zuen *Artisauek* alde zurretik ezarritako plan itxia zuela Ezker abertzalearekin eta Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak planaren konpartsa izatea zela beren helburua, beha-

---

tzaile pasibo soil gisa jokatuz eta eskaintzen zitzaien zeregina onartuz. Eusko Jaurlaritzak zein Nafarroako Gobernuak ez zuten eginkizun hori onartu.

Hemendik aurrera, bilera bakoitzean desadostasunak agerian jarri ziren, dialektika-tentsio handiarekin. Hori horrela izan arren, Eusko Jaurlaritzak bere eragin-gaitasunarekin jarraitzea erabaki zuen norabide guztietan portu onera iritsi zedin.

## 5.6. Sei egun zail eta funtsezko bilera Moncloan

Martxoaren 12 hartako eguerdian, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkari Nagusia oso kezkatuta atera zen Baionan Bakearen Artisauekin edukitako bileratik. Lehendakariarekin kezka hau partekatu eta honek Ajuria Eneko Jauregian bilera batera deitu zion arratsalde horretan bertan.

Goiz hartan Baionan argitutako zehaztasun guztiak ezagutu eta aztertu ondoren, Lehendakariak mezu bat idatzi zion Raxoi Presidenteari gai honi buruz hitz egiteko epe motzean, elkar ikusteko beharra eta urgentzia aditzera emanez. Bilera martxoaren 14an, asteartean, egin zen.

\*\*\*\*\*

Modu diskretuan egin zen bilera hartan Lehendakariak Raxoiri azaldu zion, une hartan, epe motzean, ETAREN armagabetze legala, behin betikoa eta baldintzarik gabeko aukera errearen aurrean geundela, armagabetze hori “Bakearen Artisauak” izeneko Iparraldeko talde bat ari zela bideratzen, hauek François Holande buru zuen Frantziako Gobernuarekin harreman zuzenak eta zeharkakoak zeuzkatela, nahi adinako harrera ez zirela jasotzen ari, eta aste horretako ostirala baino lehen ez bazuten jasotzen mezurik Frantziako agintarien aldetik, talde horrek bere planak publiko egingo zituela eta agitazio mediatiko eta mobilizazio kanpaina moduko batean murgilduko zutela armagabetze-prozesua.

Lehendakariak bi gauza iradoki zizkion Raxoi Presidenteari. Lehendabizi, Espainiako Gobernutik ez galaraztea armagabetzea; eta bestetik, armagabetzerako joko- eta legaltasun-arauak ezartzeko komenigarritasuna kontuan hartzea aztertzea Frantziako Gobernuarekin. Raxoik aurreikuspen horiei buruzko informazio zehatzik ez zuela aitortu zuen eta eskertu egin zion Lehendakariari eman izana. 2017ko otsailaren 20an Malagan egin zen Frantziaren eta Espainiaren arteko Goi-bileran Hollande Presidenteak gai honi buruz ez ziola ezer esan gehitu zuen.

Bi egunetara Raxoi Presidenteak Lehendakariari deitu zion esateko Hollande-rekin hitz egin zuela eta hau iheskor agertu zela, hitz egiten ari zenari buruzko daturik ez zuela ulertaraziz. Raxoi Presidenteak –bere erara, ez modu oso esplizituan– Lehendakariari adierazi zion armagabetzea ez galaraztearen eskaera kontuan edukiko zuela bere Gobernuak.

Jarraian ikusiko den bezala, Lehendakariak egindako bi iradokizunei arreta jarri zitzaion. Raxoik eta Espainiako Gobernuak ez zuten galarazi armagabetzea eta ez zuten Frantziako Gobernuak bultzatu egitera, eta Frantziako Gobernuak legeko joko-arauak ezarri zituen armagabetzea gauzatzen uzteko.

\*\*\*\*\*

Aste hartan, aldi berean, Etcheverry-rekin izandako telefono-solasaldi bizietan, martxoaren 17an, armagabetzea garatuko litzatekeen data publiko egitearen ideia burutik kentzen saiatu zen Eusko Jaurlaritzak. Hala ere, zortea botata zegoen *Artisauen* buruzagien erabaki mugiezinetako bat zelako.

Baionan, martxoaren 15ean Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin egindako bileran konprobatu ahal izan zuen Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak akats larritzat jotzen zuela publizitate estrategia hori edo “behatzaileak” deitutakoen “errekrutatzea”. *Artisauak* ere ez ziren harberak izan, Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko kideek egun haietan egindako iradokizunen aurrean.

Ez zen posible izan *Artisauak* iritziz aldatzea eta horrela, 2017ko martxoaren 17ko eguerdian, Frantziako *Le Monde* egunkariak Jean Noël Etcheverry-ri egindako elkarrizketa bat argitaratu zuen izenburu honekin: “ETAK bere armagabetzerako erantzukizuna eman digu eta apirilaren 8ko arratsaldean armagabetzea erabatekoa izango da”<sup>43</sup>.

Elkarrizketa *Le Monde* egunkarian publiko egin eta handik ordu batera, Lehendakariak hurrengo adierazpena egin zuen ETAK behin betiko armak utziko zituen aukerari buruz.

---

43 <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/politika/osoak/4710828/etaren-armagabetzea-2017ko-apirilaren-8an-burutuko-du-etak/>



### **Lehendakariaren Adierazpena ETAren armagabetzearen aurrean**

ETAren amaierako armagabetzea epe motzean egitearen aukera ezagutzera eman du duela gutxi Frantziako komunikabide batek. Informazio honekin lotuta ondorengo kontsiderazioak egin nahi ditut:

1. Aukera honek inguruko informazio zuzena eduki du Eusko Jaurlaritzak eta une bakoitzean zegoen ETArekin behin betiko armagabetzea alde bakarra, atzerazina, osoa eta legezkoa gauzatzeko aldera eman beharko liritekeen urratsei buruzko bere balorazioa adierazi die.
2. Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz adierazi du giza honetako prozesuetan, seriotasun bermerik onena diskrezioa babestea dela ahal den guztia.
3. Eusko Jaurlaritzak sinesgarritasuna ematen dio amaierako armagabetzea, epe motzean egiteko aukerari eta orain arte hori bultzatzen laguntzen ibili da bere posibilitateen barruan.
4. Eusko Jaurlaritzak uste du baldintzak daudela ETAren amaierako armagabetzearen aukera hau aztertzeko. Ikuspegi honetatik, adi eta arreta jarrita egongo da bere eboluzioari begira.
5. Eusko Jaurlaritzak bere esku dagoen guztia egingo du bere helmugara iritzi dadin guztia bere esku ez dagoen arren. Ikuspegi honetatik, dagokien instituzio eta erakunde guztiei, bereziki Espainako eta Frantziako gobernuei, heldutasuna eta komunikazio bide zuzenak eskatzen dizkie, komunikabideetatik aldentuta eta gure gizartearentzat balio historikoa daukan helburura lortze aldera.

*Artisauekin* eta Ezker abertzalearen planteamenduekin zeuzkan diskrepazien gainetik, Eusko Jaurlaritzak lehentasuna eman zion armagabetze legezkoa, behin betikoa eta baldintzarik gabeko baten on gorenari, eta sinesgarritasuna eman zion zabalduko aukerari, arriskuan jar lezakeen formatu eta jardueraren metodo bat ekiditen saiatzeko bere eragina egiten jarraitzeari uko egin gabe.

## **5.7. Harremana Frantziako Gobernuarekin**

Martxoaren 6tik, Eusko Jaurlaritzak Frantziako agintariekin harremana sustatu zituen, bide diplomatiko baten bidez, Frantziako Gobernuarekin lotuta, zein epailtzaren bidez. Raxoi Presidentearekin Lehendakariak izandako kontaktuez gain, Eusko Jaurlaritzak informazio berdina partekatu zuen bere solaskide frantsesekin.

Harmena ona zen eta kezka partekatua. Egiten uzteko alde aurretiko joera zegoen, hau da, armagabetzea ez galarazteko, eta *Artisauek* eta Ezker abertzaleak prozesu hau nola kudeatu nahi zuten moduari buruz kezka handia zegoen. Dirudenez batzuek eta besteek ulertzen ez zutena zen zarata mediatikoak eta armagabetzearen erakustaldi politikoak Espainiako eta Frantziako Gobernuak eskuhartzera bultzatzea.

Aste haietan, Eusko Jaurlaritzak jakin izan zuen bi Gobernuek presio garrantzitsuak jasan zituztela polizia eta kontserbatzaileen ingurutik. Ez zuten ulertzen zergatik Frantziako eta Espainiako poliziek ez zuten irmoki esku hartzen armagabetze-prozesu hau ekiditeko eta eragozteko.

Frantziako agintariekin izandako harreman hauetan, solaskideek hiru mezu helarazi zituzten Eusko Jaurlaritzari: (1) Frantziako Gobernuak ez da nahastuko, zuzenean edo zeharka, armagabetzearen eszenografian ezta operatiboan ere; (2) Frantziako Gobernuak ez du armagabetzea ekidingo, agintari judizialen bidez bideratzen bada; eta (3) armagabetzearen nahastu diren neurri ez desiragarriak hartzera behartzen dituzten eszenografiak ekidin behar dituzte, jai-ekitaldiak antolatzearen edo zuloetara polizia-jardueraren behatzaile gisa joango ziren boluntarioek izen-ematea gauzatzeko deialdi publikoak egitearen ideari aipamen argia eginez.

\*\*\*\*\*

Aste hartan, martxoaren 17an bertan, *Le Monde* egunkarian armagabetzearen berri eman zen egunean, Frantziako solaskideek Eusko Jaurlaritzari azaldu zituzten Frantziako Gobernuaren jarrera asteburu hartan Bruno Le Roux Frantziako Barne Ministroak eta Bernard Cazeneuve Lehen Ministroak egingo zituzten adierazpenetan islatuta geratuko litzatekeela.

---

Martxoaren 18an, Bruno Le Roux Frantziako Barne Ministroak baieztatu zuen ez zuela negoziatuko ETA-rekin armak uztea eta adierazi zuen soilik aginpide judiziala zegoela gaitua armak eskuratzeko (A.4. eranskina). Armagabetzean bitarteko izaten ahaleginduko zirenei ere abisua eman zieten frogak maneiatzeak ere justiziaren eta egiaren argitzea oztopatu zezakeela. Martxoaren 20an, Bernard Cazeneuve Frantziako Lehen Ministroak baieztatu zuen ETArekin armak uzteak arau judizialak errespetatu behar zituela (A.5. eranskina). Adierazpen hauekin, Frantziako Gobernuak armagabetzerako legezko joko-zelaia mugatzen ari zen.

\*\*\*\*\*

Eusko Jaurlaritzak jasotzen zuen mezua nahiko argia zen. Frantziako Gobernuak ez zuen parte-hartzerik nahi armagabetze-planean, ezta bide polizialek ere. Ez zuten nahi *Artisauek* ezta Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak ere zuloen kokapena Poliziari ematea Justiziari baizik. Frantziako Gobernuak armagabetzearen “boluntario behatzaileen” ideia ausarkeria zorotzat jo zuten.

Eusko Jaurlaritza informazio hauek adierazi zizkieten *Artisauei* zein Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari. Batzordeak oso harrera ona egin zien iradokizunei eta armagabetzea ahalik eta modurik egokienean bideratzeko Eusko Jaurlaritzak Frantziako agintariekin zeukan solaskidetasuna ere ondo onartu zuen. Dena den, Eusko Jaurlaritzarekin biltzen ziren *Artisauei* ordezkariek mespretxatu eta gutxietsi egin zuten komunikazio-bide hau. Izan ere, uko egin zioten erabiltzeari.

Lehen ondorioa garbia zen: zuloen kokapenari buruzko informazioa agintari judizialei eman behar zitzaien eta ez Frantziako Exekutiboari, ezta Poliziari ere. Zintzilik geratzen zen beste kontu bat zen argitzea zehazki Frantziako zein agintari judizialari helarazi behar zitzaion zuloei buruzko informazioa. Eusko Jaurlaritzaren Frantziako solaskide nagusiak martxoaren 21ean erantzun zion posta elektronikoz galdera honi:

“Frantziako sistema judizialean koordinatuak jasotzeko gaitutako pertsona bakarra François Molins Magistratua da, gaur egun Errepublikaren Prokuradorea Pariseko Auzitegiaren aurrean eta terrorismoarekin lotura duten gai guztien arduraduna maila nazionalean” (A.6. eranskina). Ondoren edukitako solasaldietan Baionako bulego judizialean utzi ahal izateko mekanismoa zehaztu ahal izan zen, Errepublikako Prokuradorearekin harreman zuzenean.

Frantziako agintarien solaskideek Eusko Jaurlaritzarekin komunikazio-lerro argia eta leiala mantendu zuten. Nahiko sena eduki zuten ulertzeko armagabetze osoa eta baldintzarik gabearen on gorena babesteko *Artisauek* prestatutako ekintzen programatik eratorritako beste gertakizunen aurrean.

Azkenik, Frantzia armagabetzea ez galaraztea ez ezik, azken egunetan, Poliziaren eta *Artisauei* arteko harremanen bidez oker handiagoak ekiditen eta armagabetze-operazioaren azken fasean ordena piska bat jartzen saiatu zen, “behatzaile boluntarioen” presentziari dagokionez zehazki.

## 5.8. Eraitzen balantzea

Aste haietan, *Artisauek* aurrera jarraitu zuten ekitaldi publikoen egitarauarekin: foro publiko bat Biarritzen martxoaren 17an eta 18an, bozeramaileen elkarraketak komunikabide guztietan (egunkariak, irratiak, telebistak), Iparraldeko hautetsiekin prentsaurrekoak, komunikabideetan filtrazioak armagabetzea nola egingo zen kontuen inguruan... Armagabetzerako jarritako egunaren, apirilaren 8aren, aurreko astean iragarpenetik sortutako aktibismoa eta zarata mediatikoa oso altua zen.

Gertakarien joan-etorri mugitu honetan gartaera paradoxiko bat zegoen jorratzea merezi duena, neurri batean, *Artisauekin* sortutako desadostasunetako batzuk azalduko dituelako agian. Armagabetzea Iparraldean garatuko zen eta Iparraldeko talde eta pertsona batzuk bideratuko zuten. Berariazko babesa Iparraldeko hautetsien eskutik zetorren halaber.

Hala ere, Euskadiko edo Estatuko komunikabideek egunero gai honi eremu zabalak eskaintzen ari ziren bitartean, Iparraldeko komunikabideek ez zioten kasik espaziorik eskaintzen. Frantziako estatu mailako komunikabideek arreta minimoa eskaini zioten.

Posible da ikuspegi-arazoren bat topatu izana hemen. *Artisauei* Iparraldeko ikuspegitik bururatu zitzaizen eskema, ETArekin hildakorik gabeko eremua, zatiketa politikorik gabe eta zauri sakonik gabe terrorismoaren eraginez. Iparralden ideologia desberdinetako pertsonak biltzea armagabetzea babesteko –formari eta edukiari buruzko ñabardurei erreparatu gabe– erraza eta eroso zen. Oso desberdina zen Hegoaldean egitea.

*Artisauek* ez zuten kontuan hartu Euskadiren, Nafarroaren edo Espainiako Estatuaren errealitatea ezta diseinatzen ari ziren armagabetze-jardunaldiaren eredia diseinatzeak zekartzan zailtasunak ere. Egia da entzun egin zutela baina ez ziotela kasurik egin Eusko Jaurlaritzak aditzera eman nahi zienari.

Ezker abertzaleak ezta ere. Martxoaren 23an, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkari Nagusiak Donostiako hotel batean bilera eduki zuen Rufi Etxeberria Sortuko buruarekin kezka hau partekatzeko eta aurreikusitako formatuan aldaketak sartzeko aukera aztertze asmoz. Bilerak ez zuen emaitzarik eman eta *Artisauek* eta Ezker abertzaleak aurreikusitako diseinua itxita zegoela konfirmatzeko balio izan zuen.

\*\*\*\*\*

*Le Monde* egunkarian armagabetzearen data argitaratu zenetik, *Artisauekin* izandako hurrengo bilerek eta harremanek agerian jarri zuten talde honek ez zituela bere planteamenduak aldatuko eta Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea gonbidatu pasibo gisa interesatzen zitzaizela soilik. Bilerak zail haiek emaitzen balantzea utzi zuten. Bere ekitearen kontra izan bazen ere, Eusko Jaurlaritzak lortu ez zuena hurrengo puntuetan laburbil daiteke:

- Ez zuen lortu ekiditea armagabetzearen data hiru aste lehenagotik publiko egitea.
- Ondorioz, ez zuen lortu gehiegizko agerpen mediatikoa eta *Artisauek* aste haietan aurreikusita zeuzkaten ekitaldi publikoak saihestea.
- Ez zuen lortu ezta armagabetze-prozesuan “boluntario-behaztaileen” parte-hartzea bertan behera uztea ere.
- Ez zen posible izan *Artisauei* eta Ezker abertzaleari buruan sartzeko armagabetzearen data eta mobilizazio sozialaren ekitaldi bat egiteko asmoa bereiztea, biktimenganako errespetuagatik.
- Armagabetzea baino ordu bete lehenago arte ez zen lortu ETAk utzi behar zituen armen inbentario garbirik edukitzea.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak behin eta berriro desadostasunak adierazteak hasierako planteamendu batzuk aldatzea lortu zuen:

- Aurreikusita zegoena ez bezala, azkenik ez ziren armak suntsituko ezta garbituko ere.
- Boluntarioen izen-ematerako ez zen deialdi publikorik egingo zuloetara behaztaile bezala joateko.
- “Boluntario-behaztaileen” zenbakia ez litzateke ehundakakoa izango zulo bakoitzean, 10-20 pertsona bitarteko talde txikiak baizik kokaleku bakoitzean.
- Apirilaren 8ko ekitaldi sozialak ez luke festa izaerarik edukiko hasiera batean aurreikusita zegoen bezala eta biktimen sentikortasuna edukiko luke kontuan.

Lorpen partzial hauek ez ziren soilik Eusko Jaurlaritzak behin eta berriro adieraztearen emaitza. Ildo berdinetik bat etorri ziren Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak *Artisauei* luzatutako mezuak. Martxoaren 23tik apirilaren 8ra Eusko Jaurlaritzak zortzi bilera egin zituen Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin. Martxoaren 30etik aurrera *Artisauekin* egindako bilerek ez zuten jarraipenik izan. Telefono-harremanak eta mezuak egon ziren norabide desberdinetan.

\*\*\*\*\*

Eusko Jaurlaritzaren posizioa bi mugarri zeuzkan: alde batetik, ahal zen guztia egin armagabetzea legala, behin betikoa eta baldintzarik gabea izan zedin; eta bestetik, biktimen sentikortasuna mindu edo lehen helburua arriskuan jar zezakeen distorsio propagandistikoa adierazi zezakeen guztiaren aurka egotea sendoa.

Armagabetze legala, behin betikoa eta baldintzarik gabea babesteko Eusko Jaurlaritzak eta bereziki Lehendakariak hurrengo ekintzak garatu zituen:

- Martxoaren 14tik apirilaren 8ra, Lehendakariak Raxoi Presidentearekin etengabeko harremana izan zuen informazioa partekatzeko eta Espainiako zein Frantziako Gobernuak armagabetzea ez eragozteko.

---

-Eusko Jaurlaritzak Frantziako agintarien solaskideekin harreman bizia mantendu zuen armagabetzea legala eta bideragarria izan zedin joko-eremua zein izan behar zuen zehazki definitzeko, eta baita Frantziako agintarien erantzuna *Artisauen* azken eguneko planei zentzuzkoa izan zedin.

-Lehendakariak eta Eusko Jaurlaritzak Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin komunikazio estuaren eta kolaborazio leialaren dinamika mantendu zuten armagabetzearen prozesua portu onera iritsi zedin laguntzeko.

-Lehendakariak bilerak eduki zituen euskal alderdi politikoekin eta Legebiltzarreko taldeekin maila gorenean. Bilera hauetatik eta Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako testu bat oinarri hartuta, Eusko Legebiltzarrak zein Nafarroako Parlamentuak onartu zuten armagabetzea babesteko Legez besteko Proposamena sortu zen (A.7. eranskina).

-Lehendakariak Nafarroako Foru Komunitateko Presidentearekin harreman iraunkorra mantendu zuen eskuragai zegoen informazioa partekatzen. Martxoaren 16an, bi lehendakariak bazkari bat eduki zuten Nafarroako Foru Jauregian.

-Lehendakariak eta Eusko Jaurlaritzak aste haietan sarri hartu-emanak eta bilerak eduki zituzten Iparraldeko Elkargoko Presidentearekin zein bere kolaboratzaileekin armagabetzerako aurreikusitako planteamendua hobetzen eta aldatzen saiatzeko.

-Lehendakariak bilera bat deitu zuen apirilaren 5erako, Nafarroako Gobernuo Presidentearekin, Iparraldeko Elkargoko Presidentearekin eta Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordearekin armagabetzearentzat ahalik eta babes instituzional hoberena bateratzen saiatzeko.

-Desadostasunen eta Eusko Jaurlaritzak *Artisauen* apirilaren 8rako diseinatutako ekitaldien egitarauan parte hartu ez zuen arren, funtsezkoenari –armagabetze legal, behin betiko eta baldintzarik gabea zekarren prozesuak zekarren guztiari– bere laguntza praktikoa eta bere babes publikoa eskaini zion Jaurlaritzak eta osagarri edo kaltegarria iruditu zitzaion guztiaz distantzia hartu zuen. Hau Lehendakariaren agerraldietan jarri zen agerian, martxoaren 17koan zein apirilaren 8koan.

-Agerraldi publikoak martxoaren 17an eta apirilaren 8an: Lehendakariak Eusko Jaurlaritzaren ize-nean jendarrean agertu zen armagabetze legala, behin betikoa eta baldintzarik gabearen ekintza berresten eta balioa ematen.

## 5.9. Armagabetzearen astea

Azken astean, jarduera handia garatzen jarraitu zuen. Presioetako zati handi bat Eusko Jaurlaritzara eta Lehendakariarengana zuzendu ziren apirilaren 8rako aurreikusitako goizeko ekitaldian parte har zezan. Gogoratu dezagun apirilaren 8an goizez armagabetzearen eszenaratzea egitea eta arratsaldean mobilizazio soziala antolatzea zela *Artisauen* plana.

Aurreikustako planaren arebera, goizeko eszenaratzearen barruan, Lehendakariak Jean René Etchegaray Iparraldeko Elkargoko Presidentearekin eta Uxue Barkos Nafarroako Gobernuo Presidentearekin batera parte hartu behar zuen ekitaldi instituzional batean Baionako Udalean zeinean *Artisauek* Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari entregatuko lieketen zuloen kokapena, honek informazioa Frantziako justiziaren esku utzi zezan.

Eusko Jaurlaritzak bi eskakizunetan insistitzen zuen: entregatuko ziren armen inbentarioa alde zuzenetik ezagutzea eta apirilaren 8rako aurreikusita zegoena funtsean aldatzea. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak proposatzen zuena hauxe zen: armak apirilaren 8a baino lehen uztea eta modu diskretoan egitea segurtasuna eta bideragarritasuna bermatzeko. Asteetan zehar behin eta berriz adierazitako proposamen hauetatik bat bera ere aintzat hartu ezenez, *Artisauek* apirilaren 8rako antolatutako ekitaldian parte ez hartzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak.

Eusko Jaurlaritzari zuzendutako presioen artean Jean René Etchegaray Baionako Alkate eta Iparraldeko Elkargoko Presidentearena nabarmentzen da. Berarekin Baionan egun haietan egindako bilerak eta hartu-emanak batzuk izan ziren. Eusko Jaurlaritzak saiatu zen Etchegarayri egin nahi zenari buruzko begirada eta ondorioak adierazten, Iparraldetik edo Euskaditik eta Nafarroatik begiratuta erabat desberdinak zirela, alegia.

Lehendakariak azaldu zion Eusko Jaurlaritzak proposatzen zuena oinarritzkoa bezain zentzuzkoa zela: inbentarioa alde zuzenetik ezagutzea, "behatzaile-boluntarioen" eszenografia ekiditea eta armagabetzearen

ekintza biktimen sentikortasuna iraindu zezakeen gizartearen edozein mobilizazio-ekitalditik bereiztea. Uxue Barkos Nafarroako Foru Komunitateko Presidentearen jarrera erabat bat zetorren puntu hauetan Eusko Jaurlaritzarenarekin, baita Nazioarteko Egiaztatze Batzordearenarekin ere.

Kontua da Jean René Etchegarayk azken minutura arte insistitu zuela Lehendakariaren presentzia eskatuz apirilaren 8ko goiz hartan Baionan; baina hori bezain egia zen Eusko Jaurlaritzaren hiru planteamenduak kontuan hartu ez ezik *Artisauek* prestatutako eskema bermatu zuela. Ekitaldi instituzionala alde aurretik inbentarioa ezagutu gabe egingo zen, “behatzaile-boluntarioen” eszenografia mantendu egingo litzateke, eta armagabetzea, ekitaldi instituzionala eta mobilizazio soziala egun berdinean eta ekitaldi-egitarau berdinen barruan.

\*\*\*\*\*

Zailtasunak gorabehera, Eusko Jaurlaritzak ez zion uko egiten bere eragin-ahalmena erabiltzeari. Tes-tuinguru honetan, apirilaren 5ean, asteazkena, bilera diskretu bat prestatu eta deitu zuen Arkauten, arma-gabetzea baino hiru egun lehenago.

Bileran Iñigo Urkullu Lehendakariak, Jonan Fernandez Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkari Nagusiak lagunduta; Uxue Barkos Nafarroako Foru Komunitateko Presidenteak, Álvaro Baraibar Bake, Elkarbitzeta eta Giza Eskubideen Zuzendariak lagunduta; eta Jean René Etchegaray Iparraldeko Elkargoko Presidenteak Marc Amestoy bere Kabinete buruak lagunduta; eta baita, Ram Manikkalingam Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordeko Zuzendaria, Juan Garrigues bere laguntzai-leak lagunduta.

Bilera horren lehen helburua egoeraren analisia eta ETAren armagabetzearekin lotutako berehalako urratsak partekatzea zen. Zentzu honetan, armagabetzearen ekitaldian utziko ziren armen inbentarioa ezagutzea zen. Lehendakariak zein Nafarroako Gobernuo Presidenteak insistitu zuten erantzukizun instituzionalagatik euren gobernuen edozein inplikazio armagabetze-prozesuan alde aurreko berme minimo argiak eduki behar zituela bere bolumenari eta neurriei buruz.

Modu harrigarrian, Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordeak ez zuen inbentariarik jarri mahai gainean, baizik eta zalantzak argitu ez zituzten estimazio generiko eta zehaztugabe batzuk. 20:00etan hasi eta goizeko 01:30ak arte luzatu zen bileran egiaztatuta ahal izan zen funtsezko beste bi gaietan ere ez zela aldaketarik egongo: armagabetze-ekitaldia eta eszenografia soziala bi egun desberdinetan garatzea eta “behatzaile-boluntarioen” presentzia bertan behera uztea.

Bileran jorratutako beste kontu bat eta Jean René Etchegarayk insistitu zuena apirilaren 8ko ekitaldian Lehendakariaren eta Nafarroako Presidentearen presentzia izan zen. Jardunaldia planteatzen zen baldintzetan eta Eusko Jaurlaritzak zein Nafarroako Gobernuak egindako planteamenduak jarrera irekiarekin hartzeko gabezia kontuan hartuta presentzia baztertuta zegoen. Bilera bizia izan zen eta zenbait momentutan ere tentsioa egon zen.

Dena den, bilera hartan ordezkaturako hiru erakundeak bat etorri ziren elkarrekin Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordeari babesa agertzeko; eta baita armagabetzea legala, behin betikoa, baldintzarik gabea eta egiaztagarria izan zedin babesteko ere. Akordio hau apirilaren 7an eguerdian eman zen ezagutzera hiru erakundeek aldi berean publiko egin zuten komunikatu batean, bileran grabatutako irudiak eskainiz.

*Prensa-ohar bateratua*

***Iñigo Urkullu, Uxue Barkos eta Jean René Etchegarayren  
bilera Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordearekin***

*Iñigo Urkullu Lehendakariak, Uxue Barkos Nafarroako Gobernuo Presidenteak eta Jean René Etchegaray Iparraldeko Elkargoko Presidenteak lan-bilera bat eduki zuten, asteazkenean, Ram Manikkalingam Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordeko Koordinatzailearekin.*

*ETAren azkeneko armagabetzearekin lotutako egoeraren eta berehalako urratsen analisia partekatzea izan zen bileraren lehendabiziko helburua.*

---

*Aldi berean, hiru erakundeek Egiazatzaileen Nazioarteko Batzordeari egindako lan onari babesa emateko balio izan zuen bilerak. Helburu hau lortze aldera, gizartearen inplikazioa ere baloratu zuten.*

*Azkenik, bideratzen ari den ETAREN azken armagabetzearen prozesua behin betikoa, baldintzarik gabekoa eta egiaztagarria izatea eta legaltasun-bermeen esparru batean garatzea eskatu zioten hiru erakundeek Egiazatzaileen Nazioarteko Batzordeari.*

*Bilerak, 20:00etan hasita, lau orduko iraupena izan zuen eta Gasteizko Neiker-Tecnalia ikerketa zentroaren egoitzan egin zen Arkauten.*

\*\*\*\*\*

Hurrengo eguna, 2017ko apirilaren 8a, ETAK bere armagabetzea gauzatuko zuen data bezala pasako zen historiara. Guztia aurreikusita zegoen bezala gertatu zen. Lehen orduan Baionako Udalean egin zen ekitaldi instituzionala. Bakearen *Artisauek* Egiazatzaileen Nazioarteko Batzordeari karpeta bat pasa zioten zuloen edo armen biltegien kokapenari buruzko informazioarekin. Entregatze hau Jean René Etchegaray Iparraldeko Elkargoko Presidentearen aurrean egin zen. Mateo Zuppi Boloniako Gotzaina eta Sant'Egidioko Komunitatearen kide garrantzitsuak eta Harold Good Ipar Irlandako apaiz protestanteak –IRAREN armagabetzean parte hartu zuenak– ere emate horren lekuko gisa parte hartu zuten.

Egiazatzaileen Nazioarteko Batzordearen ordezkari batek zuloen kokapenaren informazioa eraman zuen Baionako justizia-egoitzara. Handik ordu gutxira, Frantziako Polizia biltegietara hurbildu zen hauen kontrola hartzera. Kokapen horietan talde txikiak zeuden operatiboa behatzen distantzia batera eta Poliziaren kontrolpean. Zorionez, ez zen istilurik izan.

Egiazatzaileen Nazioarteko Batzordeak publiko egin baino ordu bete lehenago partekatu zuen inbentarioa Eusko Jaurlaritzarekin. Bere bolumena orokorrean bat zetorren Poliziaren eta Ertzaintza beraren kalkuluekin. Frantziako agintariek Eusko Jarlaritzari berretsitako uste sendoa zen ETAK kontrolpean zituen arma guztiak entregatu zituela. Azken urteetan, ETAREN zuzendaritzen aurkako atxiloketa ugariak kontuan hartuz, ETAREN orduko zuzendaritzak ezagutzen ez zituen kokapenetan egon zitezkeen beste zuloen edo armen biltegien esistentzia ezin zen baztertu.

Utzitako armak, zortzi puntutan banatuta, hurrengoak izan ziren:

**Armak eta munizioa**

- 118 arma motz.
- 25.500 munizio unitate.

**Leherkariak**

- 3.017 kilo leherkari.
- 721 m kordoi eta kable.

**Gailuak**

- 111 gailu lehergailuentzat eta 28 gailu desberdin.
- 387 detonatzaile, horietako 24 detonatzaile elektrikoak.
- 390 tenporizadore.
- 4 gailu lapa-lehergailuak egiteko.
- 2 kargadore.

**Beste materiala**

- 100 plaka ibilgailuentzat eta jendarme txaleko eta besoko bana.
- Armak erabiltzeko 7 gidaliburu.

*Artisaunen* eskutik Baionan aurreikusitako ekitaldien programak pentsatutako gidoiaren arabera jarraitu zuen. Zenbait mahai-inguru eta ekitaldi goizetik eta milaka lagunengatik elkarretaratzea arratsaldean zeinean ETA armagabetutako erakunde bat zela berresten zen. Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak ez zuen parte hartu egitarau honetan.

\*\*\*\*\*

Eusko Jaurlaritzak, 2014ko abenduan, ETAren aldebakarreko armagabetzearen bidezko ekitaldia proposatu zuen, euskal gizartearen aurrean eta gizartearen, nazioartearen eta instituzioen babesarekin. ETAk bere zuloen inguruko informazioa erakunde sozial baten aurrean uztea iradokitzen zuen proposamenak, ondoren legalki zegokion bezala jokatzeko. Prozesu horrek nazioarteko eta erakundeen babesa izango zuen, eta zehazki baita Eusko Legebiltzarrarena ere.

2017ko apirilean, ia bi urte eta erdi beranduago, ETAk aldebakarreko armagabetzea burutu zuen "euskal gizartearen aurrean". Bere zuloei buruzko informazioa erakunde sozial baten esku utzi zuen honek legalki zegokion bezala jokatu zezan, hau da, Justiziara eramanda informazio hori Poliziak ondorioz jokatu zezan. Hori guztia nazioarteko eta erakundeetako estaldura-maila batekin. Euskadiko eta Nafarroako erakundeek, beren gobernuak eta Parlamentuek, erabaki hau babestu zuten.

\*\*\*\*\*

Apirilaren 8ko bezperan, ostegunean eta ostiralean, Lehendakaria eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkari Nagusiak bi bilera eduki zituzten Baionan Ram Manikkalingam-ekin. Bilera hauek ere ez zuten balio izan inbentarioari edo Frantziako Justiziari zuloei buruzko berria 24 ordu aurreratzeko aukerari buruz informazio berriak argitzeko azken proposamen hau Frantziako agintariek iradoki zioten Eusko Jaurlaritzari.

Dena den eta azken bilera hauek emaitzarik eman ez bazuten ere, Ram Manikkalingam-ek Lehendakariarekin publikoki biltzeko nahia adierazi zuen, Frantziako Justiziari zuloei buruzko informazioa eman ondoren. Horrela izan zen.

Apirilaren 8an, larunbata, goizeko lehen orduan, Bilboko Metroaren 3. linearen inaugurazioan parte hartu zuen Lehendakariak. Handik Eusko Jaurlaritzak Donostiako Andia kalean duen egoitzara joan zen non, 13:15ean, prentsa deitua zegoen ETAren armagabetze legala, behin betikoa eta baldintzarik gabearen berrespenaren aurrean bere adierazpena entzuteko.

Ram Manikkalingam agerraldi hartan egon zen Lehendakariaren ondoan eserita. Eusko Jaurlaritzaren eta Lehendakariaren inplikazioa eta une oro bere aldetik izandako babesa eskertzeko hartu zuen hitza soilik. Lehendakariak irakurritako adierazpena ondorengoa izan zen:

### **Epikatik etikara**

*ETAren armagabetzearekin gaur egiaztatzen dugun funtsezko gertaera da armak klan-destinatearen eremutik legaltasunaren eremura pasa direla.*

*ETAren armagabetzea edozein epikatik salbuetsita dago; baina esanahi etiko nagusi bat dauka: behin betirako ziurtatzen du ETAk eragindako biktima bakar bat ere ez zuela inoiz eragin behar, inoiz ez.*

*Arrazoi etiko horrengatik, biktima guztiak eta haietako bakoitza gaur egun gizartearen, bere erakundeen, politikaren eta giza eskubideen lorpen demokratikoaren subjektu eta partaide nagusiak dira.*

*Azken asteotan, Eusko Jaurlaritzak lan egin du armagabetzea bideragarria izan zedin, legezkoa, aldebakarra, osoa eta ordainik gabea, eta bere helmugara ondo iritsi zedin.*

*Espainiako Gobernuarekin, Frantziako agintariek, Nafarroako Gobernuarekin eta Iparraldeko Elkargoarekin harremanetan egon da.*

*Eusko Legebiltzarrarekin, talde politikoekin eta gizarte eragileekin eta Egiatzatzaileen Nazioarteko Batzordearekin koordinatuta egon da.*

*Beharrezkoa izan da geure gizartearentzat lorpen garrantzitsua duen balio historikoari erantzunio liokeen elkargunea diskrezioz ehuntzea erakundeen eta eragile politiko eta sozialen artean.*

*Azpimarratu eta eskertu nahi dut une honen kudeaketan, modu batera edo bestera, nahasita egon diren gobernuetan, erakundeetan eta indar politikoetan aurkitu dugun heldutasuna eta lankidetzeta.*

*Egiatzatzaileen Nazioarteko Batzordeak ETAren azken armagabetzea bideratzen egindako lan ona ere eskertzen dut, orain Frantziako agintari judizialek berretsi behar dutena.*

---

*Legezko, behin betiko eta ordainik gabeko armagabetzearen egiaztapena funtsezko urratsa da indarkeriaren amaiera ordenatuaren eta ETaren desagertzearen prozesuan.*

*Bideak aurrera darrai. Gaur ez da ezer hasten ezta bukatzen ere. Bizikidetzaren normalizatu baten alde lanean jarraitzen dugu, orain eszenategi hobe batean.*

*Bakearen alde hainbat eta hainbat lagunek, erakundeek eta instituzioek hainbeste urtetan egindako lanari jarraipena emango dio Eusko Jaurlaritzak, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan berriaren bitartez.*

*Etorkizuneko eta itxaropenezko egitasmoa dugu helburu nagusi batekin, Gizartea Elkartzea, bizikidetzaren normalizatuaren helburua. Konpromiso etikoak jarraitu egiten du.*

## 6. Desegitea

---

Behin betiko armagabetzea berretsi ondoren, hurrengo helburua ETaren desegite garbi eta eraginkorra zen. Logikoa zirudien. Hala ere, oraindik zenbait zailtasun agertuko ziren. Beste behin ere, prentsari fil-trazioak, zurrumurruak, espekulazioak eta atzerapenak hurrengo hilabeteetan gertatuko zenaren prota-gonista bilakatuko ziren.

### 6.1. Egoeraren erradiografia

Zenbait egunkarietan kaleratutako informazioen arabera –Ezker abertzaleko eta kartzeleratutako ETAko buruzagiek baieztaturakoak– erakunde terroristaren militantzia bere etorkizunari buruz alternatiba desberdinak aztertzen ari zen barne eztabaida batean murgilduta zegoen. Esplizituena David Plá-ri Gara egunkarian, 2017ko otsailaren 19an, egindako elkarrizketa batean islatu zen. Bertan baieztatzen zuen “udaberriatik aurrera ETaren militantzia osoaren artean gogoeta-prozesu bat aurreikusten da”<sup>44</sup>.

Armagabetzearen gaian ETaren solaskide nagusitzat hartzen zenaren arabera: “erakunde bakoitzaren prozesu zehatzen helburua ahalegin berri horretarako tresnak egokitzea da, Ezker abertzalearen strategiari beste bultzada bat emateko asmoz. Ariketa benetan garrantzitsuak izaten ari dira, Ezker abertzalearen sorrera berriaz hitz egiten ari denaren ekintzak adierazten duen bezala”. ETaren etorkizunari buruzko eztabaidaren aurreikuspen hau Foro Sozial Iraunkor berriaren arduradunek ere berretsi zuten.

\*\*\*\*\*

Talde hau aurretik zegoen Foro Sozialaren eraldaketa bat zen. *Hasierako* Foroak Lokarri eta Paul Rios bere koordinatzailea eduki zituen bultzatzaile nagusi. Jatorri horrek eta bere talde biltzaileak erakunde honi independentzia-sinesgarritasuna ematen zioten gainontzeko eragile politiko eta instituzionalekiko harremanean.

Aieteko Konferentziaren ondoren, Foro Sozialaren eragina gutxitzen joan zen piskanaka. Lokarri 2015eko martxoan desegin zen, bere misioari amaiera emanaz. Bi urte lehenago desegin zen baita Bakearen Aldeko Koodinakundea ere.

Hala ere, 2016ko urriaren 22an, Foro Soziala berriro agertu egin zen eta Foro Sozial Iraunkorrean<sup>45</sup> bilakatu zen, Ezker abertzaleari lotutako ibilbideak zituzten pertsonen eskutik. Talde honek ahaleginak egin zituen bere jarduerak aniztasun-oinarria eta -proiektzioa izan zezan. Dena den, gainontzeko eragilean aurrean aurreko Foro Sozialaren independentzia-sinesgarritasunaren zati bat galdu zuen eta Ezker abertzalearen beste aktore bat bezala ikusten da, solaskidetasun-gaitasuna aitortzen zaion arren.

Foro Sozial Iraunkorrek bigarren leku bat hartu zuen armagabetze-prozesuan, *Artisauen* protagonismo ia absolutuaren aurrean. Hala ere, ETaren desegite-prozesuan, talde honek presentzia nabarmena hartu

---

44 [https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2017-02-19/hemeroteca\\_articles/lo-unico-seguro-es-la-firme-decision-de-eta-desarmarse-lo-antes-posible](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2017-02-19/hemeroteca_articles/lo-unico-seguro-es-la-firme-decision-de-eta-desarmarse-lo-antes-posible)

45 <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/politika/osoal/4454915/foro-soziala-aieteko-urratsen-atzetik/>



zuen prozesuaren bozeramaile baimendu gisa, Iparraldeko Bake Bidea taldearekin batera, honek ere Ezker abertzalearekin lotutako pertsonak buru zituela halaber.

\*\*\*\*\*

Egia esan, armagabetzea gauzatzen ari zen momentuan, bide desberdinetatik konfirmatu zen ETA bere etorkizunari buruz eztabaidatzen ari zela. Informazioek-zurrumurruek-espekulazioek jokoan zeuden aukera desberdinei buruz hitz egiten zuten. Armagabetze legalaren, behin betikoaren eta baldintzarik gabekoaren ondoren, garbi zegoen, ETArentzat etorkizuneko edozein aukeretan, edozein jardun biolentoarekiko lotura baztertuta gelditzen zen. Hori oinarri hartuta, ondorengo aukerak mahaigaineratzen zirela zirudien:

-“ETAren zikloari amaiera eman erakunde armatu gisa”, baina siglak mantendu Ezker abertzaleko erakunde zibil edo soziopolitiko gisa.

-“ETAren zikloari amaiera eman erakunde armatu gisa”, baina bere legatuaz arduratuko litzatekeen erakunde muin bat latente utzi eragin politiko ahalmen motaren bat mantenduz.

-“ETAren zikloari amaiera eman erakunde armatu gisa” oso argiak ez diren terminoetan bere “desmobilizazioa” iragartzea bezala.

Paradoxikoki, 2017ko udaberriaren amaieran, ETAk modu argi eta garbian “bere zikloari amaiera emateko” erabakia hartu behar zuenaren aukera adierazten zuen informaziorik ez zegoen; behin betiko desegitea iragartzea edo, besterik gabe, “bere zikloari emateko” erabaki hura behin hartuta, ETAK izateari utziko ziola bezalakoak.

Aurrekariak ezagututa, ETAk erabaki zezakeen, aldi berean, desegin egiten zela eta existitzen jarraituko zuela. Honek inora egindako bidaia bezalako zerbait adieraziko luke. Hau zen lehendabiziko arriskua.

Une hartako aurreikuspenetan zegoen bigarren arriskua zen ETAk bere erabakiak dosifikatzea. Hau da, bere barne eztabaidan erabakitzea zihoana ondoren etorriko ziren bi, hiru edo lau atalen telesail baten lehendabiziko atala baino ez izatea. Hau zen armagabetzearekin gertatu zena eta hau zen presoen kolektiboak espetxe-legaltasunarekin lotuta hartu behar zituen erabakiekin gertatzen ari zena.

Azken finean, lehendabizikoagatik eta bigarrenagatik beste behin ere denbora galtze berri baten arriskuaren aurrean geunden. Orain desegiteaz argi eta behin betikoz hitz egiteari uko egitea bi edo hiru urte beranduago baldintza okerragoetan egiteko.

## 6.2. Eusko Jaurlaritzaren gutuna

Eusko Jaurlaritzaren kezka, zentzu honetan, agerikoa zen. Ondorioz, ardatz zehatz batean kokatu zituen bere helburuak. ETAk bere zikloari amaiera emateko erabakia argi eta garbi eta behingoan adierazi zezan eta etorkizunari buruz zalantzarik geratu ez zedin eragiteko gaitasuna erabiltzea.

Eragile askotarikoekin, Ezker abertzaleko buruzagiekin, Foro Sozial Iraunkorreko buruzagiekin, komunikabideekin, talde politikoen, Legebiltzarreko taldeekin, eta baita, modu batean zein bestean, ETAren amaieran gauzak errazteko jardunarekin loturaren bat eduki zuten nazioarteko erakundeekin partekatuta zuten Eusko Jaurlaritzak kezka hori.

2017ko ekainaren 21ean, Iñigo Urkullu Lehendakariak eta Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkari Nagusia Centre for Humanitarian Dialogue (CHD) erakundeko ordezkari batekin bildu ziren Lehendakaritzan. Ildo honetatik, urriaren 18an, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkari Nagusiak bilera izan zuten Egiatzatzaileen Nazioarteko Batzordeko kideekin Gasteizko hotel batean.

Hilabete horietan zehar, bi bilera gehiago egin ziren Sant'Egidioko Komunitatearen Espainiako Estatuko ordezkariekin, lehendabizikoa Madrilan, irailaren 7an, eta bigarrena, Bilbon, irailaren 27an. Erakunde honek ETAren eta Ezker abertzalearen ingurunean eragin-ahalmena mantentzen zuen. Izan ere, gonbidatutako erakundeetako bat izan zen Baionan apirilaren 8an armagabetze-ekitaldian notario gisa parte hartzen.

2017ko irailean, Eusko Jaurlaritzak hurrengo lerroetan aurkezten den gutun bat idatzi zuen.

---

### **Eusko Jaurlaritzaren jarrera hartzea ETaren desegitearen inguruan**

*ETaren desegitearen helburua espresuki jasota dator XI Legegintzaldirako Eusko Jaurlaritzaren Programan zein 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planean.*

*ETaren desegitea eta desagertzea, lehenik eta behin, exigentzia bat da; eta bestetik, premia bat. Euskal gizartearen gehiengo zabalaren exigentzia da, sigla horren irautea ez delako bateragarria iraganaren memoria kritikoarekin. Premia ere bada, bizikidetzaren normalizazio-prozesua erabat zabal dadin.*

*Bere desegitearen berri emango duen ETaren balizko erabakiak garrantzi historikoa edukiko lukeela eta eragin sozialak, politikoak, instituzionalak eta espetxe arlokoak ekarriko lituzkeela azpimarratu nahi du Eusko Jaurlaritzak.*

*Aldi berean, eta hain zuzen ere garrantzi horrengatik, Eusko Jaurlaritzak ezin du bere kezka ezkutatu erabaki hori hartzeak izan ditzakeen izaera, zehaztapenak eta gauzatzegatik. Zehaztasun horien arabera, erabaki horrek ondorio errealak izango ditu edo eraginik gabekoa izango da.*

*ETaren balizko desegiteari buruzko erabakiak ez du ondorio errealik izango izaera baldintzatua baldin badauka; eufemismoak erabiltzen baldin baditu eta bere zehaztapenak argiak ez badira; eta atzeratzen, luzatzen edo dosifikatzen baldin bada bere gauzatze errealean.*

*Eusko Jaurlaritzaren iritziz, ETaren desegitea, ondorio errealak izan ditzan hiru ezauzgarri erantzun behar die: aldebakarra, eraginkorra eta behin betikoa izan behar du:*

*·aldebakarra, ordainik gabe hartzen dela eta baldintzarik gabeko izaera duela esan nahi du;*

*·eraginkorra, eufemismorik gabe eta anbiguotasunik gabe adierazten dela eta bere desagertzea konfirmatzen duten zehaztapenak zalantzarik gabekoak direla esan nahi du;*

*·behin betikoa, erabakia behin betikoz eta modu atzeraezinean adierazten eta hartzen dela esan nahi du.*

*Aurreko faseetan ETak harremana mantendu duen nazioarteko erakunde bitartekariengana joko du Eusko Jaurlaritzak, adierazitako zehaztapenekin ETaren desegitea babes-teko prest dagoela jakinarazteko.*

*Gasteiz, 2017ko irailaren 27a*

Irailaren 27an bertan, Lehendakaria, Jonan Fernandezekin batera, Ram Manikkalingam Egiaztazaileen Nazioarteko Batzordeko kidearekin bildu zen Bilboko jatetxe batean, eta bertan idatzi hau eman zioten. Gutun hauxe bidali zitzaie, ondoren, prozesu errazten jardun zuten erakunde guztiei. Eusko Jaurlaritzak jarrera hartze hau Espainiako Gobernuarekin, Nafarroako Gobernuarekin, talde politikoekin eta Legebiltzarreko taldeekin partekatu zuen halaber.

### **6.3. Aldaketa-ameskeriak espetxe-politikan**

Armagabetze- eta desegite-prozesuekin paraleloan, espetxe-politikaren gaiak zabalik jarraitzen zuen. Merez du eztabaida honen eboluzioan geldiaraztea, egoera politiko orokorrean eta indarkeriaren eta bizikidetzaren normalizazioaren amaiera ordenatuaren prozesuan duen eraginagatik.

2013tik Iñigo Urkullu Lehendakariaren eta Mariano Raxoi Presidentearen artean edukitako bilera guztietan, beti hitz egin izan zen espetxe-politikaz. 2017ko martxoaren 14an egindako bileran, ETaren armagabetzearen aurreko asteetan, Lehendakariak dokumentu hauek helarazi zizkion Presidenteari:

- Espetxe politika berbideratzea partekatzeko akordio-proposamena (B.9. eranskina);
- Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena (Bertsio laburtua) (B.10. eranskina);
- Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena (Bertsio zabalak) (B.11. eranskina);

-SAREren 1. dosierra preso gaixoen inguruan<sup>46</sup>;

-SAREren 2. dosierra preso gaixoen inguruan<sup>47</sup>.

Une horretatik aurrera, espetxe-politikan bi gobernuen arteko harremanek honako ibilbidea izango zuten:

**·2017ko uztailaren 19a.** Lehendakariaren eta Presidentearen arteko bilera berria. Bilera honetan berrikuntza garrantzitsu bat gertatzen da. Raxoi Presidenteak bi Gobernuen artean solaskidetasun diskretua eta egonkorra zabaltzea onartu zuen espetxe-politikan aldaketak adoste aldera. Raxoi Presidenteak izendatutako solaskidea Angel Yuste izan zen, Espetxeetako Idazkari Nagusia, eta Lehendakariak izendatutakoa Jonan Fernandez Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkari Nagusia.

**·2017ko uztailaren 28a.** Akordio haren ondorioz, berehala lehen bilera bat egin zen izendatutako bi solaskideen artean, espetxe-politikaz aritzeko. Bilera Lermako hotel bateko kafetegian egin zen. Eusko Jaurlaritzak proposatu zuen lanerako eskema –martxoan aurkeztutako proposamenen arabera–, bi eremuetan banatu zen: egiturazko aldaketak (hurbiltzea eta gizareratzea) eta kasuen kudeaketa, horrela egituratuta: Langraitz Bideko presoak, Hitzeman proposamenari lotutako presoak, publikoki ezagunak ez ziren preso gaixoak, 70 urtetik gorako presoak, adin txikiko seme-alabak zituzten emakumezko presoak eta bere zaugarritasun-egoeragatik premiazko kasuak.

**·2017 uztailaren 31.** Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Espainiako Gobernuko solaskideari gutun bat bidali zion uztailaren 28ko bileran ahoz adierazitakoa idatzita berretsiz. Orduetik, komunikazio dinamika jarraia hasten da, telefono deien bitartez, mezu zein bileren bidez.

**·2017ko irailaren 7a.** Bigarren bilera Madrilen Espainiako Gobernuko ordezkariaren eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariaren artean. Espainiako Gobernuak ez zegoen prest egiturazko aldaketak proposatzeko espetxe-politikan; baina prest zegoen kasuz kasu lan egiteko. Gaixo psikiko edo egoera zaugarrian zeuden pertsonen kasuak identifikatu ziren. Solaskidetasuna sendotu egin zen. Bide bat zabaltzen ari zela zirudien. Sara Majarenas presoaren kasuan konponbide azkar eta epe motzekoa aurreikusi zen.

**·2017ko urriaren 9a.** Hirugarren bilera bi solaskideen artean Madrilen. Azken hilabeteetan jorratutako guztiarekin balaztada atzematen da. Bilera horretatik aurrera, Espainiako Gobernuko Espetxeetako Idazkari Nagusia identifikatutako kasuen kudeaketa iheskor agertzen da. Irekitako aldaketa-aukera guztiak kasu batzuen eta besteen artean geldiarazi egiten dira Kataluniako krisiak aurrera egitea ez duela uzten argudiatuta.

**·2018ko urtarrilaren 17a.** Laugarren bilera Madrilen Angel Yuste eta Jonan Fernandezaren artean. Aurreko bileratik, dei eta mezuen trukaketan agiaztatu ahal izan zen geldialdia berresteko balio izan zuen bilerak.

Data horietarako, desegitea aditzera emango zuen ETAren hurrengo erabakiari buruzko informazioak konfirmatuta zeuden. Testuinguru honetan, urtarrileko bileran Espetxeetako Idazkari Nagusiak onartu egin zuen bere gobernuak ez zuela une hartan inongo mugimendurik egingo, bi edo hiru hilabete beranduago, ETAren desegitea baieztatu ondoren, baldintza hobegotan egingo zuela adieraziz.

2017ko udatik 2018ko hasierara, espetxe-politikan aurrerapen txikiak egin ziren. Kasu guztietan erabaki judizialekin izan zuten zerikusia, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren edo Arartekoaren ekiteagatik: Langraitz Bideko presoaren kaleratzeak, Hitzeman Programari lotutako pertsonen hobekuntzak, Ibon Iparragirre Aita Menni Ospitalera ekartzea eta Sara Majarenasen lekualdaketa iragankorra Donostiara. Espetxe-erakundearen aldetik bi presoaren espetxe-aldaketa eman zen soilik horietako baten testuinguru psikologiko hobea errazteko.

\*\*\*\*\*

Hala ere, hau ez zen berrikuntza bakarra izango espetxe-politikan. Aldaketa esanguratsuenak Macron Presidentearen buru zuen Frantziako Gobernu berriaren eskutik etorriko zein.

Hélène Davo, urte askotan Frantzia eta Espainiaren arteko Epaile antiterrorista izan zen Auzitegi Nazionalean. Frantziako Justizia Ministro berriak Davo bere taldean hartu zuen Ministerioaren hirugarren

---

46 <http://sare.eus/wp-content/uploads/2015/11/preso-gaixoak-eusk.pdf>

47 <http://sare.eus/wp-content/uploads/2015/11/liburuxka-datuak.pdf>

---

pertsona bezala eta Frantzian ETako presoen gaia kudeatzea eskatu zion. Hélène Davok eta Jonan Fernandezek harreman ona kateatu zuten epaileak Madrilen lan egin zuen garaian.

2017ko uztailaren 14an, Hélène Davo harremanetan jarri zen Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkari Nagusiarekin telefonoz. Bere gobernuak Frantzian ETako presoengana-ko espetxe-politikan joera berria zuela adierazi zion. Hizketaldi horrek bilera bat ekarri zuen abuztuaren 22an Frantziako Justizia Ministerioaren egoitzan Parisen.

Modu honetan, Frantziako ordezkariak Euskadiko ordezkariari adierazi zion, iraila eta urria bitartean, DPS kalifikazioa aldatzeko asmoa zuela Frantzian zeuden ETako preso ia guztiei. DPS kalifikazio hau (Bereziki Seinalutako Atxilotutuak) espetxeratze-baldintza gogorrek mantentzen ditu bereziki arriskutsu- zat jotzen dituen pertsonentzat.

Horrekin batera, Frantziako Gobernuaren nahia zen hurbilketan urrats batzuk ematea, momentuz urrats mugatuak. Mont de Marsan-eko espetxera ondorengo baldintzak betetzen zituzten 17-18 pertsona era- matea aurreikusten zuen: hurbilketa eskatu izana modu indibidualen, 2018 eta 2019an betetzea euren zigorrak eta bereziki kasu nabarmenak edo hilketa larriak ez edukitzea.

ETAren desegitea berretsiz gero, anbizio handiagoko aldaketak planteatu zitzakeen Frantziako Gober- nuak. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzarekin eta Espainiako Gobernuarekin prozesu hau elkarrizketare- kin eta gardentasunarekin garatzeko borondatea esplizitatuko zuten.

Frantziako Justizia Ministerioaren asmoa ere bazen Iparraldeko taldeak informatuta edukitzea. Puntu honetan egoera delikatuak eman zen, talde hauek Frantziako Justizia Ministerioarekin zeukaten harrema- naren kudeaketa publiko ez oso zuhurraren ondorioz eta seguruenik baita zenbait ordezkariak gehiegizko protagonismoa bilatu izanagatik.

*Artisauek* abenduaren 9rako manifestazio bat deitu zuten Parisen Frantziako espetxe-politikaren aldaketa aldarrikatzeko. Testuinguru honetan eta hilabete horietan, *Artisauek* Frantziako Justizia Ministerioarekin zeukaten harremanaren inguruan gehiegizko erakustaldi publikoa egiten ari ziren eta, gainera, gertatuko ziren aldaketak puztu egiten zituzten iragarpenak egiten ari ziren.

Denbora epe motz batean hurbiltze orokorra iragartzen ari ziren. “Arrakasta” hori Frantziako Gobernuare- kin egindako kudeaketa “negoziatzaileei” egozten zizkietela izan zen delikatuena. Hau, logikoki, aldake- taren aldeko baldintzak sortu ez ezik zailtasunak zekartzan. Frantziako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari helarazi zion ezin zituztela aldaketa esanguratsuak egin presio bati edo manifestazio bati erantzunez, are gutxiago hauek “negoziatio” baten ondorioz aurkezten baldin baziren.

Eusko Jaurlaritzak Ezker abertzalearen inguruan zuhurki ohartarazi zuen Iparraldeko taldeek Frantziako Justi- zia Ministerioarekin zeukaten harremanari buruz egiten ari ziren kudeaketa Frantziako Gobernuak eman nahi zituen urratsak zaildu edo mugatu zitzaizketela. Lehendabizikiko datua zen abendura bitartean DPS kalifikazioa zazpi presori baino ez zitzaizela aldatu, aurreikuspena praktikan ia guztiei kentzea baldin bazen ere.

2018ko lehen hilabeteetan, hurbilketak gauzatzeko Frantziako Gobernuaren asmoaren filtrazioak eta Ipa- rraldeko taldeen berrespenak beraiekin “negoziatutako” neurri gisa eta baita Frantziako presoek kolektibo osoa hartuko zuela adierazteak ere zailtasun berriak ekarri zituen, besteak beste, Espainiako terrorismoa- ren biktimen elkarteen salaketa.

Urtarrilaren erdialdean, Eusko Jaurlaritzak Frantziako Justizia Ministerioarekin lagundu egin zuen terro- rismoaren biktimen elkarte nagusiekin elkarrizketa-erronda prestatzen Frantziako Gobernuak eman nahi zituen urratsak ez blokeatzen laguntzeko. Ondorengo asteetan, biktimen elkarteekin egindako errondak emaitza ona eman zuen. Ordutik Frantziako Gobernuak oso abiadura geldian jarraitu zuen Mont de Mar- san-eko espetxera presoak hurbiltzen. 2018ko abendura arte, 24 preso hurbildu zituzten.

\*\*\*\*\*

Presoei eta EPPK kolektiboari dagokionez, armagabetzetik, 2017ko apirilean, desegitera, 2018ko maia- tzean, erabaki garrantzitsua eman zen. Hala ere, praktikan honek ere ez zuen jauzi kualitatiboa ekarriko epe motzean. Adierazi den bezala, kolektiboak espetxe-bide legalak onartzeko gogoia adierazi zuen lehen aldia 2013ko abenduan izan zen.

Hori horrela izan arren, dirudienez, presoek eztabaida hiru urte beranduago hasi zen formalki, 2016ko abenduan, oinarrizko txostena banatzearekin. Prozesu hau 2017ko ekainean amaitu zen. Parte-hartzea

%87,2koa izan zen, EPPK kolektiboaren arabera. %73,4a oinarritzko txostenaren alde agertu zen. Erabakia 2017ko uztailaren 1ean<sup>48</sup> eman zen ezagutzera jendaurrean.

Praktikan, hartutako erabakiak aldaketa garrantzitsua zekarren: une hartatik aurrera, argi berdea ematen zitzaion preso bakoitzak bakarkako irtenbideak bilatu ahal izateari, legaltasuna oinarri hartuta. EPPK kolektiboaren jarrera historikoak bakarkako irtenbideak bilatzeari uko egiten zion irtenbide kolektiboak baino ez zirelako onargarriak.

Bi “lerro gorri” ezartzen dira: “salaketa” eta “damua”. Honek nolabaiteko harridura sortu zuen zigor- eta espetxe-legezketasunak gizarteratzean ez duelako bi kontzeptu hauetako bat bera ere aipatzen. Hala ere, “lerro gorri” bezala fokalizatzeak, zenbait diskurtso politikoen argudioa bezala kokatzen lagundu zuen.

Presoen kolektiboak hartutako erabakia pisu handikoa izan zen, zalantzarik gabe. Dena den, 2018ko urrira arte, 46 presok bakarrik tramitatu zuten gradu-aldaketaren eskaria. Horri erantsi behar zaio haietako gehienak Espetxeetako Tratamendu Batzordeak edo Espetxe Zaintzarako Epaitegi Nagusiak ukatuak izan zirela.

\*\*\*\*\*

Dokumentu hau 2018ko abenduaren 10ean itxi zen, Giza Eskubideeen egunean, bere Adierazpenaren 70. urteurrenean. Ordura arte, ETAren indarkeriari buruzko balorazio kritikorik eskaini gabe jarraitzen du Ezker abertzaleak, presoen gradu-aldaketaren eskaerei aldeko pronostikoa oinarritzera ikaragarri lagunduko liekena.

Bestetik, Alderdi Sozialista Moncloara iritsi zenean 2018ko ekainean, espetxe politikaren kudeaketan aldaketa batzuk egon ziren, Frantziako administrazioak hartutako bidearen antzekoak. Hurbilketa partzial batzuk egon ziren. Oro har, 2018ko amaieran espetxe-politikaren gaiak bizikidetzaren normalizazio-prozesuaren konpondu gabeko arazoa izaten jarraitzen du.

## 6.4. Eusko Jaurlaritzaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan berriaren kudeaketa

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan berria 2017ko apirilaren 4an aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak, armagabetzearen data baino lau egun lehenago. Plan honek, aurrekoak bezala, jarduera-lerro propioa garatzea ahalbidetu dio, beste aktoreek egin edo egiteari uzten zioten mende egon gabe. Planaren garapenak bizikidetzaren eraikuntzan Eusko Jaurlaritzaren ekarpena ekintzetan zehaztea ahalbidetzen du, une bakoitzean aurkez daitezkeen zailtasunen eta oztopoen gainetik.

### 2017

2017ko otsaila-apirila. Apirilaren 8ko armagabetzea eragin zuen prozesuan laguntza-zereginetan era aktiboan parte hartu zen.

2017ko martxoa. Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroak Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin ados jarrita egindako “ETAk enpresa-munduaren aurka eragindako estortsioari eta indarkeriari buruzko txostena”<sup>49</sup> izenburuko txostena argitaratu zen.

2017-03-10: Terrorismoaren biktimak gizarte- eta erakunde-mailan aitortzeko ekitaldia egin zen Gasteizen, honako goiburua honekin: “Memoria eta etorkizuna. Elkarrekin eraiki”<sup>50</sup>. Egun hori Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna izan zen. Lau orduz egon ziren kontzentratuta, etenik gabe, 09:00ak eta 13:00 bitartean, eta, aldi horretan, erakundeen eta gizartearen ordezkariak (kultura, abokatutza, enpresa-mundua, komunikabideak, unibertsitatea, udalak, aldundiak, Eusko Legebiltzarra edo Arartekoa, besteak beste) txandaka aritu ziren elkarretaratzearen gidari, 15 minutuko txandatan. Biktimek eta biktimen elkarteetako ordezkariak ere parte hartu zuten.

2017-04-24. “12/2016 Biktimen Legea. Giza Eskubideen nazioarteko eskubidea” jardunaldia ospatu zen, Fabián Salvioli Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeko presidente ohiaren hitzaldiarekin. Gogora eka-

48 [https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2017-07-01/hemeroteca\\_articles/eppk-ren-agiria-euskal-jendarteari-4](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2017-07-01/hemeroteca_articles/eppk-ren-agiria-euskal-jendarteari-4)

49 [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/14-informe-extorsion.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/14-informe-extorsion.pdf)

50 <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/37272-sociedad-vasca-muestra-unidad-torno-reconocimiento-las-victimas-del-terrorismo>

---

rri behar da zenbait hilabete lehenago Espainiako Gobernuak lege horren aurka konstituzio-contrakotasuneko errekurtsoa aurkezteko asmoa azaldu zuela. Asmo hori maiatzaren 5ean gauzatu zuen. Salviolik bere txostenean ondorioztatzen zuenez, Biktimen erreparaziorako Euskadiko 12/2016 Legea, "Polizia abusuen biktimen legea" deitutako hori, "nazioarteko zuzenbideak, nazioarteko babes erakundeek eta giza eskubideen urraketen biktimen erreparazioko gaietan ondutako estandarrek zehaztutako noranzkoan doa bere osotasunean, eta bete egiten ditu bai nazioarteko zuzenbidetik sortutako ebazpen eta oharpen orokorrak, bai Espainiari buruz nazioartean hartutako erabaki zehatzetatik eratorritako betebeharrak"<sup>51</sup>.

2017-05-17. "Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egoera eguneratua"<sup>52</sup> jendaurrean aurkeztu zen. Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin lankidetzan sustatu nahi duen Giza Eskubideak. *Txosten monografikoak eta kasuen azterketak* serieko lehen txostena da.

2017-06-26: "Balorazio Batzordearen txostena, 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketari eta bestelako sufrimendu bidegabei buruzkoa" aurkeztu zen"<sup>53</sup>.

2017-06-29. "2017-2020 Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza programa osagarria" aurkeztu zen<sup>54</sup>. Programa horren helburu nagusia da ikasleentzako hezkuntza-tresnak sortzea eta gizarte eta hezkuntzako elkarreraginak sendotzea, bizikidetzan egiteke dauden eta gorantz doazen erronken aurrean.

2017-07-19. Lehendakariak Raxoi Presidenteari "Espetxe-politikaren birbideratzea partekatzeak akordio-proposamena" eta "Euskal presoak Presondegietan birkokatzeak irizpide-proposamena" entregatu zizkion.

2017-09-30. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak erakunde-ekitaldia egin zuten, Iñigo Urkullu Lehendakariaren eta Uxue Barkos Presidentearen parte-hartzearekin, Gurs-eko (Frantzia) kontzentrazio-esparrua zegoen lekuan, bertan egondako Euskadiko eta Nafarroako 6.500 pertsonatik gora ekarri zuten gogora eta esker ona adieraziz.

2017-10-04. Hiru euskal unibertsitateetako errektoreek Lehendakariarekin bilera eduki zuten 2018-2020 aldirako, ETAREN indarkeriaren amaieraren testuinguruan, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan partekatutako dituzten konpromisoen oinarriak finkatzeko.

2017-10-11. Gobernu Kontseiluan 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana onartu zen.

2017-10-23. Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren 2017-2020 aldirako Jarduera Plana onartu zuen erakunde horren Zuzendaritza Kontseiluak<sup>55</sup>.

2017-11-24. Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz, Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Pedro Arrupe Institutuak egindako "Urruntzearen espetxe politikak presoen familietan duen eraginari buruzko txostena" aurkeztu zen<sup>56</sup>.

2017-12-18. Kriminologiako Euskal Institutuak (IVAC-KREI) Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egindako "Euskadin gertatutako tortura eta tratatu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)" txostena"<sup>57</sup> jendaurrean aurkeztu zen.

## 2018

2018-02-19. Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak hitzarmena sinatu zuten Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen Zentroa abiarazteko Donostian, Aieteko Jauregian dagoen Bakearen Etxean<sup>58</sup>.

---

51 <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/38208-expresidente-del-comite-ddhh-ONU-concluye-que-ley-vasca-reparacion-victimas-ajusta-derecho-internacional>

52 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/2-Informe-Pertur.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/2-Informe-Pertur.pdf)

53 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/Informe%20Vulneraciones%20eus.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/Informe%20Vulneraciones%20eus.pdf)

54 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/3-Programa-de-educacion-2017-20.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/3-Programa-de-educacion-2017-20.pdf)

55 [http://www.euskadi.eus/contenidos/plan\\_departamental/03\\_plandep\\_xileg/eu\\_def/adjuntos/GOGORA-PROGRAMA-2017-20-eusk.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/03_plandep_xileg/eu_def/adjuntos/GOGORA-PROGRAMA-2017-20-eusk.pdf)

56 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/8-Informe-alejamiento.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/8-Informe-alejamiento.pdf)

57 [https://bideoak2.euskadi.eus/2017/12/18/jonan\\_tortura/AZKEN\\_TXOSTENA\\_Tortura\\_eta\\_tratu\\_txarrak\\_\\_2017-12-18\\_.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2017/12/18/jonan_tortura/AZKEN_TXOSTENA_Tortura_eta_tratu_txarrak__2017-12-18_.pdf)

58 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/proyecto-Aiete-def.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/proyecto-Aiete-def.pdf)

2018-03-10. Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna dela eta, Bilbon erakunde- eta gizarte-errekonozimendurako ekitaldia egin zen, terrorismoaren biktimei elkartzasuna adierazteko. Goiburua: “Fue injusto. Biktimak eta gizartea elkarrekin oraina eta etorkizuna eraikiz”<sup>59</sup>.

2018-03-24. “1973ko martxoaren 24an hiru gazte coruñarren desagertuari buruzko txostena”<sup>60</sup> jendaurrean aurkeztu zen. Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin lankidetzan sustatu nahi duen *Giza Eskubideak. Txosten monografikoak eta kasuen azterketak* serieko bigarren txostena da.

2018ko martxoa. Lankidetzeta-esparrua adostu zen Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eta Segurtasun Sailaren artean, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren esparruan, eta Ertzaintzak bizikidetzarako eta giza eskubideetarako duen gizarte-konpromisoarekin jarraitzea.

2018-04-17. Eusko Jaurlaritzak Duintasunaren Kolunbarioan DNA programaren bidez identifikatutako lehen pertsona hobiratu zuen. 2017an, Gogora Institutuak, UPV-EHurekin lankidetzan, DNA Programa jarri zuen abian, gerra zibilean desagertutako pertsonak identifikatzeko.

2018ko maiatzaren 4ra arte. 2017ko apirilean ETA desarmatu zenetik 2018ko maiatzean desegin arte, Eusko Jaurlaritzak gestio ugari egin zituen ETAren desegitea aldebakarra, eraginkorra eta behin betikoa izan zedin.

2018-05-04. Bertizko adierazpena. Uxue Barkos Nafarroako Foru Komunitateko Presidenteak eta Iñigo Urkullu Lehendakariak Adierazpen bateratua egin zuten bizikidetzeta sendotzeko proposamen eta konpromiso partekatuekin, ETAK behin betiko desagertu zela iragarri ondoren.

2018-05-24. EiTbK eta Eusko Jaurlaritzak 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza eskubideen Planaren esparruan bakearen kultura hedatzen jarraitzeko lankidetzeta hitzarmena sinatu zuten<sup>61</sup>.

2018-06-06. Eusko Legebiltzarrari entregatu zitzaion “Terrorismoaren biktimen egia-eskubidea”<sup>62</sup> txostena, Terrorismoaren Biktimen Elkarteak egindakoa, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak hala aginduta.

2018-06-19. Uztailaren 28ko 12/2016 Legearen bidez sortutako Balorazio Batzordeko kideen identitate argitara emateko 2018ko ekainaren 12ko Ebazpena EHAA argitaratu zen. Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa da lege hori.

2018-06-25. Lehendakariak Espainiako Gobernuko Presidente berriari, Pedro Sanchez, espetxe-politika birbideratzeko agiri eta proposamenak entregatu zizkion, urtebete lehenago Raxoi Presidenteari entregatu zizkion berberak.

2018-07-18tik 21era. Gorputz deserosoak Nazioarteko Biltzarra egin zen; Gogora Institutuak, Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseiluak (CSIC), Aranzadi Zientzia Elkarteak eta UPV/EHUk antolatu zuten biltzar horren helburua zen munduan giza eskubideei lotuta hobituz gorpua ateratzeko joera nagusiak eta kasu esanguratsuak aztertzea, eta horietatik ikaskuntzak ateratzeko ahalegina egitea, geure tesuinguruan aplikatzeko, gerra zibilari lotutako memoriaren politika publikoetan.

2018-07-23. Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren arteko akordioa, Espainiako Gobernuak atzera egin zezan uztailaren 28ko 12/2016 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoaren aurka aurkeztutako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioan<sup>63</sup>.

59 [https://bideoak2.euskadi.eus/2018/03/10/lhk\\_dia\\_victimas/Discurso\\_LHDK\\_Dia\\_Europeo\\_Victimas\\_del\\_terrorismo.\\_9-3-2018.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2018/03/10/lhk_dia_victimas/Discurso_LHDK_Dia_Europeo_Victimas_del_terrorismo._9-3-2018.pdf)

60 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/10-Desaparicion-de-los-tres-jovenes.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/10-Desaparicion-de-los-tres-jovenes.pdf)

61 <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/46201-eitb-gobierno-vasco-renuevan-acuerdo-para-desarrollo-del-plan-convivencia-derechos-humanos>

62 [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/Derecho-a-la-verdad.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/Derecho-a-la-verdad.pdf)

63 <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/47746-gobierno-vasco-valora-como-muy-positivo-para-euskadi-los-acuerdos-pactados-con-gobierno-espanol-materia-transferencias-retirada-recursos-tribunal-constitucional>

---

2018-09-29. 1937ko udan Limpías-eko (Kantabria) hilerrian ehortzitako Gerra Zibilaren 86 biktima –haien familiak inoiz ez zuten inolako informaziorik jaso– “gogoratzeko eta omenaldi egiteko” ekitaldian parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzak, Kantabriako Gobernuak eta Asturiasko Gobernuak.

2018-10-11. Herenegun! Unitate Didaktikoa aurkeztu zen, Memoria Hurbilari dagokion aldia (1960-2018) DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako Historia irakasgaiari sartzeko behin-behineko materiala<sup>64</sup>.

2018-11-05. Memoria Plaza erakusketa Deustuko Unibertsitatean inauguratu zen, 2017an eta 2018an Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat herritan egon ondoren; hona hemen herri horiek: Getxo, Lasarte-Oria, Gernika-Lumo, Santurtzi, Portugalete, Sestao, Barakaldo, Irun, Beasain, Mondragon Unibertsitatea, Amorebieta-Etxano eta Laudio.

2018-11-07tik 09ra. Eusko Jaurlaritzak, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren lankidetzarekin, giza eskubideek XXI. mendean planteatzen dituzten erronka berrietan oinarritzen den Nazioarteko Biltzarra antolatu zuen. Biltzar hori *Eskerrak giza eskubideei* kanpainaren barruan sartu zen. Kanpaina hori urte hartan jarri zen abian Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrena ospatzeko.

2018-12-10. Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzea eta urtero Eusko Jaurlaritzak ematen duen Giza Eskubideen René Cassin Saria banatzea. (Egun horretan txosten hau idazteko lana amaitzat eman zen).

## 6.5. Espekulazioek jarraitzen zuten desegitearen datekin eta zehaztapenekin

Aipatutako elkarrizketak David Plári, 2017ko otsailean, ETAREN etorkizunari buruzko eztabaida-prozesu bat iragarri eta ekintza honen ondorengo berrespenak Ezker abertzaleko edo bere inguruko ahots baimenduen aldetik komunikabideetan gai honi tratamendu handia eta zabala ematea ekarri zuten. 2017ko irailetik 2018ko apirilera zenbait komunikabidek eskusiba aukera guztiak agortu zituzten ETAREN desegitea iragartzeko data posiblearen edo hau egingo zen baldintzen inguruan.

Lehendabiziko “lehen berriak”, udakoak, berehalako desegiteaz hitz egiten zuten, ondoren 2017aren amaieran kokatzen hasi ziren, gero 2018ko hasieran eta azkenean uda hasieran kokatu zituzten. Erabakiaren iragarpena, azkenik, maiatzaren 3an gertatu zen, eta hau ofizialtzen zuen ekitaldia egun bat beranduago ospatu zen.

Datuen aurreikuspenak ez ziren espekulazioaren helburuaren gai bakarra. Desegitearen zehaztapenak ere baziren. Zalantza bakarra zegoen: ETAK bere historiaren amaiera iragartzerakoan adieraziko zuena nahiko argia izango zen edo zalantza gehiago utziko zituen.

Seguruenik, zalantza sendotzen gehien lagundu zuen faktorea, erakunde terroristaren desegiteari aplikatuz, zalantza ekarriko zuen kontzeptu baten azaleratzea izan zen. Foro Sozial Iraunkorra eta Ezker abertzaleko bozeramaileak, 2017ko amaieratik, ETAK bere “desmobilizazioa” iragarriko zuela iradokitzen hasi ziren; Nazio Batuen DDR (Armagabetzea, Desmobilizazioa eta Birgizarteratzea) eskemaren arabera.

Agerikoa zirudien, une hartan ETAREN “desmobilizazioaren” diskurtsoak oinarritzko gertakaria disimulatuko zuten eszenografia eta semantika sortzea zuen helburu: ETA aldekarreko erabakiz eta ordainik gabe desegingo zen. Termino nahasiak erabiltzeko arriskua hau zen: bere adierazpenak ezer gutxirako balio izatea erabakia zalantzakoa zela eta ETAREN desegitearen behin betiko izaerari buruzko zalantza guztiak argitzen ez zituela iruditzen bazitzaie eragile politikoei, instituzionalei eta sozialei.

\*\*\*\*\*

Euskal auzira DDR printzipioak ekartzen saiatzea, oso ariketa behartua zen. ETAREN desegitea baino aste batzuk lehenago, Eusko Jaurlaritzak zenbait dokumentu egin zituen (A.8. eranskina eta A.9. eranskina) indarkeria-prozesu desberdinen amaitzeari buruzko erreferentziak eskaintzen saiatzen zirenak. Haietako baten izenburua hauxe zen. “DDR printzipioen aplikazioari buruzko zenbait egiaztapen”.

---

64 <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/49023-gobierno-vasco-presenta-los-materiales-del-programa-educativo-herenegun-sobre-memoria-reciente-euskadi-para-asignatura-historia>



Dokumentu honek agerian uzten du DDR prozesuaren aplikazioa gerrillen parte-hartzea izan duten gatazka belikoetara, eta nazioarteko edo Europako estandarrei erantzuten ez dieten sistema politikoak dituzten herrialdeetara mugatu izan dela, Afrikakoak gehienak.

Gatazka gehienetan, DDR programen aplikazioan milaka lagun kaltetu dira. Era berean, desmobilizazio fasean beharrezko baldintza da desmobilizatzen den erakundeak edo ejerzitoak bere militanteen, gerrillarien edo kideen errola ematea.

Dena den, ezaugarri nagusia eta ohikoa DDR printzipioak aplikatzeko NBEren esku-hartzea da, misio baten bidez zein Nazio Batuek bermatutako nazioarteko erakunde baten bidez. Azken finean, NBEren babes beharrezko baldintza da DDR prozesu baterako; eta Nazio Batuen parte-hartzea eman dadin, ETAren kasuan biltzen ez ziren baldintza batzuk gertatu behar dira.

\*\*\*\*\*

Eusko Jaurlaritzak modu guztietara insistitu zuen ETAk nahi zuen terminologia erabil zezakeela; baina bere erabakiaren komunikazioak argi utzi behar zuela, iragarpena egiten zen egunetik aurrera, ETAk izateari uzten ziola ondorio guztietarako.

Desegitearen dataren eta honen baldintzei buruzko zalantzak zabalik egon ziren gutxi gora-behera iragarpenaren hilabete bat baino lehenago arte. Martxoaren amaieran, Foro Sozial Iraunkorrek, nazioarteko zenbait eragileek eta Ezker abertzaleko ahotsek erabakia berehala etorriko zela esaten zuten eta zalantzarik gabe behin betiko izaera izango zuela baieztatzen zuten.

## 6.6. ETAren erabaki-prozesua

David Plák kartzelatik iragarri zuen bezala, etorkizunari buruzko bozketa bere militantziaren artean egitea erabaki zuen ETAren zuzendaritzak. Ondoren informatuko zutenaren arabera, kontsulta bere egitura guztien artean egin zen: operatiboa, espetxeak, erbestea eta “militantzia legala”.

2017aren amaieran filtratu zen dokumentuetako baten izenburua hauxe zen: “ETAren ziklo eta funtzio historikoa. Proposamen politikoak”<sup>65</sup>. 2017ko apirilko data zeukan. ETAren zikloari eta funtzio historikoari amaiera emateko erabakiari argi berdea ematea proposatzen zien ETAren zuzendaritzaren dokumentuak bere oinarriei. Bere ondorioak argiak ziruditen. Erabaki aldebakarra zen. ETA bere amaierara iritsi zen.

Dena den, 12 orrialdeko dokumentuak orri erdiko eranskin bat zeukan “proposamen politikoari eranskina” izenburuarekin, zalantza guztiak zabaltzen zituen. Azkeneko lau edo bost paragrafo horietan ETAren zuzendaritzaren txostenak behin behineko egitura bat sortzea iradokitzen du, ETAren Batzorde Eragileak aukeratutako 20 kidek osatuta. Batzorde honen funtzioetako batzuk hauek lirateke: presoan, iheslarien eta deportatuen errealitateari erantzutea, solaskidetasun politikoko mailaren bat mantentzea, ETAren legatua zaintzea edo armagabetzetik edo bere historiaren balantzetik erator litezken betebeharrak erantzutea.

Hau da, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritza kezkatzen zuena: ETAk bere desegitea erakundeari jarraipenen bat ematearekin bateragarri egitea. Zorionez, eranskin hau ETAk azkenik hartu zuen erabakitik desagertu egin zen. Zergatik eman zen aldaketa hau? Seguruenik, faktore multzo bategatik. Seguruenik, ETArri nazioarteko eragileek, Ezker abertzaleko edo Foro Sozial Iraunkorreko kideek helarazi zizkieten mezu zuzenek izan zuten eragina, eta baita Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz adierazitakoak aurreko guztiei, urte bete lehenagotik, argitasuna exijituz.

2018ko maiatzaren 6an *Gara* egunkariak berri ematen duen “Barne Komunikazio Orokorra 1803”<sup>66</sup> dokumentuan ETAren zuzendaritzak adierazten zuen militantziak “proposamen politikoari babes oso zabala” eman ziola. Barne komunikazio honen arabera, 1.335 militanteek eduki zuten boto eskubidea, 1.077 kidek bozkatu zuten eta hauetatik erakundeari amaiera emateari 997k baiezkotzea eman zioten, 47k ezezkoa eta 33k zuria eman edo abstenitu egin ziren.

Beraz, jarraipenerako behin behineko batzorde tekniko bat eratzeko aukera baztertuta geratzen zen. Aipatutako barne komunikazioak azaltzen zuen bezala, bi ziren funtsezko arrazoiak: militante askok ez

65 [https://www.naiz.eus/hemeroteca/gara/editions/2018-02-22/hemeroteca\\_articles/extractos-de-la-propuesta-de-la-direccion-de-eta](https://www.naiz.eus/hemeroteca/gara/editions/2018-02-22/hemeroteca_articles/extractos-de-la-propuesta-de-la-direccion-de-eta)

66 [https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2018-05-06/hemeroteca\\_articles/eta-decidio-su-fin-con-gran-consenso-93-y-participacion-1-077-votantes](https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2018-05-06/hemeroteca_articles/eta-decidio-su-fin-con-gran-consenso-93-y-participacion-1-077-votantes)

---

zuten nahi “batzorde” horrek erabaki nagusia zalantzan jartzea; eta batzorde horrentzat pentsatutako funtzioa bertan behera gelditu zela uste zuten. Horregatik guztiagatik, ETAREN zuzendaritzak amaitzen zuten esanez ez zegoela beharrik “zikloaren amaieraren erabakia zalantzan jar zezakeen egitura formalik” sortzeko.

Zorionez eta izan litezkeen arrazoiak direnak direla, ETAREN erabakiak ez zuten zalantzarik utzi. *Aldebakarra, eraginkorra eta behin betikoa* izan zen. Arrisku objektiboak egon ziren horrela izango ez zela pentsatzera zeramatenak. Funtsezkoena lortuta zegoen. Oso berandu zetorren baina hori horrela bazen ere, gertakari historikoa zen. ETA behin betirako desagertzera zihoan. Hala ere, oraindik zintzilik zeuden kontuak eta zailtasun batzuk geratzen ziren maiatzaren 3aren aurreko egunetan agertuko zirenak.

## 6.7. ETAREN azken-aurreko komunikatua

Apirilaren 18an, Ezker abertzaleko eta Foro Sozial Iraunkorreko iturriek EITBri filtratu zioten ETAREN desagitea maiatzaren lehen asteburuan gertatuko zela. Filtrazio horretan adierazten zen Harremanetarako Nazioarteko Taldea Bake Bidearekin eta Foro Sozial Iraunkorarekin batera apirilaren 23an prentsaurreko bat emango zutela Baionan xehetasun gehiago emateko.

Apirilaren 8ko data zeraman ETAREN komunikatu bat kaleratu zen *Gara* egunkarian apirilaren 20an, ostirala. Bere izenburua: “Eragindako minari buruzko Adierazpena”<sup>67</sup>. Komunikatu honetan, bere ibilbidean, ETAK eragindako mina aitortzen zuten, baina bazterketa gogorra eragin zuten arrazonamenduekin eta bereizketekin biktimen artean.

ETAK bere “atsekabea” adierazi zuten eragindako sufrimenduagatik. Alde batetik, bere erantzukizuna onartzen zuten; baina jarraian jaramonik ez zuten egiten. Lehendabizi, “min horretan izan duen erantzukizun zuzena aitortzen zuten”. Hala ere, jarraian, euskal “gatazka politikoa eta historikoak konponbide demokratiko bidezkoa” eduki ez izanaren ekintzan kokatzen zuten eragindako minaren iturria.

Dena den, komunikatu horren gauzarik larriena da biktimen bi maila ezartzen zituela: errugabeak eta errugabeak ez zirenak. Ikuspegi etikotik, onartezina zena. ETAK “okerreko akatsen edo erabakien” ondorioz eragindako biktimei eskatzen zien barkamena solik, “gatazkan parte-hartze edo erantzukizun zuzena ez zuten biktimei”. Beste paragrafo batean eragindako gainontzeko biktimengana zuzentzen zen “ETAREN ekintzek eragin dituzten hildakoei, zaurituei eta biktimei errespetua” adierazteko.

\*\*\*\*\*

ETAREN komunikazio honek eranskin bat zeukan. Apirilaren 20an bertan, *Gara* egunkariak beste komunikatu bat argitaratu zuen: “Eragindako minari buruzko adierazpenaren ETAREN oharra”<sup>68</sup>. Dena den, bere edukiak oso gutxi gehitzen zuten. Aitzitik, hasierako komunikatuan isla gutxi izandako zerbait azpimarratu nahi zuten barneko beharren bati erantzuten ziola zirudien. ETAK eranskin honetan azpimarratzen zuten historian zehar egindako ekintza guztiak errebindikatu izan dituela eta “oraindik inork onartu ez dituen ekintza bortitzak daudela” salatzen zuten.

\*\*\*\*\*

Beste behin ere, biktimen arteko desberdintasunak egitean, ETA gauzak zailtzen tematzen zen. ETAREN desagite aldebakarra, eraginkorra eta behin betikoa babestu behar zen ongi gorena zen; baina biktima guztienganako berdintasun-printzipioa ez zen garrantzi gutxiagoko zerbait. Eusko Jaurlaritzaren bakegintza- eta bizikidetzeta-politika publikoetan, orduan eta orain hauxe zen eta izaten jarraitzen du muineko gaia.

Komunikatu horrek aurkako erreakzioak eragin zituen. Aldekoenak Ezker abertzalearen ingurukoak eta biktimen desberdintasunari garrantzi gehiegirik eman nahi izan ez zieten eta –eragindako minaren aitortza– funtsezkoa jotzen zutena azpimarratu nahi izan zuten beste sektore batzuetakoak ziren. Beste eragile eta erakunde askok bere edukia onartezina zela adierazi zuten biktimei zegokionean.

---

67 [https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2018-04-20/hemeroteca\\_articles/eta-k-euskal-herriari-eragindako-kalteari-buruzko-adierazpena](https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2018-04-20/hemeroteca_articles/eta-k-euskal-herriari-eragindako-kalteari-buruzko-adierazpena)

68 [https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2018-04-20/hemeroteca\\_articles/eragindako-kalteari-buruzko-adierazpena-dela-eta-eta-ren-argibide-oharra](https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2018-04-20/hemeroteca_articles/eragindako-kalteari-buruzko-adierazpena-dela-eta-eta-ren-argibide-oharra)

Eusko Jaurlaritzak ez zuen nahi hori aintzat hartu gabe utzi. Iñigo Urkullu Lehendakariak komunikatua “beste urrats bat gehiago” bezala baloratu zuen; baina azken adierazpenaren momentuan ETArri eskatzen zion “biktima guztientzat begirune berdina edukitzea eta bere jardueraren ondorioz eragindako mina” airtortzea. ETAren amaierak “oinarri etikoaren osagai bat” edukitzea gustatuko litzaiokeela adierazi zuen. Azken komunikazioa noiz iritsiko zain, Lehendakariak iragarri zuen “ETAk bere behin betiko amaiera alde-bakarra adierazterakoan euskal gizartearen aurrean balorazio neurtua” egingo zuela berak.

Lehendakaria ETArri esaten ari zitzaion bere azken akatsa zuzentzeko aukera zuela oraindik. ETAk zer bait desberdina esan zezakeen biktimei buruz bere azken komunikatuan. Aldi berean, desegitearen ekitaldiak antolatzen ari zirenei gai hau oso garrantzitsua zela esaten ari zitzaion Eusko Jaurlaritza, eta ETAk bere azken-aurreko adierazpenean, modu inplizituan, haietako gehienek aurkako hilketak eta atentatuak justifikatuta zeudela baieztatu izanak biktimentzat eragindako iraina lehengoratzeko moduren bat bilatu beharko zukeela.

## 6.8. Eusko Jaurlaritzaren jarrera hartzea

Foro Sozial Iraunkorren ordezkariak eta nazioarteko erakunderen bat ETAren amaieraren eszeneratzerako prestatzen ari ziren ekitaldietan nola edo hala Eusko Jaurlaritzak parte hartzea lortzen saiatu ziren. Aurrerago aipatuko diren arrazoi desberdinengatik, Eusko Jaurlaritzaren alde aurretiko jarrera ekitaldi horietan parte ez hartzea zen. Dena den eta zalantzaren bat geratu izan balitz, komunikatu hark balantza argi eta behin betirako mugitu zuen.

Apirilaren erditik, Lehendakariak ezagutzen zen ETAren desegitearekin batera egingo zen ekitaldi sozopolitikoak maiztazaren 4an egingo zela Iparralden eta, seguruenik, egun bat lehenago komunikatua emango zela ezagutzera, ziur aski nazioarteko komunikabide baten bidez eta ETAren azkeneko fasean nahastuta ibili zen nazioarteko erakunderen baten parte hartzearekin.

Egun batzuk beranduago, apirilaren 17an, asteartea, Agus Hernan Foro Sozial Iraunkorreko bozeramaileak Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkari Nagusiari telefonoz jakinarazi zion Eusko Jaurlaritzak jada ezagutzen zuena: ETAren desegitearekin batera egingo zen nazioarteko ekitaldia maiztazaren 4an egingo zela Baionatik gertu, eta ekitaldi honetara alderdi politikoak, sindikatuak eta erakundeak gobidatuko zituztela.

Apirilaren 19an, Agus Hernanek Jonan Fernandezi hots egin zion berriro eta apirilaren 23an, astelehena, berriro elkar ikusteko geratu ziren goizeko lehen orduan. Bileran horretan Foro Sozial Iraunkorreko ordezkariak berri gutxi eskaini zituen maiztazaren 3an eta 4an gertatuko zenari buruz jakina zenaren inguruan. Hala ere, maiztazaren 4ko ekitaldirako Lehendakariaren edo Eusko Jaurlaritzaren ordezkariaren baten presentzia eskatu zuen berriz ere.

Eusko Jaurlaritzak bilera hartan mahai gainean jarritako galdera nagusiak erantzunik gabe geratu ziren: ETAren azkeneko adierazpenaren terminoak? Gogoeta kritikoren bat egingo zen biktimei arteko desberdintasunik egin gabe? Ez zeukan inongo zentzurik Eusko Jaurlaritza bezalako erakunde bat gonbidatu bezala ekitaldi batean parte hartzea bere eduki etikoa eta politikoa ezagutzen ez bazen.

Bestetik, zurrumurruek eta dokumentuek zabaltzen ari ziren garai historiko guztiak ordezkatzeko lituzketen ETako kideen eta kide ohien parte hartzea egongo zela adierazten. Honen inguruan ere ez zen erantzun argirik egon. Eusko Jaurlaritzak ez zuen parte hartuko, inongo bermerik gabe, biktima guztien errugabetasuna argi geratuko ez zen inongo ekitalditan edo ETAren historiaren gorespen esplizituren edo inplizituren bat egin zitekeenean.

Egun bat beranduago, apirilaren 24an, asteartea, Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak Gobernu Kontseiluaren bileraren ondoreneko prentsaurrekoan Gobernuaren jarrera azaldu zuen. Eusko Jaurlaritzaren izenean inork ez zuela parte hartuko Harremanetarako Nazioarteko Taldeak, Bake Bideak eta Foro Sozial Iraunkorrek maiztazaren 4rako antolatutako ekitaldietan.

Erabakiaren arrazoiak askotarikoak ziren. Lehenik eta behin Erkorekak azaldu zuen edukia eta diseinua “itxita eta aurretik adostuta ez zegoen” ekitaldi batean parte hartzeko gonbidapena jaso zuela Eusko Jaurlaritzak. Proposatzen ari zitzaiguna, bestalde, “ezagutzen ez zen (ETAren) adierazpen bat bermatzea” zen.

Bestetik, bozeramaileak azpimarratu zuen, seguruenik argudio nagusia izango zena erabiliz, horrekin batera, Ezker abertzaleari argi lotutako erakundeek eta pertsonak antolatuta izaten ari zen ekitaldiaren

---

ikuspegi “etikoa eta politikoa” ez genuela partekatzen. ETaren amaieraren esanahiaren inguruan ekitaldian eskainiko ziren hitzaldiak ez zetozen bat horrelako une batean Eusko Jaurlaritzak eman beharko litzatekeen mezuarekin uste zuenarekin.

Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak hiru ideia azpimarratzen amaitu zuen. Lehendabizikoa, parte hartu ez arren, Eusko Jaurlaritzak ekitaldia errespetatzen zuela; bigarrena, ez ziola bere garrantzia ukatzen; eta hirugarrena, Eusko Jaurlaritzaren zeregina ez zela ekitaldi horretan parte hartzea.

Hau guztia esan ondoren, prentsaurreko hartan, Josu Erkorekak adierazi zuen ekitaldia “soila izatea eta garrantzitsuan kokatzea: desegitean eta behin betiko desagertzean eta biktima guztienganako begirunean argia izatea” espero zutela. ETaren erabakia amaituta, Eusko Jaurlaritzak “sakoneko balorazio bat egingo zukeela”.

Une horretarako, Eusko Jaurlaritzak erabakita zeukan ekitaldi propio batean azalduko zuela bere jarrera eta ahal izanez gero, erakunde mailan, Nafarroako Gobernuarekin partekatuta.

\*\*\*\*\*

Egun haietan Lehendakariak Raxoi Presidentearekin mezu idatziak trukatu zituen informazioa partekatze-ko eta baita ETaren desegitearen iragarpena, benetan argia baldin bazen, baliozkotua izan zedin eta, batez ere, garai berri bat zabaltzen lagun zezan indarkeriaren amaiera ordenatuaren kudeaketa politikoa.

Egun haietan ohikoak izan ziren Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kideekin hartu-emanak eta solasaldiak. Argitaratzen ari zena baino informazio gehiagorik ez zutela aitortu zuten eurek ere eta, antolatzaille gisa agertzen baziren ere, benetako antolatzaileek “jakin-nahiarekin” zeuzkatela eta “informazioa apurka-apurka” ematen zutela. Ondo ateratzea espero zuten baina edukia ezagutzen ez zuten zerbaiten ikusle zirela aitortzen zuten.

\*\*\*\*\*

Maiatzaren 3aren bezperan, Gobernu Kontseiluaren agerraldiaren ostean, Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak aste bete lehenago adierazitako jarrera berretsi egin zuen. Eusko Jaurlaritzak ez zuen oraindik ETaren adierazpenak izango zuten eduki etikoari eta politikoiari buruzko bermerik jaso, ezta ekitaldia garatuko zen zehaztapenei buruz ere.

Gertakizunen azken garapenari buruz zintzilik geratzen ziren –ezezagunak izan arren–, maiatzaren 1ean, Lehendakariak Harremanetarako Nazioarteko Taldeko, Centre for Humanitarian Dialogue erakundeko eta Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordeko ordezkariari mezu berdina helarazi zien. Lehendakariak ezin zituen ukatu bitzitako desadostasunak eta zailtasunak eta guztia modu positiboan gerta zedin desiratzen zuten:

*“Prozesuari buruz eta 2013ko abendutik Eusko Jaurlaritzarekiko izandako jarrerarekin nire iritzia izan arren, eta nahiko informatuta nagoela sinestuta neure irizpideetan mantentzeko, ETaren eta Ezker abertzalearen aldetik eszenaratzea maiatza osoan (ez bakarrik 3an eta 4ean) justifikaziorik ez duen 60 urtetako bizipenaren amaiera ekartzea desio dut. Nire errespetua adierazi nahi dut, dena den, egoera honetara heltzeko (hiru erakundeetako bakoitza)...ren lanaren aurrean. Adeitasunez, Iñigo Urkullu Renteria. Lehendakaria. Euskadi.”*

## 6.9. Desegitearen eszenografia

Guztia maiatzaren 3rako eta 4rako prest zegoen. Aurreko egunak balazta mediatikoa izan ziren, aurreikuspenez, espekulazioez eta eksklusibez kargatuta ETaren amaiera eszeneratuko zuten ekitaldian nola eta nortzuk parte hartuko zutenen inguruan. Bi adibide, lagineko botoi gisa.

Apirilaren 25ean COPE irrati-kateak apirilaren 16ko data zeraman gutun bat<sup>69</sup> eman zuen ezagutzera ETak 2011ko Aieteko Konferentzian parte hartu zuten pertsona guztiei helarazten ari zena. Gutun horren bidez, erakunde terroristak aurreratzen zuen ziklo historiko bati amaiera emateko erabakia hartu zuela. Gutun hau ezagutzeak nahaste mediatikoa sortu zuen zenbait komunikabideei pentsarazi zielako hori zela ETaren azken adierazpena.

---

69 [https://www.cope.es/actualidad/espana/noticias/lee-aqui-carta-integra-eta-20180502\\_210223](https://www.cope.es/actualidad/espana/noticias/lee-aqui-carta-integra-eta-20180502_210223)

Apirilaren 27an, bestetik, *El Mundo* egunkariak informazio bat argitaratzen zuen non egun batzuk beranduago gertatuko zenaren xehetasun batzuk argitzen zituen: “ETA bideo bat prestatzen ari da non hiru terroristek ETAren desegitea sinatzen ari diren Genevako Henry Dunant Fundazioan”<sup>70</sup>. “Bilera bat antolatzen ari da maiatzaren 3rako erakunde honen egoitzan”. Gogoratu behar da, 2006an, Henry Dunant Zentroak lagundu zuela ETAko ordezkarien eta Jose Luis Rodríguez Zapatero Presidentearen Gobernu sozialistaren arteko bilera batzuk antolatzen.

Dena den, espekulazioek intentsitate handiarekin jarraitu zuten azken unera arte. Ekitaldien programa, bere edukiak eta, batez ere, presentziak eta faltak asmatzea eta aurreratzea zen kontua. Giro honetan eta horrela iritsi ginen 2018ko maiatzaren 3ra.

Egun horretan, 14:00ak aldera, David Harland Henry Dunant Zentroaren zuzendariak Genevan ETAren amaiera iragarri zuen. Aipatutako zentrorako bidalitako komunikatua, 2018ko martxoaren 3ko datarekin, euskaraz, gaztelaraz, ingelesez eta frantsesez idatzita zegoen. Bere adierazpenean, David Harlandek puntu hartara iristeko gehien lan egin zuten pertsonen zenbait izen azpimarratu zituen. Jesús Eguiguren, Arnaldo Otegi, Iñigo Urkullu Lehendakaria eta José Luis Rodríguez Zapatero Presidentea aipatu zituen.

Ordu laurden bat beranduago, *Gara* eta *Berría* egunkariek eta *naiz.eus* atariak azken komunikatua eman zuten ezagutzera, Josu Urrutikoetxeak eta Marixol Iparragirrek ETAren adierazpenari, euskaraz eta gaztelaraz, ahotsa jartzen zioten bideo baten bidez.

### **ETAk Euskal Herriari, azken adierazpena**

*ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, bere ibilbidearen bukaeraren berri eman nahi dio Euskal Herriari, ETAko kidegoak Erakundearen ziklo historikoa eta funtzioa amaituztat jotzeko proposamena berretsi ostean. Erabaki horren ondorioz:*

- ETAk bere egitura guztiak erabat desegin ditu.
- ETAk bere ekinbide politikoa bukatuztat jo du. Ez da berriro posizio politikoak adierazten, ekimenak sustatzen eta gainerako aktoreak interpelatzen dituen eragile bat izango.
- ETAko militante izandakoek beste eremu batzuetan jarraituko diote Euskal Herri bateratu, independente, sozialista, euskaldun eta ez patriarkalaren aldeko borrokari, norberak egokien irizten dion tokian, betiko arduraz eta zintzotasunaz.
- Frankismoaren atzaparretan itota eta Estatu jakobinoak asimilatuta, Euskal Herria hiltzorian zegoela jaio zen ETA eta orain, 60 urte geroago, bere buruaren jabe izan nahi duen herri bat bizi da, eremu eta arlo ezberdinetan askok egindako lanari esker, belaunaldi ezberdinek egindako borrokari esker.

*Euskal Herriaren eta estatuen arteko gatazkan ETAk ziklo bat itxi nahi du, biolentzia politikoaren erabilerak ezaugarritu duen aroa, hain zuzen ere. Halere, estatuek tematuta segitzen dute gure herria aurreko ziklo horretan kateaturik mantentzeko, konfrontazio politiko soilean duten ahultasunaz jakitun eta gatazkari bere osotasunean konponbidea emateak ekarriko lukeen egoeraren beldur. ETAk, ordea, ez dio egoera demokratiko horri inongo beldurrik, eta horregatik hartu du Erakundeak erabaki historiko hau, askatasunaren eta bakearen aldeko prozesuak beste bide batetik egin dezan aurrera. 2011n borroka armatua behin betiko uzteko hartutako erabakiaren ondoko segida logikoa da.*

*Indar metaketa, herri aktibazioa eta ezberdinen arteko akordioak ardatz izango dituen herri prozesu bat eraikitzea izango da aurrerantzean erronka nagusia, bai gatazkaren ondorioei aurre egiteko bai gatazkaren muin politikoari eta historikoari heltzeko orduan. Nazio aitortpena lortzeko erabakitze eskubidearen egikaritzea izango da gakoa. Ezkerreko independentismoak Euskal Estatu sortzeko norabidean egingo du lan.*

*Erdietsi nahi dugun fase historiko berri horren mesedetan hartu dugu, beraz, azken erabakia. ETA herritik sortu zen eta orain herrian urtuko da.*

70 <https://www.elmundo.es/espana/2018/04/27/5ae24ff5268e3edf708b46bd.html>

---

*Gora Euskal Herria askatuta! Gora Euskal Herria sozialista! Jo ta ke independentzia eta sozialismoa lortu arte!*

*Euskal Herrian, 2018ko maiatzaren 3a*

*Euskadi Ta Askatasuna*

Hurrengo egunean, maiatzaren 4an, Kanboko Arnaga Etxean, Harremanetarako Nazioarteko Taldeak, Bake Bideak eta Foro Sozial Iraunkorrek antolatutako ekitaldia egin zen. Bilera horren helburuetako bat ETAREN erabakiari nazioarteko babesaren irudia eskaintzea zen, 2011ko urriko Aieteko topaketa errepikatzen saiatuta. Ehunen bat gonbidatuk hartu zuten parte; baina nazioarteko eta politikako ordezkariaren maila txikiagoa izan zen.

Bertan egon ziren nazioarteko izen handiko pertsonak hauek izan ziren: Bertie Aehr Irlandako Presidente ohia, Gerry Adams Sinn Féin alderdiko presidente ohia, Jonathan Powell Britainia Handiko Tony Blair lehen ministroaren aholkulari izandakoa, Michel Camdessus, Nazioarteko Diru Funtzaren zuzendari ohia, eta Cuauhtémoc Cárdenas mexikarra, Partido Democrático de la Revolución (PRD) alderdiaren fundatzailea. Ekitaldian Kofi Annan Nazio Batuen Idazkari Nagusia ohiaren mezua irakurri zen.

Aldi berean, euskal alderdietako ordezkariak hartu zuten parte, PP eta PSE alderdietakoak izan ezik, eta sindikatu eta gizarte eragileek eta pertsona ezagunek. Iragarri zen bezala, ez zen Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren ordezkariarik egon.

Ekitaldian, Harremanetarako Nazioarteko Taldeko Brian Currin, Raymond Kendall eta Alberto Spektorowsky kideek, Anais Funosas Bake Bidea erakundeko presidentek, eta Agus Hernan Foro Sozial Iraunkorreko koordinatzaileak hartu zuten hitza. Aldi berean, gazte batek “Arnagako Adierazpena” irakurri zuen bere edukia bereziki ekarpen esanguratsurik eskaini gabe.

Ez zuen aintzat hartu ETAREN azken-urreko komunikatuak eragindako arazoa, eta ETAREN amaierari laguntza eszenografikoa eskaintzea izan zen bere funtzio nagusia. ETAREN azken komunikatuak, hala ere, garrantzi handiagoa zeukan. Honen irakurketa positiboa eta negatiboa egin zitekeen. Ebaluazio positiboak desagitearen terminoen argitasunarekin zuen zerikusia. ETA desagertu egin zen. Hori zen funtsezkoa. Zalantzak argituta geratzen ziren.

Beste maila batean, balorazio negatiboa ere egin behar zen. ETAK urrezko aukera galdu zuen eragindako giza eskubideen urraketen eta biktimen inguruan gogoeta kritikoa egiteko. Une horretan ez egitean, ETAK Ezker abertzalearen teulatuan uzten zuen hipoteka hori.

Karga hori preso bakoitzaren bizkarrean geratzen zen halaber –gradu aldaketa egiteko edo presondegi-erregimen irekiak eskuratzeko edo baldintzapeko askatasuna lortzeko– eragindako indarkeriarekin urrutze kritikoren bat adieraztea eskatuko zaienei. ETAK egin izan balu, preso bakoitzak adierazpen horretan sostengua hartu ahal izango zukeen orain gizarteratze-ibilbidea garatzeko.

## **6.10. Bertizko Adierazpena**

Eusko Jaurlaritzak bere balorazio propioa eta mintzaldi autonomia eskaini behar zuen. Hau zen Lehendakariaren abiapuntua. Hau zen, indarkerian murgildutako 60 urteren ondoren, ETAREN behin betiko desagertzearen gertaera historikoari erantzun behar zitzaion modu instituzionala.

Eusko Jaurlaritzaren erantzunak ezin zuen geratu lotuta gizartearen zati bakarra ordezkatzeko eta familia politiko batek antolatutako ekitaldi batera. Eusko Jaurlaritzak, erakunde bezala, euskal gizarte osoaren ordezkari gisa hitz egin behar zuen, gizarte osoari eta bere sentikortasun guztiei zuzenduz. Hau oinarri hartuta, desagitearen eguna baino aste batzuk lehenago ekitaldi bateratua diseinatzen hasi zen Nafarroako Gobernuarekin.

Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko gizarteak ziren terrorismoaren ondorioak modu zuzenenean pairatu izan zituztenak. ETAK, halaber, beren izenean erabili izan zuen indarkeria. Bi gobernuen arteko komunikazioa eta lankidetzaren eremu horretan erabatekoa zen bakoitzak bere erabaki-autonomiari elkarrekiko errespetua zen bezala. Elkarrizketa jaria korreko testuinguru hone-

tan Gobernu bakoitzak bere balorazio propioa egiteaz gain etorkizunera begirako adierazpen bateratua aurkezteko ekitaldi bat partekatzeke aukera jarri zen mahai gainean.

Gauzak horrela, maiatzaren 4an, 16:30ean, Bertizko Jauregian, Nafarroan, Iñigo Urkullu Lehendakariaren eta Uxue Barkos Nafarroako Presidentearen arteko ekitaldi bateratua egin zen. Bertan, biek adierazpen instituzionala irakurri zuten non azpimarratu zuten ETAren amaiera “oso berandu iristen zen arren, izaera historikoa zuela geure historiaren garai beltz bat behin betiko ixten hastea ahalbidetzen duelako” (A.10. eranskina)

Lehendakariak eta Presidenteak partekatutako Bertizko Adierazpenak etorkizun hurbilerako diagnostikoa eta ibilbide-orria eskaintzen zuen. Bere azaleko txostenaren izenburua hauxe zen: *“Uxue Barkos Nafarroako Foru Komunitateko Presidentearen eta Iñigo Urkullu Lehendakariaren Adierazpen bateratua. Bizikidetzaren sendotzeko proposamen eta konpromiso partekatuak, ETAk behin betiko desagertu dela iragarri ondoren. Bertiz, 2018ko maiatzaren 4a”*.

Adierazpena honako esaldiarekin hasten da komatxoaren artean “Geure gizartean bizikidetzarako aldi berria sendotuko duten urratsak adosteko baldintzak daude”. Terrorismoa behin betiko utziko zuela iragarri ostean 2011ean, ETAk irautea, soilik sinbolikoa baldin bazen ere, “blokeo-faktorea bihurtu zen. 2017ko armagabetzeak eta 2018ko behin betiko amaieraren iragarpenak oztopo hau gainditu dute”.

Une honetan, adierazpenak azpimarratzen du, “geure gizartean behin betiko bizikidetzarako aldi berria zabalduko duten urratsak adosteko eta emateko baldintzak daude, erakundeetatik eta gizarte antolatutik hainbeste lan egiten jardun dugunaren alde. Bizikidetzarako aldi berria non biktimen erreparazio integrala lehentasunezko zeregina izango den”.

Bere diagnostikoan bi gako nagusi azpimarratzen ditu, epe motzerako urrats gisa definitzen dituena: lehendabizi, iraganari buruzko gogoeta kritiko globala, ETAren indarkeria esplizituki barne hartuz, indar politiko guztiek, lehen aldiz, partekatuko dutena; eta bestetik, Espetxe-politika testuinguru berrira egokitzeari buruzko adostasuna, behin betiko indar politiko guztiak hartuko dituena.

Egiteke dauden lan nagusien definizioak bi gobernuek onartzen dituzten eta partekatzen dituzten bi konpromisoen definizioari hartzen die aurre. Lehendabizi, “iraganari buruzko adierazpen kritikoa eta globala bultzatzea, ETAren indarkeria barne hartuz, indar politiko guztiek, lehen aldiz, partekatuko dutena”. Gogoeta kritiko eta partekatuari begirako abiapuntuak hurrengo kontsiderazioak ditu:

- ETA amaitzeak ezin du izan, gertatutakoaren balorazio kritikorik eta espliziturik egin gabe, orrialdea pasatzea.
- Etorkizuna eraikitzea terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztiei eragindako min bidegabearen errekonozimenduan oinarritzen da.
- Memoria anitz eta partekatua edozein terrorismo edo indarkeria motari eta bere legitimazioari edo justifikazioari uko egite publikoan oinarritu behar da.
- Bizikidetzaren normalizazioak erakunde terroristak guztien, eta bereziki ETAren, indarkeria bidegabeari buruzko balorazio argia eta partekatua eskatzen du.
- Biktima guztien aurrean, beharrezkoa da aitortzea inongo kausarik ez zuela eduki inoiz bakoitzaren bizitza, duintasuna edo osotasuna baino balio handiagorik.
- Biktimen memoria eta ohorea iragana ahaztuko duen etorkizunerako begirada bategatik baztertuak ez uzteko konpromisoa hartzen dugu.
- Arrazoi etikoengatik eta legedia betez, biktima guztiei erreparazioa emateko konpromisoa hartzen dugu, bere biktimizazioaren arrazoa bat edo bestea bada ere, giza eskubideen urraketa batzuen eta besteen artean edozein alderatze orekatzailea baztertuz.

Bi Gobernuek onartzen zuten bigarren konpromisoa da Nafarroan eta Euskadin lortuko diren adostasun parlamentarioak garatuko dituen Espetxe Politikari buruzko Lan taldea proposatzea eta sustatzea Nafarroako Gobernuaren, Eusko Jaurkitzaren eta Espainiako Gobernuaren artean. Adostasun hori lortzeko abiapuntuak ondorengo proposamenak ditu:

- Presoei espetxe-bide legalak garatzera dei egitea indibiduazioaren, egindako minaren aitortzearen eta gizarteratzearen printzipioak oinarritzat hartuz.

---

·Presoak beren bizilekutik gertuen dauden espetxeetara hurbiltze-prozesua bultzatzea, espetxe-lege-diak agintzen duenaren arabera (Espetxeen Lege Organiko Orokorren 12.1. artikulua).

·Gaixo dauden edo adin txikikoak beren ardurapean dituzten zein hirurogeita hamar urte beteak dituzten presoentzat ordenamendu juridikoak eskaintzen dituen aukerak irizpide humanitarioarekin aplikatzea.

·Bere definizio konstituzionalaren araberako gizareratze-politika bultzatzea, eta ibilbide bideragarriekin berriro erortzeko arriskua behin betiko modu sinesgarrian desagertu denean.

Bi ardatzen inguruan egituratutako epe laburrerako proposamenez eta konpromisoez gain –“iraganaren gogoeta kritikoa” eta “espetxe-politika”–, Bertizko Adierazpenak epe laburrerako proposamenak eta konpromisoak identifikatzen zituen, hiru ardatz estrategikoen inguruan: memoria, biktimak eta hezkuntza. Bertizko Adierazpena, era honetan, ibilbide-orri bat zen funtsezko helburua bizikidetzaren normalizazioa eta adiskidetzeari sendotzea duen politika publikoa bultzatzeko.

\*\*\*\*\*

Orain amaitzen den txostenaren lehen zati honen izenburu generikoa “Deskribapena” da. Orrialde hauetan zehar, ETAREN armagabetzean eta desegitean, Eusko Jaurlaritzaren eginkizuna deskribatzen saiatu gara. Deskribapen hau ETAREN armagabetzearen eta desagertzearen harira izandako gertakizunei dago-kienez Eusko Jaurlaritza bera egiten joan zen balorazioekin lagundu da.

Begirada hau logikoki osatugabea da ezin duelako dena hartu, ezta nahi ere. Bere helburua ez da gertatu-koaren IRAKURKETA ordezkatzeko. IRAKURKETA BAT baino ez da, memoriaren eraikuntzarako ekarpena geure historia hurbilaren epe garrantzitsu eta zehatz bati buruz. Txosten honek, Eusko Jaurlaritzak prozesu honetan ikusi zuena eta nola ikusi zuen modu leial batean islatzen du, besterik ez. Ez du egia izan nahi, egiarentzat baliagarri izan baino ez.

\*\*\*\*\*

Bertzen egin zen ekitaldian, adierazpen bateratu hau aurkezteaz gain, Nafarroako Foru Komunitateko Presidenteak zein Lehendakariak ETAREN amaieraren inguruko balorazio publikoa egin zuten. Iñigo Urkullu Lehendakariaren Adierazpenak honakoa esaten zuten:

### **Poza, memoria, itxaropena, ilusioa eta konpromisoa**

**Poza.** Hamarkadetan zehar, ETAREN desagertze baldintzagabea exijitu izan dugu eta hori itxaroten egon gara. Gaur gure kezka eta ardura izateari utzi dio ETAK. Ez du jada parte hartuko gure bizitzetan mehatxu gisa, ez du jada indarkeria legez kontra erabiliko Euskal Herriaren izenean. Erabaki hau aldebakarrekoa, eraginkorra eta behin betikoa izan zedin lan egin dugu. Gertakari historiko baten aurrean gaude, erabat positiboa. Denbora asko kostatu izan da, gehiegi; baina, azkenik, bakea indarkeriaren gainetik ezarri da. Une honetan gizartearen gehiengoaren lasaitasun eta poztasun sentimendu sakonak partekatzen ditut.

**Memoria.** ETA mehatxu gisa desagertuko da; baina ez oroitzapen triste gisa. Eragindako min bidegabe guztiaren memoria geratzen da. Bere azken komunikatuan, ETA ez da gai izan biktima guztiei zuzendutako zuzenketako hitzik adierazteko. Baina gizarteak eta erakundeek hori egin dezakegu: indarkeria eta giza eskubideen urraketa arma politiko gisa erabiltzea erabateko akats etikoa izan zen. Inoiz gehiago ez. ETAK eragindako biktima bakar bat ere ez zen inoiz gertatu behar. Gizartearen, erakundearen, politikaren eta giza eskubideen lorpen demokratiko honen subjektu eta partaide nagusiak dira gaur biktimak.

**Itxaropena.** Une txarrenetan itxaropenak mugitu gintuen, eta bizikidetzari integratu eta integratzailea, bidezkoa eta memoria duen itxaropenak mugitzen gaitu orain. Une honetan, beharrezkoa da bakearen alde lanean jardun diren hainbat eta hainbat pertsonen, gizarte entitateen, alderdi politikoen eta erakundearen ahalegina gogoratzea. Denbora luzez baldintzarik kontrakoan egin behar izan zuten lan eta, zenbaitetan ere, itxaropenari eutsiz itxaropen ororen kontra. Gaur errekonozimendu berezia merezi dute. Horien itxaropenak eta pertseberantziak ekarri gaituzte honaino. Memoriaren parte dira. Mila esker.



**Ilusioa.** Gaur bereziki hunkitzen gaitu geure nagusiek luzaro irrikatu eta behar izan duten helburua geure gazteekin partekatu ahal izatea: bakean bizitzea. Geure nagusien amets hau errealitate bihurtzen ari da. Belaunaldi berriek gizarte ireki eta giza eskubi-deekiko tinko konprometitutakoan hazi ahal izango direla sinestearen ilusioa partekatzek hunkitzen gaitu gaur.

**Konpromisoa.** Egitasmo bat izan dugu: bakea. Lanean jarraitzeko helmuga bat dugu: bizikidetza. Konpromiso eta proposamen multzo bat aurkeztu dugu gaur modu partekatuan. Etorkezunerako eta itxaropenerako egitasmo bat dugu helburu nagusi batekin: Gizartea elkartea. Konpromiso etikoak jarraitu egiten du. Gaur oso garrantzitsua den zerbait amaitu da. Ez gelditzeko erabaki tinkoa dugu. Bizikidetza normalizatu baten alde lanean jarraitzen dugu, orain eszenategi hobeago batean. Bideak jarraitzen du.



---

# Bigarren zatia. Balorazioa

Azken gogoetak  
eta ondorioak

---



# 1. Azken gogoetak

ETAk indarkeria behin betiko etetea ezagutu eta berretsi ondoren 2011ko urrian, Eusko Jaurlaritza X. Legegintzaldiaren hasierarekin, 2012ko abenduan, ETAren amaieran eragin eraginkorra eta positiboa egiten saiatu zen. Ahalegin honen garapen kronologikoa da orain arte deskribatu dena eta hau da ondorio hauen abiapuntua. Emaizta aztertu eta baloratu egin behar da, eta baita ETARI buruzko azken irakurketa bat eskaini ere, bere behin betiko desagertzearen esanahiaren arabera.

Balorazio hau merituak leporatzeko edonolako asmotik alendu egiten da. Ez dago hartaz jabetzeko "garaipenik". Inork ez luke irakurketa garailerik egin beharko bere ekarpenaz. ETAren amaiera beranduegi dator. Aurretik emaitzik eman ez zuten alferrikako saiakeren eta entseututako estrategien zerrenda amaigabe baten ondorioa da. Nekearen ondorioa da. Bere amaieraren eragile katalizatzaile nagusia ETAren beraren burugogorkeria da bere esistentzia eta ekintza terrorista luzatzeko, logika guztiaren kontra.

## 1.1. Eusko Jaurlaritzak izandako zereginaren inguruan

### 1.1.1. Aldiak

Aurreko guztia esanda, hiru aldi aipatuko genituzke, hiru indargune desberdin eduki arren, Eusko Jaurlaritzaren ekarpen lerro berdina definitzen dutenak ETAren armagabetze- eta desegite-prozesuan. Zentzu honetan, lehen fase bati buruz hitz egin zitekeen, *Aldez aurretiko jarrera irekiaren aldia*; bigarren bati buruz, *Lankidetzaz Zorrotzeko aldia*; eta hirugarren bati buruz, *Baieztapen Etikoaren aldia*.

• **Lehendabiziko aldia**, *Aldez aurretiko jarrera irekiaren aldia*

Aldi hau, X. Legegintzaldiaren hasieratik, 2012ko abenduan, 2014ko martxora zabaltzen da. Iñigo Urkullu Lehendakariak EAJko presidente gisa izan zuen jardueragatik ETAren amaieran jarduera erraztailea edo bitartekaria garatzen zuten nazioarteko hiru aktore-taldeekin harremanak zeuzkan: Harremanetarako Nazioarteko Taldea (GIC), Hegoafrikako Brian Currin abokatua buru zuen taldea; Centre for Humanitarian Dialogue (CHD), Jonathan Powell buru zuena, eta Nazioarteko Egiaztatze Batzordea (CIV), Ram Manikalingam buru zuena.

2013ko lehen seihilekoan zehar nazioarteko aktore hauekin izandako harremanetatik, eta Ezker abertzaleko ordezkariak edukitako zuzeneko bileretatik, bereziki ekainean eta udan zehar, aurreikus zitezkeen ETAk eta Ezker abertzaleak, denbora gutxian, euren gaitasunak espero zitezkeen urratsak ematen jarraituko zutela indarkeriaren behin betiko amaiera ordenatua emateko.

Itxuraz, horrez gain, ETAk eta Ezker abertzaleak egin behar zutenari buruzko diagnostikoan bat-etortze bat zegoen. Bitartekariak zein Ezker abertzaleko buruzagiak zein Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak hiru puntutan bat zetozen:

-PPren Gobernuaren jarrera ezagututa, ezin zitekeen ezer espero Espainiako Gobernuaren eta ETAren edo Ezker abertzalearen arteko aldebiko harreman-esparru batetik.

-PPren Gobernuaren inplikazioa espero ezin zen neurrian, ETAk eta Ezker abertzaleak eman behar zituzten urratsak batez ere.

-Urrats horiek armagabetzearekin eta desegitearekin, espetxe-legediari buruzko estrategia-aldaketarekin eta iraganari buruzko irakurketa kritikoarekin zuten zerikusia.

Analisis bat-etortze bat zegoen; baina baita denboretan ere: urrats horiek lehenbailehen eman behar ziren. 2013ko udan zehar urrats horiek emango zirela eta azkar emango zirela, ondorengo hilabeteetan emango zirela iragartzen zuten Nazioarteko bitartekariak zein Ezker abertzaleko buruzagiak.

Aldi eta testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak, nazioarteko bitartekariak zein Ezker abertzaleari berari, aldez aurretiko jarrera irekia eskaini zien prozesua laguntzeko eta erakundeen ikuspegitik beharrezkoa eta egokia izan zitezkeen hartan kolaboratzeko.

---

*Aldez aurretiko jarrera irekiaren aldi* hau, neurri batean, lankidetzaren sineskoraren aldia izan zen. Hala ere, ekintzak egiaztatzen joan ziren errealitateak ez zuela aurreikuspenekin bat egingo. Zenbait zantzu iradokitzen hasi ziren ETArengandik espero zitekeen urratsen segida ez zela emango nazioarteko bitartekariak eta Ezker abertzaleak berak iragarrita bezala eta esandako epeetan.

Agian lehendabiziko keinuetako bat 2013ko irailean ETAk Lehendakariari igorri zion gutuna izan zen. Lehendakariak berak ETaren amaiera ordenatuari laguntzeko eta babesteko eskaintzari deskalkifikazioz betetako idatzi baten bidez erantzuten zitzaion, eta are okerrago, hurrengo urratsak emateko baldintzak ezarriz: erakunde sozialen, sindikalen, politikoen eta instituzionalen magma eraikitzea behin betiko eta eguterik gabeko ETaren balizko amaiera-prozesuaren laguntza-estategia gisa jokatu beharko lukeena.

ETA ez zegoen heldua eta prozesua luzatuko zenaren behin betiko seinalea ETaren 2014ko otsailaren 21eko *“miniarmagabetzea”* izan zen, Ram Manikkaligam-ek Bilboko Carlton Hotelean eszeneratutakoa izan zen. Eusko Jaurlaritzari “urrats handi” bat bezala iragarritako “keinua” eta gero benetan tamaina txiki-zerbait izan zena, dimentsioaren ikuspegitik.

Lehendakariaren eta Eusko Jaurlaritzaren jarrera ordura arte *Aldez aurretiko jarrera irekia* zela ziurtatzen duten hiru ekintza honakoak dira: lehendabizi, nazioarteko bitartekariak eskatutako gestioak eta Eusko Jaurlaritzak garatu zuena mota guztietako eragileekin, emango zen “armagabetzearen” urratsari begira aldeko giroa bultzatu asmoz; bigarrenik, iragarpenaren egun berdinean Lehendakariak berak eskaini zuen prentsaurrekoa nazioarteko bitartekariaren lana bermatuz eta “keinua” babestuz, nahikoa ez bazen ere norabide onean bideratuko urrats gisa; eta hirugarrenik, Lehendakariaren presentzia Madrilen Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko kideak Auzitegi Nazionalera deklaratzera deitu zituztenean.

#### •Bigarren aldia, *Lankidetzaren Zorrotzeko aldia*

Aldi hau 2014ko martxotik 2018ko maiatzaren 4ko desagitearen iragarpena arte luzatu zen. 2014ko otsaileko ETaren *“miniarmagabetzea”* eragindako etsipen itzelak eta nazioarteko bitartekariak edo Ezker abertzaleko buruzagiek egun haietan gertatuko zenari buruz egindako iragarpenen zati handi bat ez betetzeak Eusko Jaurlaritzaren *Aldez aurretiko jarrera irekia* ñabartu egin zuten.

Bi gertakariak eragin zuzena eduki zuten horretan. Lehendabizi, ez zela publiko egin agindutako ETaren komunikatua lehen keinu hura armagabetze “atzerazina, baldintzarik gabea, behin betikoa eta osoaren” borondatearen adierazlea zela berresten. Bigarrenik, frustrazio kolektibo hartatik aste gutxitara Jonathan Powell-en Centre for Humanitarian Dialogue erakundea Eusko Jaurlaritzara zuzentzen da bere babesa eskatzeko nazioarteko ekitaldi berri baterako, “Aiete II” baterako, 2014ko ekainean edo uztailean ospatzeko.

Ekitaldi hura ETArengandik itxaroten ari ziren behin betiko urratsen batek lagunduko ote zuen galdetu zuen Eusko Jaurlaritzak. Erantzuna anbigua eta luzamenduzkoa izan zen. Asteek aurrera egin ahala frogatu ahal izan zen nazioarteko bake-prozesuaren eszenografia berriro sortzen saiatu nahi zela, eduki errealik gabea zen arren. ETA asebetetzea zen kontua nazioarteko bake-prozesuaren fikziozko eszenografia eskainiz.

Erantzuna garbia izan zen. Eusko Jaurlaritzak ez zuen babestuko ezta parte hartuko ere bertan ETari eta Ezker abertzaleari ematea zegozkien behin betiko urratsen bat emango zenaren bermerik ez zuen inongo ekitaldietan: behin betiko armagabetzea eta desagitea, espetxe-politikaren eremuan estrategia-aldaketa, iraganari buruzko gogoeta kritikoa.

Une horretatik aurrera, bigarren aldi bat zabaldu zen, *Lankidetzaren Zorrotzeko aldia*. Eusko Jaurlaritzak egiaztatu zuen ETA bere amaieraren inguruan espekulatu egingo zuela. Logika guztiaren kontra, prozesua atzeratu egingo zen. Edozein behatzaile ez oso zailduak iragarri ahal izango zuen une hartan urrats haiek zenbat eta gehiago atzeratu, okerragoak izango zirela hauek emateko baldintzak. Dena den, oraindik denbora gehiago atzeratuko ziren.

Bitartekariak eta Ezker abertzaleko buruzagiek erabiltzen zuten justifikazioa atzerapena azaltzeko hauxe zen: ETAn sentikortasun desberdinak zeudela eta batera aurrera egiteko denbora behar zutela. Hau beti eta leku guztietan erabili izan den aitzakia izan da ez mugitzeko, eta Ezker abertzaleak bere historian zehar sarritan erabili izan duena.

Hilzorian zegoen ETaren barne zatiketek, noski, eraginen bat eduki zezaketen baina faktore horren eragina nekez harrapatuko zuten atzerapenak azaltzen zituzten arrazoi guztien herena. Lidergo sendoaren eta

ausartaren falta urrats horiek behingoz sustatzeko, atzerapenen azalpenaren beste zati oso garrantzitsua adierazten zuen. Denborak berretsi egingo zuen, beste behin ere, arrazoi horien azken herena, agian nagusia, ETAren amaiera politikoki erabiltzeko tentazioarekin zuela zerikusia.

ETAk ezin zuen negoziatu Estatuarekin. ETAk bere amaierarekin “negoziatzen” jarraitu nahi zuen. Beren buruekin negoziatzen zuten, bitartekariekin negoziatzen zuten eta euskal erakundeekin, euskal alderdi politikoeekin, euskal eragile sozialekin eta gizartearekin berarekin negoziatu nahi zuten.

Nazioarteko bitartekariak anibalentziaz jokatzeko zuten eta, neurriren batean, joera nagusiari jarraitzen zioten, prozesua atzeratzeko ETAren aitzakiak, modu batera edo bestera, onartuz. Eusko Jaurlaritza ez zegoen prest joko honetan parte hartzeko eta garbi adierazi zuen 2014ko martxotik aurrera nazioarteko bitartekariak hiru taldeekin izandako bilera askotariko guztietan eta bakoitzean. Eusko Jaurlaritzak eraginkorrak eta errealak izango ziren urratsak baino ez lituzke babestuko. Posizio berdina adierazi zitzaizkien Ezker abertzaleko eta ETAko buruzagiei, zuzenean edo nazioarteko bitartekariaren bidez.

Eusko Jaurlaritzak eszenategi horretan pisu bat zeukan eta hori baliatu egin zuen. Batetik, nazioarteko bitartekariak Eusko Jaurlaritzaren babes instituzionala baino ez zuten. Babes hori behar zuten. Izan ere, zenbait bitartekariak (CIV y CHD) ETARI eta Ezker abertzaleari behin eta berriz azaldutako baldintza bat beren lanarekin aurrera jarraitzeko Eusko Jaurlaritzaren –eta, bereziki, Lehendakariaren– babesa edukitzea zen.

Testuinguru horretan, Ezker abertzaleak Eusko Jaurlaritzaren beharra zeukan nazioarteko bitartekariak behar zutelako, eta baita babes hori ez edukitzean, emango zen edozein urrats ETAren amaieran bere bakardadea utziko zuelako agerian eta bere sinesgarritasuna minimoa izango litzatekeelako.

Eusko Jaurlaritzak eragin ahalmena balioan jartzen saiatu zen hurrengo lau urtetan gertatu zen guztian. Bere pisua baliatu egin zuen nazioarteko bitartekariarekin modu aktiboan eta bukaerara arte kolaboratuz. Armagabetzean, Espainiako Gobernuarekin eta Frantziako agintariekin harremanetarako funtsezkoa izan zen. Desegitean, erakundearen babes esparru argi, kritikoa eta eduki garbiei baldintzatua osatu zuen.

Eta bere pisua baliatu zuen desadostasunak eta tentsioak mantenduz nazioarteko bitartekariarekin eta Ezker abertzalearekin. *Lankidetzaz Zorrotz* horrek ETAren armagabetzea eta desegitea behin betikoak izaten eta ETAren amaieraren dosifikazio, eszenaratze eta gestio politikoko maniobra taktikoetan zein estrategikoetan gehiago ez atzeratzen lagundu zuen.

#### •Hirugarren aldia, *Baieztapen Etikoaren aldia*

Aurreko bi aldietan gainjarritako aldia da eta aldi guztian luzatzen da. Eusko Jaurlaritzak bake eta bizikidetzaren arloan hartuko duen printzipio etikoa argi finkatzen duten bakerako bi plan estrategikoetan espresuki adierazten da. Dena den, presentzia berezia dauka apirilaren 8ko armagabetzearen eta maiatzaren 3ko eta 4ko desegitearen une gorenetan.

Adierazi den bezala, 2014tik aurrera egiaztatu ahal izan zen ETAren amaieraren epeak “kudeatu” egingo zirela. Prozesuak atzerapenak eta espekulazioak jasango zituen. Modu paraleloan, egiaztatu ahal izan zen ez ETA ez Ezker abertzalea ez zeudela helduak ETAren giza eskubideen urraketek ekarri zutenaren gutxieneko irakurketa kritikoa eskaintzeko gizarteari eta biktimei.

Ez hori bakarrik, aldi berean egiaztatu ahal izan zen ETAren armagabetzea eta desegitea aurkezteko prestatzen ari ziren eraikuntza diskurtsiboak eta eszenografikoak, bere iragana lausotu ez ezik atze-oihal bezala “keinu handiaren” epika edukiko zuketela, hau da, 60 urteren ondoren “aldebakartasunez” ETA armagabetzea eta desegitea ekarriko lukeena, kasik deseginda zegoenean.

Helburu hau, etikoki, politikoki eta demokratikoki onartezina izateaz gain, geure gizartearen gehiengoaren sentikortasunetik aldentzen zuen ETAren armagabetzea eta desegitea. Eusko Jaurlaritzak bi erabaki garrantzitsu hartu zituen. Lehendabizikoa, ahal zen guztian laguntzea, armagabetzea eta desegitea serioak, behin betikoak eta atzeraezinak egiten. Bigarrena, inguruan etikoki osagai zalantzagarriak edukiko zituen ETAren armagabetzearen edo desegitearen inongo eszenografian parte ez hartzea.

Bi gertakarietan, bere jarrera modu garbian eta banatuta adieraztea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak, ETAren amaiera lagundu behar zuen osagai etikoa eta politikoa azpimarratzeko. Armagabetzeari dagozkionez, Baionan antolatutako ekitaldietan parte ez hartzen eta martxoaren 18ko eta apirilaren 8ko adierazpenekin egin zuen. Desegiteari dagozkionez, Kanbon egin ziren ekitaldietan parte ez hartzen eta Uxue Barkos Nafarroako Presidentearekin batera aurkeztutako Bertizeko Adierazpenaren bidez egin zuen.

---

Eusko Jaurlaritzaren jarrera politiko eta instituzional honek mezu propioa eta desberdindua eskaintzea baimendu zuen non osagai etikoa eta ETAREN biktimek merezi zuten aitortza ez zitezen geratu eremu osagarri edo apaingarri hutsean, eta isla instituzional argia eta nagusia izan zezaten.

## 2. Ondorioak

---

### 2.1. Eusko Jaurlaritzak hartutako jarreraren eraginari buruz

Azken ondorio gisa, ETAREN armagabetzeari eta desegiteari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak garatutako politikaren ondorioa zein izan zitekeen baloratu behar da puntu honetan.

Eusko Jaurlaritzaren babesa nazioarteko bitartekariei espekulaziorik gabeko mugimenduetara baldintzatu egon zen beti. Hori izan zen baita Ezker abertzaleari, tokiko erakundeei, eta adierazpen publikoen bidez Parlamentuan, elkarrizketetan edo komunikabideen aurreko agerraldietan, etengabe zuzendutako mezua. Eusko Jaurlaritzak ETAREN armagabetzean eta desegitean modu positiboan eragiteko konpromiso aktiboa hartu zuen. Eragin honek ondorio hauek izan zituen:

1. ETAK garatutako armagabetze-eredua (2014ko abenduaren 21ean, Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenaren oso antzekoa izateaz gain) legezkoa, behin betikoa eta baldintzarik gabekoa izan zedin lagundu zuen beste eragile batzuekin batera.
2. Armagabetzean dosifikazio gehiago eta neurri gabeko parafernaliak urrats honi geratzen zitzaion sinesgarritasun gutxia kentzea ekiditen lagundu zuen beste eragile batzuekin batera.
3. Desegitean dosifikazioak eta bere desagertzea ondorio errealik gabe utziko zituzten termino zantzagarrietan edo nahasietan ez iragartzea ekiditen lagundu zuen, beste eragile batzuekin batera.
4. Espetxe-legediari dagokionez, presoek, bere inguruak eta Ezker abertzaleak bere estrategia aldatzen eta honek espetxe-onuren eta gradu aldaketen esparruan eskaintzen dituen aukerak atzera ez botatzen uzten lagundu zuen beste eragile batzuekin batera eta atzerapen askorekin.
5. ETAREN desagertzea ondorio sozial eta politiko eraldatzaileak eduki zitzaizkion iraganari buruzko gogoeta kritiko nahiko argi batek lagunduta egotea bultzatu zuen baina ez du lortu momentuz, oraindik egiteke dagoen zerbait izanik.
6. Ikuspegi etiko-politikotik, Eusko Jaurlaritzak praxi eta diskurtso propioa eta bereizgarria eratu eta honen buru izan zen, euskal gizartearen gehiengoaren sentikortasuna ordezkatzeko saiatu zena oroi-menezko sinkretismoa edo ETAREN –853 hildakoen arrastoa utzi duen erakunde terrorista baten amaieraren goraipean etikoa ezartzeko asmoen aurrean.
7. Bi legegintzaldietan zehar eta bake, bizikidetzaren eta giza eskubideen bi planen kudeaketa ordenatuaren bidez, indarkeriaren amaiera ordenatuaren eta Gizartea Elkartzearen helburua zuen eremu guztietan –baita ETAREN armagabetzearen eta desegitearen eremuetan ere– esku-hartze integralerako politika egonkorra, iraunkorra eta sistematizatua garatu zuen Eusko Jaurlaritzak.

### 2.2. ETAREN amaieraren esanahiari buruz

Indarkeria erabiltzea beste pertsona batzuen giza eskubideak urratzeko ahalmenarekin sentitzea da, norbere burua beste gizaki baten bizitzaren jabe ikusteko bezain boteretsu sentitzea. Indarkeria erabiltzea, azken finean, bizitzaren eta heriotzaren aurrean erabakitzen duen jainko bat sentitzea bezala da.

Indarkeria edo terrorismoa erabiltzea akats desegokia eta errotikakoa da. Akats etikoa, politikoa eta demokratikoa. Inork ez da jainkoa. Inork ezin ditu beste pertsonen giza eskubideak erabili. Giza eskubideak ezin dira erabili.

Indarkeria erabili zutenek edo hau babestu zutenek pentsatu zuten beste pertsona batzuen bizitzari buruz erabaki zezaketela “maila goreneko helburuen” defentsak horretarako legitimatzen zirela. ETA akatsa izan zen goitik behera.



Inoiz ez zuen existitu behar. Antzeko deribarik inoiz gehiago ez litzateke errepikatu beharko. Hau da pedagogia etikoaren mezua errealitate hau pairatu genuen belaunaldientzat eta, modu berezian, datozen belaunaldientzat geratzen den mezua.

Helburu politikoak edo erlijiosoak lortzeko edo edozein kausa defendatzeko indarkeria erabiltzea akats etikoa da, gizaki bat beste pertsonen bizitzaren eta osotasunaren gainean boterearekin sentitzea behar duelako.

Gizakia ez da objektu bat eta duen bizitzeko eskubidea ezin da erabili kausa baterako bitarteko gisa. Gizaki guztiek giza duintasun berdina dute, beren izaera mugatuak, beren ahalmen bakar eta errepika ezinek eta beren bizitza propioa garatzeko kontzientziak markatua.

ETAren amaierak aurreko ondorioak indartzen ditu. ETAren amaiera inoiz existitu behar ez zuenaren berrespena da. Indarkeria erabiltzea –helburu politiko batekin, beste pertsona batzuen giza eskubideak urratzeko ahalmenarekin sentitzea– lehendabizi zentzugabekeria etikoa, bigarrenik akats politiko izugarria, eta hirugarrenik alferreko helburu kaltegarria dela berresten du.



---

## **Eranskinak**

A eranskina. ETAren armagabetzeari eta  
desegiteari buruzko dokumentuak

---



## A.1. ETAren gutuna



Euskal Herrian, 2013ko abuztuan

Iñigo Urkullu jaunari:

Agur t'erdi,

Gutun honen bidez, ETAk zure galdera jaso duela baieztatu nahi dizu eta, horren harira, gure gogoeta helarazi nahi dizugu.

Xehetasunetan sartu aurretik, baina, beste gai batzuen kokapen orokorra egin nahi dugu, laburrean bada ere.

Konponbide prozesuaren egungo egoera:

Azken urteotan, Euskal Herriak Espainia eta Frantziarekin duen gatazka behin betiko konponbidean jartzeko aukera sortu da gure herrian. Alta, aukera historikoa izanagatik ere, Estatuaren jarrera ezkorrek blokeo egoerara eramandu konponbide prozesua.

ETAk konponbide prozesua elikatzeko ahalegin ugari egin baditu ere, Frantzia eta Espainiako Gobernuak aurrera egiteko aukera orori uko egin diote, gatazka elikatzeko estrategian tematzen ari diren bitartean:

- Espainia eta Frantziako Gobernuak uko egiten diote ETArekin ondorioen agendaren gaineko bake elkarrizketei.
- Espainiako Gobernuak bake elkarrizketak abiatzeko helburuarekin sortu zen gunearen desegitea behartu zuen.
- Espainia eta Frantziako Estatuak eraso estrategiari eusten diote, atxiloketak burutuz eta eraso judizialei jarraipena emanez. Oro har, Euskal Herriarekiko indarkeriazko eta mehatxuzko jarrerari eusten diote.
- Euskal Preso Politikoekiko duten jarrera ankerra azpimarratu behar da. Konponbidean urratsik eman ez, eskubide urraketetan sakontzeko helburu baitu egungo espetxe politikak.

Horrela, konponbidearen aukera lehertarazi nahi dute, inolako ibilbiderik gabe utzita.

Honi guztiari PP eta PSOE alderdi politikoek Euskal Herrian konponbidearen eremuan egiten den ekimen oro erasotzeko duten jokabidea gehitu behar zaio. PP-k Espainiako Gobernuaren jarrerarik itxienarekin bat egiten du eta PSOE-k 2011ko urriaren 20tik aurrera, inboluzio batean sartuta dago.

PNVK eta EAEko Gobernuak orain arte izan duten jarreraz:

Jakin badakizunez, ETA kritikoa da oso PNVk eta alderdi honek gidatzen duen Gobernuak orain arte izan duten jarrerarekin. Honoko arrazoengatik:

- Espainiako Gobernuaren estrategia eta erasoei, zuzenean edo zeharka, eman dieten babes politikoarengatik.
- Konponbidearen aldeko ekimenetan izan duten konpromiso eskasarengatik.
- ETAk konponbidearen aukera elikatzeko egin dituen adierazpen, proposamen eta ekimenen aurrean izan duten jarrera suntsitzailearengatik.

---

ETAren ustez, honek guztiak blokeoa errotzen lagundu du, Estatuaren jarrera ezkorra zuritu eta prozesu adostu eta ordenatu bat eraikitzeko ahaleaginean gauden proposamenak kamustu dituen neurrian.

Areago esango genuke, PNVk orain arte izan duen posiziotik nekez eraiki daiteke konponbidea. Azken hamarkadetan, munduan zehar, gatazka politiko eta armatuak gainditzeko eman diren bake prozesu gehienak, esaterako, ezinezko lirateke.

Bestalde, ezin da uka PNVk eta EAEko Gobernuak ETAren ekimen ororen aurrean izan duten jarrerak gure asmo eta ekimenak partekatze aukera asko zaildu duela. Giro eraikitzailea sortzeko asmoz, Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen bidez edo Aieteko sustatzaileen bidez gure asmoen berri eman izan dizuegunean, ekimen horiek indargabetzeko eta desitxuratzeko filtrazioak eta erasoak izan ditugu ordainetan.

Zentzu beretik, adierazgarria da oso gure prestutasunaren inguruan galdera luzatu duzun une berean, zure alderdikide diren Andoni Ortuzarrek eta Ixaso Atutxak armagabetzearen inguruan darabilten diskurtso erasokor eta arduragabea.

Ez da gure asmoa kritika hauetan kateatuak gelditzea. Baina aurrera egin nahi badugu, orain artekoaz egiten dugun irakurketa zintzotasunez eskaini behar dizugulakoan gaude.

#### Aurrera begira, ETAren gogoetak:

ETAren iritziz, egungo blokeo egoera gainditu ahal izateko Euskal Herritik bultzatu beharra dago:

- Euskal eragile politiko, sozial eta sindikalen artean elkarriketa bideak irekiz, gatazkaren ondorioen zein gatazkaren erro politikoen inguruan adostasun zabalak eskuratzeko helburuarekin. Ondorioen atalean, esaterako, Foro Sozialetik eratortzen diren gomendioek horretarako aukera eskaintzen dutelakoan gaude.
- Aipatu adostasunak oinarri hartuta, Euskal Herritik eta Euskal Herriari begira konponbide prozesuan aurrera eginez, normalizazio politikoa eskuratzeko bidean edota euskal jendaratean gatazkak utzi dituen zauriak sendatzeko bidean behar diren ekimenak abian jarriz, besteak beste.
- Espainia eta Frantziako Estatuak konponbidean egin behar dituzten urratsak behartzeko, herri gisa jardun eta presioa eginez.

Horregatik, eta luzatu diguzun galderari lotuz, ETAren ustez konponbidean aurrera egiteko funtsa ez da balizko armagabetze bat noiz, nola edo noren parte hartzearekin emango den. Erabat mugatua litzateke.

Ondorioen alorrean plan oso bat egin behar da, gatazkaren ondorio guzti-guztiak barnebiltzen dituen eta gainditze bidean jarriko dituen bide-orri bat.

Horri begira eta konponbidean, oro har, eragile guztiak dute tokia. Zentzu horretan, ETAK uste du EAEko Gobernuak eta Lehendakariak paper garrantzitsua joka dezaketela, nahi izanez gero.

Hartara, Lehendakaria jarrera eraikitzailearekin jarduteko eta konponbidean konpromisoak hartzeko prest baldin badago, ETAren eskua luzatuta dagoela adierazi nahi dizugu.

Besterik gabe, agurtzen zaitu,

Euskadi Ta Askatasunaren Zuzendaritza Batzordea



## A.2. Eusko Jaurlaritzaren armagabetze-proposamena

### Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako prozedura-proposamena, ETArek gizartearen aurreko alde bakarreko keinu batean oinarritua, gizartearen, nazioartearen eta erakundeen babespean

#### Sarrera

Hiru urte baino gehiago dira ETAk indarkeria-estrategia behin betiko utziko zuela iragarri zuenetik. Orduz geroztik, euskal gizartea bakea behin betiko finkatzeko eta bizikidetzaren normalizatzeko prozesu bat bideratzen ari da. Aldaketa historiko hori sustatzeko eta garatzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak, 2013ko azaroaren 26an, Bake eta Bizikidetzaren Plana onartu zuen.

Sozialki, instituzionalki eta politikoki egindako aurrerapenak eta pausoak garrantzitsuak dira. Hala ere, oraindik ere prozesu hau erabat gauzatzeko eragozten duten blokeo-faktore batzuk daude eta horietako bat ETArek desarmarearen ingurukoa da. Bake eta Bizikidetzaren Planaren zazpi helburuetatik lehenengoa, zehazki eta esplizituki, auzi horrekin lotuta dago: "ETAren desarmarearen exijentzia eta haren benetako amaiera gauzatzeko laguntzea".

Legegintzaldiaren hasieratik, Eusko Jaurlaritzak jarrera zorrotza, aktiboa, malgua eta egonarritsua izan du arlo honetan. Gaur egungo egoeran armagabetzeko zailtasun operatiboak daudela onartu du, armagabetzearen ekarpen bat egiten ahalegintzen ari diren nazioarteko eragileekin elkarlanean aritu da, Espainiako Gobernuari laguntza eskatu dio eta bera ere laguntzeko prest agertu da, baita materialki laguntzeko ere.

Kontua da 38 hilabete igaro direla, denbora luzeegia, inolako emaitza efektiborik gabe. 2014ko urtaririlean aurkeztutakoa behar baino pauso txikiagoa izan zen, itxura guztien arabera. Aurrerapausorik ezak eta iragarritako konpromisoak –publikoki iragarritakoak barne– bete ez izanak frogatzen du ETA armagabetze-ezean eroso dagoela.

Hori ez da onargarria. Horren kostu sozial eta politikoa handia euskal gizarteak ordaindu behar du, hipoteka bidegabe bat bailitzan. Eusko Jaurlaritzaren ustez, ETArri dei zuzena egiteko garaia iritsi da. Lido horretan, armagabetzeko prozedura azkar, bideragarri eta eraginkor baterako proposamen zehatz hau luzatzen dio.

#### 1. Armagabetze-ezaren kostuak

Armagabetze-eza ez da kaltegabea. Errealitate politiko eta soziala ez da berdina armagabetzea burututa edo burutu gabe. Armagabetzerik ezak prezio oso altua dauka eta euskal gizarteak ez dauka zertan ordaindu. Ondorengo lau eragin zuzenak dakartza, gutxienez:

- Armagabetze-ezak iragana atzean uztea eragozten du. Iraganera lotzen gaituen eta indarkeriaren mehatxua gogorarazten digun elementu faktikoa eta sinbolikoa da.
- Armagabetze-eza, aitzakia gisa erabil badaiteke ere, azkenean alderdien artean edo Legebiltzarrean elkarrizketa plural bat izateko oztopo erreala bat da.
- Armagabetze-ezak, aitzakia gisa erabil badaiteke ere, espetxe-politikan gauzak ez aldatzea bultzatzen du eta bai presoei bai haien familiei kalte egiten die.
- Armagabetze-ezak egoera zaharrak hiltzea eragozten du, eta berriak jaiotzea, eta neurri horretan, ezker abertzalea joko politikokoan normalizatuta egotea blokeatzen du.

#### 2. Armagabetzearen onurak

Alde bakarreko armagabetze ordenatu, egiaztatu, azkar eta eraginkor batek euskal gizartearen, euskal politikagintzan eta bake- eta bizikidetzaren prozesuan eragin positiboak izango lituzke. Kontrapuntu gisa, aurreko atalean deskribatutako eraginaren aurkakoak aipatuko ditugu:

- Armagabetzea, sinbolikoki, etapa berri baten sorburua da. Gizarte honi iragana behin betiko atzean uztea ahalbidetuko lioke.
- Armagabetzeak gai estrategikoetan eta bizikidetzaren arloan elkarrizketa politiko eta parlamentarioko dinamika berriak bultzatuko lituzke.
- Armagabetzeak espetxe-politika eta presoen eta beraien familien egoera aldatzen lagunduko luke baldintzak sortuko lituzke.
- Armagabetzeak ezker abertzaleko sektore soziopolitikoari iraganeko zamaren zati handi bat kenduko lioke eta joko politikokoan modu normalizatuan parte hartzea erraztuko lioke.

#### 3. Armagabetzerik ezaren zergatia

Argudioak hain argiak izanik, ondorengo galdera saihestezina da: hiru urte baino gehiago igarota, zergatik ez da aurrerapausorik eman armagabetzean? Eusko Jaurlaritzaren ustez, elkar elikatzen duten

---

hiru arrazoi daude: Espainiako Gobernuaren laguntza eza, Estatuaren laguntzarik gabeko armagabetze baten zailtasun operatiboa eta ETAK erabakia atzeratzeko interes taktikoa izatea.

#### 4. Hiru armagabetze-eredu orain arte

Orain arte, modu gutxi-asko argian, ETA armagabetzeko hiru eszenatoki ikusi ditugu:

·**Poliziaren konfiskazio bidezko armagabetzea.** Zuzenbide-estatu batean, egoera hori ezin da eta ez litzateke baztertu behar. Eusko Jaurlaritzak alde bakarreko armagabetze ordenatu bat gertatzea nahiko luke, armak uzteko konpromisoaren betetzean oinarritutakoa. Dena den, armagabetzea atzeratuz, Poliziak desarmatzeko arriskua erabat bere gain hartzen du ETAK.

·**Espainiako Gobernuarekin adostutako armagabetzea.** Gaur egungo errealitate politikoan, egoera hori onargarria bezain bideraezina da. Espainiako Gobernuak ez du onartzen. Eredu horren bideraezintasunari buruzko datua ez da berria. ETAK 2012tik du errealitate horren berri, eta hala ere, horrek ez du bere estrategian aldaketa esanguratsurik ekarri.

·**Armak egiaztatzerik eta egutegirik gabe zigilatuz armagabetzea.** Horixe da ETAK aukeratu duen eredia. Ondorio praktikoen eta politikoen ikuspegitik, ez armagabetzeko modu bat da. Armak egiaztatzerik eta egutegirik gabe zigilatzea ezer ez egitearen parekoa da. Egoera hori ez da onargarria.

#### 5. Laugarren eredia: Eusko Jaurlaritzaren proposamena

Euskal gizartearentzat eta politikarentzat funtsezkoa den auzi honetan blokeo-egoeran egonda, Eusko Jaurlaritzaren ustez, mahai gainean planteamendu argi bat jartzeko garaia iritsi da. Ondorengoa da bere «Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako prozedura- proposamena, ETAREN gizartearen aurreko alde bakarreko keinu batean oinarritua, gizartearen, nazioartearen eta erakundeen babespean». Proposamen hau ETARENtzako dei zuzen bat da eta bost urratsetan deskribatuta dago:

**1. urratsa.** ETAK euskal gizartearen aurrean armagabetzea onartuko du eta armagabetze- batzorde baten lan onaren bitartez bideratzea. Batzorde hori gizarte, nazioarteko eta erakundeetako eragilez osatuta egongo da.

**2. urratsa.** Jakinaraziko den epe zehatz baten barruan, ETAK bere arma eta lehegailu guztiak aurki daitezkeen eta gizartearentzat seguruak izango diren gordeleku batzuetan – gordeleku kopuru jakin batean– utziko ditu.

**3. urratsa.** Aldi berean, Armagabetze Batzorde bat eratuko da eta kideak honako hauek izango dira: Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin bildu izan zen Gizarte Foroko ordezkari bat, nazioarteko eragileen ordezkari bat eta Eusko Jaurlaritzako zenbait ordezkari. Eusko Legebiltzarrari batzordea babesteko eskatuko zaio.

**4. urratsa.** ETAK armen eta lehegailuen gordelekuen zerrenda Armagabetze Batzordeko kide den euskal gizarte ordezkariari entregatuko dio.

**5. urratsa.** Gizarte-ordezkari horrek aipatutako informazioa Armagabetze Batzordeari emango dio eta horrek, era berean, Eusko Jaurlaritzari, legez dagokion moduan jardun dezan.

Eusko Jaurlaritzak ETARI proposamen hau onartzeko deia luzatzen dio, euskal gizartearen gehiengoaren borondatea delako. Armagabetze-eza ETA euskal gizarteari ordainarazten ari zaion hipoteka bat da. Armagabetzea ETAK euskal gizartearekin duen zor bat da. Eusko Jaurlaritzak gogoeta hauek eta proposamen hau Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari helarazi dizkio gaur bertan.

2014ko abenduaren 21a



## A.3. Eusko Jaurlaritzaren armagabetze-proposamenaren eguneratzea

### Eusko Jaurlaritzaren jarrera hartzearen eguneratzea ETAren armagabetzearekin lotuta

ETAk 2011ko urrian iragarpena egin zuenetik, bost urte eta erdi igaro dira. Denbora honetan, armagabetzearen gaia, lehenagoko jatorria zuten beste batzuekin batera, blokeo eta eztabaida faktorea izan da. 2014ko abenduaren 21ean, Eusko Jaurlaritzak "Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako prozedura-proposamena, ETAren gizartearen aurreko alde bakarreko keinu batean oinarritua, gizartearen, nazioartearen eta erakundearen babespean" aurkeztu zuen. Eskaintza hau gutxietsi egin zuen ETAk.

Azken asteotan, armagabetzearen aukeraren inguruko zurrumurruak, iruzkin publikoak eta ez publikoak eta adierazpenak ugariak dira, eta aldi berean era askotakoak dira Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari zuzendu diren deiak, publikoak edo diskretuak, eta baita Ertzaintzaren parte-hartzearen balizko erreferentzia batzuk ere.

Lehenengo momentutik, Eusko Jaurlaritza bermez betetako eta iragana-oraina-etorkizuna katean oinarritutako armagabetze-prozesu serio batean laguntzeko prest agertu da eta horretarako bere burua eskaini du. Bere horretan jarraitzen du orain. Testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzak ez du espekulatu nahi, ez eta nahasketan lagundu. Txosten honen bidez, argitasuna ekartzeaz gain bere jarrera hartzea eta bere eskaintzaren zehaztapenak eguneratu nahi ditu.

Gai honetan Eusko Jaurlaritzaren jokoera iradokitzen duten printzipioak hiru dira: batetik, Euskadiko gizarte osoaren ordezkariari dagokion duintasun instituzionala babestea; bestetik, bere jokoeretan legaltasun printzipioa errespetatzea; eta hirugarrenik, lankidetzarako konpromisoa garatzea indarkeriaren amaiera ordenatua posible izan dadin.

Eusko Jaurlaritzaren helburuak bi dira: alde batetik, armagabetzea eta ETAren behin betiko desegitea gertatzea; eta bestetik, euskal gizartearen eta politikan, iraganarekin eta indarkeriarekin lotutako aldia behin betirako ixten laguntzea, eta bizikidetzari dagokionez garai berri bat zabaltzea orainari eta etorkizunari begira.

2014ko abenduaren 21ean egindako proposamena erreferentzi gisa hartuta, Eusko Jaurlaritzak bere jarrera hartzea eguneratu nahi du, bere eskaintza proposamen haren laugarren eta bosgarren urratsetan bilduz eta egungo errealitatera egokituz. Honela, bere balizko parte-hartzea armagabetze-prozesu batean ondorengo bi puntuetan oinarrituko litzateke:

1. ETAk egoki iruditzen zaion erakunde baten esku uzten du armen eta lehergaien biltegiartzearen inbentarioa eta kokapena.
2. Eusko Jaurlaritzak (eta egokia balitz, Nafarroako Gobernuarekin eta Iparraldeko Elkargoarekin bat, baldin eta horrela erabakiko balute) armen inbentarioa eta kokapena jasoko lukeen erakundeari bere estaldura instituzionala eskaintzen dio, une horretatik aurrera, legalki dagokion bezala, jokatzeke eta Espainiako Gobernuaren eta Frantziako Gobernuaren aurrean solaskide izateko.

Eusko Jaurlaritzak, hasieran behintzat, ez du baztertzeko ez eta deskalifikatzeko ere armagabetzea beste metodologia batekin edo bere parte-hartze zuzenik edo zeharkakorik gabe ematea. Beste modu batez eta jada adierazi den bezala, Eusko Jaurlaritzak bere funtzio instituzionalaren duintasuna babestu, legaltasun printzipioak gidatuta jokatu eta indarkeriaren amaiera ordenatua eta behin betikoa bultzatu behar du. Ikuspegi honetatik eta armagabetze-prozesu batean bere parte-hartzea eman dadin, beharrezkoak dira hiru posibilitate-baldintza:

- Duintasuna.** Eusko Jaurlaritzak armagabetze-prozesu batean lagunduko luke behin betikoa, epe motzean egiaztatua eta amaitua, eta konprometitua, eta bere ordezkari instituzionalarekin bat datorren funtzio batekin.
- Legaltasuna.** Erabilezin bihurtuak edo ez, suntsituak izan ez diren armen entregatze-prozesu batean lagunduko luke Eusko Jaurlaritzak. Ez luke parte hartuko armen suntsiketaren prozesu batean edo leku ezezagun batean erabileraz kanpo uzteko prozesu batean ere.
- Helburua.** Eusko Jaurlaritzak armagabetze-prozesu batean parte hartuko luke, non armen entregatzeak eta indarkeriaren behin betiko desagertzeak izaera unibertuala, boluntarioa eta politikoki baldintzarik gabekoa izango duten.

2017ko martxoaren 6a

---

## A.4. Bruno Le Roux Frantziako Barne Ministroaren Adierazpenak

### Frantziako Gobernuaren Barne Ministerioaren komunikatu ofiziala

Armes détenues par l'ETA  
18 mars 2017

Certaines déclarations font état de la volonté de l'ETA de remettre les armes qu'elle détient et dissimule sur le territoire national.

Ces armes sont détenues par une organisation terroriste dont de nombreux membres sont poursuivis ou recherchés par la justice dans le cadre de procédures criminelles, en France comme en Espagne. Ces armes et explosifs constituent des éléments de preuve dans le cadre des enquêtes en cours.

Seule l'autorité judiciaire est habilitée à s'en saisir.

L'unique solution pour un désarmement dans le respect de la loi est de signaler la localisation de ces armes aux autorités. Les modalités de leur remise ne peuvent faire l'objet d'aucune négociation.

De plus, toute manipulation de ces pièces à conviction est de nature à entraver l'action de la justice et la manifestation de la vérité.

Si, par ailleurs, l'ETA entend procéder à sa dissolution et se soumettre à la loi, il lui appartient de remettre toutes ses armes de part et d'autre de la frontière.

*Communiqué de presse de M. Bruno Le Roux, ministre de l'Intérieur, en date du 18 mars 2017.*

### EAE-FRANTZIA ETA (Frantziak dio ez duela ETArekin arma-entrega negoziatuko)

Paris, martxoaren 18a (EFE).- Gaur, Bruno Le-Roux Frantziako barne-ministroak ziurtatu du ez duela ETA talde terroristarekin arma-entrega negoziatuko. Honela esan du: "aginte judiziala bakarrik dago gaituta" armategia hartzeko. Iragarrita zegoen ETAk datorren apirilaren 8an jakinaraz dezakeela non dituen zuloak, eta Le Rouxek, erantzun modura, esan zuen "Konponbide bakarra dago armagabetzea legea errespetatuz egiteko, alegia, agintariei arma horiek non dauden adieraztea". "ETAk desegin egin nahi badu eta legearen menara etorri, arma guztiak entregatu behar ditu, mugaren bi aldeetan", esan zuen.

Horrela erantzun zion ministroak Jean-Noël Etcheverry, "Txetx", "Bizi!" mugimendu ekologista eta sozialetako buruzagiarri. Hark Frantzia eta Espainiako agintariei eskatu zien negoziatia deztatela armen entrega. Arma horietako gehienak Frantzian daude ezkutaturik, eta Le Roux ministroak ziurtatu zuen "arma horiek antolakunde terroristak baten eskuetan dira, eta antolakunde horretako anitz kide justiziari jazarrikerik edo xerkaturik daude, edo Frantzian edo Espainian, prozesu kriminalen barruan". "Arma eta lehergai horiek", jarraitu zuen ministroak, "abian diren hainbat ikerketetan froga-gaiak dira".

Armagabetzean bitartekari aritzeko ahaleginak egiten dituztenak honela ohartarazi zituen barne-afereen arduradun frantziarrak: "froga horien manipulazio oro oztopo izan daiteke justiziaren lanerako eta egia argitzeko". "Le Monde" arratsalde-egunkari frantziarrak atzo zekarrenez, Etcheverryk esan zuen bere antolakuntzaren eta beste negoziatzaile batzuen eskuetan utzia zuela ETAk "bere armategiaren desarma egiteko ardura". "Apirilaren 8ko gauean, ETA erabat armagabetua izanen da"; hala esan zion egunkariari buruzagi ekologistak, zeina inguru independentzialeetatik hurbil dabilen. Negoziatzaileen nahia zen frantziar estatuak hartzea armen kargu, "nazioarteko behatzaileek" ikuskatu operazio batean. "Ez dugu nahi (armak) estatu espainiarrak balia ahal izan ditzan, ez eta gizarte zibilak antolaturiko armagabetze-molde oro ezesten duen edozein miliziaz ere", esan zuen Etcheverryk.

Joan den abenduaren 16an, buruzagi hori eta elkarrean arloko beste lau ordezkari atxilo eraman zituzten, Luhuson (Iparraldean), ETArekin arma-zulo batekin batera. Erabiltezin utzi nahi omen zuten, baina ez suntsitu. Ustea da ezen talde terroristak, orduko hartan aurkitu ziren 10 kutxetan, oraindik zaintzapean duen armategiaren % 15 zeukala gordeta. Armategi hori mendian zuloetan gordeta dauka, edo etxe partikularretan, batez ere Iparraldean.

## A.5. Bernard Cazeneuve Frantziako Lehen Ministroaren Adierazpenak

Paris, martxoaren 20a (EFE).- Bernard Cazeneuve frantziar lehen ministroak esan du, gaur, ETA talde terroristaren armategiaren entrega arau judizialen begipean egin behar dela. "Armak itzuli nahi badira, ez dago hori baino gauza errazagorik, zuzenbide-estatuko arauen barruan entregatu behar dira: ikerketak egiten ari den justiziara joan, eta esan "erabaki dugu biolentziari amaiera ematea, arma guztiak entregatuko ditugu", esan zuen "France Bleu" irratian.

Joan den martxoaren 17an, "Le Monde" egunkari frantziarrak jaso zuen ETAren plana dela datozen asteetan erabat armagabeturik geratzea, martxoaren 8an amaituko dela prozesua, eta elkarte zibilek eramango dutela aurrera. Cazeneuve-k azpimarratu zuen "jakina ezein gobernu ezin duela aurka jarri ekintza biolentoetan erabili diren armak entregatu nahi badira, baina entrega horrek "arau judizialak" zaindu behar dituela". "Horri Zuzenbide Estatu esaten zaio! Eta barne-ministro batek ere ezin du besterik esan". Gobernu-buru frantziarrak adierazi zuen armagabetzea ezin dela beste inola egin, "izan ere, demokraziaren indarra, pertsonaren eskubideak errespetatzea, hori, zuzenbide-estatuaren printzipio guzti-guztiak errespetatzea ere bada". Cazeneuvek nabarmendu zuen arma horiek "zuzenbide-estatu batean bortxazko ekintzak" egiteko erabili zirela, eta, biolentzia amaituko bada, armategi hori entregatu beharra omen dago, baina "Justiziari" entregatu.

Joan den larunbatean ere Frantziako barne-ministroak, Bruno Le Rouxek, aurreratu zuen Frantziak ez duela entrega negoziatuko ETArekin, eta "soilik aginte judiziala dagoela gaiturik" armak hartzeko. Horrela erantzun zion ministroak Jean-Noël Etcheverry, "Txetx", "Bizi!" mugimendu ekologista eta sozialako buruzagiarri. Hark Frantzia eta Espainiako agintariei eskatu zien negozia dezatela armen entrega.

---

## **A.6. Frantziako agintarien solaskidearen aldetik jasotako komunikazioa 2017ko martxoaren 21ean**

(...)

Frantziako sistema judizialeko pertsona bakarra gaitua koordinatuak jasotzeko François Molins Magistratua da, gaur egun Errepublikako Prokuradorea Pariseko Tribunalaren aurrean eta terrorismoarekin lotutako gai guztietaz arduratzen den pertsona nazio-mailan.

Datuak modu eraginkorrean entregatzeko, nire kontaktuak, magistratu nagusi batek, operazio hau gutun ziurtatu bidez egitea iradokitzen du, DHL modukoa, zuzenean Prokuradoreari zuzendua.

(...)

## **A.7. Eusko Legebiltzarrak eta Nafarroako Parlamentuak armagabetzeari buruz onartutako Legez besteko Proposamena**

### **Eusko Legebiltzarren Legez besteko Proposamena ETAren armagabetzeari buruz**

Eusko Legebiltzarrak:

- ETAr eskatzen dio armagabetze-ekitaldi bakar bat egin dezala, alde bakarrekoa, osoa, behin betikoa eta egiaztatua, ahalik eta azkarren.
- Nazioarteko Egiatzatze Batzordeari eskatzen dio jarrai dezala helburu hori betetzeko bere lan ona egiten.
- Onuragarritzat jotzen du gizarte zibileko pertsona eta erakundeen inplikazioa helburu hori lortzeko beren ekarpenetan.
- Eusko Jaurlearitza gonbidatzen du legezketasun- eta segurtasun-bermea duen behin betiko armagabetzerako amaiera-ekitaldi bat babesteko kudeaketak egiten jarraitzera.
- Espainiar Gobernu eta Frantziar Gobernu gonbidatzen ditu ETAren armagabetzea amaitzen laguntzera.

---

## A.8. DDR printzipioen (Armagabetzea, Desmobiizazioa eta Birgizarteratzea) aplikazioari buruzko zenbait egiaztapen

### 1. DDR printzipioen aplikazioari buruzko zenbait egiaztapen

Nazioarte mailan, 60 Armagabetze, Desmobiizazio eta Birgizarteratze (DDR) prozesutik gora garatu dira.

Dena dela, DDR-en araudia 2004tik sortzen da NBek erakundeen lan-talde bat eratu zuen NBEren sistema osoari zuzendutako maila handiko politika bat eraikitzeko, DDR prozesuen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko asmoz. Eraitza bezala, bi uret beranduago, NBek DDR programak aurreratzeko ildoan eta prozeduren txosten bat onartu zuen, Armagabetze, Desmobiizazio eta Birgizarteratzerako Estandar integratuak bezala ezagutuak (IDDRS).

Gur egun NBek DDRak definitzen du “armen mugitze-prozesua borrokalarien eskutatik, borrokalarien erretiroa egitura militarretatik, eta hauei laguntza eskaintzea gizarteratzeko sozialki eta ekonomikoki, bizimodu zibilen bidez”.

Hau kontuan hartuta, 2006tik DDR 23 prozesu eman dira NBEren misioek edo nazioarteko beste erakundeek parte hartu dutenak bitartekari gisa eta Nazio Batuen Estandar Integratuei erantzuten dietenak.

Ipar Irlandaren kasuan, 1998ko Ostiral Santuko akordioen ostean, alde desberdinak 1997ko –abuztuaren 26an sortu eta Bill Clinton presidente ohiak bultzatutako– Nazioarteko Armagabetze Batzorde Independentearekin (IICD) kolaboratzera gonbidatu zituzten.

Europako testuinguruan prozesua ez zuten lagundu Nazio Batuek eta ezin da DDR printzipioen aplikazio-kasutzat hartu. Bake-prozesu honen esanguratsua da EBk hartutako konpromisoa Peace Programme ondoz ondokoen bidez, Batzordeak onartutakoak eta Jacques Delors Presidenteak zabalduak.

Baldintza orokorretan, DDR prozesuaren aplikazioa gatazka belikoetara mugatu da, gerrillen inplikazioarekin, nazioarteko edo Europako parámetro demokratikoei erantzuten ez dieten herrialdeetan, gehienak Afrikan.

Gatazka gehienetan, DDR programen aplikazioak dozenaka mila pertsoneri eragin die, sozialki eta ekonomikoki gizarteratzeko neurrien aplikazio zehatzarekin zuzenean inplikaturako pertsona bereziki babesik gabeak, adin txikikoen eta emakumeen kasuak.

Esan daiteke testuinguru zehatz bakoitzean DDR printzipioen aplikazio zehatza egin dela. Beraz, ezin da prozesu-mota hauen ezaugarri propioez hitz egin, ezarritako printzipio bakoitza xehetasunik gabe jorratu gabe.

Orain bai, horien guztien ezaugarri nagusi eta komun bezala, NBEren esku-hartzea, misio baten edo NBek berak bermatutako nazioarteko erakunde baten bidez, orokorrean diru-kopuru oso altuen inbertsioa ekarri du (DDR programak bezala ezaguna), desmobilizatutako pertsonen egokitzapena bilatzeko eta kaltetuen birgizarteratzerako lehen urrats bezala.

Neurri zehatzen artean, kasu batzuetatik bestetara aldatzen badira ere, honakoak daude:

- Desmobilizatuen integrazioa Indar Armatuetan.
- Laguntza ekonomikoa (lurrak, inbertsio ekonomikoak eta abar), juridikoa eta sanitarioa.
- Herrialdeetako bizitza politikoa integratzea.

Dena den, Nazio Batuen bultzada DDR prozesu baten ezinbesteko baldintza da. Aldi berean, desmobilizazio fasean ezinbesteko baldintza da desmobilizatzen den erakunde armatuaren aldetik, birgizarteratze fasea pasatzen diren militanteen, gerrillarien edo parte-hartzaileen errolda ematea.

### 2. DDR printzipioak aplikatu diren testuinguruak

2006tik garatutako DDR prozesuak

Herrialdea	DDR epea	Desmobilizatu kopurua
Afganistan	2003 urr.-2008 abe.	62.000
Angola	2002 abu.-2008 abe.	138.000
Burundi	2004 abe.-2008 abe.	78.000

Chad	2005 abe.-2010	9.000
Kolonia (AUC)	2003 aza.-2006 abu.	31.500
Costa Marfil	2007 abe.-2008 mar.	47.500
Eritrea	2002 apir.-2008 abe.	200.000
Filipinak	2006 uzt.-2008 abe.	10.000
Guinea Bissau	2000 abu.-2006 abe.	12.600
Haití	2006 abu.-2006 abe.	6.000
Indonesia	2005 ira.-2009 abe.	5.000
Liberia	2003 abe.-2006 uzt.	119.000
Nepal	2007 urt.-2008 abe.	15.000
Níger	2006 mar.-2007 abe.	3.100
Afrika Erdiko Errrepublika	2004 mar.-2007 api.	7.500
Kongo Errepublika Demokratikoa	2004 urt.-2007 abe.	150.000
Kongo	2005 abe.-2008 abe.	30.000
Ruanda	2001 abe.-2008 abe.	36.000
Sierra Leona	1998 ots.-2004 urt.	72.500
Somalia	2005 abe.-¿?	72.500
Sudán	2009 urt.-2012 eka.	180.000
Uganda	2007 urt.-2007 abe.	22.000
Kolonia (FARC)	2012-2016 eka.	18.000

---

## A.9. Desagertu diren antolakunde armatuen prozesuen ezaugarri batzuk

### 1. Brigada Gorriak (Italia)

#### •Aurrekariak:

Brigada Gorriak 1969an sortu ziren. Borroka armatu iraultzaileko antolakunde italiarra hasieran, bilakabidean aurrera, talde terrorista baten taxua hartu zuten. Jite marxista-leninistaduna, helburu nagusietako bat Italia Ipar Atlantikoko Tratatutik<sup>71</sup> ateratzea zen, Italiako politika haren eraginpean zegoela-eta.

#### •Amaiera:

Bi gauzek batera ekarri zuten Brigada Gorrien amaiera: polizia-ekintzak, eta banda bera bere kasa urtzea. Aldo Moro Demokrazia Kristauaren buruzagia hil zutenean hasi zen antolakundearen akaberak. Harrez gero, Brigada Gorriak gainbehera abiatu ziren. Talde txiki-txikitan banatzen joan ziren, harik eta ia erabat desagertu arte. Brigada Gorriek inoiz ez zuten biolentzia-amaieraren adierazpen ofizialik egin.

#### •Gogoeta kritikoa:

Poliziaren lanak arrakasta izan bazuen, izan zen, batez ere, damutuaren tipo penala agertu zelako. Doktrina hari helduta, terroristek onura penalak lor zitzaizketen, baldin eta damutu, salatariak bihurtu, eta lehengo talde-kideak harrapatzen laguntzen bazioten justiziari. Damutuaren artean, hauek nabarmenenak: Carlo Fioroni (figura horren itzalpera biltzen lehena), Patrizio Pecci, Roberto Sandalo eta Susanna Ronconi, besteak beste. Beranduago, Adriana Faranda brigadista ohiaren eskutik, “disoziazioa” delako prozesua sortu zen. “Beste aukera bat zen, ‘damutua’ izan gabe, hark lagunak salatzea eskatzen baitzuen. Italian 80 hamarkadan ezarri zuten, Brigada Gorriek amaiera ematearren eta brigada-kideak bizitza zibilera ekartzearren.

Farandak bera honela zioen: “Guk proposatzen genuena beste gauza bat zen: biolentzia bertan behera uztea eta erantzukizun zibilak onartzea, denon arteko gogoeta-prozesu baten barruan.”

“Agintariak bizkor ibili ziren, eta ondo aprobetxatu zuten gertatzen ari zena”, jarraitzen du. “Esparru homogeenok” direlakoak sortu zituzten; han, preso geundenok, taldeka, gogoeta egin eta eztabaidan jardun genezakeen, agiriak idatzi eta gainerako espesheetara eraman, eztabaida-guneak ugartzeko. Politikari batzuk ere joan ziren presoekin hitz egitera. Gero, legeak iritsi ziren (1986-1987), eta prozesua jasota geratu zen”, erantsi du. Arau hura betetzeak esan nahi zuen zigorra laburtzea eta espesxe-onurak lortzeko erraztasun handiagoak edukitzea. Emakume hura 1995ean atera zen espesxetik.<sup>72</sup>

### 2. Frente Farabundo Martí de Liberación Nacional (El Salvador)

#### •Aurrekariak:

FMLN 1980an sortu zen, hamarkada beteak borrokan eta antolaketa-lanetan jardun ondoren El Salvadorreko herriaren eskariak egia bihurtzeko: demokrazia, justizia soziala eta autodeterminazio nazionala.

#### •Amaiera:

*Acuerdos de Paz de Chapultepec* izeneko akordioetan etorri zen FMLN-ren amaiera, 1992an, armak hartuta 12 urtez borrokan egin ondoren, garai hartako gobernu militarren aurkako gerra zibilean. FMLNk proposatu zuen negoziazioa gerrari amaiera emateko, 1989an. 1990eko apirilean, *Ginebrako Akordioa* sinatu zuten, Javier Pérez de Cuéllar bertan zela, Nazio Batuetako idazkari nagusia. Eta, ondotik, programa eta egutegi bat zehaztu ziren, negoziazio-prozesua burutzeko. 1992ko Bake Akordio haien bidez, bi aldeek hitzeman zuten “*gatazka armatua politika bidez amaituko zutela lehenbailehen, herrialdearen demokratizazioa bultzatuko zutela, giza eskubideak bermatu, eta El Salvadorreko gizartea batu berriro*”. Akordio haiek zer ahalbidetu zuten? Besteak beste, FMLNko borrokalari ohiek eskubide zibil eta politikoak bete-betean egikaritzea, arrazoi politikoengatik espesxean ziren guztiak askatzea, erbesteratuei itzultzeko bermeak eta segurtasuna eskaintzea, komunikabide sozialak irekitzeko lizentziak FMLNrentzat, eta FMLN alderdi politiko modura legeztatzea eta bilerak eta mobilizazioak egiteko askatasuna fronte-kideentzat. Eskubide-askatasun horiei esker, FMLNk alderdi politiko modura ibiltzeari ekin zion, 1992ko irailaren 1ean, eta, behin baino gehiagotan, herrialde hartako lehendakaritzara ere iritsi da. Gaur egun, FMLNk agintzen du El Salvadorren.

---

71 Tratatua hark, gerora, Ipar Atlantikoko Tratatua Erakundea ekarri zuen (NATO).

72 El País, 2012ko maiatzaren 20a.



**•Gogoeta kritikoa:**

Nazio Batuen Egiaren Batzordearen arabera, gatazka hartan, gobernu-indarrak eta paramilitarrak izan ziren zibilen hilketen % 85en arduradunak, eta FMLNko gerrillariak, berriz, zibilen hilketen % 5en arduradun izan ziren.

Ez dugu aurkitu gogoeta autokritikorik lehenaldiari buruz edo biktimei buruz, gerraren amaierari loturik. Bada oraindik ere ordaintzeke dagoen zor bat: gatazkako biktimei justizia egitea. Alfredo Cristiani presidentek (ARENA, eskuin muturreko alderdia) amnistia bultzatu zuen eta ezinezkoa izan zen delituen errudunak epaitzea. Krimenak horrelaxe geratu ziren, zigor gabe.

**3. Umkhonto we Sizwe (MK) Hegoafrikako Apartheid**

**•Aurrekariak:**

1948an, eta zuriak soilik bozka zezaketen hauteskunde batzuei esker, Hegoafrikako Alderdi Nazionalak Apartheid erregimena ezarri zuen. Legezko bazterketa-politikak ekarri zituen arraza zurikoa ez zen ororentzat. Testuinguru horretan, 1961eko abenduan, Nelson Mandela Afrikako Kongresu Nazionalako orduko jarduneko presidentek (ANC, ingelesez), *Umkhonto we Sizwe* sortu zuen (MK), ANCREn beso armatua. 1964an, Mandela betiko kartzelara kondenatu zutelarik, Oliver Tambo ANCKo presidente berriak alderdia erradikalizatu, eta borroka areagotu egin zuen. Hilketak batzuk ere egin zituzten, eta, horrenbestez, MK gerrilla bihurtu zen.

**•Amaiera:**

Hegoafrikan, berrogei urte baino gehiagoz iraun zuen legedia arrazistak. Azkenean, apartheid haren amaiera bi arrazoiengatik iritsi zen: munduko iritzi publikoak indar eginda, eta Hegoafrikako ekonomia oso eskastuta zebilen momentu batean Eskatu Batuek sostengu politikoa eta finantza-arlokoak kendu egin zirelako. 1990eko otsailaren 2an, Legebiltzarra irekitzeko hitzaldian, Frederik de Klerk presidentek iragarri zuen egun hartan "lege baztertzailak ezabatze" prozesua hasten zela. Hala, ANC alderdi politikoa legezatu zuen, eta, 1992an --urte hartan izan ziren zuriak bakarrik parte har zezaketen azken hauteskundeak-, erreferendum batek gaitasuna eman zion ANC eta beltzen beste alderdi batzuekin konstituzio berri bat negoziatzen jarraitzeko. Konstituzioaren zirriborroa 1994ko apirilean bozkatu zen, eta, urte hartan, beltzek ere bozkatzeko eskubidea izan zuten lehen aldiz. ANCK irabazi zituen hauteskundeak, eta horrela garbitu ziren apartheidaren azken arrastoak. Nelson Mandela hautatu zuten herrialdeko presidente, gehiengo handiz.

**•Gogoeta kritikoa:**

Hegoafrikako trantsizioan, 1995ean, Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea sortu zen (TRC, ingelesez). Erakunde ofiziala izan zen, Hegoafrikako gobernuak sortu zuen, eta apartheidaren ondoren justizia errehabilitatzailea lortzeko helburua zuen. Batzorde hark ia 22.000 biktimaren kontakizunak entzun zituen, haietatik 2.000 publikoak. Adiskidetu beharra azpimarratu zenez bereziki, Hegoafrika, behinola herrialde banatua, beste molde bateko gizarte bihurtu zen, pertsona guztiak onartzen zituena. Egiaren eta Adiskidetzearen Batzorde hark bazuen ezaugarri bat bakana: baldintzapeko amnistia eskaintzen ziela gaizki-egileei, baldin eta gaizki eginak entzunaldi publikoan xehe-xehe azaltzea onartzen bazuten. Azkenean, biktimek berek erabakitzen zuten amnistia ematea edo ez. Zenbateraino balio izan zuen batzorde hark? Iritzi bat baino gehiago dago. Batzuek uste dute gaizkile aitortzapekoei zigorgabetasuna eskaini ziela; beste batzuek, desagerpenak eta beste delitu batzuk argitzeko aukera eman zuela, eta bide bat zabaldu zuelarik biktimek kalteordainak eta aitortza jaso zituzten sufrimenduetatik. Behatzaileek uste dute adiskidetzeko eta egia aurkitzeko prozesu hura, hegoafrikarrek Ubuntu<sup>73</sup> deitzen dioten kontzeptu tradizionalarekin batera, bide-leuntzaile handia izan zela Hegoafrikako trantsizio politikoan. Edonola ere, eredu imitagarri bat bai izan da, bortxakeria-aldi, diktadura edo gerra zibiletik irteten ari ziren beste herrialde batzuentzat.

**4. Unidad Revolucionaria Nacional Guatemalteca (URNG-MAIZ)**

**•Aurrekariak:**

1982an sortu zen, lau talde gerrillariren koordinazioaren ondorioz (Ejército Guerrillero de los Pobres (EGP), Organización del Pueblo en Armas (ORPA), Fuerzas Armadas Rebeldes (FAR), eta Partido Guatemalteco del Trabajo (PGT)). Estatuak herritar zibilen aurka zerabilen errepresioaren aurka egin zuen borrokan, batez ere herrialde hartako landa-eremuan.

**•Amaiera:**

Nazio Batuek lagunduta, 1991 eta 1996 bitartean, prozesu bat abiatu zen, gobernuaren eta tartean zela. Urte haietan dozena bat akordio sinatu zen, Bake Akordioak izenekoak. 1996ko abenduaren

73 Hegoafrikako arau etikoa; oinarrian, errespetua, erkidegoa, leialtasuna, banatzea, konfidantza.... ditu.

---

29an, *Acuerdo de Paz Firme y Duradera* delakoa sinatu zen, eta horrela amaitu zen, ofizialki, Baruko Gatazka Armatua delakoa.

•**Gogoeta kritikoa:**

Gatazka 1960an hasi zen, eta, amaierako, 200.000 hildako eta desagertu baino gehiago utzi zituen. Txosten bat baino gehiagotan ikusi da krimen haien % 90 baino gehiago Guatemalako gudarosteak egin zituela. 1997an, URNG alderdi politiko modura legeztatzeko prozesua abiatu zen.

Ez dugu aurkitu, gatazkaren amaierarekin loturik, lehenaldiari buruzko edo biktimen inguruko auto-kritika-erreferentziarik.

## 5. Armada Gorriaren Frakzioa (Baader-Meinhof) (Alemania)

•**Aurrekariak:**

Talde ezkertiar erradikala eta kapitalismoaren aurkakoa. 1970ean sortu zuten *Ulricke Meinhof*, *Andreas Baader* eta *Gudrun Ensslin*-ek, Sha Irangoa<sup>74</sup> Berlingo mendebaldera bisitan zen bitartean 1967ko ekainaren 2an izan ziren liskarretan Polizia alemaniarrek *Benno Ohnesorg*<sup>75</sup> gaztea buruan tiroa jota hil izanaren ondorioz.

•**Amaiera:**

Formalki 1998ko apirilaren 21ean desegin zen, Reuters agentziara bidalitako komunikatu baten bidez.

•**Gogoeta kritikoa:**

Talde-kideek beti pentsatu izan zuten egiten zituzten gauzak “ekintza kolektiboak” zirela. Horregatik, kideetako batzuk ez zituzten inoiz aurkitu eta orain arte ezin izan da jakin atentatuetako batzuk norik egin zituen. Ez dugu aurkitu, “Baader-Meinhofen” amaierarekin loturik, lehenaldiari buruzko edo biktimen inguruko autokritika-erreferentziarik.

## 6. Irlandako Armada Errepublikarra IRA (Irlanda del Norte)

•**Aurrekariak:**

1970ean sortu zen, Ipar Irlandan. Antolakunde armatu katoliko-errepublikarra, Katoliko abertzaleen eta protestante batasunzaleen arteko gatazka politiko-erlijiosoan esku hartu zuen biolentzia erabiliz.

•**Amaiera:**

Negoziaketa-prozesu luze baten ondoren, 1998ko apirilaren 10ean, Ostiral Santuko Bake Akordioak dirrelakoak sinatu ziren (Good Friday Agreement), gobernu britaniarraren, gobernu irlandarraren eta Ipar Irlandako familia politikoen artean. Azkenik, desegite-komunikatu ofizialik ez egon arren, 2005eko uztailaren, IRAk borroka amata bertan behera uztea erabaki zuen. Armagabetzea egiaztatzeko ardura zuen batzordeak baieztatu zuen IRAk armategi guztia utzi zuela eta ez zeukala ez gaitasunik ez interesik atentaturik egiteko.

•**Gogoeta kritikoa:**

Badira erreferentzia batzuk autokritikoak eta biktimen gainekoak Gerry Adamsek eta Martin McGuinness eginda [ikus 1. eranskina], baina, apika, hauxe izango da nabarmenetako bat:

2012ko ekainaren 28a. Martin McGuinness Legebiltzar britainiarrean egin zuen agerraldia: *“Damu naiz gatazkan alferrik galdu zen bizitza bakoitzaz, eta, gaur, nahi dut norbait galdu duten familia guztiek jakin dezaten ez diogula ezikusia egin oinazeari, eta prest nagoela lan egiteko gure lehenaldiari aurre egiteko modua aurkitzeko, horrela izango baikara gai benetako adiskidetzearainoko gure bidea burutzeko.*

## 7. Korsikako Askapen Nazionalerako Frontea

•**Aurrekariak:**

1976ko maiatzaren 4an sortu zen, gobernu independente bat sortzearen Korsikako uharte mediterraneorako.

•**Amaiera:**

FLNC-k Korsikako komunikabide batzuetan iragarri zuen borroka armatua uzteko eta “desmilitarizazio-prozesuari” ekiteko asmoa zuela, baita “arian-arian klandestinitatetik irteteko” asmoa ere. Komunikatu hori 2014ko ekainaren 25ekoa da.

---

74 Iraultza islamiarra baino lehenagoko azken Sha iraniarra (1979ko otsailaren 11a).

75 Ikasle alemaniarra. Polizia alemaniarrek tiroz hil zuen manifestazio batean, Berlin Mendebaldean. Haren heriotza sinbolo guztizkoa bihurtu zen 60ko hamarkada amaierako Alemania Mendebaldean.

**·Gogoeta kritikoa:**

Ez dugu aurkitu, FLNCren amaierarekin loturik, lehenaldiari buruzko edo biktimen inguruko autokritika-erreferentziarik.

**8. FARC (Kolonbia)**

**·Aurrekariak:**

Sorrera ofiziala 1964an du, ezker muturreko antolakunde gerrillari modura eta jite marxista-leninistaduna.

**·Amaiera:**

Kolonbiako gobernuarekin akordio batzuk sinatzearen ondorioz etorri zen FARCen borroka armatuaren amaiera. Aurretik, ordea, negoziazio-aldi luze bat izan zen, 2012ko irailaren 4an hasita. Azkenik, 2016ko irailaren 26an, Habanako Akordioa sinatu zen ofizialki. Hala ere, aldatu egin behar izan zen, Kolonbiako gizarteak ezezkua eman ziolako; eta atzera berriz 2016ko azaroaren 24an sinatu zen, behin betiko.

**·Reflexión crítica:**

FARCEk den-denei, biktimen artean bereizketarik egin gabe, barkamena eskatzeko egin duen saio edo ahaleginik esanguratsuena, beharbada, Rodrigo Londoño "Timochenko" FARCEko komandanteak bake-akordioaren sinadura-ekitaldian egin zuen hitzaldia izango da:

-Honela zioen 2016ko irailaren 26ko akordioaren sinadura-ekitaldiko hitzaldian: "FARC-EPren ize-nean, gatazkako biktima guztiei barkamena eskatzen diet, bene-benetan, gerra honetan sortu bide dugun sufrimendu guztiarengatik".

-Eta honela zioen 2016ko azaroaren 24ko akordio berriaren sinadura-ekitaldiko hitzaldian: "Gure elkartasuna berresten dugu, gerra luze honetako biktima guztiekiko. Baita gure barkamen-eskaera ere, gure eskuetatik etorri izan bide diren ondorioengatik."

[Erreferentzia gehiago, 2. eranskinean]

**1. eranskina. Ipar Irlandan, mugimendu errepublikarrak egin dituen adierazpen autokritiko argienetako batzuk**

**·Erantzukizunean jarriz azpimarra**

·1996ko otsailaren 12a. Lehergailu-atentatua Londresko Cityan: "Leherketa honen erantzukizuna IRArena da osorik" (Gerry Adams).

·1996ko otsailaren 19a. Su-etena apurtu ondoren, Adamsek Belfast mendebaldean eman zuen hitzaldia. "*Orain arte eman den arrazoi bakar batek ere ez du bidezko egiten ostiral gaueko tragedia, gertakarien ardura hartu dutenei ez beste inori ezin zaio errua egotzi*" (Gerry Adams).

**·Bidezkotzean jarriz azpimarra**

·1996ko otsailaren 13a. IRAk su-etena apurtu zuela-eta: "Ez zuen gertatu behar izan. Ez zen saihestezina" (Gerry Adams).

**·Jarrera politiko argia hartzean jarriz azpimarra**

·1999ko otsailaren 8a. Honela zioen Martin McGuinness, "Zigor-jipoiak" zirela-eta: The Irish Times. "*Sinn Féin zigor-jipoiei erabat aurka dago*" (Martin McGuinness).

·1998ko abuztuaren 16a. Omagh-eko atentatua zela-eta: "*Abuztuaren 15ean Omagh-en gertatu denaren aurrean, nire jarrera irmoa da. Nabardurarik gabe gaitzetsi du!*" (Gerry Adams).

**·Biktimen ikuspuntuan jarriz azpimarra**

·1997ko otsailaren 12a. Armagh-en soldatu britainiar bat hil zutela-eta: "*Pertsonen bizitzarekin inork ez luke politika egin behar*" (Gerry Adams).

·2002ko uztailaren 17a. Komunikatu batean, honela zioen IRAk, borrokalariak ez zirenen artean eragin dituzten ehunka (650) hildako eta zaurituengatik barkamena eskatuz: "*Gure barka-eske eta doluminik zintzoenak eskaintzen ditugu*". "*Etorkizuna ezin da eraiki hutsegite eta akats kolektiboak ukatuz edo kaltetuen minari begiak eta bihotzak itxiz. Eta gatazkaren biktima guztiez ari naiz, borrokalariak zirenez eta ez zirenez*".

**·Adibiderik argiena eta irmoena**

·2012ko ekainaren 28a. Honela zioen Martin McGuinness-ek, legebiltzar britainiarren egin zuen age-raldian: "*Damu naiz gatazkan alferrik galdu zen bizitza bakoitzaz, eta, gaur, nahi dut norbait galdu*"

---

*duten familia guztiek jakin dezaten ez diogula ezikusia egin oinazeari, eta prest nagoela lan egiteko gure lehenaldiari aurre egiteko modua aurkitzeko, horrela izango baikara gai benetako adiskidetzearainoko gure bidea burutzeko”.*

## **2. eranskina. Ikus ditzagun FARCEk erabili dituen autokritika-formulazio-modu batzuk, bere erantzukizunpean eragin dituen giza eskubideen urraketak direla-eta**

### **•2014ko abuztuaren 12an, FARCEk agiri bat eraman zuen Habanako bake-elkarrizketetara**

**-Balorazio autokritikoa.** “Gure konpromisoa gatazkako biktimekiko eta haien eskubideekiko. (...) Biktimen autoritateak eta begiradak iragartzen dute sufrimendua eta oroimena direla egia ororen baldintza. (...) Gatazkako biktimak bidegabekerien oroimena dira, horretan datza haien autoritate morala. (...) Sufrimenduaren erkidegoak egia eskatzen du; bizitza balio absolutu jotzen du; uste du bizitzak zorpeko gaituela denok eta hartan topo egingo dugula, gure lur kolonbiarrean bizitzeko. (...) Ez baldin badugu lortzen oroimena biktimen ahotsetik eta sufrimendutik berreraikitzea, ez baldin badaukagu kontzientzia historikoa, nekez bermatuko dugu bake sendo eta luzerakorik. (...)”

### **•2014ko abenduaren 18an, FARCEk Boyabá-ko herriari.**

**-Zer gertatu zen.** 2002ko maiatzaren bian, etxean egindako jaurtigai bat bota zuten Boyayáko posizio paramilitarrik handienaren aurka, baina herriko eliza katolikoa jo zuten. Han ziren, babes harturik, paramilitarrek herria hartu baino lehenago ihes egitea lortu ez zuten herritarrek. 79 lagun hil ziren.

**-Balorazio autokritikoa.** “(...) Horrelaxe adierazi genuen 2002ko maiatzaren 8ko komunikatuan, eta, egia hori izanik, ezkuta ezina, gure egin behar duguna, orduan esan genuena berresten dugu: aitortzen dugu zer gertatu zen, emaitzak lur jota eta etsita utzi gaitu, eta hel bekie gure aitortza eta enpatia biktimei, haien senitartekoei, lagunei eta auzotarrei. (...) Gure saminik handiena aitortzen eta adierazten dugu hainbeste jenderi eragindako sufrimenduarengatik. (...) Gertakari hark ez zuen inoiz jazo behar izan. (...)”

### **•2016ko irailaren 30ean, Iván Márquez-ek La Chinitako biktimei**

**-Zer gertatu zen.** 1994ko urtarrilaren 23an, La Chinita auzoan berbena zuten. Aldeko zenbait talde eraso izanaren errudun jotzen zituen FARCEk ustez han ziren pertsona batzuk. FARCEko talde batek armak kontrolik gabe erabili zituen, eta, azkenean, 35 lagun hil, eta beste 17 zauritu gertatu ziren.

**-Balorazio autokritikoa.** “(...) Giza lege eta errespetuzko sentimendurik sakonenean urtuta, Chinitara etorri gara, zorigaiztoko urtarrilaren 23 hura baino 22 urte beranduago, bihotza atsekabeturik, zuei umil-umil barkamena eskatzera, gerrak iraun duen bitartean eragin bide dugun samin guztia-rengatik (...) Inoiz, inoiz ez zuen gertatu behar izan, alaitasun- eta dantza-gau hartan jazo zena. (...) Bizitzan zehar denok egin ditugu akatsak, batzuetan ondorioak larriagoak izan dira. Hori aitortuz ez dugu ezer galtzen. Egia gorriaz eta garbiaz hitz egitea zauri-sendagarri da arimarako, zauri sakon-sakonak izanagatik ere. Are gehiago: horrela sortuko dugu izpiritua baretzeko beharrezko giroa, hartara errazago izan dadin familia kolonbiarra adiskidetzeara, eta bakea eraikitzea etorkizuneko belaunaldientzat. Barkamenaren ateak ixten ditugunean, gorrotoa birziklatu egiten da. Ez dago gorrotoa baretzeko ez sendagairik ez analgesikorik. Bihotzean dago sendagaia. Bakea bihotzean dago. Ateak zabaltzen badizkiogu elkartasunari, gizatasun-sentimenduari -gaur kontzientziatik deiadarka baitaukagu setati-, eraikiko dugu etorkizuna, piztuko dugu itxaropena (...) Gure ustea da barnera biltzeko garai honetatik derrigor atera behar dela -zer besterik ba- damu-aitor sakona, bihotzetik sortua; eta Chinitak aldarea behar du izan, han omentzeko, betiko, gatazka zentzugabe bateko martiriak, han utzi baitzituzten ametsak eta bizitzak. Horregatik, Kolonbia ahaztuaren bazter honetatik, 1994ko urtarrilaren 23a adiskidetzearan egutegi sakratuan dolu- eta damu-egun modura markaturik, berriro diogu erabat delibaturik gaudela egiaren alde, justizia, erreparazioa eta berriro ez gertatzearen alde. Goratu ditzagun bakearen ikurrak eta gure otoitzak behartsuen eta babesgabeen Jainkoaren alde, adiskidetzearan eta bizikidetzaren barea arimaren zaurietara irits dadin, albait eta arinen. (...)”

### **•2016ko azaroaren 8a, Habanan hartutako akordioa: Bogotako El Nogal klubeko atentatuko biktimekiko egia, barkamena eta adiskidetzeara**

**-Zer gertatu zen.** 2003ko otsailaren 7an, bonba-auto batek eztanda egin zuen El Nogal klub sivilaren instalazioetan, Bogotan. Atentatu hark 36 hildako eta 200 zauritu baino gehiago utzi zituen.

**-Akordioa.** Bileran, Iván Márquez FARCEko idazkaria eta, El Nogal klubeko biktimekiko batzuen ordezkari, Bertha Lucía Fies izan ziren. Bilera FARC-EPk gonbidaturik egin zen, Kolonbiako estatua-ren baimenarekin eta NNBBek lagunduta. Akordio honetara iritsi ziren: “(...) FARC-EP-k hitzematzen du ekitaldi publiko bat koordinatuko duela, egia, barkamena eta adiskidetzeara erdiesteko Bogotako El Nogal klubeko atentatuko biktimekin. FARC-EP-k egiaren batzorde batean parte hartuko du, biktimekin eta beste, 2003ko otsailaren 7an El Nogalen zer gertatu zen argitzeko. (...) Bakerako Jurisdikzio Berezian (JEP), FARC-EP prest dago ezagutzen duen egia azaltzeko 2003ko otsailaren

7an gertatu zenaz.. (...) FARC-EP-k egia deklaratu du, eta dagokion erantzukizuna aitortu, Erantzukizunen Aitortza Goiztiarraren barruan. (...)."

**•2016ko abenduaren 3an Pablo Catatumbok eman hitzaldia Cauca bailaran 11 diputatu hil zituztenekoaz**

**-Zer gertatu zen.** 2002ko apirilaren 11n, Cauca bailarako departamentu-biltzarraren bilera baten erdian, 12 diputatu bahitu zituzten. 2007ko ekainaren 18an, San José Tapajekoaren bidezidorretik gertu, FARCEko Mendebaldeko Komando Bateratuko gerrillariak 11 erail zituzten.

**-Balorazio autokritikoa.** "(...) FARC-EP-ren eta Bakerako duten Ordezkaritzaren izenean, gure erantzukizun-aitortzarik zintzoena adierazi nahi dugu jendaurrean, eta barkamena eskatu biktimei eta Cauca Bailarako 11 diputatuen senitartekoei, gure antolakundeak baitzituen atxikita, gure erantzukizunpean. (...) Barkamena eskatzen diegu senitartekoei, biktimei eta Cauca bailarako gizarteari; barkamena, harrotzen ez gaituen eta gure printzipio eta idealen kontra-bidean doan gertakari batengatik. (...) Topaketa hauei esker, haien mina ezagutzeko eta gurera ekartzeko aukera izan dugu, haien erreparazio-eskariak jasotzeko aukera, eta, aldi berean, gure erantzukizun-aitortza helarazi genien, egin genuenarengatik barkamena eskatzeko beren beregiz, zurikeriarik gabe. (...) EZ DAGO GURE JOMUGA MORAL eta etikoetan GERTATU ZENAREKIKO GURE ERANTZUKIZUNARI.EZIKUSIA EGITEA. (...) Gure aldetik, autokritikarik zintzoena, ordainetan ezer espero gabe, eta gatazkan tarteko izan diren beste batzuk prest egon edo ez aitortpena egiteko bai kasu honen bai beste batzuen gainean, zain egon gabe ea etorkizunean argituko ote den beste kolonbiar batzuen biktimizatzearen eta minaren erantzukizuna. Bake- eta adiskidetze-bidean aurrera egiteko gure irrika da zuen barkamena, kolonbiar guztiok merezi baitugu. Biktimetako batzuk ere ez zuen merezi gertatu dena, eta ez dago zilegituko duen arrazoirik. GURE BARNEAN DARAMATZAGU, DEN-DENAK, ANIMAREN SAKON-SAKONEAN. (...)."

**•Gogora ditzagun Rodrigo Londoño "Timochenko" FARCEko komandanteak bake-akordioen sinadura-ekitaldian egin zituen hitzaldiak**

**-2016ko irailaren 26ko akordio-sinadurako hitzaldia.** "FARC-EPren izenean, gatazkako biktima guztiei barkamena eskatzen diet, bene-benetan, gerra honetan sortu bide dugun sufrimendu guztiar".

**-Eta honela zioen 2016ko azaroaren 24ko akordio berriaren sinadura-ekitaldiko hitzaldian.** "Gure elkartasuna berresten dugu, gerra luze honetako biktima guztiekiko. Baita gure barkamen-eskaera ere, gure eskuetatik etorri izan bide diren ondorioengatik".

---

## A.10. Bertizko Adierazpena

### Uxue Barkos Nafarroako Foru Komunitateko Presidentearen eta Iñigo Urkullu Lehendakariaren Adierazpen bateratua

Proposamenak eta konpromisoak, ETAK behin  
betiko desagertu dela iragarri ondoren

*“Geure gizartean bizikidetzarako aldi berria sendotuko  
duten urratsak adosteko baldintzak daude”*

Azken urteotan, eta 2011ean ETAK bere jarduera armatua eta indarkeria-adierazpen oro amaitutzat eman ondoren, behin eta berriz adierazi dugu bakea eta bizikidetzaren sendotzeak hiru gai nagusi eta egiteke zeuzkala: ETAREN armagabetzea eta desegitea, iraganari buruzko memoria kritikoa eta espe-txe-politika.

Hiru gai hauetako bat argitu da. Atzo ETAK bere behin betiko amaiera iragarri zuen. Bere izarea alde-bakarrekoa, eraginkorra eta behin betikoa dela berretsi dezakegu daukagun informazioaren arabera. Oso berandu baldin badator ere, gertaera historiko baten aurrean gaude geure historiaren garai beltza behin betiko ixten hasteko bidea eskaintzen duelako.

Terrorismoa behin betiko utziko zuela iragarri ostean 2011ean, ETAK irautea, soilik sinbolikoa baldin bazen ere, blokeo-faktorea bihurtu zen. 2017ko armagabetzeak eta 2018ko behin betiko amaieraren iragarpenak oztopo hau gainditu dute.

Une honetan, geure gizartean behin betiko bizikidetzarako aldi berria zabalduko duten urratsak ados-teko eta emateko baldintzak daude, erakundeetatik eta gizarte antolatutik hainbeste lan egiten jardun dugunaren alde. Bizikidetzarako aldi berria non biktimen erreparazio integrala lehentasunezko zere-gina izango den.

Testuinguru honetan, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ondorengo onartzen eta bul-tzatzen dute: “Bizikidetzaren sendotzeko proposamenak eta konpromiso partekatutakoak, ETAK behin betiko desagertu dela iragarri ondoren”.

#### I. Proposamenak

Dagokien eramu instituzionaletan garatu beharko diren proposamenak bi denbora-esparrutan bana-tzen dira: urratsak epe laburrera, eta urratsak epe ertainera begira.

##### ·Urratsak epe laburrera

ETA behin betiko amaitzearekin harreman zuzena dute, eta bi helburu autonomotan irudikatzen dira:

-**Gogoeta kritikoa.** Iraganari buruzko gogoeta kritikoa globala, ETAREN indarkeria esplizituki barne hartuz, indar politiko guztiek, lehen aldiz, partekatuko dutena.

-**Espetxe-politika.** Espetxe-politika testuinguru berrira egokitzeari buruzko adostasuna, behin beti-ko indar politiko guztiak hartuko dituena.

Epe laburreko bi adostasun hauek lortzeko oztopoak ezabatzen ditu eta baldintza aldekoak eta ego-kiak sortzen ditu epe ertainera helburu estrategikoetan aurrera egiteko.

##### ·Urratsak epe ertainera begira

Harreman zuzena dute bizikidetzaren normalizazio estrategikoarekin eta Gizartea Elkartzearen helbu-ruarekin hiru xede nagusi lortzera begira:

-**Memoria.** Giza eskubideen urraketen inguruan gertatutakoa argitzean oinarritutako memoria ani-tza eta partekatua sendotzea.

-**Biktimak.** Terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen biktima guztiak aitortzeko eta erreparatzeko politika publikoak bultzatzea.

-**Hezkuntza.** Bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko hezkuntza eta kultura sustatzea, prebentzio moduan, erronka berrien eta etorkizunaren aurrean.

#### II. Konpromisoak

##### ·Urrats estrategikoak bultzatzea epe laburrera

-**Iraganari buruzko adierazpen kritikoa eta globala bultzatzea, ETAREN indarkeria barne hartuz, indar politiko guztiek, lehen aldiz, partekatuko dutena**

Gogoeta kritikoa eta partekatuari begirako abiapuntuak hurrengo kontsiderazioak ditu:

·ETA amaitzeak ezin du izan, gertatutakoaren balorazio kritikorik eta espliziturik egin gabe, orrialdea pasatzea.

·Etorkizuna eraikitzea terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztiei eragindako min bidegabearen errekonozimenduan oinarritzen da.

·Memoria anitz eta partekatua edozein terrorismo edo indarkeria motari eta bere legitimazioari edo justifikazioari uko egite publikoan oinarritu behar da.

·Bizikidetzaren normalizazioak erakunde terroristak guztien, eta bereziki ETAren, indarkeria bidegabearen buruzko balorazio argia eta partekatua eskatzen du.

·Biktima guztien aurrean, beharrezkoa da aitortzea inongo kausarik ez zuela eduki inoiz bakoitzaren bizitza, duintasuna edo osotasuna baino balio handiagorik.

·Biktimen memoria eta ohorea iragana ahaztuko duen etorkizunerako begirada bategatik baztertuak ez uzteko konpromisoa hartzen dugu.

·Arrazoi etikoengatik eta legedia betez, biktima guztiei erreparazioa emateko konpromisoa hartzen dugu, bere biktimizazioaren arrazoia bat edo bestea bada ere, giza eskubideen urraketa batzuen eta besteen artean edozein alderatze orekatzailea baztertuz.

#### **-Eusko Jaurkitzak, Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren artean Espetxe Politikari buruzko Lan taldea sustatzea**

Nafarroan eta Euskadin lortuko diren adostasun parlamentarioak garatuko dituen Espetxe Politikari buruzko Lan taldea proposatzea eta sustatzea Nafarroako Gobernuaren, Eusko Jaurkitzak eta Espainiako Gobernuaren artean. Adostasun hori lortzeko abiapuntuak ondorengo proposamenak ditu:

·Presoei espetxe-bide legalak garatzera dei egitea indibiduoaren, egindako minaren aitortzearen eta gizarteratzearen printzipioak oinarritzat hartuz.

·Presoak beren bizilekutik gertuen dauden espetxeetara hurbiltze-prozesua bultzatzea, espetxe-legediak agintzen duenaren arabera (Espetxeen Lege Organiko Orokorren 12.1. artikulua).

·Gaixo dauden edo adin txikikoak beren ardurapean dituzten zein hirurogeita hamar urte beteak dituzten presoentzat ordenamendu juridikoak eskaintzen dituen aukerak irizpide humanitarioarekin aplikatzea.

·Bere definizio konstituzionalaren arabera gizarteratze-politika bultzatzea, eta ibilbide bideragarriekin berrituz erortzeko arriskua behin betiko modu sinesgarrian desagertu denean.

#### **-Urrats estrategikoak bultzatzea epe ertainera**

Bizikidetzarako estrategia integrala garatzea, ondorengo akordio-esparruei lehentasunezko izaera emanez:

·Terrorismoaren biktima guztientzako egia, justizia, erreparazioa eta elkartasunaren aldeko politika publikoak, eta baita memoriaren eta iragana argitzearen aldekoak ere.

·Bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko hezkuntza eta kultura politika publikoak.

·Motibazio politikoko giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimen eskubideen errekonozimendu legalaren politikak.

2018ko maiat





---

## **Eranskinak**

B. eranskina. Espetxe-politikari  
buruzko txostenak

---



## B.1. Hitzeman Programa

### Hitzeman, legezko bidea Presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzeko programa

2014ko iraila

#### Sarrera

2013ko azaroaren 26an, Eusko Jaurlaritzak "2013-2016 Bake eta Bizikidetzeta Plana. Gizartea elkartzea helburu" onartu zuen. 18 ekimenen artean eta espetxe-politikaren eta gizarteratzearen arloan, Hitzeman Programa garatzea aurreikusten du. Horri jarraiki, Eusko Jaurlaritza prest dago presoak gizarteratzeko legezko prozesuak erraztera bideratutako programa bat bultzatzeko.

Hitzeman Programak Espainiako Konstituzioak jasotzen duen gizarteratze-printzipioaren espiritua eta edukia ditu ardatz. 25.2. artikulua araberako askatasunaren galerarako zigorrak presoek berreziketara eta birgizarteratzera jo behar dute. Konstituzioaren azalpen horrek, bada, balio eta garrantzi berezi eta nabarmena hartzen du ETAren terrorismoa behin betiko etetearen testuinguruan, egoera horrek mota horretako delituak berriro egitearen mehatxua desagertzea baitakar.

Ondorioz, egokiak dira gizarteratzeko politikak hedatzeko baldintza soziopolitikoak. Gainera, horri gehitu behar zaio legezko, adostutako eta birgizarteratzera bideratutako espetxe-politika bat izateak bizikidetzaren gizarte-normalizazioan izan dezakeen eragin erabat positiboa.

Bestalde, Gernikako Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dizkion kompetentzia eskusiboen artean, espetxeen kompetentzia dago. 10.14. artikulua araberako, erkidego honi dagokio "Adinera heldugabeen babes eta tutoregorako, gartzelatzeko eta gizarterate berrintegratzeko erakunde eta etxeen antolaketa, erregimena eta funtzionamendua, gai zibil, gaztigu eta gartzelazko legegintza orokorrak dioenaren arauera". Nolanahi ere, euskal erakundeek behin eta berriro eskatu badute ere, kompetentzia hori ez da oraindik transferitu.

Hitzeman ekimena egungo konstituzio-, arau- eta kompetentzia-esparruaren mugen eta aukeren arabera kokatzen da. Legediak gure gizarteak bizi duen egoera berri honekin bat datorren espetxe-politika bat sustatzeko zer eskaintzen duen arakatzeko erabakitasun irmoa du Eusko Jaurlaritzak. Erantzukizunez eta lidergoz sustatzen du ekimen hau, bake eta bizikidetzaren arloan euskal herritarrekin konprometitu baitago.

Gai honi lotuta Eusko Jaurlaritzak izango duen egitekoa 2013-2016 Bake eta Bizikidetzeta Planean jasota dago, eta bi arlotan hedatuko da. Batetik, egun bere kompetentzia-esparrutik at dagoen horri heltzeko proposamen-ekimenak; eta, bestetik, bere kompetentzia-esparrutik gara ditzakeen ekimen propioak:

·**Proposamenaren esparruan** eta akordio berriak lortzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak honako aldarrikapen hauek planteatzen ditu:

-Espetxeen kompetentzia Eusko Jaurlaritzari transferitzea, Gernikako Estatutuak zehazten duena betez (10.14. art.).

-Presoak beren bizilekuetatik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko prozesu bat egituratzea, hala zehazten baitu espetxe-legediak (Espetxeei buruzko Lege Organikoaren 12.1. art.).

-Zehaztutako betekizunak betetzen dituzten presoek eskubidez dituzten espetxe-oinurak arruntak normaltasunez eta tratu-berdintasunez aplikatzea (Espetxeei buruzko Erregelamenduaren 4.2. art.).

-Bizikidetzeta Tailerrei, Berrezarpen Topaketei eta beste prozesu batzuei jarraitutasuna ematea, Bikimeiei buruzko Europako Zuzentarau berriak horren ildotik dioenari jarraiki.

-Gaixo dauden presoentzako konponbide humanitarioak ezartzea, Espetxeei buruzko Erregelamenduaren 104.4. artikulua aplikatuz.

---

-Jarduera politikoeekin (lehen legez kanpokoak zirenak, baina orain normalizatuta daudenak) lotutako zigorrak dituzten presoen egoerari heltzeko legezko neurriak aplikatzea, Espetxei buruzko Erregelamenduaren 100.2. artikulua oinarri hartuta.

·**Ekimen propioaren esparruan**, Eusko Jaurlaritza honako ekimen hauek gauzatzen saiatuko da:

-Proposamen eta ekimen zehatzak aurkeztuko ditu, espetxe-politikan Espainiako Gobernuarekin batera akordioak eta konponbideak bilatzeko nahia baitu.

-Aktiboki lan egingo du Eusko Legebiltzarrekin, Legebiltzarreko taldeekin eta, bereziki, Bake eta Bizikidetzari buruzko Batzorde Txostengilearekin, arlo honetan adostasun soziopolitiko zabalak lortzeko asmoz.

-Presoak gizarteratzeko prozesuak sustatzeko programa bat prestatuko du, espetxe-legediak eta Gernikako Estatutuak gizarteratzearen arloan eskaintzen dituzten aukerak aztertu eta bultzatzeko.

Dokumentu hau, bada, azken ekimen hori (Hitzeman Programa) garatzera bideratuta dago. Bi zatitan antolatuta dago: oinarriak eta edukia. Nabarmendu behar da, dena den, elkarrizketari eta akordioari irekitako proposamen bat dela. Hori dela-eta, Hitzeman Programa jendaurrean aurkeztu ondoren, bost hileko aldia izango da edukiari buruzko adostasunak lortzeko.

Aldi horretan, elkarrizketak eta harremanak izango dira norabide guztietan, dokumentua hobetzeko ekarpenak eta iradokizunak jasotzeko, bai eta programari atxikiko zaizkionak bilatzeko ere. Eusko Jaurlaritzak nahi du hau ez izatea soilik gobernu-ekimen bat, baizik eta gizarte-proiektu bat ere izatea, erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren emaitza.

## **Lehen zatia**

### **1. Hitzeman Programaren oinarriak**

Hitzeman Programa gizarteratzearen tresna prosozial, legal eta konstituzionalean sakontzeko aukera bat da. Nolanahi ere, gogoratu behar da oso zeregin zail eta konplexua dela, eta oinarri etiko, demokratiko eta legal sendoetatik heldu behar zaiola. Oinarriok hiru ataletan sailkatzen dira: programaren abiapuntu kontzeptuala, printzipioak eta helburuak.

#### *1.1. Hitzeman Programaren abiapuntu kontzeptuala*

Hitzeman Eusko Jaurlaritzak bultzatutako programa bat da, eta presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzea du xede. Programa honek abiapuntutzat duen oinarriko kontzeptua elkarrekotasuna da. Garapenean, bi ikuspegi gurutzatzen dira: Hitzeman programak presoaz behar duena eta programak hari eskaintzen diona. Elkarrekotasunaren alderdi bikoitz horrek egituratzen du, bada, Hitzeman Programaren edukia eta zentzu.

#### **·Presoaz behar dena: gizarte-ekarpeneko legezko ibilbide bat**

-Lege-esparruak gizarteratze-prozesuak garatzeko eskaintzen dituen bideak eta prozedurak jarraitzea.

-Hitzeman Programak jasotzen duen bake eta bizikidetzarako ekarpeneko ibilbideetako bat garatzea.

#### **·Presoari eskaintzen zaiona: laguntza-programa bat**

-Programak barne hartzen ditu gizarteratze-prozesuei buruzko aholkularitza pertsonala eta legala, eta laneratzeko eta etxebizitza bat eskuratzeko laguntza.

-Ibilbide pertsonala (hori ibiliz gero, birgizarteratze-prozesuari buruzko aldeko txostena egingo da) egin izana ziurtatuko dute euskal erakundeek.

#### *1.2. Hitzeman Programaren printzipioak*

Lau printzipiok zuzentzen dute prozesu hau, eta, gainera, segurtasun etiko, demokratiko eta legala ematen diote Hitzeman Programari.

·**Egia eta memoria.** Presoak gizarteratzeko edozer prozesuk bateragarri izan behar du gertatutakoa argitzeko konpromisoarekin eta iraganaren memoria kritikoa eraikitzearekin.

·**Legezketasuna eta bizikidetzaren.** Birgizarteratzeko prozesuak esparru konstituzionalak eta espetxe-legaltasun arruntak eskaintzen dituzten aukeren barruan bideratuko dira, espetxe-politika bizikidetzaren politiken beste aktibo bat izatea bilatuz.

·**Adostasuna eta progresibotasuna.** Presoak eta iheslariak gizarteratzeko edo birgizarteratzeko legezko prozesuak bultzatzeko edo laguntzeko edozer prozesu elkarrizketan, adostasunean eta progresibotasunean oinarrituko da.

·**Konpromisoa eta eskuzabaltasuna.** Ekimen honek bi balio bateratu behar ditu: konpromisoa eta eskuzabaltasuna. Hitz konprometitua behar du: "Hitzeman". Eta gizarte- eta politika-eskuzabaltasuneko espiritua landu behar du, bizikidetzaren etorkizuna helburu.

### 1.3. Hitzeman Programaren helburuak

Horiek oinarri hartuta, Hitzeman Programaren helburuak bateratu egiten diren hiru norabidetara bideratzen dira. Balio positiboa sortu nahi dute biktimen errealitatean, gizartean eta presoan bizitzan.

#### ·**Biktimei dagokienez:**

- Konponketa moraleko hitzak eta ekintzak eskaintzea biktimei, pairatu zuten bidegabekeriaren aitortzean oinarrituta.
- Iragana kritikoki berrikusteko eta giza eskubideen urraketa arduraz aitortzeko prozesu soziopolitikoak egiteko bide ematea.

#### ·**Gizarteari dagokionez:**

- Bake eta bizikidetzaren finkatzen laguntzea, presoek egin dezaketen ekarpenetik.
- Espetxe-politika bizikidetzaren politikaren parte izatea lortzea, aplikatu behar den "denboraren gizarte-errealitateari" jarraiki.

#### ·**Presoei dagokienez:**

- Hausnarketa autokritiko, konponketa, gizarteratze eta/edo birgizarteratzeko prozesu etikoak laguntzea eta indartzea.
- Estaldura legal, sozioasistentzial eta materiala ematea, birgizarteratze-prozesuak finkatzeko.

## **Bigarren zatia**

### **2. Hitzeman Programaren edukia**

Puntu honetara arte azaldutako oinarriek eta Eusko Jauriaritzak dituen aukera, konpetentzia eta baliabideek definitzen dute jarduera-esparrua. Funtsean, Eusko Jauriaritzak errealitatearekin eta bere konplexutasunarekin hartu nahi duen konpromisoak definitzen du jarduera-esparru hau. Erantzukizun- eta lidergo-konpromiso bat da, bizikidetzaren normalizatzeko bidean aurrera irimo egin nahi duen gizarte batekin hartutakoa.

#### 2.1. Abiapuntua

Presoek pertsonalki eta borondatez egingo dute bat Hitzeman Programarekin, eta, hala nahi izanez gero, hasierako adierazpen bati atxikiko zaizkio. Testu honek bakea eta bizikidetzaren behin betiko finkatzen laguntzeko konpromiso bat barne hartuko du, funtsean. Hori da abiapuntua. Inskripzio horren ondoren, Eusko Jauriaritzak programa abiaraziko du; programak, bada, bi alderdi ditu: programak behar duena, hots, ibilbide pertsonal bat; eta eskaintzen duena, alegia, erakunde-estaldura.

#### 2.2. Ibilbide pertsonala

Hitzeman Programak bakea eta bizikidetzaren laguntzeko oinarritzko lau ibilbide aurreikusiko ditu, eta terrorismo-delituengatik zigortu dituzten presoek horiek behar bezala hartzeak erraztu edo arindu egingo ditu birgizarteratze-prozesuen aldeko txostenak. Ibilbideak presoek espetxean daudela hasiko dira, jakina. Preso ohiek ere parte hartu ahal izango dute

---

prozesuotan, baldin eta programaren parte izan nahi badute. Ondorengo fase batean, programa hau iheslarien gizarteratzeari aplikatzea aztertuko da.

Ibilbide hauen guztien ardatz komuna beren funtsak eratzen du: konpromisoa eta erantzukidetasuna. Batetik, bizikidetzaren gizarte-normalizazioaren erantzukidetasuna bere gain hartzen duen gizartearen konpromisoa. Eta bestetik, orainaren eta etorkizunaren erantzukidetasuna, iraganaren hausnarketa kritikoa oinarri hartuta, beren gain hartzen duten presoek konpromisoa. Oinarri horiek bere izenean sintetizatzen dira: "Hitzeman". Hitz ematea erantzukizuna eta konpromisoa hartzea da.

### **Lau ibilbideak**

Lau ibilbide hauek lau proiektu izango dira, eta horiek erakunde kolaboratzaileekin sinatutako hitzarmenen arabera garatuko dira:

1. Konpromiso akademikoko ibilbidea, unibertsitate eta bestelako erakunde akademikoekin lankidetzan.
2. Elkartze-konpromisoko ibilbidea, gizarte zibileko erakundeekin lankidetzan.
3. Erakunde-konpromisoko ibilbidea, udal eta bestelako erakundeekin lankidetzan.
4. Konpromiso solidarioko ibilbidea, solidaritate-proiektu zehatzekin lankidetzan.

Ibilbideok bateragarriak izango dira beste jarduera batzuetan (mintegiak, tailerrak, berrezarpen-topaketak eta berariazko prestakuntzak) borondatez parte hartzeko ekintza osagarriekin.

### **Batzorde Kudeatzailea**

Hitzeman Programak Batzorde Kudeatzaile bat izango du. Eusko Jaurlaritzak sortuko du, eta diziplina anitzeko askotariko ibilbide aintzatetsia duten pertsonen talde batek osatuko du. Presoak Hitzeman Programan izena eman ondoren, Batzorde Kudeatzaileak elkarrizketa bat proposatuko du horrekin eta bere familiarekin, bai eta ibilbide, eduki eta bere errealitatera egokitutako lan-programa bat ere, aurretik zehaztutako irizpide-koadro bat oinarri hartuta.

Une horretatik aurrera, ibilbideetako batekin bat egin nahi duen presoak ibilbidea babestuko duen erakundearen laguntza izango du, eta horretako pertsona bat arduratuko da bere jarraipenaz.

### **Amaierako proiektua eta irizpena**

Ibilbide bakoitzaren helmuga horren amaierako proiektua izango da. Jarraitutako ibilbidearen amaiera gisa, ekarpen konstruktibo bat egin beharko diote gizarteari. Prozesuaren amaieran ziurtatu nahi da aurrez definitutako ibilbidea jarraitu duen pertsona gai dela modu konstruktiboan gizarteratzeko, bake eta bizikidetzarekiko konprometituta dagoelako, eta,aldi berean, iraganean, orainean eta etorkizunean giza eskubideen urraketaren kontra dagoelako, eta biktimei eragindako minaren aitorpen autokritikoa egiten duelako.

Aurreikusitako prozesua amaituta, Batzorde Kudeatzaileak ibilbidea nahiz ondorioak aztertuko ditu, eta gizarteratze-prozesuaren aldeko edo kontrako irizpena egingo du. Azkenik, Eusko Jaurlaritzak ziurtapen hori baliozkotuko du, eta eskumena duten erakundeek helarazi.

#### *2.3. Erakunde-estaldura*

Hitzeman Programak laguntza praktikoa eta materialeko estaldura eskaintzen die horretan parte hartzen duten presoek. Laguntza-programak hiru jarduera-ildo izango ditu: aholkularitza pertsonala, laneratzeko laguntza eta etxebizitza bilatzeko laguntza. Hiru estaldura-ildo horiek garatzeko, hitzarmenak sinatuko dira erakunde kolaboratzaileekin, eta hasiera batean, bi urtekoak izango dira.

1. Aholkularitza pertsonala eta legala, bai eta laguntza psikologikoa ere, birgizarteratzeko horren beharra dutenentzat, erakunde espezializatuekin lankidetzan.
2. Laneratzeko laguntza, birgizarteratzeko horren beharra duten preso ohientzat, Lanbide, enpresa-erakunde eta sindikatuekin lankidetzan.

**3. Etxebizitza bilatzeko laguntza, birgizarteratzeko horren beharra duten preso ohientzat, Etxebide eta udalekin lankidetzan.**

Laguntza-ildo horietako edozein presoak edo bere familiak eskatuta hedatuko da. Batzorde Kudeatzaileak eskaera bakoitza aztertuko du, eta kasu bakoitzean egokiena den erantzuna proposatuko du.

**2.4. Amaierako behaketak**

Hitzeman Programaren edukia ez du ohiz kanpoko erantzun bat. Garapen logiko bat da, Konstituzioaren eta legearen hitz eta espiritua, gizarteratze arloko jardunbide egokiak eta nazioarteko gomendioak ardatz dituenak. Hitzeman Programak Langraiz Bidea izenekoaren esperientziaren balio osoa biltzen du, esate baterako, bai eta aurreko esperientzia, lekukotza eta hainbat preso-taldek egindako gizarteratze-ahaleginena ere.

Hitzeman Programa bat dator bat-batean, gainera, bestelako presoekin egiten diren gizarteratze laguntza-politikekin; horiek, bada, espetxeek eta espetxe-zaintzako epaitegiek onartzen dituzte, bai eta espetxeetako tratamendu-batzordeek eta horiekin lan egiten duten gizarte-erakundeek ere. Idatziz irudikatu ohi dituzte lankidetzahitzarmenetan.

Era berean, oso garrantzitsua da nabarmentzea Hitzeman Programa bat datorrela gizarte arloko Europako joerekin, eta biktimei buruzko zuzentarau komunitarioak aplikatzen ditu. Zehazki, gaizkileek biktimekiko dituzten erantzukizunei dagokienez, Hitzeman Programak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua (delituen biktimeen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen ditu) garatzen du.

Hitzeman Programak ez du ezer bermatzen, ez da formula magiko bat, eta ez du arazo konplexu eta poliedriko baten konponketaren itxaropen faltsurik sortu nahi. Eusko Jaurlaritzaren helburua bide legal, bideragarri eta errealista bat irekitzea da, sozial eta politikoki, modu partekatu, konstruktibo eta progresiboan bidean aurrera egiteko. Gizarteratzearen helburu konstituzional eta prosoziala lortzeko, eta gizarte elkartzea eta bizikidetzaren normalizatzea lortzeko bide bat.

---

## B.2. Zuzen Bidean Proposamena

### Zuzen Bidean Proposamena

#### ETA desagertu ostean, zuzenbide penalean eta espetxe-zuzenbidean normaltasun egoera birmoldatzeko hogeit hamar proposamen, orobat bizikidetzaren normalizazio sozial eta politikoan laguntzeko

2014ko azaroa

#### Sarrera

Jurista ugari eta sentikortasun askokoek adierazi dute, zuzenbide penalari eta espetxe-zuzenbideari dagokionez, ETAREN terrorismoaren aurkako borroka azken urteetan ezohikoa zen interpretazio-jarduera baterantz desplazatu zela eta zenbait lege-aldaketa egin zirela. Eusko Jaurlaritza iritzi berekoa da.

Prozesu hori, pixkanaka gertatu zen arren, 2003an onartutako zenbait lege organikoren onarpenarekin iritsi zen gorengo mailara. Aldaketa horiek muga lausoak proposatu zituzten terroristatzat tipifikatu beharreko jokabideetan. Horiek prozeduraren garantiak murrizten zituzten, zigorrak biziarteko kartzelatik gertu geratzen diren maximoetaraino luzatzen zituzten edota, praktikan, berriro gizarteratzeko aukera konstituzionala blokeatzen zuten.

Orain, behin ETAREN terrorismoaren mehatxua desagertuta dagoenez, beharrezkoa da normaltasuna berrezartzea zuzenbide penalean eta espetxe-zuzenbidean. Egokiak liratekeen beste gai batzuk alde batera utzita, berrerortze-arriskurik ez egotea nahikoa argudio da, aldaketa eta jardunbide zalantzarriak berrikusteko, nolana ere, erabat desberdina zen errealitate batean justifikatu eta eraiki zirelako.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, zuzenbide penala eta espetxe-zuzenbidea normalizatzea lehen-tasunezkoa da, bi arrazoi direla eta, printzipio demokratiko batengatik eta helburu demokratiko batengatik:

- Zuzenbide penalean eta espetxe-zuzendaritzan zuzenbide eta askatasun sistemako oinarriko estandarrak osatzen dituzten berme eta minimoetara itzuli behar gara, hori oinarriko printzipio demokratiko bat baita, alegia, demokraziaren irmotasun eta sendotasunaren oinarri den konpromiso irmo bat.

- Arlo penaleko eta espetxe-arloko normaltasuna adostasun sozial bat da eta, halakorik ez egotea, distortsio-faktorea da. Espetxe arloan eta arlo penalean normaltasuna berreskuratzea helburu demokratiko bat da, erabakigarria baita gure gizarteko bizikidetzaren normalizatzeko.

Dokumentu honen ekarpena arlo penal eta espetxe-arloan normaltasun egoerara itzultzen laguntzea da, orobat bizikidetzaren sozial eta politikoaren normalizazioan laguntzea. Bi bloketan aurkeztu diren 20 proposamen zehatz ditu: legea aldatzea eskatzen ez duten espetxe-politikako hamar aldaketa-iradokizun; eta arlo penala eta espetxe-arloa legez aldatzeko hamar iradokizun. Honen edukiak Eusko Jaurlaritzak pasa den urriaren 1ean aurkeztu zuen Hitzeman Programa, berriro gizarteratzeko prozesuak sustatzeko helburua duena, osatzen du.

Zuzen Bidean proposamena deritzo, funtsean, bidezidorrak alde batera uztea eta zuzenbidearen bidea berriro hartzea iradokitzen baitu. Proposamen-izaera du, eta ez da dokumentu itxia, eztabaida sustatzeko tresna izateko asmoa baitu. Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin gai honi buruzko elkarrizketa bat ireki mahi du, eragile juridikoekin, parlamentu-taldeekin eta gizarte-eragileekin. Elkarrizketa horretan, dokumentu hau izango da abiapuntua eta erreferentzia.

**1. Hamar-aldaketa proposamen, legea aldatu gabe,** espetxe-politikan bizikidetzaren normalizazio politiko eta sozialean laguntzen dutena

#### 1.1. Transferentzia

Espetxeen eskumena Eusko Jaurlaritzari transferitzea, Gernikako Estatutuaren 10.14 eta 12.1. artikuluetan ezartzen dena betez.



### *1.2. Hurbiltzea*

Presoak beren bizilekuetatik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko prozesua gauzatzeara, hala aurreikusten duelako espetxe-legediak, Espetxeen Lege Organiko Orokorren 12.1. artikuluan. Ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko (edo horietatik gertu dauden) kartzeletara eramateko legezko oztoporik. Presoen familiekiko gizatasun-neurria litzateke eta, zalantzarik gabe, bizikidetzara normalizatzen lagunduko luke.

### *1.3. Preso gaixoak*

Konponbide humanitarioak ezartzea gaixorik dauden presoentzako, eta kasu larrietan espetxetik ateratzea, Espetxeen Arautegiko 104.4. artikulua aplikatuz.

### *1.4. Seme-alabak dituzten presoak*

Seme-alaba komunak dituzten presoak espetxe berean taldekatzea. Ez dago hori eragozten duen legerik eta gizatasunezko oinarritzko alderdi bat da.

### *1.5. 70 urte baino gehiago dituzten presoak*

Arrazoi humanitarioengatik eta legediarengatik, 70 urte baino gehiago dituzten presoek baldintzapeko askatasuna ematea, Espetxeen Arautegiko 196. artikulua erekin bat.

### *1.6. Ohiko eskubideak*

Normaltasun eta berdintasunez aplikatzea zuzenbidez aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten presoek, Espetxeen Arautegiko 4.1 eta 4.2 artikuluetan ezartzen den moduan.

### *1.7. Ilegalizazioengatik presoak*

Espetxeen Arautegiko 100.2. artikuluan oinarrituta, lehen legez kanpokoak ziren eta orain normalizatuta dauden jarduera politikoei erlazionatutako zigorrak dituzten pertsonen egoera jorrazteko legezko neurriak aplikatzea.

### *1.8. Langrätz bidea*

Erantzun instituzional eta ofiziala ematea Langrätz bidea deritzen presoek onartutako konpromisoari, modu argian eta zalantzarik gabe ziurtatu baitute beren posizio autokritikoa eta biktimei eragindako kalte bidegabea onartu baitute.

### *1.9. Justizia konpontzailea*

Bizikidetzara lantegiak eta Leheneratze topaketak instituzionalizatzea, Biktimei buruzko 2012/29 Zuzentarauak ildo horretan adierazten duenarekin bat.

### *1.10. Hitzeman*

Hitzeman Programak adierazten dituen gizarteratze-politikak eta antzekoak adostea, banatzea eta sustatzea eta ekimen horiek garatzea, tartean dauden instituzio desberdinen lankidetzara-erlazioen bitartez.

## **2. Legea aldatzeko hamar proposamen, zuzenbide penalaren eta espetxe zuzenbidearen arloan normaltasuna berreskuratzen laguntzen dutenak**

### *2.1. Prozesuaren bermeak*

#### **•Prozedura Kriminalaren Legea**

I. Atxilotze inkomunikatuaren figura desagertzea proposatzen dugu, Prozedura Kriminalaren Legearen 509, 520 bis eta 527 artikulua aldatuz, horietan ezartzen eta gaitzen bada aukera hori. Nazio Batuen Kontari Bereziak, azken txostenean Espainiari eskatu zion atxilotuta-erregimen ezohiko hori desagerraraz zezan, atxilotutako pertsonen giza eskubideei loturiko nazioarteko hitzarmenek debekatu egiten baitute.

II. Giza Eskubideen Kontari Bereziarekin bat, terrorismo-delituak salatzen zaizkien preso prebentiboan aldi baterako espetxearen iraupena murriztea proposatzen dugu. Horretarako, Prozedura Kriminalaren Legearen 504. artikulua aldatu behar da, kautelazko neurrien erregimen orokorraren eraginpean jartzeko. Atxilotu horiek gainerako inputatuekiko

---

desberdin tratatzea eta horiei sistematikoki erregimen itxi bat inposatzeak arriskuan jarzen dute inozentzia presuntzioaren eskubidea bermatzea (24. artikulua).

III. Komunikazioen sekretutasunari loturiko bermeak berrezartzea proposatzen dugu (eta etxearen bortxaezintasuna), Prozedura Kriminalaren Legearen 579. artikulua aldatuz. Izan ere, gaur egungo idazpenak ez ditu betetzen injerentziaren lege-aurreikuspenari loturiko betekizunak, Giza Eskubideen Europako Zuzentarauaren 8. artikulua urratuz (Giza Eskubideen Epaitegiaren Sententzia, 2003ko otsailaren 18a). Urritasun horiek neurriaren egikaritzaren iraupenean eragiten dute, baita atzemandako elkarrizketen transkripzio-prozedura ezartzeko baldintzetan eta epaileak eta defentsak kontrolatzeko egindako grabazioak ukigabe eta osorik kontserbatzeko oharretan ere. Espainiako legedian ez dago horri loturiko xedapenik eta Konstituzio Auzitegiak hala gogorarazi du azken sententzian.

#### **•Nazioarteko organismoek torturaren aurrean egindako eskakizunen aplikazio neurri legalak**

IV. Errekonozimendu ofiziala duten nazioarteko instituzioak giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea babesteko behin eta berriz torturari loturik egin dituzten eskakizun, deialdi eta adierazpenei egokitutako tresna legalekin erantzutea proposatzen dugu. Salaketa horiek hiru arrazoitan oinarritzen dira: ez ikertzea, ez prebenitzea eta ez konpontzea. Ondorioz, inplementatu beharreko neurri legalek hiru urritasun horiei erantzun behar diete:

--Ikertzea. Tortura-salaketak bermeekin ikertu behar dira. Legeek, ildo horretan, tortura ikertzeko dauden mekanismoen rola indartu behar du eta, modu osagarrian, Poliziaren aurkako salaketak ikertzeko Batzorde Independenteen figura sortu behar da.

-Aurea hartzea. Nazioarteko instituzioek definitzen dituzten torturari aurea hartzeko neurriek derrigorrezko izan behar dute: inkomunikazio-erregimena desagerrarazi, familiari jakinarazi, kustodia-eremuak grabatu, epaitegi-medikuen presentzia protokolizatu, konfiantzako mediku baten presentzia baimendu...

-Konpontzea Administrazio publikoek torturaren biktimak errekonozitu eta ordaindu behar ditu, giza eskubideen urraketan biktima guztiei dagozkien egiazkotasun, justizia eta konponketa eskubideekin bat.

#### *2.2. Zigorak betetzea*

#### **•7/2003 Lege Organikoa, ekainaren 30ekoa, zigorak osorik eta modu efektiboan betetzeko neurri buruzkoa**

V. Berrito gizarteratzea sustatzeko neurri espezifikoak hartzea proposatzen dugu, gizarteratzearen kontsakrazio konstituzionalarekin bat, terrorismo-delituen kasuetan, berrito erortzeko arriskua eta mehatxua desagertu direnean. Horretarako, 7/2003 Lege Organikoa indargabetu edo aldatu behar da, 1. artikuluan (lehen, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren puntuetan) Kode Penalarekin bat kasu hori jasotzeko eta, 3. artikuluan, Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrearekin bat. Egun idatzita dagoen moduan, eta terrorismo-delituetarako berariaz, 7/2003 Lege Organikoa ez du bermatzen gizarteratze-prozesuak praktikan gauzatuko direnik, nahiz eta presoak konponketako eta autokritikako beharrezko baldintzak bete.

Beste alde batetik, eta beste herrialde batzuetan betetako zigorak metatzeko aukera dela eta, proposatu nahi dugu Europar Batasunaren eremuko elkarren ebazpen judizialak onartzeko, Europako Batzordearen 2008/ 675/JAI Esparru Erabakiari buruz Auzitegi Gorenak 186/14ko epaian emandako interpretazioa erabiltzea.

#### *2.3. Exekuzio penala*

#### **•Espetxeen Lege Organiko Orokorra**

VI. Aurreko puntuarekin bat, Kode Penalaren esparruan, terrorismo-delituen gizarteratzea sustatzeko neurri espezifikoak onartzea proposatzen dugu, Espetxeen Lege Organiko Orokorrean behar bezala jasota geratzeko moduan. Horretarako, Espetxeen Lege Organiko Orokorrearen 72. artikulua aldatu behar da, gizarteratzearen printzipio konstituzionala bideragarria izateko moduan, berrito erortzeko arriskua modu frogagarrian desagertu denean.

·5/2003 Lege Organikoa, Botere Judizialaren Lege Organikoa, Espetxeen Lege Organiko Orokorra eta Mugape eta Planta Judizialaren Legea aldatzen dituena

VII. ETAren terrorismo-delituetan berriro erortzeko arriskua desagertu den honetan, delitu horiengatik prozesatutako presoan espetxe-zaintzako epaileen eskumena lekuz aldatzea proposatzen dugu, Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentraletik, presoan dagoen espetxe bakoitzaren lurralde-esparruko Espetxe Zaintzako Epaitegietara. Horretarako, 5/2003 Lege Organikoan ezarritako xedapenak indargabetu edo aldatu behar dira, espetxe-zaintzaren kudeaketa hasierako egoera naturalera leheneratzeko.

#### *2.4. Zuzenbide substantiboa*

##### **·Kode penala**

VIII. Zigorren proportzionaltasuna dela eta, Zigor Kodearen 576. artikulua aldatzea proposatu nahi dugu, artikulua hori Konstituzio Epaitegiak uztailearen 20ko 136/99 epaian ezarritakoari egokitzeko eta "jokabide baliokideak" ezabatzeko, giza eskubideetarako Nazio Batuen errelatoreak gomendatzen duen moduan.

IX. Talde armatuko kideez gabe terrorismo-delitua desagerraraztea proposatzen dugu, Kode Penalaren 577. artikulua desagerraraziz, orobat delitu arruntan esparruan talde baten barruan geratzen ez diren indarkeria-jarduerak kokatzea.

X. Gorespen eta apologia delituak desagerraraztea proposatzen dugu, Kode Penalaren 578. artikulua desagerrarazi edo aldatu bidez. Izan ere, interpretazio-mugak hain zehaztugabeak izateak ahuldu egiten ditu adierazpen-askatasunerako oinarriko eskubiderako beharrezkoak diren babes-bermeak. Biktimen duintasuna eta horien ohorearen aurkako erasoak zigorra erabat babestea proposatzen dugu, hori arautegi administratibo eta zibilaren esparruan kokatuz, arlo penalaz kanpoko babesaren bidez.

---

### B.3. Presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzeko Hitzeman Programaren txostenarekin presoer bidalitako gutuna

Jaun-andre hori:

Idazki honekin batera, Hitzeman izeneko proposamena deskribatzen duen dokumentuaren kopia bidaltzen dizuegu. Presoak birgizarteratzeko legezko prozesuei laguntza emateko programa da Hitzeman.

Hitzeman programa Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Planeko ekimen bat da: Jaurlaritzak 2013ko udaberriaren egindako lehen zirraborroan jaso zena, Plan hau, urte horretako azaroan onartu zen, eta ordutik aurrera ari da gauzatzen.

Testuinguru horretan, 2013ko abenduan, EPPK-k zera iragarri zuen: presoek kolektiboak onartu egiten zuela birgizarteratzeko prozesuak gauzatzea, legezko bideak erabiliz (6. puntua), banan-banan eta progresiboki (7. puntua), eta preso bakoitzak hartutako erantzukizuna aztertzeko gertu (8. puntua). Bestalde, Gizarte Foroak eskatu du aurkez daitezela proposamen zehatzak, gai hauen inguruko elkarriketa eta kontsentsua sustatzeko.

Hitzemanen egitekoa da sare sozial eta instituzional bat sortzea, babes eta laguntza eragin-korra emango diona neurria egindako birgizarteratzeko ibilbide bat egin nahi duten presoer, betiere, lege-esparruak eskaintzen dituen aukeren barruan.

Hitzeman Programaren inguruko laguntza-sare horrek berekin izango lituzke, batetik, Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa, eta, bestetik, honako hauen guztien inplikazioa: unibertsitateak, udalak, gizarte zibileko elkarteak, giza-eskubideen arloko nazioarteko erreferenteak, enpresariak, sindikatuak eta hainbat eremutako pertsona ospetsuak.

Ekimen hori aurrera eramateko prozesua konplexua, kontuzkoa eta eztabaidagarria da. Horregatik, zehaztasun, elkarriketaren bidez, kontsentsua bilatuz eta progresiboki kudeatu beharreko ekimena da. Iragan urriaren 2an aurkeztu genion jendeari ekimena; hain zuzen ere, bide horretan pixkana-pixkana aurrera egiteko lehenengo pausua izan zen hori.

Hemendik aurrera, bost hilabeteko epea ireki da, zalantzak argitzeko eta ekarpenak zein iradokizunak jasotzeko. Ahalik eta kontsentsurik handiena lortu nahi dugu gai honen inguruan. Horregatik, zure zerbitzura gauzkazu, Hitzeman Programaren gaineko edozein informazio edo argibide behar baduzu, edo programa horren edukari ekarpenak egin nahi badizkiozu.

Adeitasunez,

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 10a

Bakegintza eta Bizidetzarako Idazkaritza Nagusia  
Secretaria General para la paz y la Convivencia  
Lehendakaritza / Presidencia

Jaun-andre hori:

Adjunto le remitimos copia del documento que describe la propuesta Hitzeman, el programa de apoyo a los procesos legales de resocialización de personas presas.

El Programa Hitzeman es una de las iniciativas previstas en el Plan de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco que estaba ya recogida en su borrador inicial de la primavera de 2013. Este Plan fue aprobado en noviembre del mismo año y que está siendo ejecutado desde entonces.

En este contexto, cabe recordar que, en diciembre de 2013, el EPPK anunciaba en un comunicado que el colectivo de presos aceptaba que los procesos de resocialización se desarrollaran mediante vías legales (punto 6), de modo progresivo e individualizado (punto 7) y con la disposición a analizar la responsabilidad individual que cada preso-a había contraído (punto 8). Por otra parte, el Foro Social ha instado a presentar propuestas concretas para promover el diálogo y el consenso sobre estos temas.

La misión del Programa Hitzeman es crear una red social e institucional que ofrezca respaldo y cobertura eficaz a los/as presos/as que quieren realizar un itinerario personalizado de reinserción en el marco de posibilidades que ofrece el marco legal.

Esa red de apoyo en torno al Programa Hitzeman contaría con el compromiso del Gobierno Vasco y con la implicación de universidades, ayuntamientos, asociaciones de la sociedad civil, referentes internacionales de derechos humanos, empresarios, sindicatos y personalidades de diferentes ámbitos.

El desarrollo de esta iniciativa conlleva un proceso complejo, delicado y controvertido. Por este motivo, debe ser gestionada con prudencia, diálogo, búsqueda de consenso y progresividad. La presentación pública de esta iniciativa a la que procedimos el pasado 02 de octubre es sólo un primer paso para avanzar gradualmente en ese camino.

A partir de ahora, se abre un periodo de cinco meses para aclarar dudas y recoger aportaciones y sugerencias. Buscamos el más amplio consenso posible en torno a esta materia. En este sentido, quedamos a su disposición por si necesita cualquier información o aclaración con respecto al Programa Hitzeman, o si desea realizar aportaciones a su contenido.

Atentamente,

## **B.4. Zuzen Bidean Proposamena zigor- eta espetxe-salbuespena gainditzeko hogeit hamar proposamenekin aurkeztu zuten dokumentuarekin presoei bidalitako gutuna**

Jaun-andre hori:

Idazki honekin batera doakizu Zuzen Bidean proposamena aurkezteko dokumentuaren kopia bat.

Proposamen horrek harreman zuzena du Hitzeman programarekin; duela gutxi bidali genizun programa horren informazioa ere.

Zure interesekoa izango delakoan, adeitasunez agurtzen zaitugu.

Jaun-andre hori:

Adjunto le remitimos copia del documento que presenta la propuesta Zuzen Bidean.

Es una propuesta que guarda relación directa con el programa Hitzeman, del que le enviamos, información recientemente.

Esperando que sea de su interés le saludamos atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 21a

Bakegintza eta Bizidetzarako Idazkaritza Nagusia  
Secretaria General para la paz y la Convivencia

Lehendakaritza / Presidencia  
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco

---

## B.5. Hitzeman Programaren esperientzia pilotua abian jartzeko Eusko Jaurlaritzak eman beharreko urratsei buruzko informazio-gutuna presoeri

Jaun-andre hori:

lazko urrian gutun bat eta presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzeko Hitzeman Programari buruzko dokumentu bat bidali genizkizun. Ondoren, Zuzen Bidean Proposamenaren inguruko informazioa igorri genizun. Lehendabiziko gutunean, Hitzeman Programa aurkeztu ondoren, 2014ko urriaren 2an, zailtzak argitzeko eta ekarriak eta iradokizunak jasotzeko bost hilabeteko epea zabalduko zela adierazi genizun.

Epe hau amaituta, eta jasotako iradokizunak eta kezkek aztertu ondoren, hurrengo urratsa Hitzeman Programaren esperientzia pilotuaren faseari ekitea izango da. 2015eko ekainetik 2016ko udaberrira luzatuko da, gutxienez. Fase honen emaitzen ebaluazioak programaren abiarazte osoaren bidea zabalduko du.

Legediak eskaintzen dituen aukeren esparruan birgizarteratzeko ibilbide pertsonala egin nahi duten presoeri babes eta estaldura eraginkorra eskainiko dien sare sozial eta instituzional bat sortzea izango da Hitzeman Programaren egitekoa. Sare horrek Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa eta unibertitateen, udalen, gizarte zibileko elkarten, giza eskubideen nazioarteko pertsona erreferentzialen, enpresarien, sindikatuaren eta arlo desberdinetako pertsona ezagunen inplikazioa izango luke.

Hau bezalako ekimen bat garatzea prozesu konplexu, delikatu eta eztabaidagarria da. Beharrezkoa da pazientziarekin lan egitea gizarteratzearen gaien bide sendoa zabaldu asmoz. Hitzeman Programaren esperientzia pilotuaren faseak bere ezarpenari buruzko ondorio praktikoak ateratzea eta, aldi berean, zuhurtzia eta elkarrizketa lagun, mailaka eta norabide guztietan adostasunak bilatzen lan egitea ere ahalbidetuko digu.

Hitzeman Programaren esperientzia pilotuaren fase honen garapenari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, jakinarazi iezaguzu gutun bat bidaliz, familiaren bitartez edo egokiena iruditzen zaizun bidea erabiliz. Zure esanetara gaudete. Gure aldetik, espetze-politikaren alorrean ematen ditugun urratsei buruz informatzen jarraituko dugu.

Begirunez,

Jaun-andre hori:

El pasado mes de octubre le remitimos un carta y un documento informativo sobre Hitzeman, el programa de apoyo a los procesos legales de resocialización de personas presas. Posteriormente, le enviamos información sobre la Propuesta Zuzen Bidean. En la primera carta le informamos de que tras la presentación del Programa Hitzeman, el 2 de octubre de 2014, quedaba abierto un periodo de cinco meses para aclarar dudas y recoger aportaciones y sugerencias.

Pasado ese plazo, y una vez analizadas las sugerencias y preocupaciones recibidas, el siguiente paso se orientará hacia el inicio de una fase de experiencia piloto del Programa Hitzeman que se prolongará desde junio de 2015 hasta, al menos, la primavera de 2016. La evaluación de los resultados de esta fase abrirá el camino a la plena puesta en marcha del programa.

La misión del Programa Hitzeman es crear una red social e institucional que ofrezca respaldo y cobertura eficaz a los/as presos/as que quieren realizar un itinerario personalizado de reinserción dentro de las posibilidades que ofrece el marco legal. Esa red contará con el compromiso del Gobierno Vasco y con la implicación de universidades, ayuntamientos, asociaciones de la sociedad civil, referentes internacionales de derechos humanos, empresarios, sindicatos y personalidades de diferentes ámbitos.

El desarrollo de una iniciativa como esta representa un proceso complejo, delicado y controvertido. Es necesario trabajar con paciencia los consensos necesarios para abrir un camino consistente en materia de resocialización. Una primera fase de pilotaje del Programa Hitzeman nos permitirá extraer conclusiones prácticas sobre su aplicación, a la vez que avanzar con prudencia, diálogo, progresividad, y buscando consensos en todas las direcciones.

Si usted desea recibir información sobre el desarrollo de esta fase de experiencia piloto del Programa Hitzeman, háganoslo saber por carta, a través de sus familiares o por el medio que considere más apropiado. En este sentido, quedamos a su disposición. Por nuestra parte, seguiremos informándole de los pasos que en materia de política penitenciaria vayamos dando.

Atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 30a  
En Vitoria-Gasteiz, a 30 de abril de 2015

## B.6. Terrorismo delituengatik zigortutako pertsona batek graduz aldatzeko eta espetxe-onura legalak lortzeko eman ditzakeen legezko urratsei buruzko informazio-gutuna presoeri

Jaun-andre hori:

Bake eta Bizikidetzan onartu zenetik 2013ko azaroan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak espetxe-politika berri bat bultzatze aldera lanean dihardu. Preso zeuden pertsoneri 2014ko amaieran eta 2015eko hasieran bidalitako Hitzeman eta Zuzen Bidean txostenak garatutako lanaren lagin bat dira eta Eusko Jaurlaritzak alor honetan iradokitzen duen aldaketaren edukia definitzen dute.

Hala ere, espetxe-politikaren norabidean aldaketak ezartzeko aukera izoztua dago duela lau urtetik hona. Eusko Jaurlaritzak egoera honez egiten duen analisiak hiru aktoreen egitea behar duela ondorioztatzen garamatza: Espainiako Gobernuaren, preso dauden pertsonen eta hauen inguru politikoaren, eta euskal instituzioen eta gizartearen egitea, hain zuzen ere.

·I. Espetxe-politika berri batek presoak beren bizilekuetatik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko prozesu bat egituratzea eskatzen du Espainiako Gobernuaren aldetik honela zehazten baitu Espetxeei buruzko Lege Organikoaren 12.1 artikulua. Gaixo dauden presoentzako ere Espetxeei buruzko Erregelamenduari 104.4 artikulua ezartzea. Halaber, presoak gizarteratze eta birgizarteratze aldera politika aktiboa bultzatzea espero behar da Espainiako Gobernuarengandik, Konstituzioaren printzipio bat den heinean. Azkenik eta Gernikako Estatutuak 10.14 artikuluan agintzen duena betetze aldera espetxe-eskumenaren transferentzia gauzatu beharko litzateke.

·II. Espetxe-politikaren aldaketak presoeri eta bere inguru politikoarengandik aldaketak eskatzen ditu. Espero behar den lehendabiziko gauza presoeri gradu-aldaketatik eta gizarteratze-prozesu legaletatik eratorzen diren espetxe-onurak eskuratzeko bide legal banakakoak erabiltzea galarazten duen eragozpena kentzea da. Era berean, garrantzitsua litzateke presoeri inguru politikoak ETAK iraganen eragindako giza eskubideen urraketari buruzko balorazio kritikoa egitea, birgizarteratze-prozesuarentzat baliagarria izango litzatekeena, eta preso bakoitzak horri heltzeko aukera eduki ahal izatea.

Jaun-andre hori:

Desde la aprobación del Plan de Paz y Convivencia, en noviembre de 2013, la Secretaría General para la Paz y la Convivencia viene trabajando en el impulso de una nueva política penitenciaria. Los documentos Hitzeman y Zuzen Bidean, que enviamos a todas las personas presas a final de 2014 y primeros de 2015, son una muestra de la tarea desarrollada y definen el contenido de la modificación que sugiere el Gobierno Vasco en esta materia.

Sin embargo, la posibilidad de implementar cambios en la orientación de la política penitenciaria está congelada desde hace cuatro años. El análisis que el Gobierno Vasco hace de esta situación le lleva a concluir que el cambio de política penitenciaria necesita acciones por parte de tres actores: el Gobierno español, las personas presas y su entorno político, y las instituciones y la sociedad vasca.

·I. Una nueva política penitenciaria requiere que el Gobierno español articule un proceso de acercamiento de los/as presos/as a cárceles próximas a sus lugares de residencia porque así lo prevé el artículo 12.1 de la Ley Orgánica General Penitenciaria. Así como que, en el caso de los presos con enfermedades graves e incurables, aplique el art. 104.4 del Reglamento Penitenciario. También debe esperarse del Gobierno español que promueva una política activa tendente a la reinserción y resocialización de las personas presas, en tanto que se trata de un principio constitucional. Por último y en cumplimiento de lo que establece el Estatuto de Gernika en su artículo 10.14 debería procederse a la transferencia de la competencia de prisiones.

·II. El cambio de la política penitenciaria también requiere cambios por parte de las personas presas y su entorno político. Lo primero que ha de esperarse en este sentido es que se elimine el impedimento que imposibilita a las personas presas utilizar las vías legales individuales para acceder a los beneficios penitenciarios derivados de la progresión de grados y a los procesos legales de reinserción. Sería igualmente relevante que el entorno político de las personas presas hiciera una valoración crítica sobre las violaciones de derechos humanos provocadas en el pasado por ETA, que fuese útil a los procesos de resocialización, y a la que cada preso/a pudiera acogerse.

·III. Presoen familiek hurbilketaren eta preso gaixoen inguruan egiten dituzten gizatasun eskaerak babestea espero behar da euskal gizartetik eta bere instituzioetatik. Euskal instituzioei dagokie, halaber, Estatuko instituzioen aurrean espetxe-politika desberdin bat eta espetxe-transferentzia defendatzea. Era berean, Eusko Jaurilaritzak gizarteratze sozial eta politiko laguntzak bultzatzeko politiko aktiboak garatu behar ditu espetxe ondoreneko birgizarteratzea babeste aldera.

Bigarren ardatzak garrantzi handia dauka eta espetxe-politikaren eztabaidan ez da behar bezala aintzat hartua izan. Gutun honekin batera, terrorismo-delituengatik zigortutako pertsona preso batek gradu-bilakaeraren ondorioz espetxe-onurek eskaintzen dituzten aukerak garatzeko dauzkan baliabideak laburbiltzen dituen txostena bidaltzen dizugu. Informazio hau zure interesekoa izatea espero dugu. Informazio gehiago beharko bazenu, eskatzeko zalantzarik ez izan.

Eusko Jaurilaritza, bere aldetik, hirugarren ardatzean jasota datorren ildoan lan egiten ari da. Hitzeman Programaren eta Zuzen Bidean txostenaren inguruan azken urtean garatutako lanaren ondoren, ekainean aurkeztu nahi ditu ondorioak. Horri lotuta, espetxe-, gizarteratze- eta birgizarteratze-politiken inguruan edozein ekarpen baldin baduzu, helarazi diezagukezu kontuan har dezagun.

Begirunez,

·III. De parte de la sociedad vasca y de sus instituciones cabe esperar el apoyo a las demandas de humanidad que plantean las familias de las personas presas en relación con el acercamiento y los presos enfermos. Corresponde también a las instituciones vascas defender ante las instituciones del Estado una política penitenciaria diferente y la transferencia de prisiones. Del mismo modo, el Gobierno Vasco debe desarrollar políticas activas de promoción de la reinserción social y políticas asistenciales de apoyo a la resocialización pos-penitenciaria.

El segundo de estos ejes tiene una gran importancia y ha estado muy desatendido en el debate sobre la política penitenciaria. Adjunto a esta carta, le enviamos un documento que resume los recursos de los que dispone una persona presa condenada por delito de terrorismo, para desarrollar las posibilidades que ofrecen los beneficios penitenciarios derivados de la progresión de grados. Esperamos que esta información sea de su interés y si necesitase cualquier información adicional, no dude en pedírnosla.

El Gobierno Vasco, por su parte, está actuando en la línea de lo expuesto en el tercer eje. Después del trabajo desarrollado durante el último año en torno al Programa Hitzeman, y al documento Zuzen Bidean, tiene previsto presentar sus conclusiones durante el próximo mes de junio. En este sentido, si usted tuviera cualquier aportación que realizar en relación con las políticas penitenciarias y de reinserción y resocialización puede hacérnosla llegar para su toma en consideración.

Atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 2011 ko apirilaren 6a  
En Vitoria-Gasteiz, a 6 de abril de 2016

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkartza Nagusia  
Secretaría General para la Paz y la Convivencia

Eranskina

### **Presoek lor ditzaketen espetxe-onura legalei buruzko informazio dokumentua**

Espetxeen erregelamenduaren 4. artikuluan zehazten da zein diren presoek eskubideak; eskubide horien artean, legerian aurreikusitako espetxe-onurak agertzen dira. Birgizarteratze-prozesuaren barruan, presoek oinarritzko eskubidea dute gradu-bilakaerarako, baimenarako eta baldintzapeko askatasunerako. Horretarako, jakina, betekizun zehatz batzuk bete behar dira, besteak beste hau: presoak eskatu behar du eskubide horiek baliatzeko aukera.

#### **1. Gradu-bilakaera**

Espetxe bakoitzeko tratamendu-batzarrak hiru espetxe-gradutan sailkatzen ditu presoak. Gradu hori, espetxe bakoitzeko zuzendaritzak ematen dio presoari, espetxean sartzen denean.

·Lehenengo graduak, edo erregimen itxiak, kontrol- eta segurtasun-neurri zorrotzak ezartzen ditu presoarentzat. Erregimen horren pean dagoen presoak ezin izango du espetxe-onurarik edo baimen arruntik eduki.



·Bigarren graduan, edo erregimen arruntean, dagoen presoak eskubidea du espetxetik noiz behin-ka ateratzeko, baldin eta kondenaren laurden bat bete badu, eta ez badu portaera txarrik izan.

·Hirugarren graduan, edo erregimen irekian, dagoenak erdi-askatasunean bete dezake bere espetxealdia, baldin eta bete badu kondenaren erdia. Espetxetik irteteko baimenak lor ditzake, gizarteratze-prozesua osatzeko prestakuntza- edo lan-jardueren bidez.

Presoek edozein unetan eska dezakete gradu-bilakaera. Espetxeko tratamendu-batzarrak sei hilean behin berrikusten du sailkapena (lehen graduan sailkatutako kasuan, hiru hilean behin). Preso bati eskaera ukatzen bazaio, erabaki hori errekurritu dezake, espetxe-zaintzako epailearen aurrean.

### 1.1. Gradu-bilakaera: lehen gradutik bigarrenera

Praktikan, terrorismo-delituak dituzten presoek lehen gradutik bigarrenera arteko bilakaera egin nahi badute, oinarrizko betekizun hau bete beharko dute: bide baketsu eta demokratikoezko konpromisoa eta indarkeria-estrategia orekiko haustura adieraztea.

Gradu-bilakaera nahi duen presoak eskaera egin beharko dio bere espetxeko tratamendu-batzarrari. Ukatu egiten badiote, ezarrita daukan lehen graduako sailkapena errekurritu dezake, bakearekiko konpromisoa adierazten duen idatzi bat igorritik espetxe-zaintzako epaile zentralari. Horretarako, ez da abokatu baten beharrik izango, presoak zuzenean egin baitezake gestio hori.

Gerta liteke lehen graduan sailkaturiko preso batzuek bigarren graduako bizitza-erregimena egitea. Halakoetan, komenigarria da idatzian horren berri ematea espetxe-zaintzako epaile zentralari.

### 1.2. Gradu-bilakaera: bigarrenetik hirugarrenera

Bigarren gradutik hirugarrenera bilakaera eskatzeko, kondenaren erdia beteta eduki behar da. Prozedurari dagokionez, aurreko atalean adierazitako bera da. Azken instantzian, presoak espetxe-zaintzako epaileari eska diezaioke. Kasu hauetan, honako betekizun hauek bete behar ditu presoak:

- Argi adierazi behar du prest dagoela erantzukizun zibilari aurre egiteko.
- Aitortu behar du biktimei kaltea eragin diela.
- Espresuki adierazi behar du uko egiten diola indarkeriari.

Ildo horretan, balioa hartzen du, erreferentziazko aitorten gisa, ANV/PCTV kasuko salatuek Entzutegi Nazionalako Fiskaltzarekin izenpetutako adostasun-akordioak: "Eta erantsi nahi dut indarkeriari loturiko edozein jarduerari uko egiteko konpromisoa hartzen dudala, eta aitorten honek terrorismoaren biktimei eragindako kaltea eta sufrimendua erreparatzeko balio dezan nahi dudala".

### 1.3. Tratamendu-programa espezifikoa (Espetxeetako Erregelamenduaren 100.2 artikulua)

Espetxeetako Erregelamenduaren 100.2 artikulua aukera ematen du bigarren eta hirugarren graduetako alderdi batzuk konbinatzeko, nahiz eta bete gabe eduki kondenaren erdia. Horren helburua da gradu-sistema malgutu, eta gizarteratze-prozesua hobeto egokitzea kasuan kasuko beharretara.

Artikulu hori aplikatzeko, programa espezifikoa bat garatu beharra hartuko da oinarriztat, justifikatuko duena presoek erdi-askatasunean jardun behar dutela programa horren barruko prestakuntza, lana edo bestelako arazo batzuk direla eta. Espetxe-zaintzako epailearen onarpena beharko du neurri horrek.

Terrorismo-deliuengatik zigortuta daudenei artikulu hau aplikatu zaienean, bigarrenetik hirugarren gradura arteko bilakaerarako eskatzen diren betekizunen antzekoak hartu dira kontuan, salbu eta kondenaren erdia beteta edukitzea.

## 2. Baimenak

Espetxe-baimenak arruntak edo bereziak izan daitezke. Baimen arruntak kasuan, urtean 36 egun emango zaizkie, bigarren graduako presoek; hirugarren graduakoei, berriz, 48 egun. Baimen bereziak erreserbatuta daude egoera eta kontingentzia berezietarako (osasuna, senide baten istripua, dolua, ezkontzak, amatasuna) eta, beraz, horien iraupena inguruabar bakoitzaren arabera ezarriko da.

Espetxe-baimenerako eskubideak gozatzeko, oinarrizko betekizun dira: kondenaren laurden bat beteta edukitzea, bigarren graduako sailkapena edukitzea eta jokabide egokia egiaztatzea. Terrorismo-deliuengatik preso daudenei emandako baimenen aurrekari praktikoetan, bigarrenetik hirugarren gradura arteko bilakaerarako ezarritako betekizun berberak ezarri zaizkie.

## 3. Baldintzapeko askatasuna

Baldintzapeko askatasuna zigorra betetzeko modu berezi bat da, betekizun batzuk eskatzen dituena. Batzuk, objektiboak dira: hirugarren graduan egotea eta kondenaren hiru laurdenak beteta edukitzea. Eta beste batzuk, subjektiboak: jokabide ona izatea eta gizarteratzearen aldeko banakako pronostiko

---

bat izatea. Praktikan, bigarrenetik hirugarren gradura arteko bilakaerarako ezarri diren konpromisoak finkatzea eta haietan sakontzea dakar horrek guztiak.

Presoak betekizun objektibo eta subjektibo horiek betetzen dituzenean, espetxeko tratamendu-batzarrik baldintzapeko askatasunari buruzko espedienteak helaraziko dio espetxe-zaintzako epaileari. Baldintzapeko askatasuna emateko kasu berezitzat jotzen dira gaixotasun sendaezinak dituzten presoak, eta 70 urtetik gora dituztenak.

Funtsean, terrorismo-delituengatik kondenatuta daudenen nahi badute baldintzapeko askatasunerako gradu-bilakaeraren prozesuan sartu, argi erakutsi behar dute: etorkizunari dagokionez, bide baketsu eta demokratikoen aldeko behin betiko konpromisoa hartzen dutela; orainari dagokionez, biktimei erreparazioa egiteko borondate espresua dutela; iraganari dagokionez, egindako delituarekiko urruntze autokritikoa egiten dutela, bereziki giza eskubideak urratu direnean.

#### **\*Gizarteratze-prozesuetan lagun dezaketen lau faktore**

Espetxe-politika berri bat sustatzeko erantzukizuna estatuko administrazioarena da, neurri handi batean. Alabaina, faktore batzuk presoaren esku daude, baita ETArekin eta haren inguru politikoarenean ere. Faktore horiek lagungarri izan daitezke oztopoak eta aitzakiak desagerrarazteko, eta norabide berri bat garatzeko espetxe- eta gizarteratze-politiken inguruan. Atal honetan, lau faktore aipatzen dira:

**1.** Gaur egun, oztopo objektibo bat da —eta nekez uler daiteke— presoaren kolektiboak uko egitea espetxe-erregelamenduak gradu-bilakaeraren bidez eskaintzen dituen espetxe-onurak eskatzeari eta lege-aukera indibidualak aztertzeari. Beraz, aldaketarako faktore positiboa izango litzateke erabaki hori gainditzea.

**2.** Jurista adituen arabera, erakundeekiko lankidetzatza eta indarkeria-estrategiarekiko behin betiko eten kolektibotzat hartuko litzateke, juridikoki, ETA erabat eta baldintzarik gabe armagabetzea, eta are, desegitea. Horrek ukazinezko eragina izango luke gizarteratze- eta sozializazio-prozesuen pronostikoaren balioespenean.

**3.** Presoek mugimendu baten parte izan dira, eta mugimendu horrek bat egin du, iraganean, indarkeriaren erabilera politikoa justifikatzen zuen estrategia kolektibo batekin. Hortaz, ez du logikoa ematen orain preso bakoitza bakarrik geratzea espetxe-tratamenduak eskatzen dion iraganari buruzko hausnarketa kritikorekin aurrean. Aitzitik, oso esanguratsua litzateke mugimendu politiko horrek balioespen autokritiko bat egitea iraganeko giza eskubideen urraketei buruz; izan ere, horrek birgizarteratze-prozesuei lagunduko lieke, eta presoak autokritika horretara atxikitzea ahalbidetuko.

**4.** Adierazi denari jarraikiz, beste faktore garrantzitsu bat izan liteke, eta gizarteratze-prozesu legalen lagungarri, preso bakoitzak, bere hitzekin eta modu batera edo bestera, hausnarketa bat adieraztea etorkizunari, orainari eta iraganari buruz: etorkizunari dagokionez, bide baketsu eta demokratikoen aldeko behin betiko konpromisoa; orainari dagokionez, biktimei erreparazioa egiteko borondate espresua; iraganari dagokionez, egindako delituarekiko urruntze autokritikoa, bereziki giza eskubideak urratu direnean.

## B.7. Espetxe-politikan aldaketa emateko beharrezko ekintzei buruz Eusko Jaurlaritzaren iritziarekin gutuna presoeri

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 13a

Jaun/Andre hori,

Idazki honen bitartez, jakinarazi nahi dizut jaso dudala zuk bidali didazun eskutitza. Uste dut jakingo duzula zurea bezalako beste hainbat eta hainbat idazki jaso ditudala eta antzeko idazketa moldean eginak direla. Horregatik, erantzuna berbera da jasotako eskutitz guztiarentzat. Adeitasun osoz irakurri ditut, batez ere zuen familiekiko, izan ere zuen familiek ere jasan behar dituzte zu eta idatzi didaten gainontzekoak jaio edota bizi zareten tokietatik hurbilen dauden kartzeletatik urruntzearen ondorioak. Horregatik, iruditzen zait argien eta zintzoen adieraztea dela erantzuteko modurik begirunetsuena.

Horrela bada, ez ditut aipatuko euskal erakundeetako akordioak; eskura emandako dokumentuak baita Etxerat, Sare eta bestelako taldeen ordezkariak Lehendakari izandako bileretan emandako dokumentuak; horiek Espainiako Gobernuaren presidenteari berari helaraztea; edo zenbatetan adierazi duzan jendaurrean kartzela politika ere kontuan hartu beharreko gaia dela indarkeriaren amaiera ordenatua.

Aurreko legegintzaldi autonomikoan, Eusko Jaurlaritzak Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez idatziz jo zuen lau bider EPPK izenez ezagutzen den taldeko preso guztiengana:

-2014ko urrian, Hitzeman dokumentuaren edukia bidali genuen, presoak birgizarteratzeko prozesu legeletan laguntzeko.

-2015eko urtarrilean, Zuzen Bidean Proposamena bidali genuen; hogeit hamar proposamen dira, ETAren amaieraren ondoren, zigor zuzenbidean eta espetxe zuzenbidean normaltasun egoera berreskuratzeko, eta bizikidetzara sozial eta politikoa normalizatzen laguntzeko.

-2015eko apirilean, eskutitz bat bidali genien preso guztiei jakinarazteko esperientzia pilotu bat abiarazi zela Hitzeman Programa dela eta.

-2016ko apirilean, laugarren idazki bati informazio dokumentu bat atxiki zitzaion, eta hor azaldu zen terrorismo delituarengatik zigortutako presoak nolako baliabideak dituen espetxe onurak, graduatan aurrera egitea eta birgizarteratzea eskuratzeko legalki.

Zuk dokumentu horiek irakurtzeko aukera izan baduzu, konturatuko zinen gai honetan Eusko Jaurlaritzaren jarrera aurreko legegintzaldian eta oraingoan argia dela presoak hurbiltzeaz eta 70 urtetik gorako zein beharrezko preso gaixoen egoerari konponbide humanitario eta legezkoak bilatzeaz, baita birgizarteratze politikez ere.

Aipatutako azken idazkian, 2016ko apirilekoan, jakinarazi genuen zein zen Eusko Jaurlaritzaren analisia espetxe politikaren orientazioan aldaketak inplementatzeko aukerak zuen blokeoari buruz. Une hartan azpimarratu genuen ekarpenak egin behar zirela hiru eremutatik: (I) Espainiako Gobernutik, (II) presoengandik eta beraien inguru politikotik eta (III) erakundeetatik eta euskal gizartetik.

Beraz:

I. Espetxe-politika berri batek presoak beren bizilekuetatik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko prozesu bat egituratzea eskatzen du Espainiako Gobernuaren aldetik honela zehazten baitu Espetxeei buruzko Lege Organikoaren 12.1 artikulua. Gaixo dauden presoentzako ere Espetxeei buruzko Erregelamenduaren 104.4 artikulua ezartzea. Halaber, presoak gizarteratze eta birgizarteratze aldera politika aktiboa bultzatzea espero behar da Espainiako Gobernuarengandik, Konstituzioaren printzipio bat den heinean.

Azkenik eta Gernikako Estatutuak 10.14 artikuluan agintzen duena betetze aldera, espetxe-eskumenaren transferentzia gauzatu beharko litzateke.

II. Espetxe-politikaren aldaketak, halaber, zu bezalako preso gehienek eta bere inguru politikoko orain arte izandako jarrera eta jokabidea aldatzea eskatzen du. Espero behar den lehendabiziko gauza presoeri gradu-aldaketatik eta gizarteratze-prozesu legeletatik eratorritako diren espetxe-onurak eskuratzeko bide legal banakakoak erabiltzea galarazten duen eragozpena kentzea da. Era berean, garrantzitsua litzateke preso horien inguru politikokoak ETAk iraganean eragindako giza eskubideen urraketei buruzko balorazio kritikoa egitea, hori baliagarria izango litzateke eta preso bakoitzak erabili ditzakeen birgizarteratze-prozesuetarako eta bizikidetzara sozial eta politikokoaren normalizaziorako.

III. Presoen familiek hurbiltzetaren eta preso gaixoen inguruan egiten dituzten gizatasun eskaerak babestea espero behar da euskal gizartetik eta bere instituzioetatik. Euskal instituzioei dagokie,

---

halaber, Estatuko instituzioen aurrean espetxe-politika desberdin bat eta espetxe-eskumenaren transferentzia defendatzea. Era berean, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze sozial eta politiko laguntzak bultzatzeko politiko aktiboak garatu behar ditu espetxe ondoreneko birgizarteratzea babeste aldera.

Gaur Eusko Jaurlaritzak iritzi berarekin jarraitzen du. Espetxe politikaren aldaketak aldeko testuinguru sortzea eskatzen du. Testuinguru berri hori sortzeko, beharrezkoak dira hainbat ekarpen, baita preso daudenen pertsonena eta bere ingurune politikoarena ere. Harritzekoa da zure eskutitzean horrelako ezer ez aipatzea.

Are harrigarriagoa da ez zuk ez preso dauden pertsona horien ingurune politikoak ez egitea irakurketa kritiko bat ETAk eragindako giza eskubideen urraketan gainean, nahiz eta ezagutu irakurketa kritiko horrek zuzeneko eragina izango lukeela espetxe politika aldatzeko. Alde horretatik, ez zait onargarria iruditzen beste guztioi zuzendutako eskaerak eta salaketak jartzea eta zuen erantzukizunekoak diren pausuak ez ematea.

Esan digute eztabaida egiten ari zaretela eta espero dut eztabaida horrek laster aurrerapen kualitativoak eskaintzea. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, Hitzeman eta Zuzen Bidean dokumentuetan azaldu-takoaren ildotik jarraitzen du eta jarraituko du. Nire hitza ematen dizut berriren bat edo aurrerapenen bat ematen bada jakinaraziko dizugula Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez.

Adeitasunez,

Iñigo Urkullu Renteria  
Lehendakaria

## B.8. EPPKren gutuna

Bakegintza eta bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia  
Lehendakaritza  
Eusko Jaurlaritza  
Nafarroa, 2  
01007 VITORIA-GASTEIZ

Réau. 2015eko urtarrilak 31

Agur, jauna

Izandako harremanaren ostean EPPKren ordezkarietako bozeramaletako bi garen neurrian honokoa jakinarazi nahi dizugu:

- Bere neurrian aintzat hartzen dugula gure Kolektiboarekin harreman ofiziala izateko zure aldetik egindako ahalegina.
- EPPK prest dagoela harreman horri jarraitutasuna emateko, beti ere euskal preso politikoen egoera konpontzea helburu izanik.
- Zentzu horretan, EPPKri, hala nola bere kideei helarazi diezuen Hitzeman programari eta Zuzen Bidean proposamenari buruzko iritzi ofiziala luze baino lehen zuenganatzeko konpromisoa hartzen dugula.
- Izandako harremanean jakinarazi bezala, EPPKrentzat une honetan premia larria duena bere kideek jasaten duten deportazio, sakabanaketa eta isolamenduarekin amaitzea dela (gaixo larri dauden eta adineko diren gure kideen askatasunarekin batera). Eta egoera bidegabe hori gainditzeko jaso ditzakegun laguntza guztiak eskerronez hartuko ditugula.
- Azkenik, EPPK-k jakinarazi nahi dizu aurrerantzean ere urratsak egiten jarraitzeko konpromisoa berresten duela. Zure Idazkaritza horretatik hel dakizkiokeen iradokizunei irekita dagoelarik, beti ere bere izaerarekiko begirunez eta bere kideen duintasuna zalantzan jartzen ez den artean.

Besterik ezean agurtzen zaitugu,

Euskal Preso Politikoen Kolektiboko bozeramale

---

## B.9. Espetxe-politikaren berbideratzea partekatzeak akordio-proposamena

### Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren programak XI. Legegintzaldirako, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak atalean, Espetxe-politikari buruzko Konpromisoa eta Lanerako Agenda ezartzen ditu. Konpromisoa honekin lotzen da: "indibiduazioaren, gizatasunaren, eragindako minaren aitopenen eta gizarteratzearen legezko printzipioen promozio aktiboan oinarritutako espetxe-politika, non ondorioetako bat presoak inguru hurbiletik gertuen dauden espetxeetara lekualdatzeari babesa ematea den".

Lanerako Agendan helburu gisa honakoa ezartzen da: "ordenamendu juridikoaren aurreikuspenen arabera, espetxe-politika berbideratzeko proposamen bat adostea oinarritzko helburu batekin: gizarteratzea, eragin humanitario gehiena duten arazoei lehentasuna ematea, presoek hurbilketa erraztea eta presondegien eskumenaren transferentzia EAera eskatzea".

Txosten honen bidez, aurreikuspen hauek garatzen dituen espetxe-politika berbideratzeko akordio-proposamena aurkezten dio Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari. Elkarrizketarako eta akordio-rako planteamendu irekia da. Eusko Jaurlaritzak lan partekatua garatu nahi du Espainiako Gobernuarekin espetxe-politikaren inguruan. Gertaera objektiboan eta egiaztagarrien bi atal dira unehonetan ekimen honen zentzua laburbiltzen dutenak.

Alde batetik, bost urte luze bete direnean, ETAren terrorismoaren behin betiko etetea eta, aldebakarreko erabakiarekin erakunde honekin lotura duten presoek ia gehienek mantentzen duten akordioa. Bi gertaera hauek berriz ere indarkeria erabiltzeko arriskuaren eta bere mehatxuaren desagertzea egiaztatzen dute, eta espetxe-politika berbideratzeko kontuan eduki behar den funtsezko aldaketa bat osatzen dute aurreko egoerarekin alderatuta.

Bestetik, egiaztapen hirukoitza. Lehenik eta behin, egungo espetxe-politikak ez du eragin aldaketa-efekturik presoengan, baina bai kostu humanoa, familiarra eta ekonomiko gehitua eta beharrezkoa ez dena beren familientzat. Bigarrenik eta ziur aski arazoi honengatik, espetxe-politikaren orientabide honek tentsio soziopolitikoaren eragilea da Euskadin eta euskal erakundeek maila guztietan talka egiten du. Hirugarrenik eta aurreko guztiaren ondorioz, euskal gizarte ia gehiengoaren eta bere erakundeek, eta Espainiako Gobernuaren arteko desadostasun garrantzitsuak.

Honako ezer ez da desiragarria. Ondorioz, egoera hau zuzentzen saiatzea erabat justifikatua dago. Baita egitea aukera erabat legala eta bideragarria delako ere.

Espetxe-politika berbideratzeko akordio-proposamenak hiru proposamen ditu. Lehendabiziko biak epe motzean ezartzeko pentsatuak, duten izaera humanitarioagatik. Hirugarrenak lanerako mahai bat eratzea proposatzen du bi gobernuen artean bertan lantzeko zenbait gai eta proposamenekin.

Proposamen desberdinak laburbiltzen dituen eta zehazten dituzten hiru dokumentuekin osatzen den oso testu sintetikoa da txosten honen gorputz nagusia. Proposamen hau, Espainiako Gobernuarekin, zein parlamentuko taldeekin, Nafarroako Gobernuarekin, operadore juridikoekin eta gizarte eragileekin partekatzea da Eusko Jaurlaritzaren asmoa.

### Lehenengo proposamena, presoak berkokatzea

·Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

-Euskal presoak Euskaditik 250 kilometrotik behera dauden hamar Presondegietan kokatzea, ETArekin lotura duten pertsonak presondegi bakar batean ez biltzeko irizpidea aldatu gabe, Espetxeen Lege Organiko Orokorren 12.1. artikuluan aurreikusitakoa bete ahal izan dadin.

(Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena" txostenak proposamen hau garatzen du)

### Bigarren proposamena, izaera humanitarioko beste neurri batzuk

·Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

-Espetxeen Arautegiko 104.4. artikulua irizpide humanitarioarekin aplikatzea gaixotasun larriak dituzten presoentzat.

-Beren ardurapean adin txikikoak dituzten presoak Euskadiko presondegi berdinean elkartzea.

-Espetxeen Arautegiko 196. artikulua modu normalizatuan aplikatzea 70 urte baino gehiago dituzten presoek.

(Proposamen hauek Zuzen Bidean txostenaren lehen zatian jasota daude)

### **Hirugarren proposamena, lanerako mahai bat osatzea**

Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio lanerako mahai bat osatzea zigor- eta espetxe-politika adostuaren oinarriak lotzeko helburuarekin. Gobernuak iradokitzen dituen gaien eta proposamenen zerrenda honakoa da:

#### **1. gaia. Birgizarteratzea**

**Proposamenak.** Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

1. Gizarteratze-politika bat garatzeko oinarriak eta neurriak adostea, bere definizio konstituzionalaren eta ohiko espetxe-onurei buruzko Espetxeen Arautegiko 4.1. eta 4.2. artikuluen arabera, eta Biktimei buruzko 2012/19 Europako Zuzentarauan jasotako Justizia Leheneratzailearen ildoarekin bat. (Une honetan prestatzen ari den gizarteratzeari buruzko Dekretuaren proiektuarekin osatzen du Eusko Jaurlaritzak proposamen hau)
2. Langraiz bidea deitutakoari lotutako presoek onartutako konpromisoarekin bat etorriko den erantzuna adostea, beren jarrera autokritikoa eta biktimei eragindako mina argi adierazi duten neurrian. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren lehen zatian jasota dago)
3. 7/2003 Lege Organikoa aldatzea, gizarteratzerako konstituzio-printzipioa bideragarria izan dadin, berriro indarkeria erabiltzeko arriskua eta mehatxua desagertu direnean, modu frogagarri eta behin betikoan. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren lehen zatian jasota dago)

#### **2. gaia. Espetxe-kudeaketa**

**Proposamenak.** Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

4. Eusko Jaurlaritzari presondegien eskumenaren transferentziaren edukiei buruzko negoziazioari ekitea, Gernikako Estatutuaren 10.14 eta 12.1 artikulua betetze aldera. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren lehen zatian jasota dago)
5. Espetxe-zaintzaren kudeaketa Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentraletik, preso dagoen espetxe bakoitzaren lurralde-esparruko Espetxe Zaintzako Epaitegietara itzultzea. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren bigarren zatian jasota dago)

#### **3. gaia. Zigor- eta espetxe-normaltasuna**

**Proposamenak.** Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

6. Ebazpen judizialen elkarrekiko aintzatespenari ekitea Europako Batasunaren eremuan, Europako Kontseiluaren 2008/675/JAI Erabaki Markoaren interpretazioaren arabera, Auzitegi Gorenaren 186/14 epaian adieraten den bezala. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren bigarren zatian jasota dago)
7. Giza eskubideen nazioarteko erakundeek zein Nazio Batuen kontariak eta giza eskubideen mekanismoak, berme demokratikoen ikuspegitik, egiten ari diren gomendio zehatzak aplikatzeko akordio posible zabalena bilatzea. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren bigarren zatian jasota dago)

---

## B.10. Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena (Bertsio laburtua)

### Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamenaren bertsio laburtua

#### ·Proposamenaren izaera

Proposamen honek izaera irekia dauka. Tresna bat izan nahi du adostasuna bultzatzeko. Eusko Jaur-laritzak gai honen inguruan elkarrizketa zabaldu nahi du Espainiako Gobernuarekin.

Zentzu honetan, proposamenak elkargunea eta adostasuna errazteko lehen fasea bultzatzean biltzen du bere garrantzi guztia.

#### ·Berkokatze-proposamenaren irizpidea

Euskal presoak Euskaditik 250 kilometrotik behera dauden hamar espetxeetan berkokatzea da propo-samen honen lehen fasearen irizpidea.

Pertsona horien berkokatzea hamar presondegi hauetan antolaketaren ikuspegitik egokiena izango litzatekeen bezala egin zitekeen. Dena dela, Eusko Jaur-laritzak, iradokitzen du gutxienez erdiak Zaba-llako eta Iruñeko presondegietan koka litezkeela ondorengoaren antzeko banaketa eginez:

Presondegia	Preso-kopurua	Kilometro-kopurua
ZABALLA	100	-
IRUÑA	40	-
BASAURI	25	-
MARTUTENE	25	-
LOGROÑO	20	137
BURGOS	20	164
EL DUESO – SANTOÑA (Cantabria)	15	175
ZUERA (Zaragoza)	10	219
SORIA	7	230
DUEÑAS - LA MORALEJA (Palencia)	5	250

ETArekin lotura duten presoak presondegi batean edo bitan ez elkartzearen printzipioa ez du alda-tzen. Horrez gain, irizpide-proposamen honek Espetxeen Lege Organiko Orokorren 12.1. artikuluan aurreikusitakoa betetzea ahalbidetzen du premisa honi eragin gabe.

2017ko martxoa



## B.11. Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena (Bertsio luzea)

### Sarrera

1995eko abenduaren 28ko osoko bilkuran, Eusko Legebiltzarrak bere Giza Eskubideen Batzordeari agindua zion Espainiako gobernuaren aurrean egin beharreko gestioak egin zitzala, askatasun gabe-tuta dauden euskal herritarrek hurbiltzeko plana martxan jartzeko.

Espainiako gobernuak ez zuenez erantzunik ematen, Giza Eskubideen Batzordeak 1996ko irailaren 13an bilduta, hurbiltzeko planaren proposamena prestatzeko lanak eta ikerketak garatzeko erabakia hartu zuen. Prestatu zuten ba proposamena, eta aurkeztu. Espainiako gobernuak ez zuen erantzun.

Hogei urte beranduago, ETArri lotutako delituak direla-eta kartzelan preso zeudenak urruntzeko politikak indarrean dirau oraindik, eta euskal erakundeek oraindik ere hurbiltzeko politika eskatzen dute behin eta berriro. Egoera berdina dela badirudi ere, goitik beherako aldaketa izan da. Iragarri zenetik bost urte baino gehiago pasa ondoren, konfirmatuta dago ETAK behin betiko laga duela bertan behera terrorismoa.

Mehatxurik ez dagoenez, eta berriro lehenagokotan hasteko arriskurik ere ez dagoenez, nahiko oinarri badago pentsatzeko gaurko politika penitentiarioa berrikusteko garaia dela, erabat desberdina zen errealitatearen testuinguruak justifikatu, eraiki eta mantentzen zuelako orain artekoa. Batez ere, arrazoi honengatik, eta aurrerago aipatuko diren beste arrazoiengatik (legezkoak, humanitarioak eta sozialak eta elkarbizitzaren ingurukoengatik), euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamen bat aurkezten dio Espainiako Gobernuari Eusko Jaurlaritzak.

### 1. Gaur egungo errealitatea (2017ko martxoaren 13a arteko datuak)

·Epaizuta edo epaiketa zain dauden ETArekin lotutako kasuak direla-eta, Espainiako espetxeetan kartzelaratutako Euskadiko nahiz Nafarroako herritarrek 267 dira gaur egun.

·267 haueetatik, zortzi daude Euskadiko bi presondegietan, eta batere ez Nafarroako presondegietan.

·Guztira, 33 gizon-emakume daude preso puntu geografiko jakin batetik 300 kilometro baino gutxiagora dauden presondegietan (neurketarako, Araba eta Gipuzkoak Nafarroako Foru Erkidegoarekin muga egiten duten lekuan kokatu dugu puntu hori).

·Guztira, 234 preso daude mugako puntu geografiko horretatik 300 kilometro baino urrunago kokatutako presondegietan. Puntu horretatik 500 kilometro baino urrunago dauden presondegietan guztira 195 preso daude.

·Hona hemen preso dauden 267 horiek, presondegika eta Euskaditik urrunduta dauden kilometroen arabera, gehienetik gutxienera, ordenatuta:

Presondegia	Preso-kopurua	Kilometro-kopurua
ALGECIRAS (Botafuego)	12	1.047
PUERTO-I (Cádiz)	11	970
PUERTO- III (Cádiz)	11	970
HUELVA-II	11	944
SEVILLA II	10	939
ALMERIA	8	807
MURCIA II	14	807
GRANADA (Albolote)	13	805
MURCIA I	5	798
CORDOBA (Alcolea)	10	778
JAEN-II	9	717
FONTCALENT (Alacant I)	4	715
BADAJOZ	7	704
A LAMA (Pontevedra)	9	689
VILLENA (Alacant II)	12	659
CACERES II	2	609

CURTIS (A Coruña)	11	599
MONTERROSO (Lugo)	4	582
HERRERA de la Mancha	7	581
VALENCIA II	4	570
VALENCIA III	12	570
CASTELLO I	9	543
ESTREMER (Madrid)	2	465
OCAÑA I Toledo	5	462
OCAÑA II Toledo	4	462
ARANJUEZ	1	460
CASTELLO II Albocasser	7	453
NAVALCARNERO	2	434
TOPAS (Salamanca)	7	409
ALCALA MECO	2	407
TERUEL	1	402
VILLABONA (Asturias)	4	391
MANSILLA (León)	2	321
DAROCA (Zaragoza)	2	313
VALLADOLID (Villanubla)	4	296
DUEÑAS (Palencia)	4	257
SORIA	3	230
ZUERA (Zaragoza)	9	219
EL DUESO (Santoña)	2	175
BURGOS	2	164
LOGROÑO	1	137
BASAURI	1	103
ZABALLA	7	71

## 2. Errealitate honen eraginak

Errealitate konkretua erakusten dute aurreko atalean jasotako datuek. Egin behar den proposamena ahalik eta ondoen ulertarazteko, komeni da errealitate horrek dakartzan eragin objektiboak zein subjektiboak gogoraraztea.

### 2.1. Gizarteratze-prozesuen gain izango duen eragina

Hasieran, banantzeko politika abian jarri izana justifikatzeko, esaten zuten ETAK bere organizazioarekin lotutako presoak nola eboluzionatzen zuten kontrolatzea ebitatu nahi zutela. Hasierako diseinu hartan oinarrituta, banantzea zen erarik onena presoak berriz ere gizarteratzeko. Banantzeko kontzeptu hura, batez ere, urrunduz gauzatu zen. Banantzeko ez da nahitaezkoa urruntzea, banandu, presoak banandu daitezkeelako askoz distantzia-erradio txikiagoan kokatutako hainbat presondegitan sartuta.

Edonola: 1989tik hona ez dago kasu bat bera ere zeinetan urruntzeko politika penitentziarioak presoak bergizarteratzeko prozesu indibidualetara eramanez. Efectua hasiera batean bilatutakoaren kontrakoa izan da. Presoak gizarteratzeko prozesuei buruzko eztabaida sozialetik nahiz politikotik aparte utzi ditu urrunketak. Azkeneko urteetan, hogeita hamar bat presok jo dute birgizarteratzeko prozesura, Nanclares bidea esaten zaionaren bitartez. Horietako batek ere ez du esan urrundu izanak eraginda ekin dionik prozesuari. Alderantziz, hurbildu izanak erraztu eta azkartu egin die prozesua.

### 2.2. Eragin nagusia

Paradoxa da: urruntzeko politikak ez dauka eraginik, ez zuzenik ez nagusirik, presoengan. Preso dagoe-na eremu itxian bizi da, inguruko testuinguru geografikotik isolatuta. Presoentzat ia alderik ez dago penintsulako ipar, hego, eki edo mendebaldeko presondegietako bizimoduaren artean, ez bada eguraldia bera.

Urruntzeko politikak eragin zuzena dauka, eta eragin nagusia, presoan senitartekoengan. Ez da zaila ulertzen senitartekoei eragiten zaien inpaktua askoz okerragoa dela kondenak zenbat eta luzeagoak

izan eta familiakoak oso edadetuak edo umeak izan. Presoen familientzako, urruntzeko politikak kostu handia du bai beren barruan bai ekonomian, desgastea intentsua da, eta asko luzatzen da.

### 2.3. *Eragina gizartean*

Azkeneko urteetan egindako inkesta guztiek adierazten dutenez, ia euskal gizarte osoa presoak hurbiltzeko politikaren aldekoa da. Jarrera hori are eta gehiago nabarmendu da ETAk bere jarduna laga zuenetik. Garai politiko nahiz sozial berria finkatzeko oztopoa irizten dio jendeak urrunketari. Urrunketa-politika aldatzen ez den bitartean, euskal gizartean gatazkaren ernamuina ernaltzen ari da, eta ez dio elkarbizitza normalizatuari erabat gauzatzen uzten.

Urruntzeko politikaren ondorioak zaputz amaigabea besterik ez du sortzen euskal gizartean, inork ez daki noiz arte. Gogoan izan, 1989an aukera izan genuela politika hura aldatzeko. Horrek esan nahi du 35 urtetik beherako euskal herritarrek arazo honekin bizi izan direla kordea daukatenetik. Urrunketak ez dauka inongo eragin onik gizartean, eta, gainera, elkarbizitza normalizatua zurkaizteko oztopoa besterik ez da.

### 2.4. *Eragina politikan eta erakundeetan*

Gizartean gertatzen den bezalaxe, politikan eta erakundeetan ere urrunketak tentsioa eta larritasuna eragiten du, egunez egun, alderdien artean eta normaltasun politikoan. Eztabaida egunero dago presente udaletxe bakoitzean, lurralde historiko guztietako Batzar Nagusietan, Eusko Jaurlaritzan eta kaleetan (kartelak, afixak eta manifestazioak ikusten ditugu nonahi).

Hala, presondegiatako politika sektorialari orientazio jakina emateak (horren efektu errealek ezin dira oraindik objektibatu, preso dauden pertsonen familiei eragiten dien kalteaz aparte) etengabeko konbultsioa eragiten du Euskadiko politiketan nahiz erakundeetan. Urruntzeko politikaren fakturak, hortaz, kostu gehiegi eragin die gure politikei eta erakundeek.

## 3. Eusko Jaurlaritzaren jarrera hartzea

Urruntzeko politika, preso dauden pertsonak espetxe desberdinetan banatzea bezala ulertuta –beste modu batera esanda, presondegi bakar batean ez biltzea–, giza eskubideei ez dagokien bigarren mailako elementu bat da. Biltzea urruntzearen aurrean ez da per se espetxe desberdinetan banatzea baino politika egokiagoa edo desegokiagoa, beti ere espetxe horiek beren etxetik gertuen daudenak baldin badira.

Giza eskubideen eta gizatasunaren ikuspuntutik, garrantzitsua urruntzea da. Ehundaka kilometroen urruntzeak eragiten du sufrimendu gehigarria eta ez beharrezkoa presoen familiei. Gogoeta hauek oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzaren jarrera gai honi dagokionez ondorengoa da:

- Presoen familiek sufrimendu humanitario gehigarria eta bizi-, familia- eta ekonomia-higadura saihegarria eragiten dieten desplazamenduak egitera behartzen dituzten distantzietara urrundutako espetxeetan preso egotearen aurka dago Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritzak ez dauka, a priori, preso guztiak presondegi berdinean biltzearen ez aldeko ez kontrako jarrerarik. Zentzu honetan, une bakoitzean, askatasuna mugatzen duen zigorrarentzat helburu hezitzailea eta gizarteratzailearentzat egokiena izango den aukera defendatuko luke Eusko Jaurlaritzak.
- Presoek beren zigorrak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko espetxeetan betetzearen alde dago Eusko Jaurlaritza, eta salbuespenezko egoeran, kasu zehatzetan egoeraren batek aholkatuko balu, hauengandik gertuen dauden presondegiatan.
- Mailaz mailako ikuspegi batetik, presondegiatar mailakako berkokatze-prozesu baten lehen fasea Espainiako Gobernuarekin ahalik eta azkarren adostearen aldeko apustua egiten du Eusko Jaurlaritzak, non presoak beren etxerako distantzia geografikoa “zigortuen deserrotze soziala saihesteko” lege- eta espetxe-betebeharrarekin bateragarria izango den.

## 4. Euskal presoak Presondegiatan berkokatzeko irizpide-proposamenaren adierazpena

### 4.1. *Proposamen honen izaera*

Proposamen honek izaera irekia dauka. Tresna bat izan nahi du adostasuna bultzatzeko. Eusko Jaurlaritzak gai honen inguruan elkarrizketa zabaldu nahi du Espainiako Gobernuarekin. Horrekin batera, proposamen hau partekatu nahi du legebiltzarreko taldeekin, Nafarroako Gobernuarekin, maila jurridikoan lan egiten dutenekin, eta gizarte eragileekin. Elkarrizketa horretarako abiapuntua eta erreferentzia txosten hau izango litzateke.

Adierazi den bezala, Euskadiko eta Nafarroako preso guztiak bi komunitateen bost espetxeetan kokatzearen aldekoa da Eusko Jaurlaritza. Edonola, orain aurkeztzen den proposamenak Espainiako Gobernuarekin elkargunea eta adostasuna errazteko lehen fasea bultzatzean biltzen du bere garrantzi guztia.

#### 4.2. Berkokatze proposamenaren irizpidea

Euskal presoak Euskaditik 250 kilometrotik behera dauden hamar espetxeetan berkokatzea da proposamen honen lehen fasearen irizpidea.

ETArekin lotura duten presoak presondegia batean edo bitan elkartzeko ezin dela lagundu irizten dutenen ikuspegitik, irizpide-proposamen honek Espetxeen Lege Organiko Orokorren 12.1. artikuluan aurreikusitakoa betetzea ahalbidetzen du premisa honi eragin gabe.

Pertsona horien berkokatzea hamar presondegia hauetan antolaketaren ikuspegitik egokiena izango litzatekeen bezala egin zitekeen. Dena dela, Eusko Jaurlaritzak, iradokitzen du gutxienez erdiak Zabalako eta Iruñeko presondegietan koka litezkeela ondorengoaren antzeko banaketa eginez:

Presondegia	Preso-kopurua	Kilometro-kopurua
ZABALLA	100	-
IRUÑA	40	-
BASAURI	25	-
MARTUTENE	25	-
LOGROÑO	20	137
BURGOS	20	164
EL DUESO – SANTOÑA (Cantabria)	15	175
ZUERA (Zaragoza)	10	219
SORIA	7	230
DUEÑAS - LA MORALEJA (Palencia)	5	250

### 5. Proposamen hau ezartzeko arrazoiak

#### 5.1. Arrazoi etikoak eta politika-aurrekoak

Horrelako proposamen baten aurren-aurrenengo efektua, dudarik gabe, zera izango da, presoan familiakoak zuzenean eta berehala izugarritzko lasaitua hartuko dutela. Aita, ama, neba-arrebak, seme-alabak eta hurbileko jende asko, inongo deliturik egin gabe, kartzelan daukatena ondo zaindu nahi izan dutelako (maitasunagatik eta eginbehar moralagatik). Hurbiltze hau gizalegezkoa litzateke. Etikagatik, politikaren aurretik ere.

#### 5.2. Legezko arrazoiak

Ez dago legezko inongo oztoporik preso dagoen jendea etxe inguruko presondegietara hurbiltzeko prozesua martxan jartzeko. Alderantziz, legeak berak aurreikusita dauka Espetxei buruzko Lege Organiko Orokorren 12.1 artikuluan, esanez espetxeetako administrazioak ahalegina egin behar duela presoek beren gizartetik at gera ez daitezela. Arauen interpretazioa "arau horiek aplikatu behar diren garaiko errealitate sozialaren arabera" egin behar da. ETAK indarkeria utzi izanak eta preso ia guztien adostasuna erabaki honekin errealitate soziopolitiko berria eta elkarbizitza berria ekarri ditu. Terrorismoa amaitu eta bakea finkatzen ari den garai honetan, presondegietan ere normaltasuna ezarri behar da, legeak horretarako eskaintzen dituen aukerak baliatuz.

#### 5.3. Arrazoi sozialak eta elkarbizitzaren ingurukoak

Zigorretan zein presondegietan normaltasuna behar dela denok aitortzen dugu, eta horiek falta izateak, berriz, distortsioa dakarrela. Nahi demokratikoa da zigor- eta espetxe-normaltasuna ezartzea, gure gizarteko elkarbizitza normalizatzen asko lagunduko lukeelako. Gizartean, politikan eta erakundeetan elkarbizitza lortzeko daukan garrantziagatik, funtsezkoa da Euskadin, espetxe-politika orientatu eta aplikatzeko, jende eta alde askoren adostasuna lortzea. Urruntzeak elkarbizitza distortsionatzen du. Hurbiltzeak gizartean, politikan eta erakundeetan adostasun ugaria ekartzen du.

#### 5.4. Birgizarteratzearen arrazoia

Denboraren joanean ikasi dugu presoak urruntzeak ez duela inondik ere zigorraren helburu gizarteratzailea bultzatzen, are gehiago, baztertu eta geldiarazi egiten duela. Gaur egungo testuinguruan, terrorismoa behin betiko lagatzea irmoa denez, hau da, ez dagoenez arriskurik berriz gertatzeko, hurbiltzeak presoak bere gizartean hobeto txertatzea ekarriko luke, eta memoriari buruz eta iraganaren gogoeta kritikari buruz piztuta dagoen eztabaida konektatuko luke. Horrek gizarteratzeari izugarritzko bultzada emango lioke, eta konstituzioak funtsezko eskubidetzat eta zigorraren helburutzat jotzen du gizarteratzea.

2017ko martxoa